

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aramaio



Aurkibidea

Udalerria: Aramaio

Sarrera



Araba iparraldeko herria da eta Gorbeialdeko Kuadrillako udalerria. Hala ere, Debagoieneko herriekin hartu-eman handia izan du urteetan zehar eta, hizkeraz ere, senide estu ditu Debagoieneko hizkerak. Bederatzi auzo ditu: Arexola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Ibarra, Oleta, Untzilla eta Uribarri. Horien artean azpimarratzekoa da Oleta, Otxandiotik hurrean egonik, historiaz eta hizkeraz berezi samarra baita, Otxandiotik gertuagokoa.

Argazkia: [Gorbeialdeko Kuadrilla](#).

- **Biztanleak:** 1.500
- **Euskaldunak:** %82,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **110**
- Zintak: **130**
- Pasarteak: **1.228**
- Transkribatutakoak: **139**
- Audioak: **143**
- Bideoak: **1.043**

Proiektuak

- AED elkarte
- Arabako euskara
- Aramaioko ahotsak
- Aramaioko euskara
- Aramaioko ipuinak eta kondairak
- Aramaioko sineskerak eta ohiturak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gasteizko Euskararen Ahotsak
- Gazte gara gazte
- IRALE
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Loramendi Euskara Elkarte

Hizlariak

Euxebi

Euxebi; Salgo baserria (Salgo).

Maria Jose Abarrategi Irasuegi (1936)



Gureia auzoko Jaurinagusi (Jaureginagusi) baserrian jaio zen. Ama auzoko Akixo baserrian jaio eta familiarekin Jaureginagusira bizitzera etorritakoa zen. Aita, berriz, Arrasateko Garagartza auzoko Bostarte baserrikoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Auzoko eskolan ibili ondoren, 13 urterekin Bergarako Aranerreka auzoko Ubesarri baserrira joan zen neskame. Sei urte han eman eta gero Bergarako Otazua etxean jarraitu zuen neskame. Labe Garaietako ingeniari Don Jose Maria Agirreren etxean ere jardun zuen lanean bi urtez, eta baita Bergarako albaitariaren etxean ere. Gerora, neskame lanak utzi eta Aramaioko "Textil" lantegira joan zen urtebeterako. Arrasateko Elma lantegian beste zazpi urtez jardun eta gero, ezkondu egin zen, Bergarako Jose Maria Larrañagarekin. Bost seme-alaba dituzte. Bere ahizpa Rosaliarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Rosalia Abarrategi Irasuegi (1938)



Gureia auzoko "Jaurinagusi" (Jaureginagusi) baserrian jaio zen. Ama auzoko Akixo baserrian jaio eta familiarekin Jaureginagusira bizitzera etorritakoa zen. Aita, berriz, Arrasateko Garagartza auzoko Bostarte baserrikoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Zazpi urte zituenean auzoko "Gatzikarro" (Gatxekoarro) baserrira bidali zuten neskame, umeak eta ganadua zaintzera. Urte eta erdiz egon zen bertan. Eskolara oso gutxi joan zen, baina bere aita eskoladun gizona zen eta hark irakatsitakoak ikasi zituen Rosaliak. Baserri lanetan ere gizonen pare jarduteko gauza zen. Bizi osoa eman du bere jaiotetxean, umeak eskolaratzeko Arrasaten eman zituen urte batzuk salbu. Altzaga auzoko Enrikena baserriko Juan Balanzategirekin ezkondu eta Jaurinagusi bere jaiotetxean bizi izan dira ordutik. Lau seme-alaba dituzte. Bere ahizpa Maria Joserekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Eustakia Agiriano Zuazua (1924)



Suñia auzoko Palazio baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Aretxabaletako Egilor baserrikoa zen. Bost seme-alaba izan zituzten, Eustaki gazteena. Untzillako eskolara joan zen zazpi urtetatik gerra hasi zen arte, Julia maistra burgostarrarekin. Gerra ostean jarraitu zuen eskolan aldi batean, Mikaela Portilla maistrarekin. Bizi guztia eman du jaio zen baserrian. Aretxabaletako Isurieta auzoko Olabe baserriko Antonio Zubizarretarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba dituzte.



Bizente Agirre (1922-2006)

Uribarri

Manex Agirre Arriolabengoa (1982)



Manex Donostian jaio zen 1982ko martxoaren 19an, baina Aramaion bizi izan da betidanik. Aramaiokoa du ama eta Alegiakoa aita, eta bi senidetan zaharrena da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta Euskara teknikari moduan dihardu lanean gaur egun, Zuiako kuadrillan. Bertsolaria ere bada Manex, eta bertso eskolako irakasle moduan ere badabil. Aramaioko beste bertsolari batekin batera elkarriketatu genuen, Andere Arriolabengoarekin. Biak dira koadrila berekoak, biak guraso, eta euren ofizioei, eguneroko martxari, hizkuntza kontuei, koadrilari eta bertsolaritzari buruz hitz egin ziguten, beste hainbat konturen artean.



Maria Pilar Altuna (-2006)

Barajuen

Miren Altuna (1918)

Ibarrako Iturroste kale-baserrian jaiotakoa.



Nicolasa Altuna (1929)

Barajuenen jaioa; gurasoak ere bertakoak.

Martina Altuna Eguren (1931)



Barajuen auzoko Orunanagusi (Txoriena) baserrian jaio zen. Ama bertakoa zen; aita, berriz, auzo bereko Iturbe baserrikoa. Azkoaga auzoko eskolan ikasi zuen, Don Lorenzo maisuarekin. Eskola bukatu eta josten ikasi zuen kalean. Gero neskame joan zen Aretxabaletara, Zubia jaunaren, Azbe lantegiaren ugazabaren, etxera. Lau urtez neskame jardun eta gero, Aramaiora itzuli eta handik gutxira ezkondu zen Arriola auzoko Erdikotxiki baserrira, etxeko Julio Asperekin. Seme bi dituzte. Elkarrizketa senarrarekin batera egin zitzaion.

Juanito Arana

Felisa Arana Urzelai (1929)



Bere jaiotetxean bizi da ahizpa Margarirekin. Aita zapataria zuten eta eurak jertse eta puntuzko jantziak egitea izan dute ogibide.

Margarita Arana Urzelai (1925)



Bere jaiotetxean bizi da ahizpa Felisarekin. Aita zapataria zuten eta eurak jertse eta puntuzko jantziak egitea izan dute ogibide.

Dionisio Aranguren (1899-1994)

Maria Arriaran Larrañaga (1925)



Oñatiko Txarraskuena kale-baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Arrasateko Uribarri auzoko Mendietxebarri baserrikoa zen. Sei seme-alabetatik Maria zen zaharrena. Aitak banastagintzan jarduten zuen etxean. Oñatiko eskola nazionaletan hasi zen, eta Arrasateko mojetan jarraitu zuen amaren jaiotetxera bizitzera joan zenean. Eskola bukatu eta Mendietxebarri geratu zen baserrian lanean, harik eta Aramaiora ezkondu zen arte. Lehenengo umea jaio eta senarra istripuz hil zitzaion. Bere senarra zenaren anaia batekin berriro ezkondu eta bost ume izan zituen.



Angel Arriolabengoa (1932)

Teresa Arriolabengoa (1913-2002)

Teresa Arriolabengoa (1913). "Agustinena" baserria; Uribarri.

Andere Arriolabengoa Bengoa (1982)



Aramaion jaioa da Andere, 1982ko ekainaren 3an, eta Aramaion bizi izan da betidanik. Bi senidetan zaharrena da eta ama Otxandioarra eta aita Aramaiokoa ditu. LAB sindikatuko abokatua da lanbidez, bertsolaria, eta ama. Hurrei bertso eskolak ematen ere badabil. Manex Agirre koadrilako lagunarekin elkarrizketatu genuen, eta hainbat kontu ibili zuten mintzagai Aramaioko Kultur Etxean egin genien elkarrizketan: norberaren lanbidea, eguneroko martxa, seme-alabak, parkeko kontuak, euskara, koadrila eta bertsolaritza, besteak beste.



Eusebio Arriolabengoa Mendizabal (1925)

Barajuen auzoko Bentamotz baserrian jaio zen, eta bertan bizi da bere lobarekin.



Luzia Arrizabalaga Irasuegi (1923)

Aramaioko Arexola auzoan jaioa, ezkondu eta Barajuen auzoko Bentamotz baserrira joan zen, ondoren Arrasatera. Etxekoandrea da.

Maria Arrizabalaga Irasuegi

Aramaioko Zabola auzoan jaioa, bertan bizi da.

Julio Aspe Beitia (1928)



Arriola auzoko Erdikotxiki baserrian jaio zen, 12 anai-arrebatatik gazteena. Aita Azkoaga auzoko Salturralde baserrikoa zen; ama, berriz, Salgokoa. Udaletxe gaineko eskolan hasi zen zazpi urterekin. Gerran eskola eten egin zen, eta gero udaletxean jarraitu zuen harik eta bainuetxeko eskola berria eraiki zuten arte. 14 urterekin bukatu zituen eskolok. Baserrian bizi izan da bizi guztian. Ikazkin, idiekin garraioan eta era guztietako basolanetan jardun zuen, harik eta 35 urterekin, baserria zainduaz bat, Arrasateko Elma hodi lantegian hasi zen arte. Bertatik jubilatua zen. Barajuen auzoko Orunanagusi (Txoriena) baserriko Martina Altunarekin ezkondu zen. Seme bi dituzte. Gerra denborako hainbat kontu azaltzen ditu. Elkarrizketa emaztearekin batera egin zitzaion.

Felisa Aspe Larrañaga (1921-2004)

Azkoaga auzoan jaio zen 1921ean. Bederatzi ana-arreba ziren. Hamahiru urterekin neskame lanetan hasi zen, eta gero jatetxeetan lan egin izan zuen. Azkenean, Bartzelonara joan zen lanera, jatetxe batera. Gero, hango sukaldariak eta biek euren jatetxea ireki zuten. Katalan batekin ezkondu zen eta lana utzi zuen, senarrak ez baitzuen nahi berak lan egitea. Hogeta zazpi urte Bartzelonan egin ostean, Aramaiora itzuli zen.

Julian Astola Argoitia (1926-2011)



Oleta auzoko Goikoetxea baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama lekeitiarra zen. Zazpi anaietatik seigarrena izan zen Julian. Gerra denboran bere hiru anaia zaharragoak Loiola eta Mungia Batailoitan borrokatu ziren. Gero “Batallón de Trabajadores” en zigortuak izan ziren. Julian zortzi urterekin auzoko eskolan hasi zen don Luis maisuarekin. 13 urterekin eskola utzi zuen, Gasteizera morroi joateko. Ortu lanetan eta barazkiak azoka eta dendetara banatzen aritu zen urte pare batez. Etxera itzuli zen gero eta bertan geratu. 37 urterekin etxeko abereak kendu eta auzoko Eulasa lantegian hasi zen lanean. Bertan hartu zuen erretiroa. Igorre herriko Etxebarri baserriko Maria Begoña Iriondorekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. 1979. urtean, etxean egokitze lanak egin ondoren, Goikoetxea Jatetxea ireki zuten.

Rufina Astola Nafarrate (1929)



Aramaioko Ibarako Errotabarria baserrian jaio zen. Zazpi anai-arrebatatik nagusiena da. Ama etxekoa zen eta aita Olaeta auzoko Artola baserritik etorri zen. Zazpitik hamalau urte arte, ahal zuenetan, eskolara joan zen. Bergarako Gaspar tabernan sukaldari lana ikasten ibili zen hiru hilabeteetatik aparte, baserrian egin zuen lan ezkondu zen arte. Azkoaga auzoko Dukeena baserrira ezkondu zen 24 urterekin, etxeko Kalistorekin. Sei seme-alaba izan zituzten.

Kalistro Astondoa



Jose Antonio Balanzategi

Azkoaga

Ana Mari Balanzategi Unzueta

Zabola auzoko Txamarga (Garaikoazpi) baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen, eta aita Altzaga auzoko Enrikena baserritik etorritakoa.

Fermina Balanzategi Unzueta (1936)

Zabola auzoko Txamarga (Garaikoazpi) baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen, eta aita Altzaga auzoko Enrikena baserritik etorritakoa.

Sebastiana Balanzategi Unzueta (1929)



Zabola auzoko Txamarga (Garaikoazpi) baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen, eta aita Altzaga auzoko Enrikena baserritik etorritakoa. Bederatzi anai-arrebatatik, Sebastiana zen nagusiena. Azkoagako eskolan ibili zen sei urtetik hamabira arte, don Lorenzo Martinez maisuarekin. Txamargan lihoa ereiten eta haritzen ezagutu zuen Sebastianak. Hamabi urterekin josten ikasten hasi zen, baserririk baserri jostun lanetan aritzen zen Benita Madinarekin. Gero, Arrasateko "Corte y Confección" eskolan ikasi zuen. Baserrian josten ere egiten zuen, eta udatan Gasteizko "Parador Antonia"n egin zuen lan, ezkondu zen arte. Jerardo Salaberriarekin ezkondu zen kalera. Etxean josten jarraitu zuen eta hiru alaba hazi ditu. Senarrak lehengo "Tejeduria" lantegian egiten zuen lan.

Ines Beitia (1929)

Arexola ("Aixola") auzoko Untzena baserrikoa. 6 anai-arreba ziren. Uribarritik kalera joaten zen eskolara eta gero berriz Uribarrira doktrina ikastera. Gaztea zela osaba baten etxera joan zen bizitzera eta hantxe hazi zen.



Isabel Beitia (-2008)

Uribarri



León Beitia (-1998)

Uribarri



Pío Beitia

Uribarri

Joxe Beitia Oruna (1920-2010)



Azkoaga auzoko Alzagazpikoa (Altzazpi) baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Eguzkierripa auzoko Maskaiño baserrikoa zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Sei urtetik hamalaura arte, ahal zuenean, auzoko eskolara joan zen, don Lorenzo maisu zela. 30 urterekin Arrasateko Zerrajeran hasi zen lanean. Zerrajera itxi zutenean hartu zuen Joxek erretiroa. Azkoagako Labiena baserriko Mercedes Asperekin kalera ezkondu zen.

Maria Angeles Beitia Oruna (1918)



Altzaga auzoko Altzazpi (Altzagazpikoa) baserrian jaio zen, bederatzi anai-arreben artean bigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama Eguzkierripa auzoko Maskaiño baserrikoa. Azkoagako eskolara joan zen ahal izan zuenetan, eta hamalau urterekin Madrilén zuen izeba baten etxera joan zen. Erdara ikasi eta gero eskolatu egin zen Madrilén. 1936. urteko uztailaren hasieran oportetean etxera etorri eta gerrak bertan harrapatu zuen. Gerra denboran bai milizianoekin gerra hasieran, baita geroago nazionalekin ere, etxean ondo konpondu ziren. Añibarrí baserritik Argentinara joan eta aberastuta itzuli zenaren seme batekin, Jose Maria Azpiasurekin, ezkondu zen Barajuen auzoko Barrauts baserrira. Altzazpin gurasoak bakarrik gelditu zirenean, familiarekin jaiotetxera itzuli zen eta bertan jarraitzen du bizitzen. Lau seme-alaba ditu.



Tomasa Bengoa (-2007)

Arejola

Jose Luis Bengoa Etxebarria Rojo (1930)



Arexola (Aixola) auzoko Kerizti baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Arraga (Arra) auzoko Araburu baserrikoa zen. Sei seme-alaba izan zituzten. Zazpi urterekin hasi zen eskolan, gaur egun Zubiondo Elkartea dagoen lekuan. Gero udaletxeko goiko solairuan jaso zuen eskola, harik eta eskola berria eraiki zuten arte. 13 urterekin bukatu zuen eskola. 16 urterekin hasita, Arrasateko Zerrajeran jardun zuen lanean jubilatatu zen arte. Jose Luis ezkongabea da.



Emeterio Bergaretxe Elortza (-1999)

Etxaguen auzokoa. Aramaioko euskara jasotzeko egindako elkarrizketan Maria Luisa Etxeberria eta Gregoria Elorzarekin batera elkarrizketatu zen.

Juan Andres Elejalde



Jesus Mari Elejalde Plazaola

Azkoaga auzoko Saturralde baserrian jaioa. Seminarioan ikasia, 24 urterekin abade egin eta Ekuadorren egon zen 6 urtez. Harrezkero Aramaio eta Gasteiz artean bizi izan da.

Patxi Elejalde Plazaola (1930)



Azkoaga auzoko Salturralde baserrian jaio zen. Hamaika anai-arrebatatik nagusiena zen bera. Aita bertakoa eta ama Basagoiti (Basauti) kale-baserrikoa zen. Azkoagako eskolan hasi zen gerraostean Valladolideko maisu batekin. Gau-eskolak ere jaso zituen, auzoko don Felipe Tolosa abadearekin. Soldadutza aurretik hasita, 21 urtetan zehar, ile eta bizar-apaintzaile lanetan jardun zuen; Aramaioko Txatxurrena ile-apaindegian, Santa Agedako ospitalean, eta bere kontu azken urteetan. Horrez gain, Zerrajeran zazpi urte eta Fagorren beste 30 ere eman zituen lanean. Uribarri auzoko Uribarrigañekoa baserriko Sebastiana Mondragonekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Santi Elejalde Plazaola (1933)

Azkoaga auzoko Saturralde baserrian jaioa.

Domeke Elexpuru Altube (1919-2015)



Aramaioko Ibarragoiko Mugertza baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen eta aita Etxaguen auzoko Labeagabekoa ("Labia") baserrikoa. Bost seme-alaba izan zituzten, Domeke gazteena. Gaur egun Zubiondo Elkartea dagoen lekuan zegoen eskolara joan zen Domeke, sei urtetatik hamalaura arte, Julia Gurrpide maistra nafarrarekin. Aramaioko Euskal Dantza taldean dantzatu zuen 13 urte zituenetik 17 urte zituen arte, Esteban Arana dantza-maisuarekin. Gerra garaian Bilbora joan zen ahizpa baten etxera. Bilbo jausi zenean Frantziako Reims hirira egin zuten ihes. Anaia bat kartzelan eta beste bat "Batallón de Trabajadores"-en izan zituen. Gerra bukaeran, Aramaioko kaleak eta kuartela garbitzera zigortu zuten Domeke. Txoroko kale-baserrira ezkondu zen etxeko Andres Aginagalderekin. Bost seme-alaba izan zituzten.



Antonio Elorza

Arejola



Gregoria Elorza (-2003)

Etxaguen auzokoa. Aramaioko euskara jasotzeko egindako elkarrizketan Maria Luisa Etxeberria eta Emeterio Bergaretxerekin batera elkarrizketatu zen.



Maria Elorza (1928-2020)

Gantzaga

Felix Elorza Loidi (1936)



Arriola auzoko Erdikoa (Ereduena) baserrian jaio zen. Aita Arexola auzoko Perurena Baserrikoa zen, eta ama auzo bereko Makillena baserrikoa. Hamaika seme-alabetatik seigarrena zen Felix. Arexolako Abatetxeko eskolara joan zen. Aramaioko bainuetxean, don Joakin Bikuña eta bere emazteak ematen zituzten eskola partikularrak jaso zituen. Zazpi urtetik hamabira arte morroi egon zen Arriola auzoko Bengoa baserrian. 16 urterekin bidegintzan jardun zuen, eta hamazazpirekin Arrasateko Zerrajeran hasi zen lanean. Lantegiko Aprendiz Eskolan elektrizitate ikasketak egin zituen. Zerrajeran jubilatu zen.



Juanita Errasti (1930)

Aramaion jaioa, gurasoak Barajuengoak. Argingoa baserrian bizi da.



Marcelina Errasti

Uribarri

Felipe Errasti Ugarte (1929)

Azkoaga auzoko Induspebekoa baserrian jaioa 1929an. Bertan bizi izan da urte askoan. Marokon egon zen soldadutza egiten.



Maria Etxebarria Altuna (1930)

Ametzu (Ametzua) baserrian jaioa, kalera bizitzera etorria. Neba-arrebatatik zaharrena. Ezkonduta dago eta etxecko andrea da.

Fermin Etxebarria Elorza (1928)



Arraga (Arra) auzoko Arragaburu baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Arriola auzoko Erederonena (Ereruena) baserrikoa zen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, Fermin zaharrena. Udaletxean zegoen eskolan hasi, zubi gainekoan jarraitu eta bainuetxe zaharrean zegoenean bukatu zituen eskolak. Baina gau-eskolan ikasi zuen gehien, don Joakin maisu arabarrarekin. Baso lanetan jardun zuen zazpi urtez. Hortik aparte, baserrian eman du bere bizi guztia. “Araburuko pastorea” bezala ezagutzen dute Fermin Aramaion. Gerra denborako kontu asko azaltzen ditu.

Maria Luisa Etxebarria Elorza (1932)



Arraga (“Arra”) auzoko Arragaburu baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Arriola auzoko Erederonena (“Ereruena”) baserrikoa zituen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Seitik 14 urtera bitartean Bainuetxe zaharreko eskolan ikasi zuen, baina tartean Etxaguen auzoko eskolan ere ibili zen urtebetez, auzoko ume batzuk zaintzen zituen garaian. Ezkondu aurrean Bergarako Gaspar jatetxeko sukaldean jardun zuen lanean hilabete batzuetan. Barajuen auzoko Bolinburu baserrira ezkondu zen, bertako Txomin Erizekin. Lau seme-alaba izan zituzten.

Maria Luisa Etxeberria



Etxaguen auzokoa. Aramaioko euskara jasotzeko egindako elkarrizketan Gregoria Elorza eta Emeterio Bergaretxerekin batera elkarrizketatu zen.

Elias Galartza Aranguren (1935)

Eliasek 17 hilabete zituela, gerra denboran, erre zen Goikoetxe baserrian jaio zen, Oleta auzoan. Familia Aurtola auzuneko Martena eta Kortazarrena baserrietan banatu zen orduan. Geroago eskola zaharreko etxea erosi eta baserri bihurtu zuten. Sei urtetik hamabira auzoan eskolatu zen. Gero bi urtez Otxandion ikasi ondoren, Gasteizko "Escuela de Aprendices Diocesana"n ofizialtza mekanikoa ikasi zuen.



Eibarko Atxa lantegian dentista eta bizarginentzako besaulkiak egiten jardun zuen bi urtez. Eskopeta industriara pasatu eta Eibarren, Otxandion eta bere etxean prestatutako tailer batean ere egin zuen lan.

Eskopetagintzak porrot egin zuenean, Otxandioko Aulasa lantegian bost urtez jardun eta gero, bere familiarekin Bizkaira joan zen. Zaratamo herriko "Pradera Hermanos"en egin zuen lan erretiroa hartu arte. Beste lankide eta lagun batzuekin auzolanean, Basauriko lehen ikastola jarri zuten martxan 1972-73 urteetan, eta bertan eskolatu ziren bere alabak. Amurrioko Maria Pilar de Llano Aranarekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten.

Kontxi Garaitonandia Kortabarria (1936)

Zabola auzoko Etxaluze baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen eta aita auzo bereko Arrieta (Arritxe) baserritik ezkonduakoa. Lau anai-arrebatik zaharrena zen Kontxi. Azkoagako eskolan ibili zen sei urtetik hamalaura arte, don Lorenzo maisuarekin alditxo baten eta Señorita Dionirekin gero. Hamasei urterekin Oñatiko Juanito Arregiren etxera joan zen neskame. Etxeko lanetan jardun zuen, baita lantzean behin familiaren Onena markako txokolate-tailerrean laguntzen ere. 22 hilabete han pasatu ondoren, anaia gaixotu eta etxera itzuli zen. Harrezkero bera jaio zen baserrian bizi izan da. Uribarri auzoko Aurreko baserriko Bixente Errastirekin ezkondu zen etxera. Lau alaba dituzte.



Benedi Gardoki (1933-2009)

Benedi Gardoki (69). Salazan baserria.

Nikolas Gardoki Mazmela (1938)



Eguzkierripako Arana baserrian jaio zen. Aita auzo bereko Ametzua baserrikoa zen, eta ama Untzilla auzoko Antxikokoa (gaur desagertua). Sei seme-alaba izan zituzten. Zortzi urterekin hasi zen baiñuetxeko eskolan. Hamabi urte arte, eskolako lanik handiena udaletxerako eta okindegirako egurra txikitzea izan zuen. Gero, hamalau urte arte don Joakin maisuarekin ikasi zuen eskola apur bat. Umetan hasi zen solfeoa ikasten. Soinua jotzen ikasi zuen, Felix Ugalderekin lehenengo, eta Angiozarko itsuarekin geroago. Hamazortzi urterekin ekin zion Aramaioko plazako erromeria alaitzen bere soinuarekin. Harrezkero, hainbat herriko eta auzoko jaietan edota ezkontzatan jo izan du soinua, bizi guztian zehar. Hamalau urterekin Arrasateko Zerrajera lantegian hasi zen lanean eta bertan hartu zuen erretiroa. Barajuen auzoko Arratabe (Artabe) baserriko Rosario Errastirekin ezkondu eta hiru seme-alaba dituzte.



Juli Garitaonaindia

Azkoaga

Julian Goikoetxea (1926)

Aramaioko Oleta auzokoa.

ARA-058 Hizlari ezezaguna

Euskal Filologiako ikasle batek egindako grabazioa.

ARA-122 Hizlari ezezaguna

ARA-136 Hizlari ezezaguna



Faustina Ibabe Errasti (1934)

Uribarri auzoko Zubitta auzoan jaioa. Ezkondu eta kalera joan zen bizitzera. Etxekoandrea da.

Juana Ibabe Errasti (-2009)

Juana Ibabe (1923). Maskariano baserria; Eguzkirripa.



Patxike Ibabe Errasti (1932)

Uribarri auzoko Zubieta gaineko ("Zubittagaiñeko") baserrikoa. 22 urterekin moja joana.



Enrike Ibabe Ortueta (1938)

Uribarri auzoko Zubietagañekoa baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik bigarrena. Aita bertakoa zuen, eta ama auzo bereko "Gurixa" (Gureia) baserrikoa. Zortzi urterekin, auzoko eskola eraiki berrian hasi zen ikasten. Txakur handi bateko (pezetaren 10 zentimo) zigorra izaten zuen euskaraz berba egiten bazuen. Kaleko gau-eskoletara ere joaten zen. 26 urterekin, Amat lantegian hasi zen lanean; baserria alde batera utzi gabe. Otxandioko Maria Angeles Garaterekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.



Valentin Ibabe Zubizarreta (1918-2018)

Eguzkierripa auzoko Ibabe baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Azkoaga auzoko Zabaldia baserrikoa. Gerra denboran mandazain ibili zen frontierik fronte bi urtez, eta gero beste lau urtez Marokoko Xauen-en soldaduska bukatu arte. Etxera argindarra berak lau urte zituela ekarri zen, Araneko erroetatik. Unanuek geroago jarri zuen zentralari buruzko azalpenak ematen ditu. Ikazkintzan eta baso lanetan jardun zuen harik eta 36 urterekin "Talleres de Precisión Mondragonés" lantegian hasi zen arte. Lantegi honetan hartu zuen erretiroa.



Domingo Iriarte Astola (1927-2012)

Suñá auzoko Sakona baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen; ama, berriz, Untzilla auzoko Uxarte baserrikoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Auzoko eliza ondoko eskolan hasi zen sei urterekin. Gerra denboran ez zen eskolarik izan, eta gerraostean gutxitan joan ahal izan zuen eskolara. Arrasateko Kataide inguruan gerra aurretik zegoen "Mosaicos Omu" lantegian jardun zuen hiru urtez, baldosak eta harraskak egiten. Gero, Aretxabaletan igeltsero zebilen bere anaia batekin lanean hasi eta 18 urtez etxegintzan aritu zen, baserria zainduaz bat. Suñako etxe batzuk zuritzen edo ukuiluetan askak egiten ere jardun zuen. Gerra denborako hainbat kontu azaltzen ditu. Aretxabaletako Korueta (Goroeta) auzoko Markitegi baserriko Maria Antonia Errastirekin ezkondu zen.



Petra Isasmendi Agirre (1931-2005)

Petra Isasmendi (1931); Uribarri

Juan Ander Jauregi (1917-2006)

Juan Ander Jauregi (1917). Goikoerrota baserria; Eguzkirripa.



Patxi Jauregi (-2002)

Uribarri

Timoteo Jauregi Loiti (-2002)

Timoteo Jauregi Loiti (78). Aixola.

Pedro Karetxe Urrejola (1930)



Oleta auzoko Katxelena (Dukiena) baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik zaharrena. Baserriaren “Dukiena” ezizenaren jatorria azaltzen du. Aita bertakoa zuen eta ama Otxandioko Anteparaluzeta auzokoa. Gerra Zibila Oletara heldu zenekoa ondo gogoratzen du eta baita honen inguruko azalpenak eman ere. Gerraostean hasi eta 14 urtera arte ibili zen eskolan, auzoan bertan. Bizi guztia eman du baserrian, ganadua eta ardiak zaintzen. Otxandioko Mekoleta auzoko Maria Nieves Ibarrondorekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten.

Bizenta Kortabarria (1912)

Zabolako Etxaluze baserrian jaioa, ama Ibarrakoa zuen eta aita bertakoa.

Iñaki Larrañaga Vitoriano (1915-2010)



Gantzaga auzoko Urdungio baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Gasteizko babes-etxekoa zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Auzoko elizpean hasi zituen eskolak bertako abadearekin. Primo de Riverak aginduta, auzoko eskolak kendu eta kalean ikastera behartu zituzten. Eskolan piper egiten zuenean, diru-isuna jartzen zieten. Durangoko Jesuiten eskolan urte betez egin zuen lan, sukalde-laguntzaile. Gerran Santanderren harrapatu eta "Batallón de Trabajadores" en jardun zuen gerra bukatu zen arte. Etxean egin du beti lan; idiekin garraio lanetan ere diru apur bat irabazten zuen. Etxaguen auzoko Urruti baserriko [Marina Padilla](#) rekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten.

Mauri Lasaga Belategi (1922)



Barajuen auzoko Iparralde baserrian jaio zen. Zazpi urte zituela, familia etxez aldatu zen Azkoaga auzoko Iturralde baserrira. Bederatzi anai-arrebatatik laugarrena izan zen Mauri. Gerra hasi zenean Eskoriatzan neskame lanetan ziharduen. Gerran milizianoek aita etxetik eraman zuten egun batean, eta betirako desagertu zen. Aramaioko "Kuranderiaren" seme Imanolekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Koinata Jaione Ormaetxearekin azaltzen da grabazioan.

Domingo Lopez de Vergara Ortueta (1929)

Maxima Madina (-2008)

Maxima madina (78). Santiago baserria; Gureia-Uribarri.

Patxi Madina Bengoa (1915)



Zalgo Garai baserrian jaio zen 1915ean. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Arrazolakoa "Keizti" baserrikoa. 5 anai-arreba ziren. 28 urte ingururekin Itturritta baserriko Euxebirekin (1915) ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten.



Marimar Marina

Uribarri

Kepa Mondragon Jauregi (1934)



Uribarri auzoko Uribarrigaineko baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama Arexola (Aixola) auzoko Peruena baserrikoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten, Kepa hirugarrena. Seitik bederatzi urtera arte kaleko eskolan ikasi zuen. Gero auzoko eskola berrian jarraitu zuen, gaur Intxaurrondo Elkartea dagoen lekuan, Maria Anjeles maistra eibartarrekin. Gau-eskolak ere hartu zituen. 34 urte arte baserrian egin zuen lan. Horren ondoren, Lana Kooperatiban hasi eta geroago Fagor-en jardun zuen lanean erretiroa hartu arte. Gantzaga auzoko Garratz baserriko Karmen Elorzarekin ezkondu eta bi ume izan zituzten.

Eugenio Nafarrate Telleria (1913-2010)



Aramaion kalean jaio zen. Gero Ibarako Eduardorena baserrira joan zen bizitzera familiarekin. Aita kalekoa eta ama Elorrikoa zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Udaletxean zegoen eskolan jardun zuen, baina denbora gutxian. Gau-eskolak hartu zituen, ahal izan zuenetan. Aramaioko Zabola auzoko Garaikoa baserrian, Gantzaga auzokoko Linatzen eta Bergarako Osintxu auzoko baserri batean morroi jardun zuen. Gerra denboran anaia eta arreba bat Gasteizen preso izan zituen. Arrasateko Elma lantegian egin zuen lan. Gero Roneora pasatu eta bertan jardun zuen jubilatzen arte. Aramaion sakristau jardun zuen 30 bat urtez. Herriko zineko atezaina ere izan zen aldi batean. Eskoriatzako [Karmen Zurbanorekin](#) ezkondu zen eta bost seme-alaba dituzte.



Joxe Mari Ormaetxea


Aramaion jaioa, mende hasierako "kuranderia"-ren biloba. Gaur egun Arrasaten bizi da.



Felisa Ormaetxea Goitana (1928-2011)

Santa Agedan jaio eta Arrasateko Uribe auzoan bizi izan zen 12 urtetatik ezkondu arte. Grabazioa egin zitzaionean, Aramaioko Zabola auzoan bizi zen.

Jaione Ormaetxea Trojaola (1924)



Aramaioko "Kuranderiaren" etxean jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita Azkoaga auzoko Sarria baserrikoa. Hamaika anai-arrebatatik gazteena zen Jaione. Amonarengandik ikasita, ama Aramaioko "kurandera" ospetsua bihurtu zen. Aitak ehule jardun zuen. Gerra denboran, amarekin eta bi ahizpekin ihes eginda, Frantzian lau urte pasatu zituen. Hiru anaia kartzelan eta beste lau "Batallón de Trabajadores"etan zigortuta egon ziren. Arrasatera ezkondu zen eta sei seme-alaba ditu. Koinata Mauri Lasagarekin azaltzen da grabazioan.

Jacinto Ortueta (1924-2006)



Arexola elizateari atxikita dagoen Arriola auzoko Eliztarrena baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti.

Angel Otxandiano (1913-2002)

Marina Padilla Boveda (1917-2012)



Etxaguen auzoko Urruti baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Gasteizko babes-etxekoa zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Eskolan auzoko abadearekin hasi zen, eta gerora kaleko eskolara joan zen Bittori maistrarekin. Han doktrina irakasten zieten gehienbat. Sei hilabete eman zituen Gasteizen neskame lanetan. Bestela etxean egiten zuen lan, harik eta Urdungio baserrira ezkondu zen arte, etxeko [Iñaki Larrañaga](#)rekin. Bost seme-alaba izan zituzten.



Marcelina Ruiz de Azua Kortabarria (1918-2012)

Aixola auzokoa



Consuelo Salaberri Urzelai (1932-2009)

1932an jaioetakoa. Gurasoak ere aramaioarrak zituen. Tela-fabrikabn lan egin zuen 25 urtez. Ezkongabea.



Isidro Trojaola (-1997)

Barajuen.



Natividad Ugarte

Gantzaga

Basilio Ugarte Urrutia (1925-2014)



Gantzaga auzoko Liñatza baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Aretxabaletako Ametzaga baserrikoa zen. Hiru seme-alaba izan zituzten. Zazpi urtetatik hamabi urte zituen arte ibili zen eskolan auzoko abadeekin: don Ramon Etxanizekin lehenengo, eta azkeneko urteak don Jose Juaristirekin. Eskolak euskaraz jaso zituen, idazketa-irakurketa izan ezik. Durangoko jesuiten eskolara joan zen erdara ikastera. Sukalde-laguntzaile aritu zen bertan lanean. Soldadutza osterara arte etxean jardun zuen. Gero Arrasaten “Muebles San Josepe”, sukalde-altzariak egiteko tailerra, jarri zuen beste lagun batekin elkarlanean. Bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte. Ikazkintzan ere ibilitakoa da.

Rafael Unzalu (1939)

Juanita Unzueta

Ibarrako kale-baserri batean jaioa, bertan bizi da. Han egin du bizi guztia. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Cristina Unzueta Etxebarria (-2003)

Kristina Unzueta Etxebarria (77). Salazan baserria.

Julian Unzueta Etxebarria (1929)



Aramaioko Salazan (Salesan) baserrian jaio zen. Ama etxekoa eta aita Likinao (Likiñau) Aramaioko kale-baserretik etorritakoa zen. Bederatzi seme-alabetatik laugarrena zen Julian. Gerra hasieran aita milizianoekin joan zen idiekin garraio lanetara. Etxera itzuli zenean, espetxeratu egin zuten. Julian udaletxeko goiko solairuko eskolan ibili zen sei urtetik hamabira arte, (urtebeteko etenarekin, gerragatik). Hamasei urterekin hasita, basoan jardun zuen lanean soldadutzara joan zen arte. Bestela, bizi guztia eman du baserrian. Aldundiarentzat lanean ziharduela, Aramaioko alkate izendatu zuten. Zortzi urtez alkate izan ondoren, Aldundiko diputatu izatera pasatu zen. Eguzkierripa auzoko Arana baserriko Benedita Gardokirekin ezkondu zen.



Paula Unzueta Etxebarria (1926)

Salasan baserrian jaioa, joskin ikasia eta etxekoandrea.

Elias Uribarren

Elias Uribarren. Salgo baserria (Salgo).

Juan Mari Uribarren Leturiaga (1938)



Etxaguen auzoko Uribarrenbekoa baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Bizkaiko Atxondo herriko Arrazola elizateko Goikoane baserrikoa zen. Bederatzi anai-arrebatatik bosgarrena izan zen Juan Mari. Auzoko Abatetxean hasi zen eskolan, eta zazpi urterekin auzoan eraiki zuten eskola berrira pasatu zen, Pilar Montorio maistra zelarik. Hamalau urte arte eskolaratu zen. Baso lanetan asko jardundakoa da, baina bizi guztia eman du baserrian. Gaztaina sasoian gaztaina salmentan aritzen ziren, baina baserriko jarduera nagusia esne-behiarena izan zen. Lana Kooperatibaren sorreran parte hartu zuen Juan Marik. Azkoaga auzoko Urugu baserriko Maria Jesus Asperekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Antonio Uribarreniturrieta Bengoa (1917)



Arraga auzoko Iturrieta baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Arriola auzoko Bengoa baserrikoa zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Bederatzi urtetatik hamalaura arte, udaletxeko goiko solairuan eskolaratu zen. Eskolara piper egiten zutenean, diru isunak jasotzen zituzten. Urte bi eman zituen gerran, Euskal Herritik kanpo. Francoren lurreko armadako italiar konpainia batean borrokatu zuen. Gantzaga auzoko Urdungio baserriko Eburne Larrañagarekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan dituzte.

Juanito Uribe (1913)

Eusebio Urizar (1918-2005)

Eusebio Urizar (1918). Aranekoerrota baserria; Eguzkirripa

Felipe Urizar

Rosario Urizar Astola (1931)

Jose Mari Velez de Mendizabal Azkarraga (1949)



1949an jaio zen Aramaion. Amorebieta-Etxanon jaio zen bere aita, nahiz eta Arrasateko jatorria zuen aitaren aldeko sendiak. Ama berriz Bilbon jaioa zen. Izatez aguraindarrak zituen honek arbasoak. Lehen lau urteak Aramaion eman ondoren, Arrasatera joan ziren bizitzera. Uribarri-Ganboan etxea eraiki zuen aita eta hara ere asko joaten ziren. Donostian egin zituen Enpresaritz eta Ekonomia ikasketak, eta 1972an euskalduntzeko prozesua hasi zuen. Beizamako Urki baserrira joan zen ondoren euskara ikasten jarraituz. Arrasateko gau-eskolan euskara eskolak ematen ere ibil zen. Industriaren munduan murgildu eta Union Cerrajerako zuzendari kargua hartu zuen. 1979an bere lehen liburua argitaratu zuen, Sebero Altuberen biografia. Euskal Idazleen Elkartearen sortzaileetako bat da. Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuorde izandakoa. Eusko Ikaskuntzako kudeatzaile nagusia eta Eusko News aldizkari digitalaren eragileetako bat. Liburu eta artikulu mordoak argitaratu ditu. 2014an Urrezko Zeledoa jaso zuen. Aramaioko seme kuttuna ere izendatu zuten. Gaur egun bost blogetan argitaratzen ditu bere idatziak. [Gasteizko Ahotsak](#) proiekturako elkarriketatua, Gasteizko eta Arabako euskararen historia jasotzeko.



Julian Zabala (-2005)

Azkoaga.

Karmen Zurbano Egaña (1923)



Eskoriatzan jaio zen, kale-etxe batean. Aita Eskoriatzakoa eta ama Itziarkoa zen. Hiru urterekin Mertzedaria mojen eskolan hasi zen. 1937ko irailean, gerra sasoian, eskola apurtu zutenean bukatu ziren eskolok Karmenentzako. 19 urtetik 23ra arte Uribarren y Cía, (gaur Ezenarro y Cía), lantegian egin zuen lan. Gero Madrilera joan eta lau urtez neskame jardun zuen. Aramaiora ezkondu zen, bertako [Eujenio Nafarrate](#)rekin. Bost seme-alaba dituzte.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Antzinako ipuina: behia eta sugea

- **Hizlaria(k)**: Errasti, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: ARA-010/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:25. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amari entzundako ipuina. Auzoan bertan, baserriren batera suge bat joaten omen zen behiaren esnea edatera; sugea joaten ez zenean, behiak deitu egiten ziola esaten zen.

Transkripzioa

- Beste ... Entzunda daukazu zuk subien holan konturik e, ganauetara juaten zian subiak edo halako zeri eta?

- Entzunde dauket, gure amai entzunde dauket, e, gabien-gabien esnie eraten jueten zala. Hemen bertan, e? Hemen auzuen nunbaitten, etxen batera. Eta behixek, agiri ez zanian, orrue eitten auela.

- Haura etorri zain?

- Bai! Deittu eitten ei zotsen eta gero esnie eraten jueten ei zan. Hori, hori entzunde badauket, e?

- Ta hori zelan, zer, zer jueten zan edo zer...?

- Ba, etxe... Han egongo zan subioi ta, ba nozbaitten e, gustauko zan eta gero gustau eingo jakon. Eta gero behixe be, ba harek suabe egingo utsen eta, behixe be gustora eta, behixek deittu eitten utsela. Hori gure amai entzunde nau, e? Bere aittek-edo esaten auela. Ta gabien, aillegeta... agiri ez zanian, behixe orrueka hasten zala. Eta gero ensegira urteten auela

nunbaitetik subiorrek.

- Hari titittik esnia...
- Esnie eraten ei zutsen! Hori, hori entzune da, e?
- Bai, bai, bai!
- Egixe bada "bien", guzurre bada... "también"
- También!
- Baiñe gure amak esaten auen hori, e?

1.2. Eskolara gutxi

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-013/006
- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:05:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara gutxi joaten zen baserriko lanetan lagundu behar izaten baitzuen. Ibarako eskolara, kalera, joaten zen Felipe. Auzoko gainerako umeak, berriz, Azkoagako auzo-eskolara joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta eskolak be ahal daunien, ta gutxi ikasten geen. Eskolan oso gutxi. Leiruten ta eskribiduten ikesi ezkerro, ondo.
- Eta nun? Nun zekazuen eskolia?
- Gu juten giñen hara, Ibarra, kalera. Ta beste gaiñetiko auzokuek Azkoagan bertan.

1.3. Gabonetako jatekoak

- **Hizlaria(k)**: Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-016/018
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:22:53. **Bukatu**: 00:26:45
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabonetan aza, konpota eta bestelako janariak jaten zituen Mirenek. Gabon gaba eta Natibitate eguna etxekoekin ospatzen zituzten, eta etxeko oilaskoa eta kontserbatuta gordetako fruta batzuk jaten zituzten. Urteberri eguneko intxaur saltsa nola egiten den azaltzen du.

Transkripzioa

- G.: Eta gabonetan-ero, etxe zan zeoze espeziala?
- E.: Gabonetan, ba, jatorduek espezialak. Baña bestelan, e, jatordu, ba, afaldu izete zan, ba, azie. Ta gero, e, okela apurren bat, ta gero, konpota famosuoi.
- Eta zelan etxe zan kompota hori?
- Kompota? Ba, sagarra eote zien gordeta, gordeta orduko, arka eskiñan baten. Ta gero, orduen etxe zan, ba zea, jeneralmente izete zan ba azie,

a za egosixe, ta gero bakalaue, ta gero kompota. Ta kompota zela, ee, nosien be (behin?) jate zan, ba, zan “la gloria”.

- A zan onena?

- Ombre! Bai!

-Danak zaiñ?

- Danak zaiñ. Dana zaiñ.

-Eta gero, ee, ohitxuria-ero zein zan, ee, Gabonetan? Noiz, ee, zelebrazten ziran?

- Gabon gabien, beti gabon gabien.

- Eta Natibitxate egunien be bai?

- Bai, Natibittate egunin beti eote zan, ee, oi.. oi.. kapoi bat asitte o asitte etxien zertute. Orduko, e, zelebretako.

- Eta orduan be oingo moduan izango zan, ez? Jende mordua...

- Bai, etxeko, etxeko... juntau.

- Eta gero, Gabon-zaharrak eta Urte Barri txa...

- Baitte. Danak, danak. Baña ba, eote zien, ba, ollaskuek etxekuek ta, ba, frutie, ba, gor-gordeta, konserbauta, orduko. Makatzak, e, espezialak izete zien, arka eskiñan baten egongo zien gordetan amak. Zelebra...e? Bai.

- Gozuenak!

- Ombre!

- Eta hamen jate zan intxaursaltzaik?

- Baitta, baitta. Ta hori izan zan Urte Barri egunien.

- Urte Barrirako zan hori?

-Bai.

- Ta? Zelan etxe zan? Ze zan, gatxa?

- Ez! Lehelengo, ba, intxaurrek apurtu bitxuzu, ta haren artian gero izate zan garbiketia intxaurrek. Ez apurtu ta zertu. Gero esniaz egosi ta gero pasau. Esniaz ta kaneliaz egosi ondo, ta gero pasau ta ba. Ederra gañea!

- Bai, ez? Kompotia bezaiñ ona? Ero..

- Bixek, bixeri bakotxa berie. Bakotxa beri zan [onena].

- Eta karakolik eta?

- Karakolik hemen hambeste ez.

- Hamen ez?

- Bizkei aldien bai, baña hemen...ke ba, karakolak ez! Jeneralien hoixe, ollaskuegaz...hazitxe eote zien... bakotxa bere etxien.

- Gabonetarako.

-Gabonetako. Gero guk, e, ba, zelan erreteruek gitzen, ba, kapoiek usabendako.

- Eta, orduan Gabonetan, ogi espezialik-ero etxe zan, ero bardiña zan?

- Ez! Bardiñak! Etxien, jeneralien, ontxe dozuna, ee, obie jateko bezperan, Gabon bezperako zertu, Gabon bezperan laba-sua etxeko. Orduan, ba, han zera egoteko [...] egoteko.

- Gozuaua!

- Gozuaua, klaro. Hiru-lau egun barik, ba, bat. Atzokua, ba gaur jan.

1.4. Ogia astean behin

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:27:40
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Baserrietan bakoitzak bere ogia egiten zuen. Kanean okina zegoela gogoratzen du Mirenek, baina ogia astean behin egiten zen soilik.

Transkripzioa

- Orduan ogixa ze eitten zan, astian behin edo...?
- Jeneralien bai, astien behin. Astien behin, edo hamar egun be bai. Segun zelako... zenbat jente ziin, ta zelako laba-sue eitten dozun.
- Labia zuek basarrixan eukiko zenduen.
- Bai.
- Basarri bakotxak berana zekan, edo...?
- Bai, baserrixetan bai.
- Ta kalia?
- Kalien, [...] hemen aazen hiru, hiru... neba-arreba zien, ta hareik, ba, bateaz eitten eben. Baiña, bestela, jeneralien, bakotxak bera... Zortzi bat ogi, ta arto pare bat. Artue esniaz jateko.
- Armosatzeko?
- Armosteko, armosteko! Bai. Bestelan, ba, hoixe!

1.5. Kanpai desberdinak

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/028
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:41:01
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena:** Ibarrako elizan kanpaiak nolakoak izaten ziren azaltzen du Mirenek. Hiletetan emakumea, gizona edo umea zenean desberdin jotzen zuten.

Transkripzioa

- G.: Asko kambixau da hori?
- E.: Asko, asko.
- Aramaittakua noix izate zan?
- Aramaittakue, ba, illunkeratxuen. Kampaia jote zitxuen.
- Kampai klasiak asko egongo ziran lehen, ez?
- Asko, asko.
- Zeintzuk ziran? Gogoratzen dozu? Goxian jotzen zan espezialik?
- Bai. Goxien meza ostien, ba, uran, horrei-kanpaie.
- Zelan?
- Horrei-kanpaie... "de esto, de tormenta". Hoi izate zan "tres de mayo al treintayuno de, de agosto, de setiembre". Ta hori kampaia espezialak meza ostien.
- Egunero?
- Egunero.
- Ta zelakua zan? Gogoratzen dozu?
- Kanpaiak? Ez. Horek, e, gizonak ein zitxuan reportajie. Bai. Gura dozu ikusi?
- Geri. Bai, gero.
- Ta, ba, gero hil-kanpaiek, meze-mezetako, errosarixorako. Errosarixorako, ba, kale izan ezkerro, ba, ero soluen aitte-ta ibili ezkerro, ba [...] kalera juateko, ta errosarixora juteko.

- Eta noix izate zan hori?
 - Illunkeran.
 - Illunkeran.
 - Ta bittartien, ba, kalera.
 - Ta gero aramaitxakua.
 - Aramaittakua.
 - Eta eguardi inguruan-ero jote zan?
 - Bai, bai, horrei, zera... hamabixen beti, hamabi kampai. Zer?
 - Eta, gero, beste espezialik ero? Kampai espezialik ero eguardixan?
 - Eguardixan ez. Gero, jai-bezperatan. Ta, gero, ba, hil-kampaiek emakumie bazan, gizakumie bazan diferente.
 - Diferente zan?
 - Bai. Eztaki zembat atzekaldeko errepikie diferentie izete zan.
 - Eta umie baldin bazan?
 - Umie beste kampai txikiñe. Hori bestioi, bueno! Reportajie ein tzien gizonai, kampaian zea.
 - Zure gizona ibili zan?
 - Kampaie. Oiñ ez, oiñ mutilldue dau. Baña gero, bestelan, ba, hogeit urte, ero hogetahamar, ero,...
 - Kampaia... bera zan hor...
 - Bai. Meza nausixe, meza nausixe, ba, ordubete lehenau. Ta, gero, ba, sartzeko kampai txikiñe.

1.6. Dragoiaren ipuina; gerra garaian ere Batailoi baten izena

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/005
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:03:17. **Bukatu**: 00:05:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Dragoiaren ipuina. Arrasatera dragoi bat joaten omen zen, eta aldiko pertsona bat jaten zuela esaten zen. Gerra garaian, Arrasateko milizianoek sortu zuten batailloiak "Batallón de Dragones" izena zuen.

Transkripzioa

- Ipuiñek, dragoiena eta. Lehengo egunien oso ondo kontau zauen...
 - Dragoiena? A, Bai. Batzuk beste modu baten esaten daue, ezta?
 Mondraure etorten zan dragoi bat, ezta? Zuk entzunde eukiko dozu. Batzuk esaten daue beste modu baten, bestiek hala modu baten, nik halaxe esaten, gure aittek halaxe esaten auen. Arrasatera etorten zan dragoi bat, ez dakit nungo mendittik etorten zan...
 - Murutik, ez?
 - Murutik edo, bai, mendittik. Eta biher izeten auen bat jan, jateko biher izaten auen bat. Eta aldiko bat jateko, eta aldiko bat. Eta, toketan jakonak jan eta kitto. Ez dakizu? Bota [zientotik] bat eta neu igual eta zeu igual, jan eta mendire, holaxe dragoioi.
 - Egunien bat edo zenbat?
 - Egunien bat!

- Egunien?

- Bai. Edo astien edo. Bueno, esan deigun astien. Iguel izengo da “entre semana”. Segun zelakue dan. Txikitxue bada, bueno. Bueno, eta, allegau jakon txandie zeorri, errementerixen alabiei, allegau jakon txandie. Errementerixen alabiek, e, txandie allegau jakon, errementarixek ein auen halakoxe puñal luze-luze, burdiña bat egin auen, ezta? Eta ahue zabaldute auela alabie hartzeko, dza! sartu utsen eta haretzek hil auen. Eta hori hala esaten daue. Eta, “Dragon”, hemen milizianuek ibili zien gerra denporan, ezta? Konpaiñiak konpaiñiak, eta Mundraueko konpaiñia zan “Batallón de Dragones”.

- Bai, e?

- Bai, "Batallón de Dragones", bai. Dragones euen e, buzuen e, dragoi bat ebixen.

- Eta zelakue zan dragoie?

- Dragoie, ba...

- Zenbat buru euen?

- Zu, hori, “eso no me digas!”. Bat eukiko auen! Aho haundi bat eukitten auen, e!

- Eta hegaz egitten auen?

- E, dragoi, anemalixie! Anemalixie!

- Hegalik edo baeuken?

- A! Ez dot pentsetan. Hola, hor kokodrilo moduko, “un bicho de esos”. “Oye, tampoco he visto, e!”. “Sobre poco, sobre poco” je, je. Imajen, hola, bajau ...

- Ez utsuen kontetan nundik behera bajaketan zan Mundrauera eta?

- Hori esaten auen gure aittek, esaten auen, esaten auen.

1.7. Fraidea sermoiak ematen

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/006
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:05:11. **Bukatu**: 00:08:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Aitari entzundako antzinako ipuina. Aramaiora jende "rebeldea" joaten omen zen, eta abadeak fraide bat ekarri zuen sermoiak botatzera.

Transkripzioa

-Nik esango dutsut oin beste bat. Aramaixokue esango dutsut. Bueno, lehen be esaten ekin naz. Ba Aramaixon jente rebeldie, ezta? Ba ba ba famie! Zeroi, [...] ez dakit, antziñe, ba txartxue. Ba abare horrek ezin domiñau ta. Aste santuetan, oin be egoten die ba frailiek. Oin gutxia, baina lehen egoten zien, gure gazte denporan. Frailiek aste santu danetan elixa danetan egoten zien, sermoiekin eta, konfesiñuek eta ene, negar erain eta holakotxiek. Bueno. Aramaixon. Ta abariorrek ezin domiñau, ta ekarri auen fraile bat. Eta, ba, jente txarra, bata bestie parkaketan ez dutsena, jentie. Ta abariorrek esan utsen, herriko abariei esan utsen beste frailiek: "Bueno. Honek bai esan...". “Parkatuko dutsezue /parkatukutzezue/ akarri?” ta ixilik

danak. "Bai esaten ez badaue, hor kamaran eukiko dittut bai, belak, ezta? Kaja baten. Jareingo dutseu /jareingutseu/ belai". Kamaratik bentanatik behera elixara, ez dakitzu? Gero demoniuek eta "kua! Kua!". Ta "A cualquiera, a cualquiera!". Ta beno. Ta, ba, hola. Ta ba abariorrek, frailliorrek, pulpittotik "Onak izen biher da /bida/, parkatu, gauza txarrak ez da ein biher, umiek [esan] biher daue... parkatuko dutsezue / parkatukutzezue/ bata bestiei?" ta "bai" iñok be ez. Danak ixilik, ezta? Barriro be hiru bidar "parkatuko dutsezue /parkatukutzezue/? Demonieue etorriko jatze gero zerutik! Parkatuko dutsezue /parkatukutzezue/?" ta ixilik. Eta "Bota, bota Jaungoikuek zerak, bota, bota infernuko diabruet!" Etorri ta belak goiko horrek bentanako zulotik bota dittu elixara belak, ta belak elixan gabien argirik eta... "Kua! Kua!" ezta? Belok larri. Ta abarie "A cualquiera! A cualquiera!" Edozeiñi. "A cualquiera!" ta "Bai, bai, bai, jaune! Bai, bai, bai!". Danak baietz, ezta? Dominau zittuen. Dominau zittuen, bai. Ta gero beste baten... "A cualquiera! A cualquiera!" horixe ba "kua! kua!" belok ta ba "a cualquiera!" ba edozeiñi ebaketako. Ta ene! danak "bai, bai, bai" danak parka eske eta. Ta beste baten hola, ta beste baten... Famie txarra, Aramaixok beti, txarra baiña famie. Ta beste baten be hola ta, igual, orduen be ezin domiñau. Ta, bueno, ba abariek pentsau "Ba ilintixek ipiñi biher dittuu kamaran. [...] ifiniko dittuu ilintixek, ezta? Sartute. Eta bai! esan artien [laga] ta aber, parkatuko daue, bata bestiei parkatuko dutse. Ta iñor ixilik bada, botako dittugu ilintixok". Eta barriro hoixe ta esan ta esan ta ixilik jentie, ta "parkatuko dutsezue /parkatukutzezue/ bata bestiei? Izengo zare onak?" ta ixilik, eta "Jangoikue, bota, bota honei sue, sue Jangoikue! Suuue!" eta "xiii" elixe erdittik ilintixek, ezta? Goittik. "xiii! Xiii!" ilintixek, ta danak kurriskeka "bai, bai, bai, bai!" danak, Jangoikuek sue botata, kurriske baten eskuek zabalduta han... Horrek gure aittek kontetan uskun, e. Horrek gure aittek kontetan uskun ta ba... antziñe... -Zelan esan dozu, ilintixek? -Ilintixek. Suten egoten da, ba, zera sartute, egurre, ez dakitzu? Ta erdi erreta, ez dakitzu? Sartzen dozu sutan, hola egur bat. Ta erdixe erreten jatze, ta gero ba keie ta hareik "shhh" elixa erdire, ta "Ene!" jente dana kurriskeka "bai, bai, bai! Barka!" [alkarri ebatute] ta holaxe domiñau. Holan, holan, bueno hola esaten zittuen ta, beno, ba... Jesus, ba niri bakarrik nauenien horreik goguen eukitten jaittunat. -Eta zelan akabetan zan hori? -Ba ba ba kitto! Bata bestia parkatu zan ta ya esta. Parkatu zan ta ya esta. -Danak konbentzirate. -Bai. Konbentzirate, ba baten belakin ta bestien su horreaz.

1.8. 7 otsoen ipuina

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/009
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:13:32. **Bukatu**: 00:14:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amak kontatzen zituen ipuinak. 7 otsoen ipuina.

Transkripzioa

- Kontau zeuen aurrekuen otsuena, holan, umiei e...
- Bai, ba, oooh, zazpi otsuena. Hori gure amak esaten uskun, e! Eta gu [mirarik esaten dau] hori gure amak zertu, gu engaiñetako, gure amak, e, asmaute [igual] ez dakit, ba, gu orrazketan, ba ez auen gure izeten orrazketan, orra..., zorrixek be igual eukiko gittuen eta. Goguen dauket: olixue egin eskuen, eta busti, eta orraztu eta orraztu. Hola jarri sillatxo baten, eta ni, bla!, ni eta beste batzuk be jarri hola, lurrien, ezta. Eta hola, amak hartu hola, orraztu. "Ala, esan kontuek, ama!", eta, orraztuaz eta. "Ba, zapi otsuena esango deusuet". Ba zazpi otsuena. Eta ... "Ba, egun baten ortuen zien zarata haundixek, eta neskatiilatxo bat juen zan orture eta etorri jakon amai: "-Ama.ama, ama! Ortuen zazpi otso". Eta "- Ene, ene, ene, zazpi otso asko die!". "-Ba, sei edo bai!". Eta "- Sei otso, sei otso, sei otso! Ene, harrapetan bazau!" Eta, "Ba zarata haundixek die. Hortan bost izengo die". Eta "- Bost be asko da baiñe!" "-Ba, behintzet lau izengo die!" Eta "-Ene, [bait eta muti] lau otso, lau otso egongo die ba?" Eta "- Zaratak diela, hiru behintzet baietz!" Eta hor bajau zien bille eta bi... "- Baiñe, baiñe, isilik egon hadi, ez da egongo otsue!" Eta "-Ba, behintzet bat bada, zaratak die-eta!" "- Aber goazen ba!" Eta juen zien eta txittak! Ra-ra-ra! Txittak, txittak! Eta "- Ene! Ba nik pentsau dot otsuek diela!" Eta txittak aztarka, txittak aztarka. Eta "Qué más?"

1.9. Maritxu neskatiilatxoaren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/010
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:14:54. **Bukatu**: 00:17:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Maritxu neskatiilatxoaren ipuina.

Transkripzioa

- Zazpi otsuena, bai, zazpi otsuena. Eta gero Maritxuna, beste bat, bai.
- [...] gaiñien dauena?
- Bai, Maritxuna. Bai, Maritxu... Horreik umiok be badakixe. Honeik mutikuok be badakixe hori, neuk kontaute. Ba, Maritxu zan ba, dana kontu bat, ezta? Maritxu itxi auen, ama juen zan mezeta, eta itxi auen zazpi koltxoien erdixen Maritxu neskatiilatxue. Hotz auen -honei umioi holan esaten dutset- "hotz auen, hotz auelako, epelien egon, epelien egon bida". Hola. Hotz euelako itxi auen koltxoi erdixen itxi auen, eta bera juen zan mezeta. Eta umiok ahue zabalik. Lobak be eukitten dittut ba nik, eta danak ahue zabalik eta: "Eta gero? Eta gero?" eta "Egon ba, esango dutsuet eta!". Eta gero etorri zan mezetatik, eta txakurtxo bat eukien txiki-txikitxue atien lotute. Ta hak txakurtxuek amai esaten utsen, e: "Txau, txau, txau!". Maritxu eukien neskatiila horrek eta ijittano bat ikusi auen bentanatik -nik esaten dutset ba guk bentanatik, esaten dutsau gure umiei ezta? Hortik esparrutik bene-benetan egoten zien eta. Bentanatik ijittanuek ikusi auen bakarrik auela, sartu zan bentanatik, ta hartu neskatiilatxue eta ri,ra! kendu utsen kopetatxuko txorixek, eta abarkatxuek eukien, abarkartxuek, eta danak, bere arropatxu danak sartu zittuen, zulo bat egin eta ortuen

sartu zittuen danak, ta, kopetatxuko txoritxuek eta danak. Eta bera hil auen, eta hartu auen iztertxuek, odola, gibeltxuek eta, hestetxuek sartu zittuen han. Eta hartu auen gibela eta danak hartu zituen eta goiko basoa eruen auen, eta egin auen sue, eta egin auen odolostetxuek eta gibela jan auen. Eta txakurrek esaten utsen "Txau, Txau, Txau! Maritxu zuluena dau!" Eta bere amak: "Ixilik egon hadi!". Eta barriro: "Txa, txau, txau, Maritxu zuluena dau!" Eta txakurrek [iruaburua] ta: "Txau, txau, txau, Maritxu zuluena dau!" Eta ama hori juen da, eta Maritxu, zera, koltxoi danak ikera eindda. Eta koltxoi bat [eta ire dana] bi koltxoi, hiru koltxoi, lau koltxoi eta bost, eta Maritxu falta. Ama negar baten! "Txakurre, non da Maritxu??", "Maritxu zuluena dau!, Txau, txau, Maritxu zuluena dau! Maritxu zuluena dau!" txakur horrek. Ta "non dau?". Txakurrei jarein eutsen kataitik eta txakurre arineketan orture. Orture juen da eta txoritxuok ta kopetatxue ta hantxe, zulue egin eta hantxe tapaute. Ta, bueno, eta holaxe begittu auen - neuk erdixek neuk asmaute, baiñe nik holan esaten nutsen-. Gero begittu auen basora eta basoan keie! Eta abixau eutsen gaurdia zibillei [aittek] eta abixau eutsen guardia zibillei eta juen zien eskopetiaz, eta hantxe, klaro, dana han buzkentxuek eta odolostetxuek jaten eta gibeltxuok jaten ijittanuok hantxe, umetxuenak jaten. Eta guardia zibillok bau! jo utsen tirue eta jo auen eta bota. Gero ixegi auen arbolan, emun utsen sue eta erre auen. Eta, ba, erre auen eta, oin be ez dakizu ezta? eta negar ta negar ta negar ta negar. Zer egingo dogu ba? Ba, oin ekarriko dogu beste Maritxu bat eta horreik kopetatxuko txoritxuok eta danok gordeta ifiniko dutsau bera eta ifiniko dutsau beste txoritxo bat eta "kolorin kolorau este kuento se ha terminau", eta ekarriko dutsau beste txoritxo bat, beste Maritxu bat, beste Maritxu bat. Bera, bera ji, ji, ji, [ni enau aitzela gure aitzela], nik asko nekixen [lehenabi], de momento ez dutsut ba esaten, neu urtie be ez jatela akordetan momentuen.

1.10. Anbotoko señoia

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lizarralde, Saioa
- **Erref:** ARA-037/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:19:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** "Anbotoko señoia"ren ipuina.

Transkripzioa

- Ta Anbotoko señoie ta...

- A, bueno, Anbotoko Señoie be, ez dakit ba, hori modu askotakue da hori, Anbotoko Señoienak. Baiñe horrek, beheko etxeko gizonak, hildde da ezta?, ta haren semie be hildde da, baiñe hark esaten auen, hark esaten auen, e, bera etorrela errotatik, han beheko errotatik etorrela, gabe baten, ta auela iretargixe, ta han beheko [par] hortxe, zera, hortxe oin ezta, etxe bat ez dakit zer auen han, eta hantxe bera hantxe arbola [istan] honutze etorrela, egundoko argitasun haundi bat [ene, ene! Anboto señoie ete jatok!]. Tenteixe, eta bera jarri zan, parien pasau arte, hemen tentei ostien. Ta tentei ostien ez zala ikusten, ta gero han pasau zani en parien, pasau zan hona, beste tentei oster. Ta pasau zala ta horra pasau zala, hark. Eta

jentie sinistute auen lehenau edo, nik ez dakit nik, jentie sinistute. Argitasunien jueten ziela eta esaten auen e!

Ta Martin Abade be. Gure aittek esaten auen, ez dakit bera edo bere aitte ibiltten zan hementxe zelaixen, liñue, ezta? Liñue da telie egitekue. Saille holaxe auela, bete-bete-beteta. Ta, abadie mezie emuten Untzillen ta, ez dakizu? [cuentos y verdades] , mezie emuten Untzillen, ta sagrarixo denboran e, bere txakurrek “Au, au, au, au!” zaunkeka kaza txakurre. Ta ezin [ezin] juen, mezie [emuten] eta, urten aiñeketan, hartu eskopetie eta txakurraz zeorri jarraiketan ezta?, ez dakit ba zer zan. Martin Abade esaten auen e, erbixei zerraute auen. [Martin zan] abadie Martin zan txakurraz, eta bzziii! Ekin zala aiñeketan eta ez auela, iñork be ez auela ikusi. Ta esaten auen, gure aittek esaten auen, esan, bere aittek esaten auena, hau [sagarrondoko] soluuu, holaxe trillaute rrrraaaa saille ta “Au, Au, Au” entzuten ziela zaratak, zaratak izaten ziela, bai, eta esaten auela haxien, airien ebilela abadioi ta, abadioi eta txakurroi airien ebitzela. Eta hori, brruuu, etzindde geratu zala hori liñuoi, etzindde geratu zala. Nik ez dakit hola izan leikien, baiñe ipuiñek holantxe izeten zien, bai.

1.11. Antzinako ipuina

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/012
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:19:27. **Bukatu**: 00:20:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzinako ipuina; mutikoen gaiztakeriak.

Transkripzioa

-Ta gero, Barrautsen be bai, Barrautsen be [zeristorik] baiñe gizon geiztuek ziren hareik, gure aitte-ta be, nire aitte-ta be, granujak, beste granuja bat eukien hemen etxien, granujie. Eta Barrautsen hantxe goixen sagastoixe eukien, ta Barrautsen han goixen, ta egin zittuen ba, txabola moduko bat eukien. Neu be akordetan naz ha non zeuen be. Ta han barrikak beteta, ezta? barrikak beteta. Ta gaiztuok pentsetan beti “hurrengo zer egingo juau”, “Ba, hurrengo egingo juau Barrausko etxaburure juen eta barrikak zulutuko jittuu. Ezin bajittuu zabaldu, zulotu ein biher jittuu barrikak”. Fuen, basuetatik, Bolinburu aldeko basuetatik bueltan, juen, ez dakit ba, gabez edo, juen ta, lau o bost barrika, barrikak illaran esaten auen eta, barrika danak zulotu [dittue]. Batzuk zabaldu, baiñe zulotu, kanpotik zulotu be, brou brou, brou, sagardae, Barrausko etxeraiño goittik behera dana sagardae. Enee! Ta hurrengoko egunien hango jaleue, baten batek sagardau […] apurtu [deutsela]. Ta mutiko granujak. Iñor akordau be ez, iñok... eurak ixilik, eta, zer pasau ete zan, eta nok ein ete auen, eta eurak ixilik. Gero, beste egun baten e, ha [Beheko etxeko gizona] –or duen errota jueten zan or duen jentie– ha [Beheko Etxeko] gizona badator […] [Beheko] Etxeko gizonoi e, bajaton e, errotatik badator eta, ha beheko... ha andrie –pezeta bikue [esaten euen], pezeta bi be askotxo izengo zan– behintzet mailluketan harri baten gaiñien dobletan ebillela, ezta? Hola! Bihurtu, ez dakizu?,

doblau. Ta “Zer dabitzu?” eta “Zer dabiran? Niri hori ein ostena /eistena/ hauxe letxe kiribildute geratu dailla!”. Ta pezetie dobletan ebillela, dirue dobletan ebillela mailluketiaz. Ta hori egixe zala esaten auen gure aittek, bai, bai, eurai pasau jatien eta, eurak, eurak zien granujak.

1.12. Laminak. Sorginak noiz amaitu ziren

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/020
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:33:49. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Laminen inguruko ipuinak. Aitajaunak kontatzen zituen sorgin kontuak. Eibarren pistolak egin zirenean amaitu omen ziren gauza guzti horiek.

Transkripzioa

- Elkarrizketatzailea1: Ta lamiñek, lamiñek entzun dozu zerbait [...]?

- Elkarrizketatzailea2: Bai, kontau ostezun lehengo egunien, arropak garbiketan egozela eta [...]

- A, ba, bai! Hori be lehenau, hori be gure aittek esaten auen, haik aittejaunen kontuek, bai! Hor beheien, beheko erreka zuluena, erreka zulue, ezta? Eta hemengo jentie, ba, jueten zan. Medikue be hortxik, medikue be hortixik ibiltten zan. Hemendik e, Torralde, e zeretik, Mazkarragatik Salasangura, bidie auen, sendatxo bat auen, atajue. Ta handik gabien badator, ta bla, bla, bla, erreka zulue, beheie, eztok? komo si no, sorgiñek egotie. “Sorgiñek ete jazek?”. Eta, goittik behera, beheko erreka zulora, eta hola. Gero gora igo behar auen Suiñabolueta, eta, bera erreka zulora aillegau da eta, hango zaratie sorgiñok!!! Hango zaratie, ha mutillok. Eta bla, bla, bla! Arropa garbiketan eta, ebitzela. Zzzia!!! Bai! Zera: bla, bla bla, joten erropak! Bla! Hartu dau aurrien haxiek, haxe bat, zzziiii!!!, eta errekie auen leku daneraño eruen auela errekaik erreka haxiek aurrien. Eta Asentzio peien geratu zala errekiok, eta hantxe akordau zala bera. Ba oin ez dakit horreik egixek ala guzurrek. Eta, bestela, anillek itxi zittuela sorgiñek han ahaztute, jaboiek-eta itxi zituela ahaztute, eta ba horreik esaten zittuen. Eta nik ez dakit, bene-benetan egoten gintzen orduan.

- Zelakuek zien eta komentau eutsun?

- Sorgiñek, bez, ikusi ez zen egiten, sorgiñek ba, badakizu: bruja, bruja, neure ulien antzekuek. Hola, brujak, ba ...

- Eta normalak, holan, hankak eta normalak eukien [...]?

- Ba ez dakit ba nik, egi esan, sorgiñek ba um, um, ze bat izengo zan biherbada. Ba ez dakit nik, e, ikusten ez dan gauzan bat edo.

- Eta okerkerixak egiten zituen edo lagundu [...]?

- Sorgiñek ba, hombre, sorgiñek, ez dakizu? “Es una bruja” eta, ez dakizu zelan esaten dien. “Sorgiñe, hori sorgiñe hutse” eta.

- Onik ez auen [eitten]?

- Ez, ez ez. Ez dot pentsetan, ez. Beti, sorgiñe beti txarra.

- Lanak eitten edo baserrixek egiten edo eliza garbiketan edo ez auien lagunketan?

- Ez, ez, ez. Hortaikuek ez, ez, beste, bestelakuek.
 - Eta pertsonak sekuestrau edo [eitten auien]?
 - Ez, ez, ez.
 - [...]
 - Akaso beste batek esango deutsu sekuestrau ete zittuen, nik be danak ezin ba jakin.
 - Eta zer zabitzen hori, anille itxi auiela sorgiñek [...]
 - A, ba, sorgiñek, prisezka. Egune zabaldu, eta egune zabaldu eutsenien, ba, prisezka jaboie eta anillie bertan itxi zituela ahaztute. Egune zabaldute, itxurie gabez ibiltten die. Egune zabaldu eutsenien, han itxi zittuela ahaztute, eta, horreik ipuiñek, horretxeik die ba ipuiñek, hola ez die izengo baiñe hola ifinitteko ipuiñek izengo die edo, ez dakit ba. Beste batzuk gero esaten auen ba, bueno, horreik gastau ziela pistolak ein zienien Eibarren, ezta? ba horreik gauzok gastau ziela. Hori horixe eulixoi be, hementxe jabik ba! Eta ...
 - Lamiñak esaten zen, [erreka onduen] lamiñak egoten zien.
 - Lamiñak bai. Lamiña edo bruja, lamina, laminak. Bai. Beste batzuk izengo die.
 - Bai. Eta hankak normalak eukien?
 - Ez dakit ba nik, zu maja! No, "hori izengo da sorginkerixan bat" esaten da, ez don? Esaten da [...] zuk egiten duzu, e, inork be egiten ez dauen gauza, "horrek ein dau sorginkerixie", esaten da, ezta?, ba, aide bat edo, haxe bat edo, ez dakit ba nik, ez dakit ba nik.
 - Eta ba auen berbaik salbetako, berba majikoik edo?
 - Berbaik apenas, berbaik apenas. Harek tzzzii!!!, hartu dau haxe batek eta urek, uretan bakarrik egoten die brujok eta, ure akabau zala Asentzio peien eta hantxe akordau zala, hantxe akordau zala.

1.13. Sugea eta behiaren ipuina

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lizarralde, Saioa
- **Erref:** ARA-037/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sugea eta behiaren ipuina.

Transkripzioa

- Eta animalixan ipuiñik badakitzu, animalixa, subanak edo ...
 - A, bai! Subie bai. Subie, bai, zueik dakitzue eta! Bueno, Untzilleko behixek, [lenakuek] esan deutsu ezta? Eta zuk goguen daukozu?
 - Igual bai.
 - Bai. Horko behixek eta abadienak eta danak bielketan zien Muru Gainera. Behixek, bueno, orduen ez auen piñurik eta, Muru Gainera. Eta han eleixien alda, gure primuek zien, eleixien aldameneko etxekuek bielketan auen behixoi. Eta behixe ba, errape ederraz juen eta illunkeran, ekarten auenien, errape txikixe, eta errape txikixe. Eta beti behixok beheie, behera etorritte. Eta "Joño! Ze, zainddu biher dot /biot/ nok ba ze!" baten batek batu eitten deutselakuen errapeioi, esnioi, baten batek batu. "Zainddu biher dot /biot/ ba!" eta, arratsaldien honutze etorriko zain eta, behixek

hola holako, geure terrenuen hortxe etxaburuen goixen, Muru Gaindik beherako bidien, Untzillara doien bidien, da hatx bat, ezta? eta hatxak dauko hola bittartiek, da hatxa, arbela, eta hark dauko hola bittartiek. Kantera zahar moduen, baiñe kanterie ez da. Klaro, zatixe jauzi bidie eitteko eta bittartiek eta. Haraxe aldera etorri eta behixoi, esnedunoi, morrozaka, bera lehenengo: “Mooo”, ta “Mooo”, ta bera morroza, eta: “Joño, baten batek batu egiten dau hori!”. Eta politto-politto badoiez, suge haundi batek urten handixik, handixik bittartieta, harri bitartietatik, holaxe, bueltan-bueltan, hankatik gora igo, bueltan-bueltan-bueltan igo, eta zera, errora. Dzzzi dzzzi!! Bape miñik ein barik, esnie, baiñe baiñe baiñe, litruek! Litruek harek subiek, e!! Danak edan. Eta gero tiruaz akabau auen subioi.

1.14. Sugearen ipuina

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/022
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 00:38:29. **Bukatu**: 00:38:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sugearen ipuina.

Transkripzioa

- Eta, subien kontue beste bat be, hortxe hortikaldien, etxeko andrie, Zestonan, Sestao, Gipuzkuen, auen ezkontute. Eta horrek esaten auen berak ez ekixela gabien, zera, bentanatik sartu subie, eta berak ez ekixela umeak beti titixera etozela. Eta subiek titie, esnie edateko ez dauela egiten zerik, miñik eta ezebe, ezta? Eta, tiretu! Eta gero almuara peien topau auela subie. Hori, hori egixe!

1.15. Ilargiaren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/038
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:56:22. **Bukatu**: 00:57:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Ilargiaren inguruko istorioa.

Transkripzioa

- Eta illetargixen gaiñien...
- A, ilertagixen gaiñien beste bat be badakit. Ba, hantxe, Peruxe ta Maruxe zien, Peruxe ta Marixe, bueno. Eta Peruxe ta Marixe. Eta auen illetargixe, ezta?, pozu baten, illundute. Eta Marixek pentsetan auen gaztaie auela hondarrien. Ta, joño!, “gaztaie, gaztaie!”, eta, edan eta, edan eta edan, edan eta edan, gaztaie dalakuen. Edan eta edan, edan eta edan, eta

Peruxe: “Edan ondion gehixa! Edan, edan, ondion asko falta dau gaztaie [har]tzeko!” Edan, dana edan dau, eta zan gari denborie, gari alie, gari joten ibilitte. Ozen garixe, gari alie, eta edan eta, nik holan kontetan neutsen, edan ondion eta, atzetik urten eta urten urek, urten, urten eta urten, eta edan eta edan eta atzetik sartu dan urteten utsen ur horrek, urten, urten, urten. Dana edan auen eta illetargixe zera bakarrik auen. “Peruxe eta Marixe, urek darue garixe!” Atzeko despedidie zan, eta, garixek erueten eta berak edan auen uroi, garixek erueten. Eta ba, horixe, illetargixe ba horixe, pentsetan auela gaztaie auela eta gero auen illetargixe. Ba puxkat zirriztazue, hori ba!

1.16. "Anbotoko señoire"

- **Hizlaria(k)**: Balanzategi Unzueta, Ana Mari; Balanzategi Unzueta, Fermina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gardoki, Itsaso
- **Erref**: ARA-050/002
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:00:15. **Bukatu**: 00:01:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: "Anbotoko señoie"ri buruzko kontuak. Anbototik behera
lainoa agertzen zenean, "Anbotoko señoie labe-sua egiten dabil"
esaten zuten. Lainoa sartzen zenean, euria hasten zen.

Transkripzioa

- H1ztuna1: Aber: Anbotoko Señorie, ba, laiñue agerketan zanian...
- H1ztuna2: Bai, Anbototik behera...
- H1: Esaten eben ba "Han, Anbotoko Señorie labasue egitten dabil!".
- H2: Gure amama difuntiek-eta esaten auien hori.
- H1: Entzuerak, ba orduko denporatakuek.
- Eta nungue zan, Aramaixokue?
- H2: Jangoikuek daki! Han Anboton auen behintzet.
- H1: Esaten auien e, Arrazola aldetik-edo etorten zala edo holako entzuerabat dauket. Besteik ez genkixen, nundik edo atorren. Esaerak!
- Eta zer egitten auen?
- H1: Ba laiñue urteten auen Arrazola aldetik asko eta Anbotoko puntieba...
- H2: Txapelie hartzen auenien, sonbrerue tapetan zan laiñuaz.
- H1: Eta horixe izaten zan esaerioi: "Anbotoko Señorie labasue egitten!" bai. Eta beste horren esaeraik ez dakigu.
- H2: Ba ez! Eskobiaz ibiltten zala [hartute eta ba].
- H1: Bai, baiñe, besteik ez. Horixe, labesu[...tzoi].
- Eta denporie aldaketan zan, ez?
- H1: Bai, bai, laiñue sartzen zanian, ba, eurixe izeten zan. Hori ikusi ezkerro, ba, eurixe!

1.17. Sorginak Untzillan

- **Hizlaria(k):** Garaitonandia Kortabarria, Kontxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-059/001
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Hiru erreka daude Untzilla bitartean. Untzillan sorginak egoten zirela dauka entzunda. Garbitu eta orraztu egiten zirela han; eta, orrazia ahaztuta utzi zuten batean, lapurtu egin zuela soroaren jabeak. Ganaduaren uztarria kendu zioten orduan sorginek.

Transkripzioa

- [...] Zenbat erreka daz hemendik eta Untzillara?
- Errekie, ba, hiru!
- Hiru erreka.
- Iturrutz, Sorotxoa ta Afesta.
- Eta hor entzunde daukezu, bueno, ba aspaldi ager... sorgiñek-edo egoten zuela ... Afestako...
- Nik sorgiñek entzunde dauket Untzillan egoten zuela. Hor Urrutiko soluen, auela alberka bat eta han egoten zie... egoten zala zorrixe, o sorgiñek! Ibiltten zuela han, ta han garbittu eta orraztu-ta eitten zuela, eta ba orrazixe han ixten auela sorgiñok. Iñola be han e, soloko terrenoko jabiek orrazixoi ostu edo hartu ein eutsiela, eta gero berak soluen lanketan ibili zanién, ganaue soltau jan daixien apur bat, eta buztarrixe itxi han, ahaztute. Ahaztute ez, ba, ganauek sueto ta. Eta gero juén zanién lotzeko ganauek, buztarrixe falta. Eta bere buztarrixe, eta, ba, sorgiñek esan utsela: “Zuk ematen badidazu neri orrazia, nik emango dizut zuri uztarria”. Hola, hori da! Hori da, baiñe hemen Afestako errekan ez, han Urrutiko soluen, esaten auen sorgiñek egoten zuela.

1.18. Sorginen beldur

- **Hizlaria(k):** Madina Bengoa, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-060/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Arrisolako gizon batek, orbela kargatzen zegoela, Anbotoko Mari ikusi zuén. Sorginak egoten ziren, eta jendea beldurrez ibiltzen zen. Eskopeta agertu zenean desagertu ziren. Sorginzubin egoten ziren, eta kate-hotsa ateratzen zuten sorginek.

Transkripzioa

- Nik entzunde dauket sarri zelan hor Aisolako Arrisolako gizon bat auela

orbela kargetan han mendi barrenien, ta pasau zala hori señoioi sue darixola, goittik, ta etorri zala hona, hona alabie ekarri auela, ta gero juen zala zerera, Bajonea. Bai.

- Eta ikusi ein auela Anbotoko señoioi.

- Bai, bai.

- Aixolarrak.

- Aixolarrak, bai. Bai.

- Eta komentau zauen be bai katai-hotsa ta... Hori zer da, lamiñak edo zer..?

- Hemen sorgiñek egoten zien, ta ba sorgiñok beti jentie pasau biher bidetik eta sorgiñek urten ta beti billurrez. Ta gero esan otsun /esantzun/ ba horrek zerak urten auenien, eskopetiek urten auenien, gastau in ziela sorgiñek.

- Bai, bai. Hor zer egoten zien beheko errekan? Sorgin zubin?

- Hola esaten daue bai.

- Eta ze eitten abien? Erropak garbiketak edo...?

- Hortxe egon, jentie sustetako edo, jentie [...]. Ta egoten zien ba kataia, horreik katai haundixek eta kamiñue kamiñue harri artien kamiñue eta horko kati hotsa! danak billurtute! batozela batozela! ta aber nun dazen ta nun dazen, ta bestie martxaute gordeta bai...

1.19. Dingili-dangolo

- **Hizlaria(k)**: Madina Bengoa, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-060/086
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:55:24. **Bukatu**: 00:55:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Sehaska-kanta.

Transkripzioa

- Eta umiei, kantau-eta, bueno, igual andriek, ezta?

- Bai.

- Zuk kantau [...]?

- Bai. Kuman. Kuman. Erain ta erain ta erain ta erain.

- Bai. Akordetan za kantuik-edo zu?

- "Dingilin dangon mariñe, beti horrela bagiñe". Umiei, kantau ta kumiei erain. Umie hazten.

1.20. Gabonetako eske kanta

- **Hizlaria(k)**: Madina Bengoa, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-060/090
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:56:40. **Bukatu**: 00:57:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena:** Umeek Gabonetan kantatzen zutena, eskean. "Urtebarri".

Transkripzioa

- Eta kantuik badakitzu?
- Ba, kantetan auen, ba, [...] kantetan auen:

Urte barri, urte barri
daukenak eztaukenari
agillando makillando
telemontañe
zazpi intxaur ta zortzi gaztaiñe
haren gaiñien lau sagar
guk hemen daukou
kolkue zabal-zabal.

- A bai? Ze ona!

1.21. Eskolara joan ordez, itaurrean

- **Hizlaria(k):** Elexpuru Altube, Domeke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-061/014
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Eskolako oroitzapen ona du. Julia Ibarrola zen maistra, nafarra. Julio Gurrpide maisua zen haren gizona. Maistra ona zen. Itaurren egin behar, eta eskolara ezin joan. Itaurren zer den. Joaten zenean, maistrarekin ordubete gehiago geratzen zen.

Transkripzioa

- Rekuerto ona daukazu eskolakue?
- Bai, oso ona, oso ona.
- Maistra ona tokau jatzun?
- Bai, Julia Ibarrola, naparra. Ta gero etorri zan gizona Azkuagara maisu. Ezkondu zien hemen. Ezkondu zien ez dakit nun, baiña behintzet ezkondu zien. Julio Gurrpide eta Julia Ibarrola.
- Eta bixok maisu eta maistra?
- Maisu eta maistra. Maistrie oso ona izen zan. Nigaz ademas euki euen... bueno... erantzun be holan eingo zan, ezta? baiña atentziño haundixe ze... Ni fueten nintzen ba... eskalbak oin esaten jakon moduen... oin piper, hori ez. Baiña ezin fuen. Ittaurren ein biher. Ittaurren badakitze zer dan? Behixek lanketan badabitz soluen, zuzen fuen daittezen, haren aurrekaldien ibili.
- Hori umien lana zan?
- Umien lana

- Zelan esan dutsazu?
- Ittaurren. Ta... Fueten... sarri geraketan nintzen fuen barik e... ikastola. Ta horrek maistriorrek, fueten nintzenien, esaten auen: "Bueno, Dominga, geatu zaittez ordubete bat gehixau gaur, eze diktadua itten edo hau itten edo bestie itten oso atzera zauz ta ordubete baten edo gehixauen geatu", ta gelditzen nitzen ba arratsaldien eskolan.
- Gustora?
- Gustora.

1.22. Bi eskola kalean

- **Hizlaria(k):** Elexpuru Altube, Domeke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-061/015
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Kalean nesken eta mutilen eskolak zeuden. Udaletxe aurrean zegoen mutilena; neskena Zubiondo elkartearen gainean.

Transkripzioa

- Eskolak ze ziran auzo bakoitzian...
- Ba, hamen egon zien neskana ta mutillena. Kalien e!
- Kalia.
- Aiuntamentuen, mutillena... egon zan eskolie. Ta gure eskolie izen zan oin... hori dauen lekuen, sozidadie dauen goixen... Zubiondo.
- A, bai!

1.23. Eskolan, baserritarrak atzeratuta

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/005
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Eskolara kalera joaten zen, eta lagunak ere egin zituen. Oroitzapen ona du. Ez zegoen ohiturarik kalera egunero joateko, eskolara. Baserrian itaurren egin behar zuten umeek. Ez zegoen oraingo ardurarik eskolarekin. Baserritarrak atzeratuta ibiltzen ziren. Eta maisuak ere ez zuen irakasteko halako grinarik. Egurra partitzen ipintzen zituen, astean hirutan, alondigan. Han partitzen zen egurra.

Transkripzioa

- Ta, gero, ba, bueno, eskolara etorten nintzen Aramaixora, kalera, etorten

nintzen, ta lagunak be ein nittuen kalien ta, ta bueno!

- Eskoliena-ta zer rekuerto dauketzu, ona?

- Eskoliena ba ez dauket nik txarra, e? Gero erakutsiko dutsuet beheien iguel e, diploma zer batzuk badauket. Ta eskolan, ba, lehenago baserritti ez zan etorten kalera egunero. Orain obligaziño bat dau eskolara jueteko. Nik ikusi dot etxien seme-alaba artien, ba, derrigor eskolara bieldu ein biher, nahiz ta erdi gaixorik egon, ezta? Orduen ez. Orduen egoten zan, gu, baserrixen jaixo nintzen eta baserrixen ba badakitzu, igual jakingo dozu, ittaurren, ganauen aurretik ta... Bueno, "Bixer hori landu biher dou ta bixer ezin zeinke juen eskolara", e? Ta ez zan egoten oingo moduko ardurie. Ta batzuk ba eskolan egunero jueten zien ta gu egunero jueten ez gitzenak apur bat atzeratu eitten giñen, atzeratu. Ta gero beste gauza bat auen lehenago: maisuek be ez auen holan obligaziño haundirik hartzen, e, eskolan ikesteko. Konke guri esaten uskun "¿Quién sabe manejar el hacha? ¡Que levante la mano!", ezta? Ta gu, ba danok baserritarrak ba, joe, azkorie manejau? Bueno, bueno! "Bueno, pues vosotros a partir leña". Alondiga bat auen hor Aramaixon, zueik ez zauen ezautuko, erredondo haundi bat, auen alondiga bat, eta han partiduten zan aiutamenturako, panaderixarako, eskoletarako eta, bueno, gero jauntxo batzuendako be bai. Ta partiduten zan egurre, ezta? Ta gu, ba, astien hiru bat bider-edo iguel egurre patiduten. Ta gu beti atzera! Badakizu, eskolan egon ezik, beti atzera geratzen da. Ta, bueno, gu geu be azkenien pozik. Zelan atzera geraketan gitzen, e? "Ba! bixer be egurre txikiketan bielketan bagaittuk, hobeto!" Ezta?

- Gusturago holan!

- Bai, gusturago. Bueno, holan.

1.24. Galdutako denbora berreskuratzen

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/006
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Maisuekin erdaraz, eta lehenengo Cara al Sol. Don Antonio maisua. Don Joakin. Haren emaztea behean zegoen maistra, neskekin. Eskola Don Joakinekin ikasi zuten. Ez bazuten ikasten, jolastordurik gabe uzten zituen. Letra ona zuen, eta diploma ere atera zuen. Kalkulu liburuxka nolakoa zen.

Transkripzioa

- Ta ...

- Ta maisuekin eta? Erderie, euskerie eta holako...?

- Erderie, eta lehenengo `Cara al Sol`, entradan be, e? Euki geen don Antonio edo, maisu txiki bat, neure antzera, potolo bat, euki geen, eta lehenengo `Cara al Sol` kantau biher zen eskolara sartzeko. Ta bueno, holako gauza batzuk. Ez zan txarra be erakusten, baiña, ba! Eskolie baiño, gure modukuei beste lan batzuk. Hori auen eurek pentsaute. Ta bueno, gero etorri zan hau, don Joaquin. Andra-gizonak etorri zien: beheien egon

zan andrie, emakumakin maestra, ta gu goixen don Joaquinekin. Ta don Joaquin sartu zaniene, joe! Ez auen egurrik, e? Egurrik txikiketak ez auen, e? Ez, "Aquí vamos a aprender escuela, yo he venido a enseñar escuela". Ta gero bere partez hor ein zittuen zer edo zer, jubilauekin eta, eurak ein auen, berak ein auen zer edo zer. Baiñe eskolie erakusten ha! Harek esaten auen, zuk ikesten ez bazeen orduetan, errekreora bapez! Eskolie! Errekreue izeten zan, ba, ordubete edo hiru ordu laren, izeten zan errekreue. Ta orduen berak esaten auen: "Tú, tú y tú tenéis que quedar aquí". Eta ikesi orduen ein gauen. Nik uste dot aurretik zazpi urtien beste, gero urtebetien ikesi gauela, eskolan. Nik eskerrak emuten dutset hari. Ta gero euki geen gabeko eskolie be bai, euki geen, ta orduen ikesi gauen eskolie. Ta ni ninguen lehenengo moduen! Ta nik neuk be ez neen sinisketan hain gutxi juen eskolara, hain gutxi juen, ta holan urtetie. "¡Jo, tienes una letra!" Joe! Letrie eskribiruko doten ta, nire letrie erakusten danai ta. Ta bueno, neuk be ez nauen sinisketan! Letra ona ta, bueno, gero diplomie ta danak atara usten. "¡Jo! Así tiene! ¡Jo! ¡Has estudiado tres años conmigo, o cuatro, y cómo has sacado las cuentas!" Konke orduen ez auen. Kalkulu txiki bat zan, "Sumar, restar, multiplicar y dividir". Holako liburutxo bat. Oingo moduen paper mordorik ez auen orduen. Ta akordetan naz ondion: gaiñe be eukene gorri-gorrixe, ta ipintten auen "Cálculo", ipintten auen. Handi ikesten geuen ikesi biher geuena, ta gero hasi giñan kebraduek eta, ba, holako gauzak eitten.

- Oseake, ona, estudiante ona zitzen zu, argixe!

- Nik uste dot, neuretako, ez nitzen txarra be! Baiña guri pasetan jakun e, lehenengotan atzeratu ein giñen gu, tontuen moduen egon giñen. Konke ez gaelako egunero estudixetan. Hori pasau jakun. Konke zu jueten ez bazara lan batera egunero, atzeratu eitten zara, e? Atzeratu eitten zara. Ta, ba, holaxen. Gero, eskoloi ba hor badakizu...

- Bukatu zan.

- Hamalau urtekin ya eskolie akabau zan.

1.25. Amonaren altzoan

- **Hizlaria(k)**: Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-065/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:10:49. **Bukatu**: 00:13:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amandreak altzoan hartzen zuen, eta kontuak esaten zizkion, aita idiekin lanean botatako madarikazioei buruz galdetzen zion, eta aitonak behin babarrunak airean bota zituela kontatzen zion. Kantatu ere egiten zion, "zer uste dezu dela ezkontzea" eta "Ameriketara joan nintzen".

Transkripzioa

- Amandriek holan ipuiñik-edo kontetan utsun?
- Amandriek?
- Bai, badauketzu rekuerdoik?

- Bueno, e, kantetan usten, ni altzuen hartu ta...

- Akordetan za?

- Bai, bai, oso ondo akordetan naz. Altzuen hartu -ordureko mutiko bastante haundixe nintzen e?, ordureko banauken zortzi-beratzi urte iguel ta-, "Bueno, aber, gaur ze kontauko dou" ta ekitten utsen. Ta "bueno", berak esaten usten e, bera be baserrikue ta, esaten usten: "Bueno! Zu zoietzien ganauen aurretik, ittaurren, zoietzen ganauen aurretik, ta aittei apurtu jakon hori, zera, "gabutxue" -esaten jakon artarien aurretik, han e, buzterrixen erdixen sartzen zan gabutxo bat, holan holako batekin, trabes batekin,- ta ha apurtu jakon, ta ze esan auen?" Ta, ta neuk esaten nutsen e "Baten makauen la ostia!", esan auen baten aittek. "Bai? Esan auen hori?" ta "Ba gure aittittek be, hor ohien dauenak, danok kastigaute itxi gindduen, plato bat apurtu gaelako, ta platuen auen, ozen, babak. Ta babak jausi zien lurrera ta danok ezebe jan barik gero". Ta holako gauzak kontetan usten, ta iguel egixe izengo zan, iguel ez, ez dakit, ez dakit. Iguel egixe izengo zan, e? Konke danak geratu ziela bazkaldu barik. Ta holako gauzak kontetan usten. Bai.

- Eta kantuik, akordetan za kantuik? Kantetan utsun kantu...?

- Berak kantuek? Ba hak kantetan usten beti be hau: "zer zala uste zendun zala ezkontzia" ta. Orduen modan auen. Ta gero, jo, harek horreik kantau, horreik gauzok, ta "Amerikara noa" ta holako kantu batzuk kantetan usten berak. Ta ohien auen aitteitte, ohien auen ta "Hori, hori! Hori kantau biher dok /bihok/ eta!" Ohetik entzun eitten zittuen ta... Pozik jueten nitzen ni hara!

1.26. Kantuan nola hasi zen

- **Hizlaria(k)**: Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-065/012
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:16:07. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Kantuan nola hasi zen kontatzen du. Aramaion hasi zen Don Andres eta Don Joakin apaizekin solfeoa ikasten. Zazpi zuloko txistua ondo jotzen zuen, eta `Angiozarko itsua´k esaten zion soinua jotzen ikasteko. Koruan ere ibili zen, kalean, apaizekin. Hamar bat ziren. 16 urte zituela, soinua nola lortu zuen, itsuari eskerrak. Bizikleta hartu anaiari, eta Arrasatera joan zen eta handik trenean Eibarrera, soinua aukeratzera.

Transkripzioa

- Noiz hasi zitzen kantetan zu? Zeiñek erakutsi utsun?

- Ba ni ekin nitzen kantetan, bueno: ekin nitzen kantetan, lehelengo-lehelengo, ba, Aramaixon. Don Andres ta don Joaquin zien abarie hor, ta ikesi nauen solfeo apurtxo bat. Ta gero, hor esan ustien... bueno, preguntak-eta eitten ustien ezta? ta, "Gero zer izen biher dozu?", kantie edo koruen edo zera, "zer izen biher dozu?", ta "ba ez dakitt". Joe, eske Angiozarko itsue etorten zan hona jaixetan, Euzkierripara, ta nik joten nauen txistu bat zazpi zulokue. Holako bat zan. E? Zazpi zuloko txistu bat. Ta nik txistue oso ondo joten nauen. Ta harek esaten usten: "Ño! Hik soiñue

ikesi biher heuke!”

- Harek, Angiozarko itsuek esaten utsun.

- Bai. Konke solfeorik ez dauket esateko; apurtxo bat badauket, baiña justo-justuen notak ezautu ta ba zeozer. Ta Angiozarko itsuek esaten usten: “Hi, soiñujolie izen biher heuke!” Ta, bueno. “Bai zera! Ta zelan ta?” Gero, etxien ondio aitte bizi zan ta aittek esaten utsen: “Bai, baserrittarrak zelan ikesiko juek ba soiñue joten?” Ta “Baietz! Hi ekibokaute hao! –aittei esaten utsen– Baserittarrak onak dittuk! Onak dittuk, soiñue joten ikesten. Ta honek ikusten juat oido ona daukela”. Ta holan. Ta pasau zien hiru-lau urte holan. Ta gero kalien koruen ekin nutsen. Ta koruen ekin nutsenien, ba, esaten usten horreik, don Andres ta don Joaquin-ta, orduen egozen, ta, bueno, gero Elgetakue be etorri zan beste abade bat ta, don Jose edo, ta “Joño hik oido ona daukek, benga!”. Ta koruen ekin nutsen kalien, ta koruen ba urte asko ein nittuen. Muñoak, Muñoa, Gerardo Kataliñena ta... bueno, hamar bat gingozen. Oin danen izenak de momento ez jat /etxat/ akordetan. Ta bueno, ba, han ba pozik neu be kantuen. Ta gero esan usten e... etorri zan hurrengo urtien Angiozarko itsue, ta ya banauken hamasei urte edo, banauken, ta, “Bueno, badakik zer ein biher doun? [Badakik?] Soiñu bat erosi biher juau, ta ekin solfeo ikesten nunbaitten ta, soiñu bat erosi ta aurrera ein biher juau”. Ta, “Bueno, bale!”. Ta gero handik segiduen hil jaten aitte, ta “Bueno, orduen zer, soiñu hori ekarri eingo dou, edo zer? Neuk ekarriko dustat soiñue!”. Porke Donostian auken fabrika baten, soiñu fabrika baten, Larrañaga edo zana, auken ba amistade haundixe. Handik zortzi egunera esan usten: “Bueno, han jaukat soiñuek, lau edo bost, han jaukat, ta heuk apartau gustetan jatana”, ta esan usten. Juen nitzen hurrengo egun baten. Hartu bizikletie –nire anaiek bizikletie euken, ta eukitten auen hor lbergoixen, oin anaie bizi dan lekuen auen baju bat, aukien honeik e Mantzanonak, etxe zahar bat auen, Mantzanona, hor eukitten auen bizikletie–, hartu bizikletie ta jueten nitzen Mundraura, ta Mundrauen itxitten nauen –estaziño onduen auen taberna bat, Etxazuri, iguel ezautuko dozu hori iguel ez–, Etxazuri, han ixten nauen bizikletie, hartu trena ta jueten nitzen Eibarrera. Ta, bueno, ikusi nauen soiñuoi ta, bueno, berak esan usten “sonidorik onena honetxek baltzonek jaukek”.

1.27. 'Gabon Gabonetan'

- **Hizlaria(k)**: Arana Urzelai, Felisa; Arana Urzelai, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-067/007
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: 'Gabon Gabonetan' kantua.

Transkripzioa

-Kantaten otsuen amak?

-Bai. Kantuen? Gabonetan? Bai, ze esangotsut, atsalde erdixen edo.

-Eta ze kantu zien eta?

-Ene!

Gabon gabonetan,

errosak galtzetan
Jesustxo jaio da,
jo deigun krisketa!!!

1.28. "Hara hor goiko" kantua

- **Hizlaria(k):** Arana Urzelai, Felisa; Arana Urzelai, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-067/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** 'Hara hor goiko hariztitxu baten/ kukuak umiak egin jozak aurten'. Egia ei da kantuak esaten duena.

Transkripzioa

Hara hor goiko
[harezduitxo] baten
kukuak umiak
egin jozak aurten
kukuak egin
amilotxak jan
ai!, haxe bere kukuaren
zoritxarra baizan
Laralarala...!

1.29. 'Pernando amezketarra', Otsoko eta Axelko

- **Hizlaria(k):** Arana Urzelai, Felisa; Arana Urzelai, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-067/017
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Pernando amezketarraren-edo ipuina. Gonarekin burua estali zuen emakumea, ipurdia bistan utziz. Otsoko eta Axelko eta gaztaia. Putzuko ur guztia edan gazta hartu nahirik, eta, gero, urak eroan gari guztiak.

Transkripzioa

- Margarita: Ni akordetan naz amak kontau eskula egun baten Pello ta...
Fernando Amezketarra, jun ziela ba nonbaitt, erromerixa batera. Gero hasi
zan eurixe ta andriorrek hartu dau hola gonie tapetako ta ipurdixe bistan.
Gizonak ez utsan ezer esaten eta batenbatek nunbaittera ailegau zienien
esan utsen: "Ze, berotute ala?". Ez dakit zelan auken izena andriorrek. "Zer
ba?". "Ipurdixa bistan [zoiez] ta". Zetako ez dustezu ezebe esan?". "Nik

promesie dalakotan!

- Felisa: Kontu bat beste bat hamen... azerixe ta otsue.

- M: A, hori, kalderie..., kaldara batena?

- F: Juen zien... gosie eukien bixek, ezta? ta otsuek esaten auen, nik zeozer jango nauke ba. Ta idetargixe ikusten auen uretan. Ta esan utsen bestiek: "Hori gaztaie da, e!". "Eta zelan ikusiko dogu?". "Ba eraizu zuk ure dana, dan-dan-dan-dana, ta hortxe agertuko da. Ta, klaro, gero "cuando empezó a soltar" urten auen Peruk eta Marixek, eta emun utsien...

- M: Aukien garixe, larriñek itten abitzen, ta eran auenien dana jun zan larriñera, ta, klaro, hasi zanién soltetan eran auen dana k"Peru eta Marixe, garixe daruela urek".

- F: "Urak daruela garixe".

- M: "Urak daruela garixek". Hori kontetan oskun.

1.30. "Kamiñerue" umeak beldurtzeko

- **Hizlaria(k):** Arana Urzelai, Felisa; Arana Urzelai, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-067/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:39:17. **Bukatu:** 00:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Umeak beldurtzeko "Kamiñerue etorriko da!" esaten zieten. Sakamantekasa ez zen hain ezaguna Aramaion.

Transkripzioa

-Zuek billurketako-ta txikittetan ze kontu kontatzen otsuen?

-Kamiñerue-ta izeten zien.

-Aber, kontau.

-Ba zerbait itten bageen beti esaten oskuen: "Kamiñerue etorriko ra, e! Kamiñeruek eruango zaittue, e!" Beti kamiñerue izeten zan. Gero juen zan kamiñerue ta orduan akabau, oin ez dau ezebe. Ta bestelan aguazille, Aguazille. Harek be billurre sartzen [...]

-Eta Sakamantekas?

-Esaten aubien baiña hona ez zan sekula etorri.

-Hamen ez zan sekula eon Sakamantekas; baiña Anbroxio, ez dakitzu? Esaten aubien sakamantekasak eruen auela. "Pero no sé si no tenía manteca, le devolvieron". (Barre).

1.31. 'Txikitxotatik haunditxotara' kantua

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/017
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katar
- **Laburpena:** 'Txikitxotatik haunditxotara' hasten den kantua. 'Gazte gaztatik aitar eta amak' kantua bertsioa polita.

Transkripzioa

- "Txikitxotatik haunditxotara
fraille ninduan nonbradu
estudiuak ikastera be
Salamancara bialdu
Salamancara nindoelarik
bidian neuan pentsatu
estudiante tunante baiño
hoba nuala ezkondu.
Ezkondu nintzan, ezkondu
bai neri ondo damutu
praka beltzien hari zurixe
sekula ez jat /etxat/ faltatu".

1.32. Kantu elebiduna: "Regalarme si tienes dirua nahikua"

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:38:34. **Bukatu:** 00:39:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak
- **Laburpena:** Kantuaz komentarioak. "Regalarme si tienes dirua nahikua" hasten duen kantu elebiduna.

Transkripzioa

- Zeiñek kantetan otsun /kantetatzun/ hori? Zeinek kantetan otsun / kantetatzun/?
- Ikesi, ikesi. Papalak edo zerak aukitten gendun ta ikesi, ikesi. Hortako, hortako juntetan gitzen. Beste bat, hori e... uste dot papela bilbotarrak Martin Monteron Mari andrie... ezautu zaue?
- Ez.
- "Regalarme si tienes dirua nahikua
pendientes y medalla
katai urrezkua
guantes y el amanico
eta soinekua
de rico terciopelo
moda berrikua.

No solo eso Anita
sedazko alpiñak
las medias con sus ligas
eta oinetako ariñak

...

...

con el polvo de niño
pintatzeko ezpaiñak.

No creo tanto dinero
zuk dadukazunik
me habras querido buscarme
gizurrak esanik
porque un millon de veces
ikusi zaitut nik
con la gran [filosera]
zutik juan ezinik".
Hori erderaz eta euskeraz.

1.33. 'Lotxua lotxua gozo' haur kanta

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/019
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:39:38. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** 'Lotxua lotxoa gozo/ lotxo engañadorie' haur kanta.

Transkripzioa

- Eta lo itteko ta ze kantetan zen? Ze kantetan zen...
- "Lotxua lotxo gozo
lotxo engañadorie
lotxo gozuak engañauko dau
Edurne gurie".
- A, ze politte!

1.34. 'Txutxurrutxu mañe'

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/029
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:46:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** 'Txutxurrutxu mañe' errexitatu luze eta polita.

Transkripzioa

- Gero, ibiltzen zitzen burdixen 'Txutxurrutxu' eta hori...
- "Txutxurrutxu mañe
Nun da aitte jaune?

Zeruetan jauna
Zetan zeruetan?
Artuek araketan
Artue zetako?
Olatie eitteko
Olatie zetako?
Abariendako
Abarie zetako?
Mezie emuteko
Mezie zetako?
Aingerutxo bixen erdixen zerure jauteko!".

1.35. 'Txina-txina txorixe'

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/031
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** 'Txina-txina txorixe' eta 'Neskazaharrak joaten dira Madalenara...' kantak.

Transkripzioa

- Ta bai... Txina-txina kantetan zen?

- "Txina-txina txorixe

bustana dauko horixe

heguaz [zinkin] heguaz [etzin]

pikuaz batu garixe"

- "Altuen San Antonio

bajuen..." (haixe ahaztu zamarrien nabil)

....

- "Neskazaharrak joaten dira Madalenara, Madalenera, Madalenara
santuari eskatzera senar on bana, senar on bana komeni bada
santuak esaten dio buruakin ez, buruakin ez, buruakin ez
zergatikan lehenago akordatu ez, akordatu ez orain baperez".

1.36. 'Atxia motxia'

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/032
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

- **Laburpena:** 'Atxia motxia piruli pan' eta beste ume-kanta batzuk.

Transkripzioa

- Eskuekin eta... honek txikitxuek...
 - A! Atxia mutxia?
 - Bai.
 - "Atxia mutxia piruli pan
 neure semia errotan
 errota txikiñek klin-klan!
 Botikario, kalendario
 behin jua nitzan basora
 topou neban erbi bat
 jaurti notsen harri bat
 atera nutsen, atera nutsen
 ezkerreko begi gorri-gorri bat!"
 - "Hor goixen itturri
 ure pir-pil etorri
 ure pir-pil etorri
 Olaberatako [...]
 laba bete ipurdi
 laba bete ipurdi
 laban kabidu eziñe
 labostea itzuli
 labosteko arratoiek
 ipurditik hazi
 ipurditik hazi".
 - "Libiri ta labore
 nun da ganauzaiñe
 nun da ganauzaiñe
 hor goiko estra arruen
 kaka in ezindde".

1.37. 'Libiri ta labore'

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/034
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:49:48. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
 Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** 'Libiri ta labore', ganauzaineko kanta. 'Hor goiko landetan'.

Transkripzioa

- "Libiri ta labore
 nun da ganauzaiñe
 hor goiko estra arruen
 kaka in ezindde
 kaka in ezindde".
 - Hori noiz kantetan zan?
 - E?

- Noiz kantetan zan hori?
 - Hori? Ganauzain ibiltzen zienien. Solo batetik, esate baterako, Arexolako landaen batetik Uribarriko landaen batea ero... kantau.
 - Umiek bata bestiei?
 - "Hor goixen iturri
 ure pir-pil etorri
 ure pir-pil etorri
 Olaberatako fulano
 laba bete ipurdi
 laba bete ipurdi
 laban kabidu eziñe
 labostea itzuli
 labosteko arratoiek
 ipurditik hazi
 ipurditik hazi".
 - "Hor goixen iturri... " hori esan dot, e?
 - Bai. "Hor goiko landetan..."
 - "...
 eperra kantetan
 eperra kantetan
 Olaberatako fulana
 beti barriketan
 beti barriketan".

1.38. Eguneke lana bukatu eta gau-eskolara

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/003
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:04:07. **Bukatu**: 00:06:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Don Lorenzo Valladolideko maisuak, eskola baino instrukzio gehiago irakatsi zieten. Patxik gazte-gaztetatik aitari egur garraioan, idiekin, laguntzen zion. Demetrio Balanzategi artzaina eta biak ibili ziren egur garraioan laguntzaile. Albina mendian laneguna eman eta ilunkaran abade-etxera joaten zen gau-eskolara.

Transkripzioa

-Eta hori beste maixu hori nungua zan? Valladolizkua.
 -Valladolizkua zan hori, don Lorenzo.
 -Oseake orduen formau ereitten otsuein, e?
 -Ez, formau, instruziñuan formal ibilli, e? Ha izan zan be zan, bueno, han orduen.
 -"Cara al sol" a ta kantau ta itten zittuein?
 -Ene! "Cara al sol"? Leheningoko lana. Horreik gauzok erakutsi oskun, e?
 Eskolia asko ez baiña.
 -Ta dotriña berak irakusten otsuen edo...?

-Ez, ez, dotriña abariak.
 -Baiña eskolan bertan ala eskolatik aparte?
 -Eskolati aparte.
 -Baiña hori be derrigorrezkua, ezta?
 -Bai, honbre.
 -Zenbat urte arte ibilli ziñan eskolan?
 -Ba ni zenbat urte arte ez dotsut /etsut/ esango, nik hori eztaukat goguan, baiña lehen esan dotena eskolan gero apur bat in nitzanien, lana ta apur bat itteko, ni ibiltten nitzen, klaro, aitte zana ba ibiltten zien, diru apur bat irabazten euen edo basuen, e, orduan ez euen honeik Volvuok eta honeik zeok, e?
 -Idixakin?
 -Idixekin kamiñora pago buruak eta egurra etaraten eta aittei lagunketan; holan ibiltten nitzen. Goizian juan ta, nik hamazortzi edo...
 -Zela ataraten zittuein, tarrazian edo burdixen kargauta?
 -Burdixen, burdixen, burdixen ataraten gittuen; tarrazien be bai, baiña jeneralian kamiño kontran baegozen tarrazien, baiña bestela burdixen. Burdi arraiaua geukan, burdixa haundixe, ta harekin. Bera eta beste auzoko bat ibilli zan, ta aitte bixek ibiltten zien, ta gu, auzokua ibilli zan, hiru ta... ba, gazteik hil zan ha be. Pastorie zan ta, Demetrio Balanzategi; ha be ibiltten zan geuaz, ha ta neu, aitte bixei lagunketan ibiltten gitzen. Eurak goizien urteten euen idixekin seirak inguru, sei ta erdixak zazpirak inguruen ta horra Vitoria aldera, horra Albiñara, hor itten euen, jeneralien ibiltten gitzan. Ta illunkaran etxera.
 -Eta hola egun bat bai eta hurringuan be bai?
 -Bai ta gero handik, hareik lagunduta etorten nitzenien juaten nitzen gabeko eskolara, abariana, juaten nitzen.
 -Hamen, abade-etxera?
 -Bai, abariak emuten oskun eskolie ta gero ba mas bien dotriña. Holan in geuen gazte denporia.

1.39. Santa Agedako kontu batzuk

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:46:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** Aramaitik bi zoro nola eraman zituzten eta Santa Agedako bere lanarekiko beste gauza ikaragarri batzuk azaltzen digu. Santa Agedako fraideak, gaixotasun arina zutenak behartzen zituzten gaixo larriak zaintzera. Soldadutza ostean jardun zuen Patxik Santa Agedan.

Transkripzioa

-Geixuen barri esaten dozu? Nik badakit han ekarri dittuena hemen, e, Untzillatik aldamenekuek bi anai, e? Burdixa, badakitzu burdixa? Irie bota, e? Gaiñien bota, zera bota, gaiñetik tablak ipini, kajan, e? Lotu kordelaz eta horra ekarrittakuak bi anai, e? Zoratuta, zoratuta.
 -Baiña Untzillatik hara eruen, edo...?

-Untzillatik, edo Xubiñatik, edo zeretik, zelan dan be... Galartzatik. Galartzatik hara. Ta bat, bat zan erlojerue, anai bat eta zerien. Eta zer ona, ezebez? Neu juten nitzen ta zerketan, ulia ebagitten eta zerien. Eta oso-oso majuek eta onak, eta nik eztakit ze kristina pasau jakun hari, ze pasau jaten, hari. Ta holako jentie zenbat holakuak? Ta gero azkenien be, hortik juanda gero batek bere buruari tiro emun otsan; bestiak eztakit ze paradero eruan auen.

-Han?

-Ez, hemen, etxien.

-A, handik urten iñ euen?

-Handik urtenera, atara zittueñien, klaro.

-Horra jun zien, eta denporalietan ondo egozela eta bat bere buruari tirua emun ta beste anaiari eztakit ze pasa jakon. Ta Santa Agedako barrixek? Bale, e? Han lotuta egoten zien, e? Zeran lotuta, hankak eta zerak eta, ha kriston moduen lotuta eta bizarra kentzen zeu, e?

-Eta eurak lotuta, e?

-Eurak lotuta. Honbre! Hor paraje bat euen, la letxe! Eta beste paraje batzuk daz Santa Agedan, oin be egongo die, desde luego, han elixa onduen, kamatxo edo eztakit zela esaten otsien hari, pabelloiari. Han egoten zien danak, zerak, geixo... emakuma geixok, sifilisis edo zela esaten da hori?

-Sifilis?

-Bai. Holako geixuak euen hak. Egoten zien jo ta aiena baten. Ha ikusgarrixa! Eta han lana badakitzu nori ereitten otsien? Santa Agedan frailiak eta listuak, tontuak etzien. Han eraitten otsien geixuei ondo, batzuk geixuek, egoten die batzuk hobeto dazenak, eta harei eraitten otsien hango jeneralien lana danak. Eurak gutxi itten euen. Ta gu juten giñen astien behin bizarra kentzen harei, eta ulia ebagitten. Bestela pelukerixia bertan be baeuken, e? Jente sano edo urteteko moduen euenak, pelukerixia euen, behien, elegantia, e? Baiña bestela, horreik geixuendako ibiltten zien ogerik-oge. Goixien juan ta han ogerik-oge ibiltten zienien bizarra kendu edo [...] edo ulia ebagitten botsen, ni fumadoria enaiz izan ta poltsikua beti beteta, zeraz e, guatioko zeroi, ziarruekin. Joe, zeozer agradeziu bihar ta, besterik ez euen ezer eukitten. Han, han pasua neben urtebete.

-Zenbat urte zeukatsun hara fan ziñanien?

-Ba hori zan soldautza ostien. Neuk dauket sospetxie, bueno, bai, soldautza ostien, soldautza ostien pasa jaten hori.

-22-23kin edo hola?

-Bai, bai.

1.40. Baserrietan ile-apaintzaile

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/018
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:46:39. **Bukatu**: 00:49:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
 Lanbideak » Negozioak, dendak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

- **Laburpena:** Txatxurrenean lauzpabost urte egin zituen. Baserrietako agure gaixoei euren etxeetan apaintzen zizkien bizar eta ileak. Txatxurrenen aldamenean jarri zuen bere ile-apaindegia, beste lagun batekin. Ezkondu arte jardun zuen ile eta bizar-apaintzaile. Soldadutzan ere ofizio berdina izan zuen.

Transkripzioa

-Gero hortik han zertu nebenien gero pelukerixia neuk ipini neben.

-Eta Txatxurrenien zenbat denpora egon ziñan?

-Ba ingo nittuen ba 4-5 bat urte bai, lau bat urte edo? Ingo nittuen, e?

Domeketan be lana, atsaldien ordu bittatik hirurak arte, e? Etxera etorri eta zera, e? Hemen beste dozena erdi lagun etxaitten; ez oingo moduen, e? Orduan holak zure moduko ulia eta bizarra eta, iñor etzan etorten orduen. Eta hemen etxaitten. Ta gero ibiltten nitzen ba, zerbat, hartu erraminttak hartu ta egoten zien geixuak baserrixetan, Barajuenen ta hemen zerien, Zabola zu egon zarien lekuen, ta holan egoten zien ba jente nagusixe eta harei ulia ebagi, bizarra kendu ta holan. Nire bizimodua holan pasau dot, holan.

-Enda esan dozu pelukerixia be ipiñi zebela?

-Bai, bai.

-Pelukerixia ipiñi zebe Txatxurrenetik urten ta gero?

-Urten ta gero. Aldamenien neuk ipiñi neben. Ta gero eukitten neben lan asko eukitten neben eta gero hartu neben beste bat lagun, eta bixen artien, bixon artien in geben. Ezkondu arte.

-Txatxurrenien egongo ziñan 23tik 28ra arte edo?

-23 edo eztakit, etsut esango, horreik kontuok seguru etsut esango. Bai baiñe hori etsut esango, ez, gaiñera txarto esaten dotsut, e? Han soldautzara juan aurretik egon nitzen Txatxurrenien be. Txatxurrenien. Baiña gero itten neben bisitta lana, Santa Agedan eta Txatxurrenien. Itten neben bixetan. Han ikasten Txatxurrenien eta gero Santa Agedan be bai, gero ba pratiketako.

-Praktikaitten?

-Bai, ni soldautzan juan nitzanien be gero konpaiñian neuk itten neben ulia ebagitten ta [...].

-Soldauskan be pelukero.

-Bai. Ta gero eskietan ba, eskiadore tara tokau jaten ta hara juan nitzen. Ta eskietan enaukan nik obligaziñorik eskietan zerketako. Ta gaiñera "Hotel Candanchú", orduen beste eskiadore zerik ez euen hor bat be. Hemen oingo moduen alde guztietan daz oin eskietako zerak ipinita. [...] Eta han zera, libre eukitten nebenien hotelera juaten nitzen, dirua, nik hiru lau lagun, neure lagunak eta? Sekula txakur-txikirik etxera eskatu, e? Dirue beti sobra eukitten neben nik. Kobrau barik.

1.41. Neska-mutilak aparte eskolan

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Politika » Euskara eta politika

- **Laburpena:** Eskolara joaterik ez zuenean, gauez etxean jasotzen zuen ordubeteko eskola-partikularra. Neska-mutilek aparte ikasten zuten eskolan. Jolas-orduak ere ezberdinak zituzten. Maisu-maistrak senar-emazteak ziren.

Transkripzioa

-Bueno, eta eskola kontuak zenbat urtekin akabo zittun?

-Nik? Hamalau urtegaz [...] baiña gero zer? Nik eskolia ibili naizen denporan, neska bat nauken maistrie, ta gu, nire gurasuekin lagun haundixa zan, ta haretzek partikular ordubete egunien emuten usten, gabien, kanpuen lanik eztauenien, o ezin danien iñ, ba haretzek emuten usten ordubete lana, o eskolia.

-Hori egunero edo noizbehinka hori be?

-Ba, ha be astian birritan edo, hiru bider edo.

-Eta maistra hori zer zan?

-Maistra ezebez, hori zan neska bat.

-Zerbai ekixena.

-Bai, horixe; ezebez besterik.

-Baiña eskolan zer zeukatsuein, maistria, maixua, edo...?

-Guk, nik, maistrua gauken, bueno, maistria geuken neskakin, eta maistrua mutikuekin.

-A, aparte itten zeuein eskolia?

-Bai, eurak andra-gizonak zien. Aparte bai, bai. Orduen, lehen neska-mutillek etziren egoten eskolan, aparte. Ta gaiñera rekreuan be lehenengo mutillak urteten baeuen, gero neskak, e?

-A, bai, e? Baiña hori gerra aurretik izango zan ba?

-Ez, ez. Nik gerra aurreko gauzia eztakit ezebe. Nik gerratik honutzauko gauzak.

-Esan dostazu 27xan jaixo ziñala?

-29xen.

-A, 29xen. Bueno, horixe ba, zuk zazpi urte zeukatsunien gerria hasi.

-Bai, bai.

-Eta ya ordurako, aparte. Goguan dakotsu zeuen maistrien izena? Edo nungua zan edo?

1.42. Kaleko erromeriak eta "Hijas de María"

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/014
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Ezkondu aurretik kaleko iganderoko erromeriara joateko ohitura zuen. Angiozarko itsuak eta bere anaiak jotzen zuten, soinua eta saxofoiarekin. Hijas de María kongregazioko neskek

debekatuta zuten Andre Mari erromerian dantza egitea. Rufinaren ahizpa bat kongregaziotik bota zuten, lotuan dantza egiteagatik.

Transkripzioa

- Nola ezagutu zebe zuk gizona?
- Ba, ba gu erromerixaren baten edo ezagutuko gintzen. Aber! Gu ez kitzan hara eta hona ibilli,e?
- Eta erromerixak eta, hemen klaro, ni gipuzkuarra naiz, Oñatikua, ezta? Orduan nik Arabako ohitturak ez dittut asko ezaguketan. Ze jai giro edo ze... nora joteko aukeria zeukatsuen?
- Guk? Aramaixora.
- Zuek Aramaixora?
- Bai. Baiña ezkondu aurretik, e? Bertako bai, Aramaixora.
- Eta ze egoten zan, domekero egoten zan erromerixia edo...?
- Bai, ha, Felix itsua edo esaten utsien /esatetsien/ ba?
- Angiozargua?
- Bai.
- Hona be etorten zan?
- Ha? Hak eukitten auen..., ha baserrik baserri be bai, asko. Baiña Aramaixon kalien be bai, e? Kontinuamente jai egunien ferixan jeneralien. Eta beste bat anaia Julian edo eukien berak, eta haregaz, batak sasafioa edo zera josten utsen /jotetsen/ eta bestiak e... haxe izaten zan hemengo ferixa, erromerixok.
- Eta orduen izten otsuein agarrauan dantza itten ta?
- Bai.
- Etzan egoten problemarik, neskak ez zeuein eukitten problemarik?
- Batzutan bai. Guk [...] izaten zan "Hijas de María" ta, badakitzu horreik. Ta nire aizta bat hil jaten, nire aizta batek ermitta baten proibiu itten uskun betik "Hijas de María" kuei gantzan ittia.
- Ermitta baten?
- Bai. Andra Marixa edo, hortxe, Aramaixotik goratxuau dau hori ermittiori; ermittia ez, eliza haundixa da, ermitta haundixa. Eta han proibiu itten uskuen betik gantzan ittia. Eta nire aitzia zanak harek in iñ euen. Eta "Hijas de María"tik borrau iñ euen. Lehenauko gauzak, nik, badakitzu?
- Hori hemen bakarrik etzan pasaitten, e?
- Zu, bai, nik badakitzu ze esaten doten? Lehen dana zan pekatua, ta oin dana libre dago, nik esaten doten gauzia horixe da. Lehen dana zan pekatu.
- Eta zein zan, zein da egixa, lehengua edo oingua?
- Nik lehengua be txarra, eta oingua be bai, e? Oingua be ezta bape ona, e?
- Neurririk ez dogu topaitten ta.
- Ez. Lehengua be ba bueno, eztakit.

1.43. Eskola baino gehiago, dotrina

- **Hizlaria(k):** Padilla Boveda, Marina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-074/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Auzoko abadearekin lehenengo eskolak jaso eta gero kaleko eskolara joan zen, herriko Bittori maistrarekin. Eskola erdaraz ematen zuen. Gerra hasi zen egunean bete zituen Marinak hemeretzi urte. Dotrina liburuxka zen eskolan zuten liburu bakarra.

Transkripzioa

-Eta eskolan nun ibilli ziñan?

-Ba lehenengo abadiatz, abariak emuten euen, eta haretxeaz apur baten. Gero bestelan, kalien, gauken denporia kalien. Denpora asko ez gen euko guk eskolara ta juteko orduan, denporioi kontuz egongo zan.

-Eta kalien maixuen izenik edo goguan dakotzu?

-Maistria. Bittori! Bai, nik baiño hobeto dakitzu zuk. Goguan hobeto dakotzu.

-Maistria, Bittori.

-Bai. Bittori izena, apellidua zela zan, apellidua be ba, hemengoxia zan, bertakua zan.

-A, herrikua zan?

-Bai.

-Aramaixotarra?

-Bai, zaharra zan, e? Zaharra, ya alabak eta danak haundi indda eukan hak, haundixak.

-Zuk eskolia euskeraz jaso zebeu ero erderaz?

-Euskeraz.

-Euskeraz?

-Ez, erderaz, erderaz.

-Baiña ondiok gerria pasau barik euen. Zu han ibilli ziñanian.

-Bai, horixe! Gerria aurretik, gerria! 19 urte neuken nik gerriak urten euenien. Egun-egunien e?

-Bai, zeure urtebetetien, bai.

-Orduentxe egunien 19 urte itten jaten. Da 14 urteaz eskolan... hori kalea jun nitzena, neu bakarrik jun nitzen e? Da kalera, da hangua ba aurretik, zenbat izango zan ba, 14 urte baneuken, in nittueneko 14 urte seguruetik.

-14 urte arte eskolan ibilli ziñan?

-Bai, eskolan, noizbaitten. Dotriña gehixau, eskolarako libururik eta ez geuken guk. Dotriña kartillia, da dotriña bai, ondo dotriña sartu jatan niri buruen, baiña eskoliai, ba eskolioi...

-Eta zenbat urtekin hasi ziñan goguan dakotzu?

-Nun?

-Eskolan.

-Nik eztakit zenbat urtekin, [...] eztakit, urtiok eztakit, neu ta besten batzuk holaxe ibiltten ziren han.

1.44. Abadearen "esker ona"

- **Hizlaria(k):** Mondragon Jauregi, Kepa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ARA-077/018

- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:49:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Don Vicente abadea Francoren aldekoa zen; Keparen familia, berriz, abertzalea. Gerra aurretik maisu jardundako osaba batek, gerraren ondorioz, zazpi urte eman zituen kartzelan. Beste osaba batek hiru urte eman zituen. Aitak mehatxuak eta etxean lapurretak jasan zituen; orduan galdu omen zuen osasuna. Milizianoak Don Vicente abadea hiltzera etorri ziren; baina, Keparen osabak eskatuta, ez zuten hil. Geroago, Don Vicente abadeak osabaren heriotza-zigorra sinatu omen zuen.

Transkripzioa

-Eta, klaro, bera zan frankistie, eta guriek zien nazionalistak orduen, ez dakitzu?

-Bai.

-Gerra zerien, eta ezin, bata bestiaz ezin, ezin tropezau. Ezin tropezau orduen...

-Baiñe mezetara gaiñera fan in biher!

- A! Biherko! Eta ezin tropezau, eta, neure osaba bat zan maisue, maisue edo andereñue edo zera, gerra aurretik. Eta gero gerran ibili zan Ajuriagerra eta hor konpainian ibili zan. Eta gero zazpi urte in zittuen kartzelan, nire osaba batek. Eta beste osaba batek in zittuen hiru urte. Eta gure aitte orduen hondatu zan.

-Baiñe zure aitte fan zan gerrara?

-Ee ... ibili zan, baiñe ez. Ibili zan zerien, baiñe ez. Eta osabiek ibili zien, ez dakitzu?

-Bai.

-Eta gero gure aitte amenazau, eta, entzunde dauket nik, txahala hartu eta, kortatik, eta, hartu eta eruen, eta agur! Eta holako kontuek entzunde dauket.

-Gerrie pasau ta gero?

-Gerra ostetxue, hor, gerra akabeta, hor.

-Nazionalistie zalako?

-Bai. Eta gero gure aitte hondatu zan, eta gero ez auen onik euki.

-Zuk zeuk senideik galdu zeen, galdu gerran?

-Ez, gerran galdutakoik ez. Oin e, kartzelan egonda zazpi urte nire osabie, bai; eta bestie beste hiru urte eta, bai. Baiñe gure senideik ez zan galdu gerran. Eta gero, ba, haundixaue: etorri zien orduen komunistak, komunistak edo ez dakit zelan esaten zotsien ...

-Milizianuek.

-Bai, milizianuek. Eta, klaro, ez auen orduen kamiñoik, eta hor senda bat auen, eta sendatik honutze, ba, abade hau hil in biher auiela-eta. Eta gure osabiek...

-Don Bizente ya orduen, gerra denboratik auen...

-Gerran... hor gerra zerien...

-Euen ya abade?

-Bai, bai, gerra aurretik be bai, e! Baiñe hor gerran zelan sartute auen Francon zerien, ba, milizianuok edo zerok, ba, beorren bila. Eta gure osabiek, hemendik edo hortik, ba, zelan orduen poderen bat, nundibaittetik baeuken, ba, enterau zan zelan etozen abade hau hiltten. Eta urten eutsen -nik entzunde e?- bidera, eta esan ei zotsen: "Holakoik ez eizue ein. Txar itten badau, on itten badau, itxiozue bakien". Eta gero, berak gure osabiei pena de muertie firmau. Hori nire osabiek kontaute, egixe bada guzurre

bada.

-Holako kontuak ez dia hamen bakarrik pasau, leku askotan pasau dia. Lehenengo lagundu, batek behin lagundu eta berak zu hil.

-Baiñe ... euki zittuen "pena de muerte" bat edo bi, euki zittuen, baiñe gero, ba, nazionalen aldetik edo, ba, indderra-edo baeuken bere lagunak edo bere zerak, eta salbau zan hil barik.

1.45. Untzillako eskolan ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Untzilla auzoko eskolan ibili zen gerra aurrean, Julia maistra burgostarrarekin. Irakurri eta kontuak egiten, erdaraz ikasi zuen. Zazpi urtetik 14 urtera arte ibili zen eskolan. Maistra eskola-etxean bizi zen. Oso zakarra eta gaiztoa omen zen maistra hori.

Transkripzioa

-Amandrie ta aittajauna be.

-Bueno, eta hogeita lauan. Oseake, zu eskolan gerra aurrien ibiliko ziñan, ezta?

-Bai, gerra aurretik, bai, bai. Ta gero...

-Nun ibili ziñan?

-Untzillen bertan, Untzillan.

-Untzillan.

-Untzillako eskolan?

-Bai, orduen bertan egoten zien maistrak, gerua be.

-Eta ze zeukotzuein maisua, maistria edo?

-Maistrie, Julia.

-Julia? Ta nungua?

-Julia, Burgos.

-Maistria Julia.

-Bai.

-Burgalesa.

-Bai bai, burgalesa zan, ene, zakarraue. "Más"... Jo edozein gauzeaitti, gu abandonau ta erropak garbiketan zerea, Miekereketara. Gu eskolan itxitta, danok itxitta.

-Jo eitten zittuein, e?

-Ta jo be bai ta bueno...!

-Eta... euskeraz-ta eittiaatik e...

-Eee orduen euskerie ez, orduen erderie eitten zan. Dana erdera.

-Baiña euskeraz eittiatatik kastigorik edo izaten zeuein?

-E?

-Kastigorik izaten euskeraz eitteaatik?

-A! Ba hori be ez naz /enaz/ akordetan, euskeraz ittiaaittik... ingo uskuen, baiña... ingo uskuen bai, ingo uskuen /inguskuen/.

-Ta ze, ze eskola klase, ze ikasi zeuein?

-Han ba ikasi gauen, ba, guk e "dividir" eaiño alleau... ba "restar",

"multiplicar", "dividir"... ta, ba, horretxek, horretxek, ez dakitzu? Zipirri-zaparra horretxek gauzetxuok.

-Ta irakurten ta eskribiruten ta...?

-Ba ba hori bai! Irakurri ta eskribiru ta. Horreik biher dan moduen. Gu gertu gaz noranahiko. Biher dan moduen.

-Zenbat urtekin hasi ziñan?

-A, ba, orduen zazpiaz-edo hasten zan, e.

-Eta zenbatera arte?

-E, ba, hamalau bat edo. Ba, hola izeten zan, bai. Gero faltak be asko itten zien.

-Eta denpora dana Untzillako eskolan.

-Bai, bai, orduen beste lekutara ez zan jueten. Gerora ekin zan jentie kanpora-ta fueten, baiña orduen dana bertan. Neskatiilla pillo galaaaaantak! Elixu guztie beteta. Orduan asko egoten zan. Dana beteta.

-Ze euen eskolia, eskola-etxe...

-Eskola-etxie, bai, eskola-etxie. Bai, bai, eskola-etxie.

-Senarra: [...] hor aurrekaldie...

-Bueno, neuk esango dittut e, eta zu ixilik!

-Senarra: ... ha etxie...

-Neu naz esantzaillioi.

-Eta maisua auzuen bizi zan edo kalien?

-Ez, bertan bizi... zeren... eta bertan bizi zan. Bertan bizi zan. Soltera bat zan. Bertan bizi zan. Gu goixen ta bera beheien.

-A, eskola azpitan?

-Bai eskolan, beheko pisuen. Ta gu goixen. Ta goixen bittartie euen, ta gu [...] erropa garbiketan fueten zani, beheko, hona beheko zera bat, saska batera, ba, handik bittartetik bizimodue ikusten. Ikusten gutsen txarrikerixa guztiok, oraiñelak eta. Ikusten gutsen sukaldien, ta gu harexei begire. Ta gero atorrenien, hola ifintteko. Makilliaz jo.

-A ta eskua...?

-Bai, bai! Ta hola, hola be bai! Begionduan da! be bai. Ha zakarra izaten zan, ha. Julia. Bai, bai, bai.

-Kontxo. Ze zan, gaztia?

-Ba eeee, orduko baauken hak... gaztia... "esas esas así un poco viejitas". Moxkorra holan puxkat "como yo así un poco gorda y...". Ba "cuarenta años" eukiko zittuen hak iguel. Ta desapareziru zan gerra denporan ta...

1.46. Antzinako sorgin kontuak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/023
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:58:31. **Bukatu:** 01:01:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Eustakiren aitak kontatzen zuen nola sorginak aramaioar agure bat harrapatu eta errekan gora eramane zuten errekanen jaiotzeraino. Han libre utzi omen zuten, baina hurrengo egunean joan eta ez omen zuten inongo arrastorik aurkitu. Itxura denez, antzina sorginak nonahi ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Sorgiñana badakit nik politte!
- Klaro, klaro [...]
- Diferenten bat ez badakit! Diferenten bat.
- Kontau sorgiñen kontuek!
- Moztxue da, e? Han, gure txakurrekikusi zelan igerri dutsen nor datorren, honek txikiñonek! Moztxue da, e? Hori beste kontuoi.
- Bai, aber, aber, bota, igual xao.
- Bueno! Ba antziñekue, hori antziñekue baiñe haik...
- Zure amandriek kontetan auena edo...?
- Bai, nire aittejaunek-eta esaten uskun horreik. Nire aittek! Aittejaune ez nauen ezautu, nire aittek esaten uskun, aurrekuek esanda.
- Aittek! Aber.
- Bueno. Aiutamentukuek edo ez dakit, beti fama txarra aiutamentukuek. Eta Aramaixotik badator horko tontorretik behera, ezta? Handik Aramaixo aldean, Salazan paretik gora igo, hemendik, atajutik, bidez be[hera] atajutik behera, ez dakizu? Atajutik behera badator, eta beheko arreka arruen, hor da Kataietik gora doiena, erreka arruen ure, ezta? Ur-errekie, gero Bolinburu, gero Zabola, eta handik gora Eskoitza alderaiño, han errekie sortu artien. Eta, hango tontorrera allegau zanien, zaratak beheien errekan, eta "Joño! Hor jabitzek! -[deskui obligaziñoi sorgiñ sorgin ibilie]- Hor jabitzek! Isi-isilik pasauko nok!". Eta gizonoi politto-politto badator, behien egundoko -errekan- zaratak eta zaratak. Eta "Isi-isilik pasauko nok" eta behera etorri da. Sorgiñok hartu daue aurrien agurioi, errekaik erreka, errekaik erreka. Errekie joien ba hor dana, Kataietik gora ekindde, hor beheien arruen, ra,ra, ra, Bolinburutik Zabola beheko arrotik hara, handikaldeko Eskoitza aldeko Asentzion, hantxe gastetan ei zan errekiok, han urteten ei auen. Haraxe arte, rrrrrrrrrr, sorgin pilluek, haxiek edo, haraxe arte eruen auen dana urretute. Eta hantxe, gastau jakonien uroi, erreka txarkuoi, "Nun ete nak?" ta buelta ein eta hortik bueltan etxera, etorri, dana urretute, eta "Joe!". Baiña, itxurie, korrientie zan sorgiñek ibiltioi. Hurrengoko egunien "Ikusi biher juat /bijuat/ zer dauen!". Markaik ezebez! Anille itxitte, ahaztute! Anille emuten jako azule, ezta?, erropa zurixei emuten jako. Anille, bai. Anill bat ahaztute itxitte, beste dana, ez markaik bez! Ta sorgin pillue egonda gabien! Eta, haik lehenaukuek hola juen zien baiñe! Holaxe zalakuen juengo zien baiñe hareik! Gure aittek be esaten auen, barre eindde esaten auen gurien. Ba [sudurrei hola eitten utsen eta] barre!
- Zure aittek berak ez auen sekula sorgiñik ikusi?
- Ez! Ez! Esanaz etorren ha, esanaz, korriduaz etorren hori, ezta? Baiñe haik lehen antziñe juen zienak, holan juengo zien, benetan zielakuen.
- Egon eingo zien ta!
- A ba sorgiñek, sorgiñek fama txarra dauko. Ez dakit nik. Sorgiñek eta, sorgiñek zer dien!
- Baiñe zer, nori ein xaue sorgiñek kalteik?
- A ba nik ez dakit ba zer, zerbait eingo utsen! Behintzet ha gora allegau zanien "Joño! Hor ete jabitzek?"
- Ta sorgiñek berakin jolasien!
- "Hor ete jabitzek? -esan auen- Hor ete jabitzek?" [obligaziñue ez auen eukiko].
- Brometan sorgiñak.
- Ba ez dakit ba nik sorgiñok zer izeten dien! Hola, andra zaharrak, ule krispuek eta horreik eta, "holako sorgiñ antza" zergaittik esaten da ba?
- Edo aldrebek! Igual andra gaztiak, rubixa-rubixak!
- E, bai, baiñe harei ez jakue /etxakue/ esaten, jeneralien zaharrai esaten

jakue, e! Atso zahar, ule krispue, hola desfigurau, "holako sorgiñ antza", ta ez dakit ba nik zetatik dator[ren]!

1.47. Gorputzaren garbiketa

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-101/013
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:25:44. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Gorputzaren garbiketa. Madrilen zinkazko ontzi batean egiten zuten. Baserrian mutilak errekarra joaten ziren; besteak etxean balde handi batez moldatzen ziren. Xaboa etxean egiten zuten askok.

Transkripzioa

- Eta garbittu ta zelan itten zitzien?
- E... Madrillen geuken zer... kumune be txikitxe zan, txikitxuek. Ta geuken balde haundi bat, horrek balde "de zinc o de eso", hantxe txandan. Txandan.
- Eta hemen be bai ezta? Hemen ere baserrixetan be eukitte zabien...
- Hemen sikan mutikuk erreka jute zien! Han, beheko errekan zuluk eukien eindde zer bat eta errekan eta ondo... Baiñe, baiñe... hemen be ieul. Hemen be geuken ba... horiek zer haundixok! Ordun, erropie be...
- Barreño...
- Zerin eruten gen ta... Ta holakoxe lekuetan garbittxu in bihar.
- Eta jaboie?
- Jaboie, bai. Jaboie egoten zan. Jaboie egoten zan, baiñe etxien ta eindde.
- Bai.
- "No era de la fabrica". Horrek fabrikakuk ez zien /etzien/. Etxien einddeko... gurien nere amaiñarrebak be etxien eitten euen /eitteuen/ jaboie.
- Ta zerez itten euen?
- E... dakit itten euela /itteuena/ zebue. Horrek karnazexie eukien, ta zebuaz ta beste kostika edo ez dakit zela...
- Bai, kaustika. Bai e...
- Kaustika. Kaustika zan? Ba, holakon bat...
- Sosa kaustika.
- Bai, holakon bat. Hareaz ta eitten euen. [...] mormalak eitten zittuen.
- Eta harekin garbiketan zauien ulie ta dana...
- Bai, bai... Uli hoi ta nik ez dakit zelan garbiketan ebien be... Holakoen batez garbittu hittuan. Madrillen ez. Han e... han danak euen oseake... holako zer guztik ozen, baiña hemen baserrixetan.

1.48. Jaieguneko eta asteguneko arropa

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-101/015

- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:29:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Jaiegunetako eta astegunetako arropa izaten zen orduan. Jende guztiak baserrian egiten zuen lan eta arropak asko hondatzen ziren. Aramaio guztitik pare bat lagun bakarrik joaten zen Arrasatera lanera, oinez, jakina.

Transkripzioa

- Ta erropak eta be gutxiyau oin baiño ez? Erropak...
 - Bueno erropak bai...
 - Domekakue...
 - Domeketakuek, ba, kurioso-kurioso. Gizonak be ikasitte euzen euren bauletan e... ipintten kurioso ta. Domeketakuek erropie ta astegunetakue harek aparte. Honbre! Hemen e... beti baserrixen badakitzu? Soluen, e... oilluekin, ganauekin, danakin, ortuen... Orduen, ezeuen lanik iñun be e! Aramaixotik be... Ni akordetan naz... ez dakit bi edo juaten zien Mondraura lanien ta oiñez e! Oiñez.

1.49. Gabonetako jakiak

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/016
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:29:22. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Gabonetan ondo pasatzen zuten. Jateko, olio-aza, haren saldaz egindako ardo-zopak, ardi zaharraren okela, buzkantzak... Kapoiak ere jaten ziren. "Aniberra" (konpota) ere bai. Ardoa, koinaka, baina txanpanik ez.

Transkripzioa

- Gabonak eta ze moduz...
 - Gabonak eta ondo... Gabonetan ta ez zan /etzan/ falta izeten... beti bertako e... bertako toketan dan zera... Hemen, izeten zan olixo-azie "aquellos que no falte".
 - Olixo-azie?
 - Bai, azie. Tipikue, hemeko... tipikue. Azie e... bueno, olixu botata. Olixo-azie. Ta gero, haren saldie katillueta hartu [...] pitxertxo batea ure ta ipintten euen beroketan. Ta gero, sartzen euen /sartzeuen/ ogi... ogi-kuskur bat hara... hara zerea ta ure gutxitxo, baiñe ardaue. Han pitxerrien ardaue, beda bete ardau ta ogixe botatzen jatzun hara. Ogi-kuskur bat. Han egosten zan, ta gero ha ata ta gero azukarraz ogixoi ogi... ardauan ogixoi ta gero ardaue... saldie jaten zan katillure botaten akon apur hola... Ta oso gozue erateko... azukarra baeuken. Ha izeten zan tipikue e! Ta gero, gehixenetan ardi zaharrak izeten zin. Ardixek, ba, holan baserrixetan gehixenak ardixek [...] ardixe ta buzkantzak izaten zien tipiko Gabonetan.

Ta gero, egoten zien kapoiek hazten zien ordun etxien. Ta Gabonak eta oso ondo pasetan zien.

- Familixan eta...

- Gero, aniberra esaten jakona. Konpota, aniberra. Ha be... ha be dana "con pasas y con higos y con todo que le venga". Harek be bai... harek be ez zien /ezien/ falta izaten.

- Intxaur saltzie?

- Intxaur saltzie? Bueno, "aquellos que no falte". Intxaur saltzie be.

- Txanpana ta eraten zabien?

- Txanpanik... hola... Ordun, ez zan /etzan/ eze. Ardaa... ta gero, koiñak eta horrek bai. Baiñe txanpan asko ez. Baserrixetan, e! Beste batzuten iuel, baiñe hemen ni ez naz akordetan.

1.50. Kartetan jota su jaiegunetan

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-101/017
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:31:38. **Bukatu**: 00:32:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Jokoan egiten zuten Gabonetan. Briskan eta "tomatian" (kulepean). Orduan jai asko ei zegoen, Ama Birjina eta santuen egun asko.

Transkripzioa

- Ta gero ze... ze itten zauien kantau?

- Jokuen, gero jokuen. Gero, jokuen...

- Seiko urrien?

- E... briskan ta tomatien. Tomatie badakitzu zer dan?

- Ez.

- Pues, julepien. Oin eitten dana... oin e... Andraok eta briskan itten daue, baiñe nik neuk briskan eneuke eingo behiñe be! Julepien, bai! Ta holan, asko eitten gen. Tomatien esaten akona.

- Orduen be hoinbeste eitten zan kartetan eta?

- Bai, kartetan asko. Kartetan, bai. Txakur haundi bet... Ta gero, andrak be etorten zien domeketan hementxe geuri... Hemen auzoko andrak hemen jo... hemen, hona etorten zien. Ta atsaldetan, briskan. Domeketan e! Ta gero, izeten zan jai asko eoten zien! Bateko Andramaixak, besteko Andramaixa aurrekuek, besteko... honek jai danok hartzen zien... Oin, ya eztao ezebe, baiño orduen jai asko euen. Ama Birjiñe danen egunek jai! Klaro, gero... fabrikak, ba, hori ezin leike zertu, baiñe baserrixetan ta... "¡Total por un día qué!"

1.51. Apaizek lotzen zuten jendea

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza

- **Erref:** ARA-101/023
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:39:46. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Ez daki orduko apaizak zeruan ala infernua egongo diren. Apaizek lotzen zuten jendea. Ezin zen dantzan egin, nobioari ere besotik ezin heldu. Mezak akabera bakoak ziren. Gurasoek konpontzen zituzten ezkontza asko. Neska-mutilak "kobardiauta" zeuden hainbeste bekatuz eta infernuz.

Transkripzioa

- Ze... ze... nik betik auki dot kuriosidadie lehen andrak eta eukitten ebenien umie ba...

- Noa urten andrak?

- Ba, hori ez. Ze pasetan zan lehen, ba, abariek eta hainbeste...

- Abariek, abariek... lotzen zidduen "hasta no poder más". Abariek ez dakit nik zerue aukiko dauen ala infernua aukiko dauen eurak... Lotu jentie... bueno. Plazan hantxe... plazan be ezin dantzan ezin ein ta gero eleixan... Zelako, zelako zerak e! Nobixuak be besotik obatuta ezin juan. Haxe be pekatu ta dana pekatu!

- Ze itten... sermoiek eta gogorrak izeten zien?

- Bueno! Sermoiek eta ordubetekuek. Elix juaten zitzen mezeta ta noz urtengo zan ideak pez. Oin abadiak esate batea "hik prixa jaukat e... esan aguro mezie". Zerak, Anttonio Arrittakok harek esan otson "hi, gaur prixa jaukou e!"...

- Hika gaiñera.

- De hi gaiñera. Ordun, beroi ta biheko gaiñera! "Bai, jaune" ta...

- Eta entzun eta entzun ezta?

- Bai. Ta ene abari ene... "una cosa". Terrible zan e, terrible. Gero, ezkontzak be aitta-amak itten zittuen asko. Zerak... iuel maixorazkue han ta hurrengo beste maixorazko bateaz ipini... Holakuk asko, asko.

- Maixorazkua esaten dozu?

- Maixorazkua da pues "uno que tiene...".

- Bai, bai, bai.

- Etxie ta...

- Si, etxie ta...

- Eta aittek... aittek itten eben tratue? Aittek aittakin?

- Bai, klaro. Zerak "matrimonio de aquí con matrimonio de otro esto...". Gero, klaro, danak kobardiaute... neska-mutilek be kobardiaute hainbeste-hainbesteko infuenuaz ta, hainbesteko pekatuaz ta hainbesteko eleixaz ta hainbeste zeraz. Ta gero, pentsaizu zer dauen!

1.52. Sermolari sutsua txorizoak egiten

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:42:07. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Abadearengana joan behar zen urtero txartela hartzera komunioa hartu ahal izateko. Urtero kanpoko sermolaria bat etortzen zen. Horietako bat, sermoi sutsuak egindakoa, fraidetatik irten eta txorizoak egiten egon zen handik urte gutxira Maria Angelesen etxean.

Transkripzioa

- Konfesau eta astero itten zitzen?
- Konfesau eta... konfesau eta urtero-urtero txantela hartu biher zen. Ha txantela hartzen ez bazen ya multie be iuel. Derrior hartu biher zen. Aber nor konfesetan dan eta nor ez dan /eztan/.
- Eta txartel horrekin ze... Juan itten zitzen konfesa...
- Txantela abariana juen biher zan hartzen ta harek badaki nok hartu... nok hartu dauen... txantela ta nok eztauen hartu.
- Ta nok ezauen hartu.
- Ta gero, juaten zitzen konfesetara.
- Honbre.
- Sarri-sarri.
- Gero, konfesetan. Gero, urtien behin ekarteuen konfesetan edo Mondrauko fraillen bat edo... Mondrauko fraillen batek ipini euen Aramaixon, Aramaixoko elixan bueno... zenbat pekatu ta zertzuk harek in zittuan. Handik hiru-lau urtea... hiru-lau urtea... edo gehixau izango zan honaxe etorri zan txorixuak itten frailletatik urtenda. Txorixuek hementxe in zittuen. Frailli horrek... ondiok biziko da.
- Esan otsazun /esantsazun/ zuk akordetan zan...
- Nik, nik ez... lotsatu in nitzen. Baiñe gure anaiek, hil zan gure Eugenio, hareaz lagun haundixe zan, eta "hik, hik Aramaixoko jentie dana ipini dok zerure beire!" esaten otsan. Ta bueno, gero... hemen ibiltten zan bueltaka. Ta, "bai, nik Aramaixon makiña bat gauze. Makiña bat zer esan dot" berak.
- Ta lotsatu itten zan?
- Honbre.
- Ta lotsatu itten zan frailli hoi?
- Ez zaukan /etzaukan/ harek lotsaik. Lotsaik ezeuken, baiñe... "ya tendría el gusanito... ya tendría". Bai, gero ezkondu zan. Ezkondu in zan gero, baiña urtero etortzen zan Aramaixoa sermoiek eitten. Ta Aramaixon ondo zeuketan geuen ha!

1.53. Aitarekin etxean asko ikasitakoak

- **Hizlaria(k):** Abarrategi Irasuegi, Maria Jose; Abarrategi Irasuegi, Rosalia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-112/005
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Eskolako kontuak. Liburu batzuk eskolan ematen zizkieten, eta beste batzuk erosi egin behar izaten zituzten. Etxean dirua falta izaten zen, eta liburu gabe ibiltzen ziren. Eskolan, arbela ematen zien.

Mari Jose eta Rosaliaren aita eskolan ibilia zen, eta etxean asko irakasten zien.

Transkripzioa

-Eta ze ikasi zeuein edo zeueik zelan ikasten zeuein edo, liburuek eta nundik... etxetik erueten zeuein?
-Mari Jose: Ez, bertan. Batzuk bertan emuten zuskuen eta beste batzuk etxetik, etxien erositta erueten zeuan. Baiña klaro, pasatzen zana, etxien ez auen diruik liburuak erosteko eta, ba...
-Liburu barik?
-M.J.: Liburu barik.
-Kuadernuak eta lapitzak eta?
-M.J.: Ba, horreik, batzuk emuten zien eskolan eta beste batzuk etxetik eruenda.
-Rosalia: Eskolan pizarrie.
-M.J.: Hoixe!
-R.: Borrau eta... pizarrie.
-M.J.: Besteik ez auen zerik.
-Eta zuek zelan ikasten zeuein numeruek eta. Abakuekin edo buruz edo zelan?
-M.J.: Buruz be bai eta, bestela, hola marra batzuk eindda eta, ba holako zerak.
-R.: Guk geurien aittek eskola asko euen eta asko erakusten uskun etxien. Baiñe eskolan ikessitte bapez iguel e!
-M.J.: Etxien aittak bai, amak ez. Amak ez eukan eskolaik. Baiña aittak bai, aitta...
-Bizkaitarrak orduan...
-M.J.: Bai, harek eskola ona zeukan. Garagartzan ikesi zeban harek, eta ez dakit zenbat diploma eta emundakua, hartutakua zan eta... berak...

1.54. Berriotxoaren bizitza kontatzen zien amak

- **Hizlaria(k)**: Arriolabengoa, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina
- **Erref**: ARA-117/003
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Ipuin askorik ez zen entzuten etxean. Amak gehiago aitak baino. Antonio (Balentin) Berriotxoaren bizitza kontatzen zien liburu batetik.

Transkripzioa

-Etxian ipuinik-eta kontaten zan?
-Etxien ipuiñek? Ipuiñek ez. Orduen eitten zan etxien errezau asko ta lana gehixau.
-[Kontatzen otsuela] lau-bost-sei urtekin.
-Ba "Atxia mutxia" ta holako kontuok, holako kontu batzuk bai.
-Eta zein izaten zan, ama ala aitte?
-Aittak gurien kontu gutxi, amak gehixau. Amak kontetan joskunan,

badakin zer? Antonio Berriotxoan bizimodue. Jaukonan haren liburue, eta ha liburue leiduten jonan eta haren bizimodue kontau joskunan beti. Zela harri gaiñien lo eitten auen, zelako erresaixuak errezaten auen, ta zenbat gauza eitten zittuen. Hoixe, holako gauzak.

-Zure amak leiduten jakitzie orduen... Nun ikesi auen?

-Etxaixanat. Harek leidu ba justuen, eta hori liburuoi jaunak euskeraz, eta oindion be eongon Aldekon hori, holakotxe liburutzarra. Antonio Berriotxoan bizimodue.

2. Euskara

2.1. Aramaioko euskara

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-013/004
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:02:51. **Bukatu**: 00:03:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Aramaioko euskara eta inguruko herrietakoa alderatzen ditu. Ezaugarriak aipatzen ditu: doinua, hitz amaierak...

Transkripzioa

- Zeuek euskeria zelakua dakazue zure ustez? Gehixau Otxandixo ingurukua, edo gehixau...?

- Ez, guk Aramaixokue. Otxandixokue bez. Otxandixon beste tonoa bat dauke, Olaetan be bai, Billarrialean be bai... Ta puskat e... ba... Arrasaten, Mondraguen be, apurtxo bat... Han esaten daue: guk "ogixe" esaten dou, "ogixe"; han "ogixa", "ogixa". Ta "esnie-esnia". Ta hoixe. Ta gero Otxandixon ta? "eeeeee!!!" hori, tonaa bat eitten daue gehixao. Ta oletarrak be bai.

- Zuek kapazak zarie jakitzeko bat Oletakua dan edo hamengua?

- Bai, bai, bai... ensegida igartzen dutsau /igartzetzau/. Gero hamendik hau, balle Leniz aldea, hamen, Gellan, Atxabaleta, Eskoriatza... geure antzea horrek gehixao.

2.2. Ez zekiten erdararik txikitan

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-101/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:11:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolara gutxi joan zen etxean anai-arreba txikiak zaindu behar zituelako. 13 urterekin Madrilera joan zen eta han bai, han joan zen eskolara. Txikitan ez zuten erdararik ulertzen, eta eskola erdara hutsez izaten zen

Transkripzioa

- Ta eskola jua zitzen?
- Hemen, oso gutxi. Oso gutxi juten nitzen. Umiek, umiek... neu nausixena ta gero zelan e... umiek etxe... zeretik neken, ta aitte ta ama soluen ta lana in bihar uen orduen eta gero ni geldiketan nitzen apur bat umiek zainketako. Ta gero, ni jua nitzen hamahiru urteaz Madrilera, eta gero han eon nitzen. Eskolan han ibili nitzen.
- Hamahiru urterekin Madrilera jua zitzen?
- Bai, jua nitzen.
- Ta hemen tokau jatzuna Azkuan. Toketan jatzun...
- Azkuan. Orduantxe... lehenau Azkuan ezeuan eskolaik. Juten zien e... gure denporan ya eskolia ein zan, baiña danak kalea juten zien... baiña kalien be eskola... Ta gero, in zan Azkuan. Ta gero, handik gero, ipiñi euen zerien... Uribarrin... ipiñi euen.
- Eta hango maistruen eta... gutxi egon zan, baiña rekuerdue ona-txarra?
- E ni hasi... Egon nitzen maistro bat zan Valladolidkue, Don Lorenzo. Etorri zan... ta gero maistra bat be bai. Maistria ez dakit nora etorri zan e... soltera, ta ezkondu zan hemen. Ta auki euen mutiko bat, Lorenzito. Azkoako hortan ere... Azkoaz ta... ya mutiko... mutikotxue indde jua zan. Valladolidkuak.
- Ta onak zien zuekin maistruek eta? Ondo portetan zien?
- Ba, orduen guk ez gekixen erderaik ezebez ta berak euskerak ez. Lehenau, euskeraz ez dotzue emuten zerik... ta gero Francon denporan ez e... ezebez. Ez e...
- Ya...
- Erderaz, dana erderaz. Euskerie ezeuen izten, eta hemengo jentiek erderaz ez gen entendiduten ezebe. Ezebez. Ni be Madrilera jua nitzenien erderaik ezebez.
- Hamahiru urtekin orduen ikasi zen?
- Bai, klaro. Hamahiru... Hamahirutik hamazortzira. Ta gero, ba, nire bizimodu holan izen zan. Gero, ondo ba!

2.3. Txakur handi bat entregatu behar eskolan.

- **Hizlaria(k):** Abarrategi Irasuegi, Maria Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-112/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gureia auzoko eskolan ibili ziren biak. Etxeko lanetan lagundu behar izaten zuten, eta ez ziren beti joaten eskolara. Maistra eibartarra zen; erdalduna. Eskolan euskaraz hitz eginez gero, txakur handi bateko multa ordaindu behar izaten zuten. Ikasleek bata besteari pasatzen zioten txakur handia euskaraz eginez gero.

Transkripzioa

- Eta zer kontaitten dostazue, eskolan nun ibili ziñain, hamen auzuen edo...?
- Mari Jose: Hamentxe, bertantxe, auzuan. Denborie zauenien, oseake, etxien lanik ez auenien, faten giñen eskola. Eta etxien lana zauenien, beti

zauan lana, eta ba... eskola gutxi, justo-justo.

-Rosalia: Bapez eskolarik.

-Maixue nungua zan edo goguan daukotzue? Maixu, maistria edo...

-M.J.: Maistria, bat Eibarkua.

-R.: Bai, nik hasi eta akabau haretxeaz in neen-eta! Besteik ez neen ikusi.

-M.J.: Nik besteik ez naiz gogoratzen. Haura, eta gero beste bat be bai, baiña haren zerik ez daukat.

-Euskalduna zan eibartarroi?

-M.J.: Ez, ez, ez!! Jolin! Euskeraz ez auen eitten. Euskeraz eitten giñuenien, txakur haundixa kentzen uskun, multia. Eta klaro, etxien diruik ez auan eta ha zan larrittasuna! Zela, txakur haundixe zelan eruengo ete zan. Etxien ba, etxien esaten giñuen eta, ba, bueno, aittak edo amak beti emuten zuskuen eta eruen. Baiña nik haura ikusi neban kastigu bat bezela. Eske, kastigua zan, ahi está, besteik ez eukan zerik.

-Beste leku batzutan, Oñetin eta, egurra emuten euen, baiña...

-M.J.: Uf! Egurrakin ixilik itxiko dou /itxikou/.

-Osea ke umiek eskolaa fatie gura ez. Erderaz jakin ez eta euskeraz ein eta kriston palizak.

-M.J.: Klaro, hamen be hola...

-Hori txakur haundixena, zer itten otsuen, euskeraz itten zebe bakoitzien ala euskeraz itten bazeuein hurrengo egunien...

-M.J.: Azkenengoko momentuan, igual baten batek etorri eta "hi, borragomia badaukak, badaukan edo badaukotzu", eta ba "bai!", igual konturatu barik, eta "aiba txakur haundixe".

-R.: Etxera eruteko txakur haundixa...

-A txakur haundixena, zera, pasaitten...?

-R.: Pasau eitten zan.

-M.J.: Klaro! Klaro!

-R.: Eskolan bertan itten auenien pasau itten zan.

-M.J.: Klaro.

-Nere ama, enkanbio, Arantzazuko fraidiekin ikasi eben harek, eta haik, ziritxo bat emuten otsan, maistruek emuten otsan euskeraz itten auen lehenenguari ziritxo bat, egurrezko ziritxo bat, eta harek, zeueik txakur haundixena itten zaiena, holaxe pasaitten. Baiña haik azkenengo eguna, osea, eskolako, eguneko eskolak akabetan zirenian, makillie eukenak, zirixe eukenak palizia.

-M.J.: De todas formas, dana zan egurra ta!

3. Familia eta harremanak

3.1. Aitaren familiari buruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-013/005
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:03:49. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Feliperen aitajauna Maringoa zen. Aitajauna eta amandrea Zabolan bizi izan ziren, eta 1922an joan ziren Azkoaga auzora bizitzera. Feliperen aita Azkoagan ezkondu zen, eta zortzi seme-alabako familia

osatu zuen. Auzoko etxe gehienetan familia handiak ziren. Ume gehienak baserriko lanetan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Eske gero, eitten dau, ba... gure aittajuna be Maringue zan, Marindik etorri... Lehelengo harek bizi zien hor auzotik... beste... Zabolán. Ta gero handik hona etorri zien bizitten aittejaune ta amandrie, ta aitte, ondion soltero euen. Beintisietien... ez, beintidosien etorri zien harek. Beintidosien. Ta, gero, ba, hamen ezkondu zan, ta gero, ba, hamen hazi giñen gu. Zortzi seme-alaba: lau mutil ta lau neska. Danok bizi gaa oindion.

- Lehen normala izango zan.

- Baai, hamen etxe danetan. Ta horreik Elejaldetarrok, horreik badie hamaika edo. Ez dakit zenbat. Horreik gehixao die. Ta holaxen etxe danetan: zazpi, zortzi, hamar... Danetan. Baserrixen. Ta pillo bat baserrixen lanien. Batzuk eskolara, beste batzuk ganaua zaindu, beste batzuk...

- Bihako hamar eukitzia basarrixa aurrera etaratzeko!

- Ez, ez. Hori ba. Biharleku, ba, hoixe, familixiendako, ba, jarraiketako harei danai, eskolak...

3.2. Ezkondu arte Mugertzan

- **Hizlaria(k):** Elexpuru Altube, Domeke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-061/007
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ibarragoiko Mugertza baserrikoa zuen ama, eta aita Etxaguen auzoko Labeagabekoa (“Labia”) baserrikoa. Mugertzan bizi izan zen ezkondu arte.

Transkripzioa

- Aitte ta ama nungua zeuken?

- Nik ama, ama hamengoxie kalekue, zuen etxe ostekue, Mugertzakue. Ta aitte Labiakue (Labeagakoa).

- Etxanekue (Etxaguengoa).

- E?

- Etxanekue (Etxaguengoa).

- Etxanen (Etxaguen), bueno bai Etxanguen edo Labiakue (Labeagakoa).

- Gantzakue.

- A, Gantza da?

- Etxaguen.

- A, Labia (Labeaga) Etxaun (Etxaguen) da. Bai.

- Eta hazi nun in zitzen?

- Ni? Han, Mugertzan, Ibarragoixen. Jaixo ta bizi, hantxe. Ta...

- Ezkondu arte?

- Ezkondu arte. Hogeta zazpi urtekin ezkondu nintzen, ta harrezketero hemen...

3.3. Mutikotan umezurtz

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Zazpi urterekin ama hil zitzaion, eta handik lauZpabost urtera aita ere bai. Umezurtz geratu zen. Arreba bat zuen eta bost anai ziren. Bera txikiena, eta ondo hazi zuten, denen artean. Ama falta izatea oso gogorra da.

Transkripzioa

- Ta gero, ba, hantxe!. Handik zazpi urtera edo ama hil jaten. Primera komuniñue itteko bezperetan ama hil jaten. Ta, ba, hantxe geratu nintzen. Ta gero handik lau-bost urtera aitte be hil jaten. Bai, ta... gaztik. Ta geratu nintzen, ba, mutikotxue aitte ta ama barik. Ta, bueno, ba, etxien ba, arrebie, Benedi, ointxe, denpora asko ez dala hil jaten, ta, bueno, izen giñen bost anai ta arreba bat. Ta, bueno, nik uste dot nirekin ondo portau ziela danak, konke, hazi nindduen, aitama barik. Eta, bueno, hori gogorra da, pentsau, [zegaittik] aitamak falta izetie, batez ere ama, ama falta izetie izeten da, nik uste dot, gogorra, nahiz ta txarra izen. Nik ikusi dot etxe askotan ama barik sentidu eitten dala gauza bat falta. Hori nire arrebiek eta anaiek eta danak lagundu dustie oso ondo, e!!

- Zer izen zara, txikiñeña? gaztiena?

- Ni gaztiena, bai, gaztiena.

3.4. Aitona itsasoan hil

- **Hizlaria(k):** Arana Urzelai, Felisa; Arana Urzelai, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-067/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aitajauna Ameriketara zihoala, barkua urperatuta hil zen. Ez dute aitajaunik eta amandrerik ezagutu.

Transkripzioa

-FEL.: (Etxia) erosi-erosiein euen gure aittejaunak, hamentxe jaiotakua ra, baiñe euen Argentinan famelixie eta joién haretxek ikusten. Ta "en Vigo", Vigo pentsetan dot, Galizian, urten eta, denporal batek urten eta...

-MAR.: ... jo ezkiña bat eta barkua apurtu in zan, ta ha itxo in zan. Joién bere alaba bateaz eta alabie zelan mariaú itten zan, kubiértan oien, eta harek....

-FEL.: Ta agertu zien bera ta Eibarko bat edo "nadando, navegando en una balsa, desnudos...".

-MAR.: ... erropa barik eta ezebe barik. en la Isla de [Zálbora]. Baiña zenbat urte?

-FEL.: Ba pentsaizu, gu jaixo baiño lehenau hil zan aittajaune.

-Aittajaune hil jatzuen zuei?

-Guk ez dogu ezautu ez aittajaunik eta ez amandreik. Batzuk "por desgracias y otros porque se murieron..."

-Ez amana ta ez aittena.

3.5. Arropak garbitzera

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-069/003
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Arriolara joan zen umetan bizitzera. Abadea txantxetan. Oso bizimodu gogorra zen ordukoa. Arropak garbitzera nora joaten zen.

Transkripzioa

- Juan zitzen Aixola (Arexola)?

- Gero juan nitzen ni e... ba zenbat urte? Jo, abarie bizi zan, Aixolako (Arexolako) abarie Don Silbestre. Eta, klaro, ha bizi zan Arrixolan (Arexolan) ta Arratik bueltie itten nen esaten esten hola jotzen esten buruen, bekokixek eskue ta holan itten zen plantie: "Zuk jan dozu txokolatie. Zu txokolatie janda zatoz!" Beti ha tentetan. Ni barrez. juan ta negarrez, amama ikusi ta negarrez. Jo, etorri barrido etxea, eta lehenau... lehenau zelan... zelan bizi zala pentsatzetan dozue jentie? Urik be ez zauen / ezauen/ etxien! Etxien, holako... arran, arran bertan iñoa juan barik. Holako askatxo bat behixek eta edoteko? Eta eurak grifotik hartzen auen ha. Erropak garbi... holan... oheko erropak eta zertzen badakitzu ona juten nitzen? Lekina. Hartu astuen erropak...

- Kalera.

- Kalera. Kale onduen dau Lekina.

- Bai, bai.

- Ba, Lekinan eukien, ba, labadero bat. Lekina baiño goratxuau eongo zan, bertan Lekinan barik goratxuau edo eongo zan. Hara juaten nitzen, ba, Lekina, Basauti... ta Basautin pare-parien edo euen hori aski hoi. Hartu astuen erropak eta hara. Amamak aukitten zittuen, ba, jaboitten bigunketan. Ni juan aurretik, Aixolatik (Arexolatik) juaten nitzen hori itten. Hartu eruen hara, zertu eta barriro hara.

3.6. Esamesak lehengusuen arteko ezkontzagaratik

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-069/014
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:34:32. **Bukatu**: 00:35:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Senarra lehengusua zuen. Era guztietako esamesak ibili ziren herria: ezin zutela familia osasuntsurik izan eta abar.

Transkripzioa

- Aitten anaie, aitte. Nere aitte. Asike pariente urrau... neba-arrebak izan ezik! Ezin leike egon! Neba-arrebak izan ezik. Bai, bai. Ta gaiñera ene... [...] ona ibili gauen jentiek. Eske holakuek Aramaixon be bazen. Eztittuela aukitten familixie zera... sanue... Guri asmete ezkun bueno! Dienak eta eztienak! Beitu ha juende dau betenaixue lagun haundixa euken ta preguntaute be bai betenaixuei "jo, ezkonketia gure eta etsoskuk ixten!". Betenaixue, Aramaixoko... betenaixo bat egon zan kanpokoe edo bueno euskaldune...

- Don Rafael edo?

- E?

- Don Rafael, ez... lehenau. Don Rafael baiño asko be lehenau. Bai, bai.

- Zan oso lagune ta oso... asko balixo dauena! Eta lagun haundixek zien bixek, eta "hik ez eixon kaso in holako tontokeixei!".

3.7. Gariaren lanak asko aldatu dira

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserrria » Baserriko lanak » Garia
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Garia igitaiz ebakitzen zen, eta ilunkaran garia lotzen zeudela arrosarioa errezatzen zuten. Patxiren aitag garia ebaki eta lotzeko, idiekin tiratzekoa zen makina erosi zuen. Geroago, auzotarren artean gari-jotzaile makina erosi zuten, garia jo eta lastoa ganbarara jasotzen zuena.

Transkripzioa

-Hamen garixa eta ebaten zeueñien, garixa, ba, artua be soruetan artua be euko zeuein, ezta?

-Orduen? Bai. Sail batzuk garixe eta beste batzuk artue. Soruek, [...] hau, bestie, soruek.

-Eta garixa ebaten zeueñien... zela zan, garixa ebagi, jo ta lan horreik?

-Ba garixe ebaitten geben dana eskuz, igitixaz. Gero, egunez ebaitten eta gero lotu itten zien, garixaz beraz, e? Korapil bat indda. Ha lotzen dabillen denporan, aittajuna difuntuak eta, erresarixua errezau, egunero; holan ibiltten giñan.

-Soruen garixa lotzen eta errosarixua errezaitten?

-Bai, bai, erresarixua errezau egunero, etxien ezipazan han lotzen gabitzenien.

-Soruen nok errezaitten eben ba? Nok esaten eben errosarixua?

-Aittaittek. Klaro. Aittaittek itten auen. Ta hareik itten dauen moduen, Santamaria bateri eta bestiak bestaldera kontestau, holaxen itten zan. Ta gero ba, gero hortik gure aitte zanak ba bastante zera zan, ta erosi euen zer bat, segadorie eta atadoria, garixa ibiltteko. [...] bestela danak galdu itten ziela, ta adelantua hortik hasi zan. Ta gero haren ostetik lelengoko zera, tiradorie, erosi euen auzuen. Juntau zien horrenbesteko bat, ta makiñista itten euen nire aitta zanak, itten auen makiñista. Ta horrek, lehen esan dotsutena, horreik bihorrak, horreik eta tiraketiok eta horreik danok, haretzek kendu zittun danak. Ta harek itten euena, makiñiek, jo garixe eta lastue kamarara jaso, dana itten auen bat. Ifintten autsen tubuok eta da, baserririk baserri. Holan ibilli zan ba urtietan, aitta difuntua. -Eta esan dozu makiña bat ebateko eta lotzeko, bixak. Hori zer zan, idixakin tiratutakua edo...?

-Bai, bai, idixekin ebalten zan, idixekin. Idixekin ebalitta.

-Horrek ebagi eta lotu itten zittun?

-Bai, ebagi eta lotu itten zittun. Oin, ha bestien moduko tamañukuak, [...] haunditxuaua, baiña lotu itten zittuan. Gero horren ostetik etorri zien horreik, segadore zera, eta aumentauaz jua zan.

3.8. Ezkontzeko, janaria prestatzen ikasi behar

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/007
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Lanbideak » Neskameak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ezkondu aurretxoan Bergarako Gaspar tabernan egon zen neskame, tripa-truke, sukaldeko lanak ikasten. Ordura arte baserriko lanetan bakarrik jardundakoa zen. Neguan huntzaren fruituak (huntzurria) batzen zituzten bildotsekin zeuden ardiei emateko.

Transkripzioa

-Eta orduen zazpittik hamalau arte eskolan.ar

-Bai, ahal dotenien.

-Ahal zenien. Eta bueno, gero esan dozu klase partikularrak be hartzen zittula.

-Bueno bai, baiña hareik be justuak, e? Ez holan asko.

-Horreik etxien hartzen zittuen?

-Bai.

-Eta behin eskolia akabo eta gero...

-Betik egoten zan niretako zeozer itteko.

-Zu orduen betik etxien.

-Ni etxien. In nittuen...

-Kriada edo etziñan ibilliko?

-Ezta. Kriada jun nitzen Bergarara, ezkondu in nintzelako. Ba klaro, nik etxeko [...] ez, eta ezebe enekixen. Eta in nittun hiru hillabete hor Bergaran, Gaspar edo. Zan taberna bat, ta haraxe jun nitzen koziñan ikastera.

-Tabernara ikastera.

-Bai. Ikastera, e?

-Baiña kriada moduan?

-Kriada moduan bai, baiña kobrau barik, e?

-Kobrau barik.

-Bai. erakustearren egon nitzen hantxe hiru hillabete. Ta hiru hillabete baiño lehenago hasi jaten aitta: noiz etorri bihon etxera? Noiz etorri bihon etxera? Ta, bueno.

-Bergarako Gaspar-ren esan dozu?

-Bai.

-Tabernia zan, edo jatetxia, edo bixak?

-Tabernian zan, bai. Oin eztakit zelan dauen ha.

-Etxat itten ezaguna izen hori. Baiña neu Oñatikua naiz.

-Bai. Ba hantxe egon nitzen. Ta hiru hillabete baiño lehenago aitte larri zan. Noiz etorri bihon; noiz etorri bihon.

-Eta fan in bihar. Edo etorri in bihar, e?

-Badakitzu. Eta gero harek esaten ustien /esatestien/ beste hillabete gehixago eta beste hillabete gehixago. Eta ba bueno, beste hillabetien ta enittuan danak akabo. Baiña ba lelengoko hamabost egunek itxi ustien / itxistien/. Nire bizimodua horixe izan da.

-Eta orduen handik Bergaratik, hor zenbat urte zeukatsun?

-Bergaran egon nitzenien? Ba eukiko nittuen, 24az ezkondu nitzen, ba nik eukiko nittun hogeta pare bat urte edo.

-Emakumia ya indda.

-Bai, bai. Emakumia, ba klaro. Ba horretxegaittik.

-Eta ordura arte orduen betik e...

-Ni beti izan naiz baserrixen.

-Eta lehen kontau dostazun hori, ardixak edur azpiko larria jateko zuek edurra batu itten zeueilla, bedar hori bistaraketako ta.

-Bai.

-Halako lanik goguan dakotsu besteren bat, oin makiñiakin edo beste modu batera itten danik. Holako lan zerak, neretako oso arrarua da, nik sekula entzun barik neuken hori. Ardixentzako larria bistaratu egin bihar izaten zala.

-Ba huntzurrixak boliak eukitten dittu ba, horreik gorrixok. Zuek eztakit zela esaten utsezuen. Huntzurrixa, berdea, hori berdiori, hor daku guk, e...

-Arantzaduna?

-Arantzia ez, eztauko arantzarik.

-Korostixa?

-Ez. Guk huntzurrixa esaten dutsagu /esatetsau/. Hortxe gero fijau zaittez eta hortxe, tabiketan eta taberna aurrekaldien dau horman pegaute. Hori gora juten da e...

-A, huntza.

-Zuek holakon bat esango dutsezue.

-Bai, huntzaren famelixakua, paretak tapaitten dittuena.

-Hori da! Ba hori, ardixendako billotsa itten auenak[endako] besterik ez eukien, ez bedarrik eta ez ezer, horreik batzen ibiltten gitzen arbola gaiñera igota. Ardixek barruen zeozer jan dagixen.

-Zela esan dozu bedar horren izena, edo landara horren...?

-Huntzurrixa guk esaten dutsau /esatetsau/ horri, bai.

-Huntzurrixaren puntak, puntak edo bolak edo, "bayas" edo esaten xate erderaz. Huntzurrixaren baiak ardixentzako. Billotsakin egozenien, ezta?

-Ba klaro.

-Billots garaixan. Ondo dago. Zuek horreik batu ta... baiña hainbeste ardintzako asko batu bihar.

-Baiña danendako ezin. Batzuk egoten zien argaltxuau, besta batzuk

egoten zien fuertetxuau, eta fuertetxuak ba, ke pase esan ta aurrera, ta bestiak berriz, ba emun in biher.

3.9. Lehengo ezteiek bi ospakizun zituzten

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-072/016
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:39. **Bukatu**: 00:40:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Eztei-bidaian ezagutu zuen Rufinak Donostia. Ostegunean ezkondu eta larunbaterako etxera itzuli ziren. Ezkondu zen egunean, alde bietako gazteekin ospatu zituzten ezteiak, bere jaiotetxean. Bidaia itzuli eta gero, senarraren etxean, guraso eta edadeko gonbidatuekin ospatu zuten; alde bietako senide eta auzokoekin. Hala omen ziren lehengo ezteiak, baserri batera ezkontzen zirenean.

Transkripzioa

-Eta ezkondu ziñaiñian, viaje de nobiosik edo in zeuein?

-Donostiraiño.

-Aurretik sekula egonda?

-Ni ez, bera bai. Baiña ni ez.

-Eta ze pentsau zebeñ itsasua ikusi zebeñien?

-Ba bueno, bai, eztzunda baneuken ta, ba bueno. Berak soldautzaia Donostian pasau eben, e?

-A, horregatik fan ziñain harutz?

-Ba berak haxe gura euen, ba ha ikusteko zer zan, ta bueno. Gaiñera eguen baten ezkondu, eta zapatu illunkaran etxera.

-Biajia akabota.

-Bai. A, klaro, guk geuk eguenien zelebrau geben bodia gaztiekin, eta gero zelan, lehenau ohittura bat euen baserrire, etxera ezkonketan zanak gurasuekin eta zaharrakin, edadekuekin pasaittia, beste bazkari bat egittia. Ta guk ba horixe...

-Hori ezkonketan ziñan lekuan.

-Ezkondu nitzen neure etxien. Nere etxien egon zan gaztien bodia, ezkondu nitzan egunien gaztiak euki euen bodia bakarrik. Zaharrik ez zan egon, edadekorik iñobez.

-Hori kalia?

-Bai. Ta geo hori zan eguen baten, ezkondu nintzena, ta zapatuan esan dutsutena etxera etorri gitzan. Ta orduen, hurrengoko egunien, hemen euki geben bazkeri bat, edadekuakin eta auzoko jentiekin.

-Baiña zeure famelixakuak...

-Geure famelixakuak, bai, bai. Bere famelixa aldekuak eta neuriak, eta auzokuak.

-Aiba! Hori entzun barik neuken.

-Bai, bai, hori...

-Bi boda...

-Lehen bi boda itten zien.

-Gaztiekin, e...

-Oin, baserrire ezkonketan zana, e? baserrira ezkonketan zana.

-Baserrira ezkonketan zana orduen, ezkontza egunien kalien bat gaztiakin.
 -Bai.
 -Eta gaztienien zeintzuk sartzen zien.
 -Gaztiek, ba solteruak.
 -Anai-arrebak eta hola.
 -Bai. Primuek.
 -Primuak. Alde bittakuak.
 -Bai, bai, alde bittakuak.
 -Eta gero alde bittako zaharrak ezkonketan ziñan baserrixan...
 -Ta auzokuek.
 -Eta auzokuak. Hori Arabako ohitturia ete da hori; nik halakorik eztoz entzun Gipuzkuan ondiok.
 -Ba hori Araban; eztakit Gipuzkuan badauen edo ez euen. Baiña Araban hori euen, e? Eta ez ni bakarrik, e? Hona baserrixa ezkondu zienak, danak, e? Danak.

3.10. Oñatitik Arrasatera

- **Hizlaria(k):** Arriaran Larrañaga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-085/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 12 urte inguru zituela, Oñatitik Arrasateko Mendi Etxebarri baserrira joan zen bizitzera, familiakoak bizi ziren bertan. Baserri horretan, alaba bakarra zuten, eta harekin egoteko eraman omen zuten.

Transkripzioa

-Zenbat urtekin etorri ziñan Arrasatera?
 -Ba nik ez dakit, dozena bat urte? Hamabi urte? Holakoren bat izengo zan, asko gehixau ez e. Ta gero...
 -Ta zela ba, zela etorri ziñan bizittera... etorri ziñan bizittera Mendi Etxebarrira, ezta?
 -Bai, bai.
 -Ta zela ba Oñatitik...
 -Ba, zerak, primiek laguna biher euelako. Laguntasuna eittera.
 -Bera ume bakarra, zan?
 -Bai, alaba bakarra ta, ba, bera, ba, kuriosa ibiltten zan ta ni ekarri nindduen horra, ta hortik. Ta gero ezkondu be hortik ein nitzen.
 -A bai, e?
 -Bai.

3.11. Baserriaren izen ezagunagoa

- **Hizlaria(k):** Balanzategi Unzueta, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-091/001
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Azkoaga auzoko Zabola auzuneko Garaikoazpi baserrian jaio zen. Baserria Txanberga edo Txamarga izenez ezagunagoa da.

Transkripzioa

- Esango dostazu /esangoztasun/ izena ta apeliduak?
- Sebastiana Balanzategi.
- Bigarrena?
- Unzueta.
- Unzueta. Eta nun eta noiz jaixo ziñan?
- Azkuan (Azkoagan), Zabolán.
- Zabola auzuan ze...
- "El 20 de Enero".
- Baiña Zabolako ze etxetan?
- Garaikoazpi.
- Garaikoazpi?
- Bai, Txanberga esan izan die /izantzi/, baiña Garaikoazpi da.
- Txanberga?
- Bai. Izan bihar euen gure bisabuelue edo ba...
- Zuek, zuek Txanberga esaten xatzue edo Garaikoazpi?
- Oin, oindikon Garaikoazpi gutxik. Txanberga, gehixenak.
- Bale, bale. Orduan, ipiñiko dittugu bixak. Ofiziala, ofiziala Garaikoazpi bada Garaikoazpi [...], baiña parentesi artian...
- Bai, holaxe.
- Txanberga.
- Berbetan hasi gitzen, eta anaiak esan osten "e, oin Txanberga ez don / ezton/ e!"

3.12. Azakaska (tortoloska)

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/004
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Txikolan, pote-poteka, azakaska (tortoloska) ziren euren umetako jolasak. Azakaska nola jokutzen den.

Transkripzioa

- Eta umetan eta holan ze... jolasak eta ze iten zauien? Ze jolas...
- Txikolan.
- Txikolan.
- Txikoli badakitzu zer dan?
- Zelan zan?
- Txikolan, pote-poteka ta azakaska asko! Azakaska. E... Azkuan e... lehen, ba, errosaixo ta beti domeketan, errosaixue atzaldien ta, ba, guk zelan esangot 10-12 urte edo... zer gero! Neska indde be bai! Beti azakaska.

- Ta zelan da azakaska? Zelan itten da?

- Azakasak izaten die e... bildotsen hanketan eoten die e... azakasak. Eztait... sekule eztittuzue ikusi?

- Bai.

- Bai. Ta harek izeten zien sei azakas ta, gero, e... zer bat... kanika bat. Ta kaniki bota gora ta hemen [...] zera harek azakasak ipini bihar dituzu gorau edo beherau edo beruta edo... e... zoiezun jokuen... ipini bihar dittuzu. Oso politte izeten zan.

- Segun eta zelan ipintten zan puntuek eta... gehixau?

- Ez, ba... akabetan zanian pues e... ya ahaztute nauken... Bat zan azakas, potes ta eztakitt hiru-lau gauze euki... ipini biher zien. E... azakas...

- A denporan... bai.

- Zera goixen, a goixen zan artien ipi biher zan hemen, beste eskuen... ipini biher dittuzu.

- Ta izenakin eza akordetan? Azakas, potes...

- Azakaska? E...

- Hori partien izenak...

- Ai, enaz akordetan. Potez bat, azaka... enaz akordetan. Bueno... ya urtieki badakitzu!

- Ta ona zitzen zu? Ona zitzen? Batzuk hoviek izengo...

- Azakaska?

- Bai.

- Azakaska bai, bueno! Gora-gora bota ta... Han ipiniez zerok eta... Ta bueno... hau nones, hau potes ta bestie eztait zelan zan e... alde daneta ipini bihar dittuzu...

- A...

- Harek... Daneta ipini bihar dittuzu.

- Ta orduan lehenau bukaketan euenak... Lehenau itten euenak... harek irabazten euen.

- Harek irabazi, klaro. Ta ordun dirue ta etzen... ez gen itten, ezeun diruik eta!

3.13. Eskekoak

- **Hizlaria(k)**: Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref**: ARA-101/021
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:28. **Bukatu**: 00:39:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena**: Etxerik etxe ibiltzen ziren eskaleak eta ijitoak. Behin ijitoek akabatutako txerrikumea eraman zuten zuloatik aterata. Bazen bertako eskeko bat, "Lionatxo"; saskitxo bat besoan zuela ibiltzen zen egunero eskean. Hark ekartzen zituen notiziak.

Transkripzioa

- Kontaizu hori. Zelan, zelan izeten zan hori eskekuena?

- Ba, horrek eskien... eskien etorten jatzun bihar, lanik ez zeukenak / ezeukenak/ eta janik ez zeukenak /ezeukenak/... etxeik etxe etorten jatzun.

Ta etxen, ba, emoten utzezun edo ogi zati bat edo hurrengo ijitanuk etorten zienien biher izeten euen urdaixe ta holakuk eskaketan utzuen. Egun baten, gurien urte baten, txarrikumie hil zan. Txarrikumi hori. Ta txarrikume hoi enterretan dabitzela etorri zan ijitanuek. Ez tuzien izten hemen ijitanuei egoten, baina pasaran baten egoten zien beti. Egon, ez. Pasuen. Ta txarrikumi hoi enterretan dabitzela, haber txarrikumie enterrau... Ta berez hil zala. Ta txarrikumie... Ata txarrikume hoi ta erunen txarrikumi hoi jateko! Zulotik atata!

- Eskekuek lo ta itten ebien bertan edo?

- Beti topeta euen tefananan bat edo... Hemen ez naiz /enaz/ ni akordetan... Ta gero, bertan euen Lionatxo, andratxo bat... Ha egunero ibiltzen zana Aramaixo guztin eskien. Zestotxua hartu bere besuen ta harek ekartzen zittuen notizia guztiok. Kalien bizi zan. Matxinkalien bizi zan andratxu hoi. Ta zestu hoi, beti ogi zatiz beteta. Emoten otzazun, ba, ogi zati bat edo nik ez dakit zer emoten otzien... artaburuk be iuel... Ta holakotxe zerak batzen zittuen. Arrautzak emuten botzazun... ta zera eruen ta saldu... ta baiñe arrautzak noberak be biher izaten zittuen denda eruen ta ardaupurttu bat eta azukarra ta olixua ekarteko. Aber nundik bestela!

- Ze itten zan? Trukie...

- Honbre...

3.14. Olata abadearentzat

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/026
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:45:21. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Altagakoak Azkoagakoekin konpontzen ziren ondo. Labesua egiten zutenean, olata (hiru puntako opila) bat egiten zen abadearentzat. Mezetara joandakoan abadearen zakura botatzen zen.

Transkripzioa

- Zuek zeneki arregletan zitzien ondo altzarrak?

- Ba altzarrak Altagakukin. Altagakukin, Altagakukin ta azkuarrakin. Eskola Azkuara. Ta mezeta be hilarrixek eoten zien. Hillarrixek badakitzu zer dan? Hillarrixek.

- Bai, bai. Eleixan, eleixan bertan?

- Eleixan bertan. Ta ba eleixara... hillarrire jun biher izategen bateon bat. Han, ba, olatie... olatie ogixaz eindde olatie... Badakitzu zer dan? Holako opiltxo bat izeten zan hiru puntakue ta abariendako itten zan. Labasue itten zanien ha olatie abadiendako.

- Beti, labasu danetan...

- Bai, danetan olatie abariendako. Ta ha botaten zan mezetako orduen abariei zakure.

- Ta hiru puntakue zan?

- Bai, hiru puntatxo ataten jakon.

- Ta zegaittik? A, ez dakizu...

- Ba, olatie... olatie holakotxie...
 - Holakotxie zalako.
 - Holakotxie zalako.
 - Iuel trinidadeti edo...
 - Bai, iuel erroskille bat dan moruen edo opil bat dana moduen, baiña hiru puntatxo euen, hiru puntatxo eukitten zittuen. Ta oso... oso... oso, oso onak urteten euen e!
 - Opiltxo bat morukue.
 - Ba, opiltxo bat morukue.
 - Zeu indde zaz?
 - Bai, bueno zenbat! Hori indde nau be... amai lagunketan. Amak eitten euen ta amai lagunketan.

3.15. Andreak etxean eta kanpoan lan

- **Hizlaria(k)**: Arriolabengoa, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina
- **Erref**: ARA-117/009
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:11:08. **Bukatu**: 00:12:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Gizonak egin ohi zituen indarra behar zuten lan gogorrak. Andreak egiten zituen etxekoak eta baratzekoak. Baina andreak beti laguntzen zuen kanpoko lanetan ere: jorran, belarretan eta abar.

Transkripzioa

- Eta ama eta aitte ikusitte, zeñek euen lan-karga haundixaue orduen?
 - Lan-karga haundixaue? Zela lan karga haundixaue?
 - Ba, lan, e.. Eztakit, ba, egunian ziber lan gehixau edo bixek... bakoitzak...
 - A, ez ez, amak jaukenan bere lanak eta aittek bere lanak. Aitte, ba, baserriko lanak, lan fuertiek-eta, organizau ta ein, aitte. Aitte langille fuertie zonan. Ta ama, ba, ama zonan, ba, beti etxeko lanak: etxeko lanak iñ eta, ba, bazkaixe preparau eta, ba, oilluek eta bere... beste lan... etxe inguruko lanak.
 - Familixie amak.
 - Familixie amak, bai
 - Hori baserri danetan zan holan, ez?
 - Bai, bai, bai...
 - Emaztea: Bueno, andriek asko konpartitzen auen gizonaz e? Soluen ta... asko.
 - A, bai, bai. Hazixek ifini biher zienien ta arto jorran eta...
 - Emaztea: Bai jorran, bai miezketan... [...] zan goldan ta ganauen...
 - Bai, bai, bai, soluen, ba, soloko lana euenien, andrie beti ta landan bedarrak erretiretan eta hor lanetan bai, bai...
 - Andriek, andriek lan asko itten euen.

4. Herria, azpiegitura

4.1. Azkoaga auzoa

- **Hizlaria(k):** Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-013/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:05:29. **Bukatu:** 00:06:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Azkoaga auzo oso zabala da. Eskoriatzako Marin auzoarekin muga egiten duten Azkoagako baserri batzuen izenak aipatzen ditu: Arotzibar, Gatzekarro, Arrupe eta Uletza (galdutako baserria).

Transkripzioa

- Hau ze auzo da?
- Hau Azkoaga.
- Azkoaga?
- Bai. Azkoaga da, Altza Azkoaga, [Zabala] be... ta... dana da Azkoaga. Dana da Azkoaga. Hau oso basarri zabala da, edo... auzo zabala. Azkuagai toketan jakon baserri batzuk [zian] Marin. Ezautzen dozu Marin?
- Bai, gitxi gorabehera bai.
- Haren onduen daz Arotzibar, Gatzekarro ta Arrupe. Ta Uletza. Uletza ya ez dau esistiduten. Hor lau baserri edo zien Azkoagakuak. Aramaixo partien mugarrixen harrapetan dau horrek.
- Aramaixo haundixa da orduan!
- Zabala ta handixe! Bai! Ta Azkuagakuek harek. Oin, ba, ya kasik bizi be ez die eitten, egoten die astegoixenetan ta holan egoten die harek. Batzuk Eskoriatzan ta beste batzuk Bittorixan-ta bizi die. Klaro, gero lanien juten da... Hori normala da.
- Hori aldatuko zan gehixenbat, ezta?
- Bai! Gehixen-gehixen hori aldatu da. Hoixe aldatu da.

4.2. Auzolanarekin batera ezkutatu mendibideak

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/023
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Seme bat hil zitzaionean, ganadu guztiak kendu zituen. Zordanbideak auzolanean zaindu eta konpontzen ziren garai batean, lorrean. Gaur egun mendibideak ez dira zaintzen, Araban behintzat. Otxandio aldean ordea, mendibideok oso ondo zainduta omen daude.

Transkripzioa

-Oin badakotzu bape ganaurik?

-Ez, ez, ez. Haxe semia hil zanién kendu nittun danak. Danak, radikalmente. Emun notsan horri ta fuera. Besterik ezebez. Ta oin bizi.

-Lehen komentau dozu zela, nahiz ta zu jaixo aurretik izan, zela iñ eueiñ hori argi-errotiori auzolanian eta hiru auzoen artien. Beste lan batzuk be ingozien ba orduen auzolanien, ezta? Zuk zeuk ezagutuko zittun auzolaneko lanak.

- Baitta neu ibilli be bai. Por ejenplo honeik zelan esango dotsut, hemengo kamiñuok lehenau zordan-bidiak esaten dienak, hainbat.

-Zela, ze bide?

-Zordan-bidiak.

-Zordan-bidiak?

-Zordan-bidiena, ba bidia danona, partikularra ez, zordan bidia. Kasu baten esaten dotsut, hemen Azkuagan sartu, eta hor dago bide bat Kurtzetatik zerera. Orduen kamiñoz iriek eta danak burdixan ekarten zien, ganauendako ta, satsa itteko ta. Ta orduen iriek be eskuz ebagitten zien; gero hasi zien guadañiez ebagitten. Eta horreik bidiok eta itten zien, arregleten zien lorrien, lorra esaten gotsen. Lorriek urtien itten euien egun bat auzo danari deittu ta rra! Juntau ta atxurrakin zuluak tapau, arekak atara eta arregletan.

-Lorrian?

-Lorrian. Lehenau holaxe arregletan zien bidiak eta danak.

-Orduen auzolana baiño lorrien?

-Bai, auzolanak die baiña lorre, lorra esaten otsien. Kostunbre bat geukien, lorra, lor-lanak, baiña auzolanak die horreik, auzolanak, baiña bidiak arregletako zerak. Oin eztau inok be arregletan.

-Oin Diputaziñuak.

-Diputaziñuek?

-A, basokuak iñok be ez.

-Diputaziñuek zordan-bidiek?

-Ahuntzak be pasau ezinka.

-Nik, e, ni asko ibilitta nau, e? Nik gauza bat esango dotsut, e? Nik asko ibilitta nau, mendixen, e? Ta mendiko bidietan. Baiña nik gauza bat, penagarrixa da Eskoriatzatik, Asentziotik zeretik Gatzaga Gaiñera. Gatzaga Gaiña badakitzu nun dauen, e? Hemendik jaoiten zien bidiek; hartu motorrakin eta zerakin, danak apurtu ta, basotik ibilli be besterik iñobe ezin ibilli. Ta eztaukie arregletako... enkanbio hemen dau Bixkai partien, Otxandixotik hasi, hemen zeretan bai? Hemen zerak, eta hor daz bidiek arreglaute kategorixaz. Ta hemen ez, hemen Arabako zerien, hemengo aiuntamientuetan eztau dirurik edo eztaue zerketan edo eztaue afeziñorik.

-Eta auzolanik bez.

-Eta auzolanik bez. Daz de pena, de pena daz horreik.

4.3. Madrilera trenez musua beltz-beltz eginda

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/011
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:23:26. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Trenez joaten zen Madriler, ikatzezko makinaz tiratuta. Musu guztia beltz-beltz eginda heltzen ziren. Orduan ez zegoen dutxarik eta horrelakorik.

Transkripzioa

- Nik kurisidade bat. Madrillea zela juen zitzen? Trenez edo...
 - Trena, trena.
 - Ta zenbat denpora...
 - Mosue, mosue bal-baltz eindde iketzaz.
 - Ta zenbat denpora Madrillea jueten?
 - Bueno... estaziño guztietan geldittu... Askok! Denpora asko! Bu...
 - Egun bat iguel?
 - Egun bat, egun bat... Egun bat, bai. Egun bat orduen, bai. Oin, harrazkero, ba, ni ezkondu nitzenien be hillebete in niñan nik Madrillen, ezkondu gitzenin. Harrazkero, be egon naz beste birretten ta... baiñe oingo trenak, jo! Bueno! Sevilla jua nitzenin be "en el AVE" jua nitzen. Ezta nun zoiezenik pez! Hementxe zazena letxe! "Echando puñetas". Alleau te kitto. Baiño orduen... dana iketza... Iketza leku guzti... iketzaz ibiltten zien harek!
 - Bai, bai. Ta bal-baltz indde alleau zitzen?
 - Bai, dana. Mosu guztie be bal-baltz eindde. Ta ordun, dutxaik be ezeuen orduen! "Ni duchas ni... ". Baiñerak ez dakit nun egongo zien... Francok edo... iuel! Hemen baserrixetan...

4.4. Basoan errailak jartzen

- **Hizlaria(k):** Karetxe Urrejola, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-111/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Barajuen auzoan bizi zen kondeak bere basoetatik Urkiolara errailak jarri omen zituen, egurra mandoak tiratutako bagoietan ateratzeko. Tantaitxueta izeneko menditik Urkiolamendira pasatzeko zubia eraiki zuten tantaiekin, Zubinagusi izenekoa, eta zubiaren gainean errailak jarri. Kantabriarrek kudeatutako zerratokia zegoen basoan jarrita, oholtzarrek eta trenbide-trabesak egiteko.

Transkripzioa

-Gero, auken hemen, auken hemen terreneno sail haundi bat kondiek. Ta horrek kondiorrek, orduko denporako gauzak, pentsaizu zenbat balore egongo zan, nik entzunikua esan biher dot /biot/ oin be ta, neuk be ta. Hor ein eban /eiban/ zerratokixe, Urkiolara karrille, Otxandixo gaiñera karrille, horko materixalak atarateko.
 -Bere basotatik?
 -Bero basotik. Ta horretarako, ze hektarea mordo haundixe dauko horrek, ta pentsaizu orduen zenbat kostako zan, eskuz in biher zan /bizan/ hori, gauza danok in biher zien /bizien/. Karrille montau biher zan /bizan/. Hor

zerratokixe egon zan, ta badakitt oin be nun dauen ta dana. Zerratokixe egon zan lekutik Urkiolara, igoten-igoten igoten-igoten juen biher da /bida/. Orduen, han errellanuek in, karrille montau, bagonetak ipini, ha bagonetak eruen in biher zien /bizien/. Etorri beherantza samur itten zien, baiña gorantza jaso in biher zien /bizien/, kargaute.

-Lokomotoraik-eta ez euen orduen?

-Lokomotorie bai, zera, mandue, tiretzeko.

-Edo idixekin [...].

-Bai. Ta beste gauza bat, hor dauen horri mendixorri bueltia hartute dauenak Tantaitxueta dauko izena. Orduen, Tantaitxueta, Urkiolamendi badakitzu zein dan, ezta?

-Bai.

-Urkiolamendire pasetako, Pol-poleko itturriko ure dator han txarku behera. Hamendi alde bateti bestera pasetako tantaixekin zubixe eindde auen erregular. Zubinausi esaten jakon. Ta haren zubixen tantaixen gaiñeti auen karrille montaute.

-Mekaxis la mar, kriston obrie, orduan.

-Handik politto-politto bueltan, ba, buelta asko dauko horrek e, zera, eruteko. [Irezelai]-edo esaten dutsiena hara zelaire urten ta handik Urkiolara auen hori karrilloi. Ta beste bat hemetik berauti, berauti eruteko, auen Otxandixoko Morgola esaten dutsien /esatetzien/ lekue, hara gaiñera. Ta hemeko bekuek eruteko, auzen idixek. Hor ibili zien montañesak erregular.

-Montañesak?

-Montañesak.

-Zerekuak? Kantabriakuak edo...?

-Bai. Kantabriakuek montañesak esaten jake kantabriakuek, ezta? Ta harek auken zerratokixe montaute hor. Ta harek itten ebezan paguekin tabloiek. Ta haretxakin trabiesak.

5. Baserria

5.1. Garia, haziendaren erdia

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-013/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:06:37. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Baserriko eginkizunak. Garia, artoa, arbia, patata... ereiten zuten. Iria ekartzen zuten menditik ganaduarentzako azpigarritarako eta soroak ongarritzeko. Zelai gutxi zegoen lehen, "banaka bat". Hazienda erdia inguru garia izaten zen, eta urtero lekuz txandatuta ereiten zen.

Transkripzioa

- Lehen, ba, lehen goixien esan dotena, ba, baserrixen bizi giñen: dana labrau, garixe erein, artue erein, arbixe... Arbixe. Guk "arbixe" esaten dutsau /esatetzau/. Badakitzu ze dan arbixe, ganauai emateko ta. Holaxen. Gero Albiñatik iria ekarri. "Irie" esaten dutsau guk. Beste batzuk Gipuzkuan

"garua" esaten daue. Irie ekarri... hillebete haxe ekartzen ibiltzen gintzen, azpigarrixek eiteko, gero abonuek eitteko solorako, ta... holaxe. Hauxe bizimoduau euen ta.

- Hau gehixena ze zan, garixa-eta? Edo zelaixak-eta ganauandako?

- Hamen gehixen... zelaixek gutxi aazen. Banaka bat. Guk zelai bat edo eukitten geen, ta bestie dana, hazienda erdixe inguru, garixe. Ta gero aldatu eitten zan, hurrengo urtien, garixen atzetik ereitten zan arbixe ta gero artue ta babia, ta patatia. Ta bestaldien gero aldatu, aldatu, beti aldatu.

- Txandaka.

- Txandan-txandan, bai. Txandan eitten geen.

5.2. San Juanak: abestia

- **Hizlaria(k):** Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-013/012
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan Egunean lore-sorta bat eramaten zuten bedeinkatzera, eta, gero, sutara botatzen zuten. Mutikotan, "San Juan, San Juan zapuak eta subak erre! Garixek eta artuak gorde!" abesten zuten. Gurasoek nahiko lan izaten zuten baserrian.

Transkripzioa

- Gero, eruaten zan lora-sortatxo bat San Juanetan bedeinkaketan zerea, San Juan egunien. Ta ha zaharra hara sutara botaten zan, erretako. Ta gero kantetan zan, ba, "San Juan, San Juan, zapuek eta sugak erre, garixe ta artue gorde". Ta halako kantu batzuk zien.

- Zela zan kantua? Kantua gogoratzen dozu?

- Kantue zan. Hori... Ez dakit horixe. Luziaue zan hori, baiña ni gogoratu ez. Ee... "Zapuek eta sugak erre", sutan erre daixiela. Ta "garixe eta artue arkan gorde". Gero, ba, aurrera, ez dakit zela... Hori luziaue ixeten zan, baiña guk gutxi kantetan geen ta.

- Baiña kantau eitten zan?

- Bai, kantetan geen; batzuk baekixen.

- Musikiakin?

- Bai, lehenauti aittek eta aittajunek-eta jakingo euen, baiña...

- Eta ze kantatzen zenduen, familixa guztiak? Danak batera?

- Ez, komente faten giñen gaztie. Mutiko... neska-mutikuek. Aittek eta amak nahikue lan eukitten euen gertaketan San Juanetako... etxe ingurue. Ganaua gobernau ta, egunero lan asko, zortzi-hamar ganau edo hamabi buru etxien ta... Harei jaten emun, ekarri astuekin, ta...

- Nahiko lan!

- Enee! lan asko egoten zan.

5.3. Eskola garaia eta gero, baserrira

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/007
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserrira » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserrira » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Eskola garaia bukatzean, baserriko lanetara. Esnea eramaten zuen kalera, bi litro edo. Behiren bat bazuten eta ehun bat ardi. Ardizain ibili zen.

Transkripzioa

- Ta gero, ba, eskolie akabau zanién, ba, baserrira, ta baserrixen ba...
- Aranera bueltau zitzen.
- Bai, Aranera osterá. Ta baserrixen, ba, ba esateko na, ba, han badakitzu, han beti lana dau, baserrixen. Orduen ez auen kalerik, ta bueno: goxien kalera etorri, esnie ekarri bi litro edo. Ez pentsau egoten zaniék asko baserrixen be! Oingo moduen granjarik eta ez auen han, e, basoko behixen bat, gorrixé, ta ardixek be bagauken, ardixek be mordue geunken, ardixek ehun bat edo. Ta, bueno, hantxe, ardixek zainddu, ta [han ibili gintzen].

5.4. Baserriko lanak ere egin behar

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserrira » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Hamazazpi urte arte ibili zen aitari laguntzen. Osaba ikazkinei laguntzen ere ibili zen. Hortik aparte etxeko beste lanak ere egin behar izaten ziren. Lantegian hasi zenean, baserriko lanekin jarraitu zuen.

Transkripzioa

-Hori gutxi gora behera zenbat urte arte?
-Ba zenbat urte arte? 16, 16-17 urte arte bai. Baiña gero tiuek ibiltten zien ikazgiñen. Mutiko-mutikotan edo, mutikue nitzela be joaten gitzen, joaten zien, ikazgiñen ibiltten zien nire tiuak; ta zazpi lagun ibiltten zien txondorrak itten, ta basuen arbolak botaten, ta harei ura eruen, ta lapikuei kasu egin... ta han be in nittuen urtebete bat edo holan be ittten neben. Hola pasaten bizimodue.
-Ikazkiñ, e?
-Bai, holan, gazte denporia hola jun zan.
-16-17 urte arte.
-Bai. Ta gero etxien lana, honeik, garixe, zerak erain be, zerak, ta, bueno,

hemen. Gero fabrikara jun nitzela izango zien, ba eztaikit zenbat izango zien, baiña artien ni beti baserrixen ibiltten nitzen lanien.

5.5. Ardirik ez, baina ahuntzak bazituzten

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/005
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:08:11. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Esne-behiak, behorak eta ahuntzak zituzten, idiez gain. Auzoan ardi eta ahuntz asko zeuden garai batean. Gaur egun Patxik ez du ganadurik, eta etxeko lur-sail handiak beste ganaduzain batzuei uzten die.

Transkripzioa

-Baserrixen idixak aparte beste ze ganau klase zeukatsuein? Behixak be bai?

-Bai, geuken behixek esnie batzeko etxerako ta, etxerako ensie batzeko, geuretako.

-Eta ardirik edo?

-Ez, ardirik eztaoz, gurien ezta sekula ardirik egon.

-Ta bihorrak bai.

-Bihorrak bai eta ahuntzek be bai.

-Ahuntzak be beti ezagutu dittuzu etxien?

-Bai, ahuntzak neuk kendu nittuen atzenengo aldiz. Udan ebaltten gittun, bueno,jeneralien hemen ebaltten gittun zati baten edo, gero aitxera bialketan gittun, horra, Santikurtzera. Horra bialketan gittun ta gero oin sasoi inguruen, lehentxuau, oktubrien ekarten gittun etxera ta gero, ostera negua pasaikuan, hara. Holan be ibiltten zien.

-Zenbat ahuntz eukitten zittuein?

-Ba 6-7 bat edo holako bat eukitten gittuen, ahuntzak.

-Eta horreik itten, etzittuein itten oin esaten dan moduko kalterik basuari ta?

-Ahuntzek? Igual-igual ahuntzak kaltia. Ahuntzek basuan? Bueno, bueno.

-Baiña etxe askotan egoten zien ahuntzak?

-Bai. Hor mendi dana ahuntzez beteta eoten zan ta. Askok eukitten zittuen hemen.

-Ardixak baiño gehixau, ahuntza?

-Bai, bai. Ardixek, bueno, ardixek be bastante eozen, oin baiño gehixau, e? Harrezkero auzuen... oin be badaz. Oin be hemen baukei lehenaukuak; bat hemen bertakuak, besta bat hor gorauko etxekue, ta hori ni baiño gaztiagua da baiña, hori be holakua, zuk esaten dozun modun, [...] eitteko moduen horreik eukitten dittue, ardixak ondiok be horreik jarraitu eitten dauie, por jobi. Ez, bestela ba, ez baiña 25-30 bat edo holan eukitten dittue horreik. Lehenagoko moduen pastoriek ez euen, eztauz. Pastoriek izan zien honeik bixok bai, hemen auzokuek, hortxe goixen daozen bixok.

-Zein etxetakuak?

-Bat hor Sarri edo esateotsie, han goikue.

-Zela? Sarri...

-Sarri, Sarrikua. Eta beste bat hamen beherauko etxie; neuk dauket horreik terrenuok danok honei emunda. Gero ganauok eta kendu gittuen, danoi emunda daukat.

-Eurak ondiok ardixakin jarraiketan daue?

-Bai. Ta ganauakin be bai, e? Daukie anai bin artien, eurok itten daue fabrikan itten daue lana, ta bueno, oin adelantu haundixak daz tratoriekin ta, tratorie ta erositta daukie ta harekin eitten dittu bedarrak kendu ta; hamar behi edo daukie. Baiña oin subenzionaute ta apur bat lagunketan dotsie, ez bestela dirurik izten dauelako ganauak, e? Ta hemen zelan dazen bixok sail baten danau, ba hor hiru baserrikuak edo hartuta daukei eurok, terrenuak. Eurok garbiketa alde, e? Bestela hau dana narrax jaixoten hasten da. Ta ganauak ibilli ezker garbittu itten daue, ta gero eurok ba desbrozadoriakin edo garbiketan dittue astixa dakuenetan. Ta holan, holan manteniuten dogu hori.

5.6. Behorak garia jotzen

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:14:17. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Makinak iritsi aurretik garia nola lotu eta metatzen zuten azaltzen digu. Garia larrainean jotzen zuten, lurrean zabaltu eta behorrei galburuen gainetik pasarazten zieten. Haizea zegoenean, behorak jotako garia airera botatzen zuten, haizeak lastoa bereiz zezan.

Transkripzioa

-Eta makiña horreik etorri aurretik, esan dostazu bihorrakin eta joten zeueilla garixa, ezta? Esplikau egizu zela itten zeuein hori. Esplikau egizu zela ekarten zeuein garixa etxe ondora, eta...

-Ba soruen garixa ebaitakuan horreik farduak itten zienien itten zien metak. Ipintten zien holaxe [...] Gora itten zien, gero goixen ittetsen holako zerbat, ta eurixak eta itten baten eztaixen busti; ha etzan bustitten, eta orduen narrak izaten dira horreik, narrak, luziok; holako bateaz lotu goixe ta han egoten zien hola. Ta gero allegaten zanien joteko sasoie, ekarri eta kamaran ebagi ta itten zien halaxe erretxistuak esaten otsen horreik zerok; hareik ganauai emuteko, atze partie eta buru partie holako zati bat izten zan trilletako; bueno, oin esaten dogu trilletako, baiña orduen bihorrakin apurketako. Ta harekin botaka-botaka-botaka-botaka, zertu.

-Baiña ifintten zittueilla bihorrak, eta eurak euren hankakin apurketan zittueilla?

-Bai, bai. Euren hankakin.

-Iñungo trillo barik?

-Ezebe barik. Euren hankakin.

-Ta zenbat denpora, zela ibiltten zien, zarraun baten edo zela? Zarrauta nunbaitten edo...? Larraifien edo nun egoten zien? Nun ibiltten zien? Nun itten zeuein hori jote hori?

-Hementxe bertantxe. Hortitxe. Hementxe. Hauxe, hamentxe, oin badau ba hau larrañ hau? Hortxe.

-Bueno baiña bihorrak ihes ez egitteko eta zarrauta, zeozer zarrauta edo egongo zan ba, ezta?

-A, bai. Zarrauta.[...] eurak ezin lekien hemendik urten iñora. Zarrauta egoten zan hau.

-Zeuek bihorren atzetik...

-Bai, bai. Eta bihorrak gero eukitten gittun hementxe, kortia geuken ba. Hemen euen, hemen behixak eta hemen bestien, bueno hemen behixak eta dana bat. Zera, kortia geuken bihorrak eta eukitteko. [...] hemen eukitten gittuen.

-Orduen garixa lurrian bota eta bihorrak gaiñien ibilli eta ibilli bueltaka?

-Bai, bai.

-Eta hola jotzen zeuein?

-Holaxe jotzen zien; holaxe ibillita gaz gu.

-Eta gero hori, klaro, galbaan edo pasau in bihar, ezta?

-A, bai. Lehenau garbiketen zien haiziaz be bai. Leheningotan haiziez, baiña gero makiña bat argittu zan haizia emuten otsena, eta hareaz garbiketen zien.

-Eta haize-errotia ez euenien, eskuz edo galbaan edo zela itten zeuein?

-Haiziaz. Haizia dauenien inddartsu, da, gora bota ta haiziak eruen itten eben dana. Eta garixa etorten da behera. Holan, eta gero galbaiakin, haundixena kendu eta holaxen.

5.7. Behorrak otearekin gobernatzen neguan

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/008
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:17:07. **Bukatu**: 00:20:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Behorrak neguan etxera ekartzen ziren lehen. Otea ereiten zen orduan, neguan behorrak gobernatzeko. Otea biguntzeko apur bat jo, arbiarekin nahastu eta jateko ematen zieten. Salturralden eurek ereindako otadiak izan zituzten.

Transkripzioa

-Eta ez hori bakarrik. Hareik bihorrak neguen hona ekarten zien, lehenau edur asko itten euen ta. Ta gaukien holako aska bat, holako bat, otie badakitzu zer dan?

-Bai.

-Otie, otie, lehenau erain itten euein hemen.

-Otia?

-Bihorrendako. Ekarri otie, entzun e? Otie ekarri, e, eta dragatxak esaten die, holako makilla tronko bati ipini askueria moduk zerbait, eztakitzu? Kirtena sartu ta haretxekin holaxe, tiki-taka, tiki-taka, jo eta bihorrai emun. Neguen, manteniuten, urtietan, e? Urtietan!

-Otia jo ez dot entendi oso ondo. Zetarako jotzen zeuen otia, bigunketako?

-Bai, bigunketako. Botaten gutsen, arbixa badakitzu zer dan, ezta? Ba

arbixe botaten gutsen nahasketako apur bat, eta jaten euien pentsua letxe.

-Otia jo ta bigundu?

-Bigundu.

-Eta... askan.

-Askan.

-Otia ganauak jaten euein?

-Ez, ganauai ez gutsen emuten. Bihorrendako. Bihorrak oin otia basuen, oin be, otia asko jaten dau, e? Oin be, e? Hori gaiñera, otia? Oin gogorra [...] baiña hemen goikuak eta? Hola mantenitten dittu neguan bihorrak.

-Eta esan dozu otia erin itten zala bihorrentzako?

-Erain! Otaduxek.

-Bai.

-Ointxe gurien, ointxe galdu da bat. Hemendixe, esan dozu, hori errotie edo, hori zera, hortxe gaiñekaldien dauen zati bat, behetik honaxe bastante goraiño, otia erainddakua zan. Ta ointxe arte ezta galdu, eta ondiok bape egongo dia, e? Pentsauizu zenbat urte eukein horreik otook, e? Eta ezta galdu, ta ointxe arte mantenu da, klaro, gero piñuk sartu gittuan eta piñuak otia jan itten dau. Ta haxe.

-Otia jan eta narra ekarri.

-Bai, hori bai, ta beste bat Uribarri onduen eguen kriston ota saille, handik be ekarten gittun bixkarrien hartuta, e? Otia ebagi, in paketiek, sartu zirixe, zakuaz hartu bixkarrien eta handik hona.

-Bihorrak gobernaitteko.

-Bihorrak gobernetako. Hori egixe da. Eta ez hori bakarrik; ene! Lehenau, lehenau itten gittun astokerixa batzuk!

-Otiak lan asko ez eben emungo soruen, ezta?

-Ez, harek osterantzian ez eukan zera itten.

-Erin eta kitto.

-Harek [...] eukitten eben. Ereitten zan, eta gero itten zan, zuk ebagitten zebeu neguen ta gero udan osteru urten itteuen.

-Oin basuetan otia kendu ezindda gabiltz.

-Honbre.

-Baso danak abandonauta.

-Ba lehen holan ibltten gitzan gu; gazte denporia hola pasau jaku.

5.8. Lehenengo sega-makina

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/009
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:20:16. **Bukatu**: 00:23:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Belar zelaia bazituzten, negurako belarra gordetzeko. Segaz ebakitzen zuten belarra, harik eta lehenengo sega-makina ekarri zuten arte. Bergarako Jerardo Altunari erosi zioten, "Rapi" markako petrolioz elikatutako sega-makina. Oleta auzoan egin omen zuten lehenengo sega-makinen lanaren erakustaldia. Beste bi auzotarrekin

batera erosi zuen Patxik bere lehenengo sega-makina. Ia berrogei urte ditu makina zaharrak, baina belarra ebakitzen jarraitzen du.

Transkripzioa

-Eta ganauak, zuek ganauentzako bedarrik ebaten zeuein orduen, edo orduen dana labrauta egoten zan?

-Ez, ez. Bedarrak ebaten zittuen, hemen zelaixak beozen, e? Bai, bai, zelaixak eukitten gittuan, baiña guadañiaz, e? Guadañiaz honeik segadoriok eta, lenengo-lenengokua segadoria zan, zelan esan, akordaten banaz esango dotsut, Altuna, hau bergarakua, ondiok anaia bizi da, Jerardo Altuna, haretzek ekarri auen [...] segadoria, lenenguetakua hona.

-Bai, baiña hori kontu barrixa da.

-Barri-barrixak. Ze urteaz...

-30 urte?

-30? Ez, eztot uste. Gehixau, gehixau.

-Baiña segadoria gasoliñaduna?

-Petroleuaz.

-Bueno, petroleuaz.

-Bale, bien. Baiña artien dana eskuz ebaitten zien. Ta eskuz ebaitten [...] Ta akordauten naiz egun baten. Hori ehiztarixa zan, zera, haundixe, hori hil zan bera, e? Jerardo. Ta harek, e, neu be bai ehiztarixe, neu be bizi guztien izanda ta. Ta hareaz lagunak giñen eta egun baten esan oskun, joer lagunduko osteun hantxe eukela makiña bi ekarritte, ta Olaeta badakitzu nun dauen?

-Bai, gutxi gorabehera.

-Bai, hortxe. Olaetara lautada-lautadara ta haraxe propagandia ittera fan bihar dauela ta lagunduko otseten. Hartu makiña bixak eta etorri zan behera, ta jun giñen haraxe. Ta jentie batzuk uuuh! Makiñe honek bedarra asko izteok, batzuk, eta besta batek, baiña betik izaten da baten bat. Bedarra? Baiña bedarra gero be sobrau in bihar jakuk. Neuretako makiña bat, eta bi makiñak hantxe saldu zittuan, lelingokuak honaxe ekarri zienak.

-Baia Olaeta Araban, ezta?

-Bai, Oleta baAramaio, Aramaioakua da Oleta, Otxandixo onduen. Hantxe saldu zien lelengokuek, ta handitxek hasi zien gero horreik makiñok gero ba gehixao ta gehixao, ta beste klasiek eta...

-Baiña zeuek be ekarri zeuein?

-Bai horixe.

-Hamen zelaixak nehiko pendizien...

-Lau lagunen artien erosi geben guk. Bat horixe, Rufinon anaia, ta besta bat beziñue, ta neuk. Hiru? Hiru lagunen artien. [...] Ondiok gaiñera makiña bizi da; euko dittu 50 urte baiña! Ixa 40 urte baiña!

-Ibilli ezta ingo.

-Bai, bai, ondion be. Ointxe fastixau ezpada. [...] Azkenien nik itxi notsan ta kitto!

-Horreik museuan gordeteko modukuak dira, e?

-[...]

5.9. Eskuz eginiko bide eta zubia

- **Hizlaria(k)**: Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-070/011
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:18

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Gari-jotzeko makinaren lanik handiena, idiekin etxerik etxe mugitzea zen, bide onik ez zegoelako. Salturrainerainoko bidea eta zubia etxekoek egin zuten, eskuz. Itxitura bat jarri behar izan zioten bideari, lapurrei bidea eragozteko.

Transkripzioa

-Gari-joteko makiña hori, zera, kamarara lastua botaten ebena eta hori, hori be batzuren artian, baikotzak beria ez eben erosiko, ezta?

-Bai, letxes!

-Eta gero lanak, ze itten zittuein, etxe baikotzak, txandaka? Igual lau baserri baziñain, lau etxetakuak baten lanak in, gero beste batenak eta...

-Ez. Txandaka itten zan, baiña harek segittuan botaten zittuen etxe bateko lanak; harek etxe bateko lana botateko zenbat bihar eben? Lanik txarrena eukitten euen trasladue; ta bera zan haundixe eta idixekin ebali biher, oingo moduko kamiñorik ez euzen orduen. Hona gurera be e zeuen, kristonak eitten gittun ekarten, hemen ez euen kamiñorik. Handik kamiñotik hasi eta hona neuk indda dau. Neuk eta etxeko anaiek. [...] iñok lagundu barik, e? Iñok lagundu barik. Ta errekaiko zubixa, o zubixa, han ura pasaitten dana? Ha be geuk indda dau, e? Geuk ha be. Masie iñ eskuz ta barilla mordua, eta geuk indda hori kamiñue. Bakar-bakarrik hona kamiñuen, ointxe alkatia izan zan hemengo bat, Mondraueko bat, Arrasatekoa, oin hemen, Barajuanen bizi da, ta haxe alkate egon zanien, orduentxe etorri zan zementua aber bota gekien, ta zementua. Ta zementua bota, bota euen ba ha barreraraiño. Etxeraiño bata itten nostien, baiña orduen ze pasetan zan? Ha barrerie neuken ipiñitte, abusuagaittik, e? Igual etorri eta erreminttak be falta etxien, eta jentie etorri itten zan, neu igual etxien ez ta. Ta orduen ipiñi naben barreria. Eta esan nosten aiuntamientuko batek: bueno, barrerie kendu in bihok. Ez!

-Orduan barreraraiño bakarrik.

-Zuek bota barreraraiño, eta nik hau gaiñetikua neuk botako huat. Ta hori neuk botata daukat etxetik, handiko honarakua dana, e? Ta oin ba zabalik egoten da, jeneralien egoten da por ejemplo, baiñe geu norabait bagoiez zerrautu eukitten dogu. Gero hona etorten zan bestela bat kotxiakin eta erreminttak pe faltau etxien. [...] guri. Eta holaxe indda daukot nik asuntuak danak. Holaxen.

5.10. Rufina etxeko nagusi

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/003
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

- **Laburpena:** Eskolara eguraldi txarra zegoenean bakarrik joaten zen. Zazpi seme-alabetatik nagusiena zen Rufina. Behiekin lantzen zuten lurra. Ardiak ere bazituzten. Zazpi urtetik 14 urtera ibili zen eskolan. Aita artzain ibiltzen zen eta gazteak egiten zituzten baserriko lanak.

Transkripzioa

-Eta eskolara eta fan ziñan?
 -Gutxi.
 -Bueno, baiña... apur baten bai.
 -Bai, denpora txarra eguenien ta juten nitzen bakarrik, e? Bestela guk ez keben euki eskolako zerik.
 -Etxien bazekatzuein ganaurik edo?
 -Bai. Geuken behixek, ardixek, ta horreik. Ta aitte [...] zazpi seme-alaba, sei izen gitzen, zazpi, zazpi izen gitzen, eta neu nagusixena. Ta nagusixenak ba badakitzu.
 -Zazpittik...
 -Sei bizi gara.
 -Zu ziñan...?
 -Neu nagusixena, bai.
 -Maiozazgia.
 -Bai, maiozazkia, bai.
 -Ganauak etxien esan dozu behixak eta ardixak?
 -Bai.
 -Idirik edo?
 -Idixak aurretik euko zittun, baiña idixak hemen euki gittuan, han ez. Han behixekin labraten geben dana.
 -Orduen esan dozu eguraldi txarra itten ebenien...
 -Orduen eskolara.
 -Orduen eskolara, bestela...
 -Goizien juaten banintzan, arratsaldien egoten zan beste zeozer itteko.
 -Eguraldi txarrakin be. Eta zenbat urtekin fan ziñan eskolara, hasi ziñan?
 -Ba xei, zazpi bat urtegaz. Ta hamalagaz hasten nitzen etxien lanien. Baten behixekin sorue labretan, bestien zerekin, ze aitte ardixekana ibiltten zan pastore.
 -A, aitta pastore gehixen bat?
 -Aitte pastore zan. Ta gaztie bestiek barriz, ba gaztiaguak, ta anaiek dauket bi, ta hareik ba bat, nagusixena, oin bertan etxien bizi dana, ha egoten zan ardixekin. Gero aitte hasi zanian erretirue hartzen, erretiro barik hil zan, e? Egixa da. Ta hasi zanian, ba gero anaia hasi zan, ta anaiek berriz, ba ezebez harek. Hak bere ardixokin, e...
 -Eta zuk etxeko nagusi.
 -Etxeko gauzak itten.

5.11. Ardiak neguan larre hutsean

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:04:51. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

- **Laburpena:** Neguan ardientzako belarrik ez zen egoten, eta larre hutsean elikatzen ziren. Elurra zenean, zelaletako elurra boletan biltzen zuten, belarra bistaratzeko. Behientzako lastoa eta belar apur bat izaten zuten ganbaran. Garai haietan lur-sail handienak landuta egoten ziren, eta sail gutxi geratzen ziren zelai.

Transkripzioa

-Zenbat ardiko artaldia zeukatsuein ba?

-Ba eztakit nik, larrogei bat edo ehun, ehun bat igual, eztakit zer eukiko gittun. Baiña klaro, oin ardixek be kortan sartzen die. Denpora txarra dau eta etxien pentsue. Orduko ardixek ez ekixein pentsua zer zan be.

-Bedar igarra eta bedar berdian, ezta?

-Ezebez.

-Larria eta bedar igarra euko zeuein.

-Bedar igarrik ez euien jaten, ipini be ez, e?

-A, ifiñi be ez?

-Euki bai, ala?

-Jaten eueiñ dana, kanpuan, larran?

-Bai ba, bai, haregaz ibiltten gitzen.

-Edurra zanien...

-Edurra zanien badakitzu zetan ibiltten gitzen? Ba hasi goixin bolak itten, eta bolak itten gutsen; ardixek jan daixen bedarra, edurpeko... ta edurrez, bueltaka-bueltaka, bolak.

-Edurra kendu, ardixak larria eukittiatik?

-Klaro.

-Hori sekula entzun barik neuken.

-A, ez. Ardixak ez tittuzulako euki orduen.

-Euki bai, [...] lagunketan neben. Baiña guk bedar igarra betik, nere akorduen bedar igarra...

-Ba gu gazterik hasi gintzen lanien, e?

-Eta behixak ze jaten euen ba neguan? Hareintzako...

-Ba behixendako ba lastue, ta bedar apur bat eukitten auen, zeñien hau labrauta ibiltten zan gauzie.

-Klaro, zelai gutxi.

-Klaro, zelai gutxi. Eta behixendako ba horixe, lasto apur bat, garixa zela eikuten geben, ba lastue, garixen lastue. Ta gero haren pentsuek, garixari apartetan jakon zerakin, ba harekin pentsua eta behixek aurrera.

-A, zahixakin?

-Bai.

5.12. Dukeena baserrira ezkondu zen

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/013
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Azkoaga auzoko Dukeena (Dukiena) baserrira ezkondu zen, hogeita lau urterekin, etxeko Kalistorekin. Sei seme-alaba izan dituzte. Senarrak Arrasateko Zerrajeran egiten zuen lan, eta Rufinak baserriko lanak egiten jarraitu behar izan zuen. Aita-amaginarrebak etxean zeuden, eta haiez gain beste lau koinatu. Etxetik kalera oinez eta handik Arrasatera autobusez joaten zen senarra lanera.

Transkripzioa

-Eta gero etxien hori, eta gero orduen ezkondu in ziñan, etxe honetara ezkondu ziñan?

-Bai.

-Etxe honen izena zela da? Dukiena?

-Dukiena.

-Dukienera, zenbat urtekin?

-Hogeta lauaz.

-Zela dako edo eukan izena zure gizonak?

-Kalisto.

-Kalisto?

-Kalisto, bai.

-Zenbat sema-alaba izan dittozue?

-Sei.

-Eta Dukienian orduen be bazan jatexia edo ondiok baserrixa?

-Ez, ez. Ni hona etorri nintzenien hemen bai egozen idixek. Orduen be tokau jaten baserrixen lana ittia, hona etorritta be. Gizona juten jaten, Zerrajeran ebillen lanien.

-A, klaro. Orduen eguneko martxia zeuk.

-Bai. Bueno, aitte ta ama, aittagiñarreba eta ama ondion ba... aitte 80 urtegaz hil zan baiñe zer onakin, sasue onakin, e?

-Eta beste Kaliston tiorik edo baeguen?

-Tiorik ez. Bueno, anaiak bai, solteruak eukan ba ondiok lau, hiru, lau.

-Lau ta bera bost. Horrein danentzako jana zuk preparau bihar zeben?

-Aber ba, nok? Bueno, amak, amagiñarrebak... ni ba orduen be soruen ta... aittagiñarrebagaz soruen tokaten jatan lana ittia, gehixena. Ta gero ba umiek, amak apur bat zera itten usten /ittesten/, ta janorduak ba amak, etxien gehixenien. Baiña ba etxeko lanak eta badakitzu, orduen be egoten zien,e?

-Eta ittaurrren zeñnek itten eben? Ittaurren, zu hemen zeontzenien?

-Ittaurren? Ja, ittaurren e, behixek, idixek ittaurreko barik itten euien lana.

-Ittaurreko barik?

-Bai.

-Ittuan boldia jarri, eta benga?

Bueno ba ez, hori ez, baiña han aitte zan, aittagiñarreba zan gehixen itten auena, e? Eta gero ba klaro, astegoixenien, eta gero ba gizonak be illunkaran, lanetik etorten zanien asko.

-Eta Zerrajerara ze faten zan, Arrasatera?

-Bai, bai. Hemetik Aramaixora oiñez, han autubusa hartu eta Arrasatera.

Gure bizimodua horixe izan zan.

-Hemendik Aramaixora oiñez, ondiok ez eguen bape kotxerik? Kamiñorik be ez kotxiak ibiltteko modukorik?

-Ezta. Kamiñua honaiño bai. Ni ezkondu nintzanerako hau kamiñuaz eguen, honaiño, e? Plazaraiño. Horra auzora be ez eguen, eta horra be ez.

-Baiña kalera bai, zure etxera bai.

-Bai. Baiña dirua bai, kotxia ta erosteko?

5.13. Elizpeko eskola

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Vitoriano, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-074/003
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:05:56. **Bukatu**: 00:08:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Iñaki Larrañaga Victoriano, Gantzaga auzoko Urdungio baserrian jaio zen, 1915eko maiatzaren hogeita bian. Eskolan auzoko abadearekin hasi zen. Eskolak elizpean jasotzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta zu Iñaki, zuk zela dakotsu izena?

-Iñaki, Iñaxio

-(Emaztia): Iñaki.

-Bigarrena?

-Victoriano.

-Zu hemen jaixua izango zara?

-Bai.

-Honek dako izena, Urdungio?

-Bai.

-(Emaztia): Urdungio zien hemen bizi zienak lehenau.

-Apelidua zan hori?

-(Emaztia): Urdungio bai, urdunxioarrak; hareik Villarrealen, Vitorixan egozela-ta hona etorri zien baten; hango zeak ziren, antxiña zan, e? Ta ba holaxen. Urdungio.

-Urdungio. Baiña esan Urdunxio itten dozue.

-Urdunxio, bai.

-Eta zu jaixo ziñan, 15ian? 1915an jaixo ziñan zu?

-Bai.

-Ze egunetan?

-Ze ordu?

-Ze egunetan?

-Eztakit.

-Aber hau ondo dauen... maiatzian 22xan?

-Izango zan.

-(Emaztia): ze egunik eta, horreik sekula iñok...

-Eta zu eskolan nun ibilli ziñan?

-Gure eskoloi abadiatz, hemen, bertan.

-(Emaztia): abariakin hemen emuten euen, abariakin.

-Abariakin, baiña kalia emuten zeuen ala hemen?

-(Emaztia): ez, ez, hemen, auzuan; auzoko abariak.

-Zu be abariakin auzuen ibilli ziñan?

-(Emaztia): bai, bai, abariakin, baiña guk dotriña gehixau, e?

-Eta abadiakin ze egoten ziñain, abade-etxian edo?

-Ba elizpeien.

-Elizpeien?

-Lehengua libre euen, baiña gero eskolak emuteko hotz eoten zan neguen, eta orduan zarrau in zittuen. Oiñ atzera kanbixauta dauz.
-A, elizpeia zarrau eta eskolak emuteko, e?
-Bai

5.14. Primo de Riveraren eskolak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Vitoriano, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-074/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- **Laburpena:** Primo de Riveraren denboran, kaleko eskolara joatera behartu zituzten baserrietako ikasle denak. Diru isunak jarri zituzten eskolara joaten ez zirenentzako. Lau anai-arreba ziren. Aita etxekoa eta ama Gasteizko babes-etxekoa zuen.

Transkripzioa

-Gero kalien, hor e...
-(Emaztia): gero "obligatorio".
-Ditaduria eon zan ba...
-Franco, a, Primo de Rivera?
-Primo de Rivera, bai. Haren denporia zan, ta, hori euenien jentia dana kaleko eskolara hemen. Kalien euen maixu bat; harek maixuak [...] eztatit urtebete baten ero, zenbait ingo eben. Denpora asko ez eben in. Gallegua zan ze hori.
-Maixua? Izena goguan dakotsu maixuarena?
-Txiki-txiki bat zan, baiña oin ahaztuta dakot, urte asko da ta!
-Oseake harekin urtebete egon ziñain?
-Urte bat, edo, eztatit neuk be. [...]
-Eta gero, ha fan zanian? Akabo eskolia?
-(Emaztia): Ha hemen euela geratuko zan. Obligaziñua kenduk euen hara fateko ta... akabo obligaziñuori!
-Orduan Primo de Riverak bihartu zinddueiñ danok kalera faten?
-Bai. Anaiak 15 pezeta pagau eben... honenbeste falta iñ ezkerro multia eguen. Batzun batzuk lanien ta etxien in bihar ta... 15 pezeta kobrau otsain orduko zeien.
-Multia?
-Multia.
-Hori diru pillia izango zan, ezta?
-E?
-Diru asko izango zala orduan.
-Izango zan bai! Oiñ ezta asko baiña...
-Orduan eskolara ez fatiatik multia?
-(Emaztia): 15 pezeta eguneko? Hori asko da, Iñaki.
-Ez, dana, dana.
-(Emaztia): a, dana!

-Faltau zittuan egunatik, 15 pezeta.
 -Eztakit zenbat faltau zittuen eta.
 -Eta zuk zeuk etzeben faltau eskolara?
 -Ez.
 -Zenbat anae-arreba ziñain?
 -Zenbat anai-arreba? Lau.
 -Lau. Eta aitta hamengua zeukan zuk?
 -E?
 -Aitta etxekua?
 -Bai.
 -Eta ama?
 -Ama zan... asilokua ha be.
 -Asilokua ama?
 -Bai.
 -Vittorixakua ha be?
 -E?
 -Vittorixako asilokua?

5.15. Aitajauna Palazio baserrira nola etorri zen

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-084/014
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:38:42. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Baserrira » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gerra garaian, zortzi-hamar ganadu zituzten etxean. Oiloak libre egoten ziren. Soroan edota basoan, urte osoan zehar egoten zen zeregina. Etxean gurasoekin bi ahizpa zeuden bakarrik. Eustakik ez zuen bere aitajauna ezagutu, baina zer era bitxian ezkondu zen eta Palazio baserrira nola etorri zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta garai hartan zenbat ganau zeukotzuein etxian?
 -A ba ganauek? Ba, beno, korrientetxue, zortzi-hamar edo hola. Beno. Ganauek ba egoten die, jaixoten die, batzuk hiltzen die, ba zortzi-hamar, hamaike igual edo? Holakoxeren bat. Holakoxeren bat.
 -Eta ardirik esan dozu...?
 -Ez ez, ardixek lehena kendute geuken. Lehena kendute geuken ardixek.
 -Eta astua be bai, ta gero konejo ta oillo ta...
 -Bueno ba, ba konejue ez dakit orduen geuken. Oin bai, oin badau konejue. Ta oillue bai, oillue beti. Oillue libre. Oin zerraute, baiñe orduen etxe inguru danielen dana libre oilluek. Dana libre, ta ba guk lana, lana egoten zan baiña badakitzu? Buenoooo! Neguen be lana egoten zan, udan be lana egoten zan, beti lana egoten zan. Udebarrixe aillegetan zan, goldan eitten zan, bueno patatie, ta erremolatxie, beste haik ein orduko, haik ein orduko... bueno patatak eta erremolatxie ba horrek patatak jorratu, gero patatak atara, gero garixe. Gero garixek ebai. Garixek ebai. Gero, garixek ebai... bueno, agustoa. Gero etorten zien gaztaiñak, gaztaiñak batu biher. Gaztaiñak be jausi itten zien, batu ein biher haik saltzeko. Irie ebai biher, behixe botatzeko, azpixedarako, irak ebai... enee! Babak be bai soluen

egoten zien. Haik babak be batu biher. Haik artuek ebai biher. Haik artuek ebai, etxera ekarri ta gero artuek zurittu. Ez dakitzu? Zurittu. Ta gero artue egon dan lekuen barriro garixe erain. Ene! eten bakue egoten zan baiñe, eten bakue! Ta gu aizatxo bixok bakarrik egoten gitzen. Bueno, bai, gero ba neu be bai fuen nitzen gero Bergara...

-Ta beste hirurak nun zien ba?

-Ba beste hirurak? Ba nausixoi josten. Josten egoten zan. Bestie, ba, krieda hortik ziher. Eta mutille fabrikan. Zerrajeran fabrikan mutille be.

-A, ta nora faten zan?

-Ha, zera, Zerrajeran.

-Zerrajeran?

-Bai. Ta gu aizta ta bixok, ta aitta ta ama. Ta gu ba lanok... lagundu bai, beti be etorten zien ta ba...

-Ta aittajaun-amandrarik edo...

-Ez, ez, ez, ez, ez. Nik aittajaune ezautu be ez nauen in. Badakitzu geure aittajaunei ze pasau jakon? Amandrie ezautu nauen, larogeta bi urtekin hil zan... baiñe aittejaunei zer pasau jakon? Bueno, haik ezkondu zien, badakitzu aittajaun ta amandrie zela ezkondu zien?

-Ez.

-Bueno ba. Nere aitte, nere aitte zan horkotxe beherengo etxekue. Hor beherengo etxien, ezta?, beherengo beherengo etxien euen bi bizitza: atzekaldien bat eta bestia aurrekaldien, bi bizitza. Ta hangue zan nire aittajaune. Eta juen zan ferixara. Ta aittejaunek euen semie. Eta aittejaunek auken semie, baiñe "a punto de ir" soldau. Ezkondu ezkerro, ha libretan zan. Fuen zan ferixara, ta juntau zan beste Santa Agedako gizon bateaz. Ta esan utsen "hik badaukek neskaik?", mutille soldautzatik libretan bajuat, ezkonketan bajuat, librau ingo juat. "Ba bajaukat neuk be, hamazortzi urtekua, bajaukat". "Hi, ba, horretxek ezkondu biher jittuau / bijittuau/. Esan biher jutseu /bijutzeu/". Ta ezkondu zittuan hemengo aittek hemengo semie, eta hak bere alabie. Ezkondu zittuan, ta fuen zien Oletara bizitten. Ta Oletara fuen zien bizitten ta, bueno, han Oletan be, ba, pentsaizu, zer eukiko juen ba haik? Ba nik ez dakit zer, fabrikie edo be ez auen eukiko haik, ze lan edo nundik bizi edo horrenbeste be ez dakit / eztakit/. Eta gure, nire aitte Oletan jaixue zan. Ta han jaixo zan aitte eta beste anairik ez dakit /eztakit/, ha bai, nausixena, Oletan jaixue zan. Ta handik etorri zien hona. Ta hau etxiau zan, etxe txiki-txikitxoren bat ei zan, txabolatxuen moduko etxe txiki-txikitxoren bat. Ta harek in auen holan etxetxo haunditxua bat. Eta ni akordetan naz, tximinixie ta hau, beheko sue, egonda [euen] kamaran, gurien. Kamaran euen hori tximinixie be egonda. Antxiñeko etxetxue, ez dakitzu?

5.16. Ekonomia sukaldea

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-084/015
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:42:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Eustakin aitak etxea zabaltzen jarraitu zuen. Txapazko ekonomia sukaldea jartzen, auzoan lehenetarikoa izan omen zen.

Transkripzioa

-Ta, bueno, ha. Ta gero ein auen gehitxua. Ta gero gure aittek eta amak be ein auen apurtxo bat gehitxua, ein auen. Ta, bueno, puskat jantziaz jantziaz etxioi. Ta gure aittek eta amak gero ein auen haunditxuaue, gero ifini auen txapie be bai. Hemen labie auen ogixek ittekue, ta hor beheko sue. Ta ekonomiek esaten zana, famosue zan ekonomiek, ekonomiek hortxe ta bentanara bittartien dana ladrillo zurixekin ifini auen. Ta, bueno! Beste lekutan iñun be ez euen, ta jentie ikusten ekonomiek, ekonomiek ikusten. Ta gero Untzilleko Etxebarrikuek ifini auen barriro. Hak be ipini auen ekonimikioi. Ta lehelengo-lehelengokue geurie, ta Untzilleko Etxebarriko ekonomiek. Gero ifini zittuen gehixauk be bai, danak ifini zittuen. Baiña lehelengo-lehelengokue holaxen izen zan. Holaxe.

-Nundik ekarri zebein?

-Atxabaltatik. Ekonomiek Atxabaltatik. Astuen edo, burdixen edo. Orduen ez auen kamiñoik.

6. Aisia

6.1. San Juanak: sutarako gaia

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ugarte, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ARA-013/011
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:16:08. **Bukatu**: 00:18:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: San Juan bezperan egiten zuten sua. Osaba-izeba eta lehengusuak joaten ziren bazkaritan eta afaritan. Sua egiteko gaia: sasia, otea, narrak... Angaila zer den eta baserriko zer eginkizunetarako erabiltzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- San Juanetan ze egoten zan? San Juan bezperan-edo hasten zan?

- Bueno, bai. Hori, sua in ta gero, ba, hoixe. Oin be antzera itten da. San Juan bezperan sue in ta, ba, preparau, jaixetako lanak in, ta garbittu, ta bestie, ta holako gauzak. Gero, orduen, konbidauek-eta etortzen zien, parientiek-eta, bazkaltzen ta...

- Kanpotik? Edo...

- Bai, bai. Komente, ba, tiuek-eta, primuek-eta, hortaiko jentie. Kapotik etortzen zien orduen asko. Oin, ba, oin etxekuek komente etortzen die, ba, seme-alabak edo anai-arrebak edo...

- Eta zer etortzen ziran, bazkaittan edo afaittan edo...?

- Bai. Guztire. Bazkaittan, ta iguel afaittan be geratu ta... Lehen esan dotena: gurien be, ba, aittajaune Maringue zan ta, ba, etorten zien Marindik be iguel. Ta egoten zien, ni mutiko txikiña gerra-aurretik nitzela, ta akordetan naz. Gero ya gerraostien-ta ez. Hil be in zien batzuk eta gero ya etxien.

- Eta ze izaten zan? Espeziala hamen Aramaixo inguruan, edo hor, Eskoitzan ta Atxabaltan ta... antzerakua?

- Antzerakue, bai, antzera. Estilo batea eitten zan hamen Aramaixon-ta be. Horko antzera. Oin be eitten die hor, ta... Hau ballariau antzera jarraiketan

dau. Kanbixauaz, baiñe, ba, antzera, auzo bat moduen.

- Eta sua zelan eitten zenduen? Zerekin? Ta ze erretzen zan?

- A! Bueno. Aurreti sasixek, eta gero hamen egoten zien otak eta narrak eta, ebaitte igual neguen. Ta harek ekarri mutikuek angailla baten, edo... Angaillie eukitten geen...

- Ze izaten da?

- Angaillia eukitten geen, ba, kortatik satsak atarateko ta. Eukitten geen lagun bik. Kortan orduen egoten zien ganauek, ba, badakitzu, askak hona eskiñan ta alde bixetaa ta erdixen satsak. Zortzi edo hamabost egunien iguel atara barik egoten zien. Irie ta orbela bota, ta gero, ba, holakotxe pillue sendue eitten zan. Ta gero, lagun biren arte ataraten geen angaillie, kirten luze bi, ta gero holan, ifini... zerakin eindde, tximintxekin eindde, ta hara satsa bota, ta bi anaik-edo hartu ta, ba, [...]. Ta gero harekin otie-ta ekarten geen, sua eitteko ta.

- Eta hori guztiori, orduan, gero, otia ta narrak, ta ze gehixau?

- Narrak eta bedar zaharren batzuk eta...

6.2. Auzoetako jaiak

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/007
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:08:29. **Bukatu:** 00:09:30
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Herriko jaiak izateaz gain, auzo bakoitzak bere jaiak izaten zituela gogoratzen du Mirenek.

Transkripzioa

- G.: Eta, orduan, jaixak-eta, zeintzu ziran, hola, importantienak hamen?

- E.: Basarriko... bakotxa bere elixako... hemen “por ejemplo” San Martin. “Primer domingo de Julio”. Ta gero ba, auzu-auazuetakuak.

- Ta zeintzuk ziran? Gogoratzen dozu zein dan auzo bakoitxian?

- Auzo bakottian, ba, Bajongua, ba “quince de Julio”, hoi, “quince de Agosto!” Amabirjiñien, ee... Printzipalena guetako hoixe ixate zan, Bojunea. Bajun baakitzu nun daon?

- Bai.

- Ta hori geixen gustat...ta gero zela uran zien....beti. Bestiek gutxitxuau, ezta? Bañe, hori gehixen! Gero Aixolaa be bai, Aixolaa jute zan. Hori uran zan, ta...

- Aixola zein...noiz dira Aixolakuak?

- “Dieciocho de Julio”.

6.3. Inguruko herrietako jaiak

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/009
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:10
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

- **Laburpena:** Santa Marina, San Juanak eta bestelako jaiak gogoratzen ditu Mirenek. Arrasate eta Eskoriatzako jaietara joateko ohitura ere bazuten.

Transkripzioa

- "Dieciocho de... Julio"?
 - "Julio"! Santa Mariña!
 - Santa Marina. Eta San Juanak?
 - Bai, baña Mundragu juten gitzen. Ordu... gaztiak gintzela, ee, orduko hasitta euen apurtxo bat, ee, automobile ta Mundragu jute gitzen. Atxabalta be nusbaitxen bai. Bueno, nik, nik, e, ama zela Eskoitzakue neuken, ba, beti tiraten da apurtxo bat.

6.4. San Martinak Ibarran

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:15
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Martin
- **Laburpena:** San Martinetan Ibarrara banda etortzen zen hiru egunerako. Goizean mezara joan eta arratsaldean dantzara joaten ziren. Herri kirolak ere izaten ziren batzuetan.

Transkripzioa

- Eta hamen, ee, jaixetan-eta, ze etxe zan? San Martiñetan-eta?
 - ba, bandie. Bandie etorte zan orduko. Hiru eguneako, zapatu, demoka eta astelehena. Astelehena, ba, hillen... goxien hillen mezie, ta gero, errespeto gehitxuau egote zan.
 - A, bai?
 - Geo atsaldeako, ba, atsaldie dantzan itteko.
 - Eta ze gehixao egote zan? Musikia eta bailiak eta...
 - Ba, besteik ez. Sokatirie ero beste zeozer, ezta? Baiñe, bestelan...
 - Ta pelota partidua, eta?
 - Pelotan noizien behiñ, baña han behien, ayuntamentuen behien ette zan.
 - Idi-probak eta olakoik etxe zan?
 - Bai, batzutan itte zan hori be. Irixek bertakue be bai. Bazen...ai beste kuartuan dao...aitten erretratue.
 -Bera ibilitze zan?
 - Bera begire, begire rao (dago).

6.5. Inauterietan puxikekin jotzen

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:19:25
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

- **Laburpena:** Inauterietan mutilak mozerrotu eta txarri puxikarekin jendea jotzen ibiltzen ziren. Neskaren bat mutilez jantzi izan zela gogoratzen du Mirenek, baina ez zen ohikoa izaten.

Transkripzioa

- G.: Eta Pasku-astian?
- E.: Ez. Pasku-astian gauz...ee... A! Karnabalak eta bai, izeten zien. Bai. Bai akordu naz karnabalak, e mutillek jante zien jeneralmente, e, zakarkeriak etteko.
- A, bai?
- O loitxu, ero zertu, ero... Gizakumiek gixau (gehiago), mutille gixau izete zien. Gero, puxikakin neskai eta gauzai joteko be bai. Puxikie baakitzu zer dan? Txarrixen zea, "la vejiga". Ta hare, harek izate zien bildurgarrixok.
- Eta orduan zer...zuek neskak ez ziñazien ...
- Neskak, ba, atzien jarrattu eta olakotxe gauzak.
- Eta, karnabaletan, orduan, beti egote zan, holan, girua eta jaixa, eta?
- Bai bai, karnabal egunien bai. Baña hoixe, gizakumiek ixate zien. Baterombatzuek, ezta? Mutil jantzi-ero...Bai, akordatzen naz, pareja bat. Urtero etxen eubien. Neska bixek, ba, neska-mutil jantzi txe (eta)...etten ubien.

6.6. Ibarrako eromeriak

- **Hizlaria(k):** Altuna, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-016/021
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:33:23
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Ibarran erromerian aita semeak ibiltzen ziren. Batak jo eta besteak dantzariet dirua eskatzen zien. Herriko ermitetan ere erromeriak eta ospakizunak egoten ziren. San Cristobalen ere erromeria handia egiten jarraitzen dela dio Mirenek. Herrikoak zein kanpokoak joaten dira eguraldi ona egiten duenean.

Transkripzioa

- G.: Eta erromerixak-eta egote ziran?
- E.: Bai!
- Bertan kalia ero...
- Ba hoixe, San Sebastian egunin kalien.
- Baña uran?
- Uran be bai! Soñua, filarmonikia eote zan or [...]. Ta, ba, ba, aitte, aitte-seme zien da aittxek batzen eban, ba borondatie ero, zea dantzan ebillenak. Zuk ezen (ez zenuen) ikusiko hori!
- Ez.
- Ba dantzan abillenak, ba, jute zan, ta...
- Pagau eim bihar, ez?
- Pagau eim bihar!
- Hori zan hori!
- Pagau im bihar!
- Oiñ ayuntamentuak pagatzen dau! Ta bestiok dantza, ez?
- Hoixe, bestiok, bestiok dantza iñ!
- Eta gero, ermitxetan-eta, egote zan erromerixarik eta olakuak?

- Bai! Bai, batzu, leku batzutan bai. Pojemplo [gureixen] egote zan, bai, erromerixie. Gero, ee, San Cristobal be bai. San Cristobal, ba hoixe, ba, eguniin zebrate zan, oin domekan zelebretan da. Bigarren, ju... biga... "segundo domingo de julio"! Oim bai jai erromerixa haundixe etten da han.

- Bai?

- Bai! Bueno, erromerixie, ta jentie dempora ona eon ezkerro jentie juten zan bazkarixaz ta, gauzakin. Oso leku politte ra.

- Nun dau?

- Nun?

- Bai.

- Hemendi gurutza jute za? Kamiñuen?

- Kamiñuan bai.

- Ba, Olaeta ifitten dauen lekuen. Hantxe dau bistan.

-Kale, ero bide ertzian?

- Bai, bai. Kamiñue, kamiñue rao (dago). Oso leku politte ra (da). Arbola, arbolarixe haundixe. Ta gero, hor, Albiñan bertan be etten da, Soziedadien be etten da oin be. Jakingo dozu nun dan bistan?

-Bai.

- Baña han oso politta etten da gero! Umiendako bonixe (ponny) ta olako gauze. Atzaldien etorten die, ta, erromerixa haundixe etten da. Gero goixien ba, hamarretako kostunbrie dao: txorixue ta talue ta hori. Han handikaldekuen.

- Eta lehen be holan zan?

- Bai, antzea zan. Antzea zan.

- Ta ze juate zan, herrri guztia?

- Bai.

- Kaletarrak-eta be bai?

- Bai, bai, bai. Kampoti be asko etorten die, e? Larrei, letxe! Jente larrei letxe eoten da bixitan. Dempora ona eiñ ezkerro...

- Bai ba! Gañera udan, eta...

- Klaro! Uran! "Segundo domingo de julio". Eta gero bestia azkenengoko agostue! Zer onak die kanpora urteteko. Gero San Adrian be bai. Hor beste bat. Han, ee, zerera Oleta artu biherrien beste aldera jun, artu ta dao beste zer bat. Han be erromerixa haundixe etten da, oin be bai.

6.7. Arrasaten, lanean eta solfeoa ikasten

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/014
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Soinu beltzak zuen doinu polita, eta hura hartu zuen. Solfeo gehiago ikasi zuen, Don Rokerekin, baina hark ere ez zekien asko. Klabe-sol eta klabe-fa. Arrasatera joan zen. Zerrajeran hasi berria zen lanean, eta Juanito Arzamendirengana joateko esna zion batek. Eguerdietan hasi zen ikasten, 12:00etatik 13:00ak arte. Urtebete bi ikasturte egin zituen harekin. Oso umila zen, irakasle ona. Baina soinua ez zitzaion gustatzen, infernuko hauspoa iruditzen zitzaion.

Transkripzioa

- Ta "Honetxek baltzonek jaukek sonido ona. Nik uste juat haxe izengo dala soñu ona", tal. "Oin, badakik zer ein biher duan, e? Solfeue gehixao ikesi biher dok!". Ta juen nitzen hona, Erroke auen hemen, organillue jotzen auen, ta hareana juen nitzen ta, bueno, hareaz ein nittun hille bi edo. Ta aurretik apur bat banakixen ta berak asko ez akixen solfeue, ta ikusten neen asko ez akixela berak be. Ta, bueno, esan usten, halako baten esan usten: "Bueno, nik gehixao ezin neikek erakutsi. -esan usten - Nunbaitten topau in biheko dok zeozer, gehixago biher badok, nunbaitten topau ein biheko dok zeozer". Nik esan nutsen: "Nik, nik gutxienez biher dot clave de sol akabaute, ta clave de fa akabau ein biher dot, eskumie eta ezkerra manejetako". Clave de sol zan eskumie manejetako, ta clave de fa zan ezkerra, bajue, manejetako. Ta, bueno. "Nik ezin neikek gehixao ein, nik, parkatu eidek, baiñe nik ezin neikek gehixao". Bale, bueno. Juen nitzen Mundraura, ta Mundrauen esan ustien, orduntxe fabrikan ekindda ninguen.

- Zerrajeran?

- Zerrajeran, bai. Ta esan ustien e: "Bueno, hik badakik zer ein biher duan? Hik Bandako direktorie ezautuko dok, Juanito Artzamendi, ezautuko dok", eta "Bai, ezauketan dot!", "Bueno, juen hai haretxeana! -esan usten han lagun batek, eta- Aber ze esaten dustan!". Ein usten prueban batzuk eta, "Bueno, oido ona daukek! Etorri heike eguerdixetan?", "Eguerdixetan ba, denbora asko ez dauket, baiñe etorriko naz".

- Hori, Arzamendik esan utsun hori?

- Arzamendik, bai. "Etorri heike?" ta, "Ba, bueno. Ta ze ordutan?" Ta "Bueno, hamabixetan urteten dok, ez dok, Zerrajeran? Bai, hamabixetati ordu bata laren gutxiau, ordu bata arte! Egunero etorri heike?" Ta, "Bai, etorriko naz.", "Gero, ordubatetan, en vez de hamabixetan bazkaldu, ordubatetan bazkaldu, Zerrajeran bertan, komedorien, ta bueno, ba etorri!". Ta hasi nitzen espliketan-espliketan-espliketan, ta, bueno, lehenengo egunien ein auen pregunta batzuk, notak ezautu ta... "Bueno, notak ezauketan dittuk!", "Bai!", ta "Nun ibili haz ba?" ta "Aramaixon ibili naz, lehenengo abadiak apur bat erakutsi usten eskola denporan, ta gero ba horrek Errokek erakutsi usten", "Joño, Erroke!" ezauketan dauela, ezauketan dau... "Baiña harek gutxi jakingo dau iguel" ta "Eske esan usten gehixao ezin leikela berak erakutsi ta beste nunbaitten gure baneen gehixao ikesi, ta, bueno, oin zeuana etorri naz". Ta, "Bueno, nik erakutsiko dustat, gure badok ikasi". Ta urtebetien bi kurso ein nittuen harekin. Zaratarik ezebez, e! Uluik be ez, e! Ezta jo be. Honek, Errokek, regla bat eukitten auen ta holan apur bat... E? Eukitten auen. Baiñe harek... Oso umil, e!

- Oso gizon dotorie zan, ez?

- Ta umille. Nik ez dot euki holako profesoreik! Urte bixen erakutsi usten clav de esol y clave de fa, bi gauza erakutsi usten. Ta gero, ba, baeozen akordiek-eta hartzeko ta holako gauza batzuk eitteko, ba hori, musikie ez da akabetan, ez da akabetan! Ta gero, ordureko soñue ba etxien nauken, ta nik ez nutsen esaten hari, ta "Ta gero ze ikesi biher dok, ba, pianue edo?", "Gustauko litxat pianue ikestie, gustauko litxat, baiña soñue ikesteko asmue dauket!". Jode! La perdición! Ez jakon gustetan soñue. "Inpernuko hauspuke ikesi biher dok?" esaten usten. Ez jakon gustetan. Beste danak, e, zuk gure bazen flautie, bioliñe... bandako gauza danak, e, gustetan jakon. Baiñe soñue ez jakon gustetan, ez jakon gustetan. Ta, ba nik, "ña! ikesi ein biher dot". Ta "Baiñe segiduko dok solfeuen?" ta "Nik ahal dan dana bai!" Baiña, klaro, gero...

6.8. Gatzatua Letazurko jaietan

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/008
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Gazta asko egiten zituzten. Letazurko ermitako jaietan gatzatua saltzen zuten, etxeko artesne guztia erabiliz. Garai haietan bildotsa beranduago jaio eta artesnea apiril-maiatzean izaten zen. Gazta dendetara edota etxetik zuzenean saltzen zuten. Bai Arrasatetik eta bai Gasteiztik etortzen zen jendea gazta bila. Uztailean antzutzen zituzten ardiak, basora bidaltzeko.

Transkripzioa

-Eta esnerik emuten euein ardi horreik?
-Bai. Gazta morduak itten gittun guk. Bai. Gazta morduak eta gaiñera hori bakarrik ez. Etorten zan han gure Aixolara joiatzela, goratxuau, Errota Barri baiño goratxuago dago ermitta bat, Letazur esaten dutsiena.
-Zela?
-Letazur.
-Letazur ermittia?
-Bai. Eta hango fiestak ba lehenau itten zien. Zera, Paskua hurringoko zerien ba itten zien hango jaixek. Ta hango jaixetan jentie ba asko eukitten geben gatzatua jaten. Hara erromerixara igoten auen jentiek [...] gatzatua in biher izaten gittuen.
-Jai horretarako.
-Bai.
-Esan dozu Paskuako hurringo domekan?
-Paskuako hurringoko domekan itten zien, bai.
-[...] gatzatua. Zu umia ziñanien be gatzatua jaten zan?
-Bai, betik.
-Leku batzutan beranduago etorri zan gatzatua jateko ohitturia.
-Ez, ez. Bueno, han be ba jolin etzan izaten orduen be eneruen eta febreruen oin egoten dan moduen esnie. Orduen egoten zan mariatzien, apirillien, marietzien eta hor, hor egoten zan.
-Billotsa beranduago jaixoten zalako.
-Bai. Billotsa beranduau izaten zan. Bastante beranduau.
-Klaro. Nere tiak eta: "gatzatua zela ingo giñuan ba, eta gaztaia zekin in bigiñuan ba?"
-Guk gatzatua betik jaten geben etxien, e? Hola jaixetan, gure aitte zanak jaixetan gatzatua ez dadilla /eztailla/ falta; gaztai ez otsan inporta iñ ez arren. Baiña gatzatua eztailla faltau, e?
-Gaztaia nun saltzen zeuein?
-Ba dendetara. Ta holantxe jentiek asko etorten zan ostantzian be, etxera gatzatan, asko.
-Ona ingo zeuein orduen.
-A, eztakit. Gustau itten jakon jentiari.
-Ze etorten zan, herriko jentia, edo Arrasatetik, edo?

-Bai, Arrasatetik be bai. Baitta zeretik, Bittorixatik iñoiz etorri jaku, etorten jakun jentie gaztatan.
 -Garai hartean baserritar danak itten euein gaztaia, edo?
 -Bai, orduen hemen etzan saltzen. Baiñe gero, klaro, marietzi hasten bazintzen ardixek batzen, ba zerien, marietzi batu esnia hasi, ta gero juliuen ya antzutu itten zittuen oster, ta gero larretara, basora.
 -Horixe, bi-hiru hillabeteko...
 -Horixe, ta haxe izaten zan.

7. Natura

7.1. Txori-izenak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/027
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:43:46. **Bukatu**: 00:44:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Txorien inguruko zenbait pasadizo: txepetxa, papargorria, birigarroa...

Transkripzioa

-Ta birigarrue?
 -A, txorixek? Birigarruek eta honek? Bueno, ba, birigarruek, birigarruek, birigarruek onak die. Ba kantetan daue ta...
 -Ta txepetxak eta...
 -Ta txepetxak, horrek...
 -Horren gaiñeko [...] ama birjiñe ta, hau papargorrixek.
 -A papargorrixek. Hori ez dala hil biher e, horreik ez dauela hil biher esaten daue. Ta papargorrixek, horrek in utsen /intzen/ argi. Ta beste buztan luziek atara utsen begittik zamarra ama birjiñiei.
 -Ta txepetxiek?
 -Ez, txepetxa, ez dakit txepetxa. Baiña neuk be... gurien oin ez, baiña nik ez dakit zer pasau jakon. Hazi be ein zittuen gurien kortan umatxuek bai? Lehengo urtien. Ta danak banandu die. Ta gero lobie be iñoz fueten da karabiñiaz ta esaten dutset nik "gero papargorrixek ez", "ez, amama, ez". Baiñe oin goiko txabolan illunkaran egoten da, zeatik hemen bapez. Baiñe kortan ta danien bertan ebitzen lehen horrek zerok, gorritxuok, papar gorritxuok.
 -Ta buztenikeriek atara utsen zamarra begittik?
 -Zamarra begittik. Hori Mirarik ez daki hori, baiña. Txantxangorrixek argi ein ta...
 -Papargorrixek argi.
 -Papargorrixek argi in utsen /intzen/ ta buztanluziek ama birjiñiei begittik zamarra atara utsen. Honek ez daki hori be. Sekule ez dot iñori esan hori ta... Baiña niri esan usten /esausten/ baten batek.

7.2. Iferra, amillena eta beste haize batzuk

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrate, Rufina

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-072/019
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:45:03. **Bukatu**: 00:48:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Haize ezberdinak nondik etortzen diren eta euren izenak esaten ditu.

Transkripzioa

-Honek esan nontan, Arantxak, zuk haiziak eta eguraldixa eta asmau egitten dittozula...

-Arantxak? Ze Arantxa?

-Zure illobia uste dot dala.

-Nire lobie?

-Bai. Ozaeta uste dot dala.

-A, bai.

-Ezta zure illobia?

-Bai.

-Zuk haiziak eta ondo ezaguketan dittozula. Eguraldixa eta holako gauzak.

-Bueno.

-Hori Arantxak esaten dauen moduen, ezebez. Ba gaur, ba, hego haixie dabillega, ta oin ba urten dau iferlañuek, ta iferlañue izeten da hotzaue hego haixie baiño.

-Iferlañua zer da?

-Nortie.

-Iferlañua esaten xatsu?

-Guk iferlañue esaten dutsau.

-Iparrari?

-Ifarra. Ta amillena esaten dutsau /esatetsau/...

-Guk behekoa esaten xangu, iparra.

-A, behekoa, klaro. Ha behetik da... bai, bai.

-Arantzazun, ni han hazittakua naiz, ta, beheko haizia xabilk!

-Bai, ba behekoa. Guk ifarra esaten dutsau horri. Baiña Aramaixon, Kurtzebarrin, hor goixen mendixen urteten dau ba zerekuek, galleguek eta, esaten dan moduen, galleguek eta, guk ifar haixie esaten dutsau /esatetsau/. Amillena ta horreik bai, baiña zer, denporie besteik zer?

-Amillena?

-Amillena. Honeik askok denporamentue emuten dauenak, esaten daue, amillenari esaten dutsie /esatetsie/ hego haixie, baiña amillena ez da hego haixie. Amillena da haixe hotzaue; hau hortik Aretxabaleta aldetik datorrena, hori bai dala hego haixie. Baiño hor goittik datorrena da ifer haixie, hori ez da iguela, hori hotzaue da.

-Ipar haizia, hori goragotik dator.

-Bai. Amillena, e? Bai, gallegue edo esaten dutsie.

-Eta ipar-iparrari? Klaro, zeatik gallegua da Atlantikotik datorrena; ipar-iparra? Zeatik e...

-Anbototik datorrena.

-Eta horri zela esaten xatsue?

-Iferra.

-A, hori iferra.

-Hori iferra.

-Eta bestiari, galleguari, zela?

-Ba galleguari esaten dutsau hemen amillena.

-Amillena, guk gallegua esaten dogu.
 -Ez, hori gallegua, bai, ba antzerakua izengo da, ze...
 -Gallegua... naparra... Naparrukua, naparra berriz, beste aldetik datorrena, baiña ha be iparretik, ha diferentia da.
 -Baitte. Guk hori ez. Guk hemengo, nik hauxe, hego haixie datorrenien ba igarten da epelaue etorten dalako. Ta hori amillenri edo galleguoi edo zuk esaten dozunoi, hori da asko be hotzaue. Ba iferra edo hori nortioi.
 -Bai, nik ez dakit, nik ez dot asko entenditten hortaz, baiña uste dot gero naparra, napar haizia, hor Frantzia aldetik eta etorten dana, hori, horrek lañorik ez dau ekarten, baiña hotza izugarrixa.
 -Bai, iferra, guk hemen iferra esaten dutsau horri.
 -Napar haiziari?
 -Bai.
 -Iferra.
 -Iferra.

8. Iritziak

8.1. Antzina ordua nola jakiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizarralde, Saioa
- **Erref**: ARA-037/039
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:57:26. **Bukatu**: 00:58:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Erlojurik ez zegoenean, eguzkiaren itzalaren arabera jakiten zuten ordua.

Transkripzioa

-Ta euzkixe?
 -Ez, euzkixe nik... euzkixek ondo berotu, ondo berotu euzkixek. Gero makillie bai, gero makillie. Guk jakin geuen euzkixaz hamaikak noz zien lehena, zelaixen gebitzenien. Hola ifini, bai? Hola, ifini. Ta hemen baeuen, hemen baeuen e, kerizpeia, hamaikak. Ta hemen beste aldetik baeuen, hamabixak. Guk makilliaz igerten gutsen. Ta makilliaz ta Solobarriko horman be bai. Solobarriko hormie baltziketan zanien, behera ixte etorri, hamaikak hamaika t'erdik. Dana baltziketan zanien, dana, horma dana, hamabixek. Ganauekin ibiltten gitzen, ganau-zain ta. Ba han hamabixek ta etxera. Eta soluen [...] "hamabixek die".
 -Erloju barik...
 -Bai, bai, bai. Oin erlojuek danak, baiñe orduen erloju barek, ta makilliaz be bai. Makilliak kerixie nun auken makilliak, euzkixe hemen egoten zan, ta kerixe nora pasetan zan, ba, [ekingo] gutsen hamarrak, hamaikak, hamabixak. Hamabixek inguruen euzkixek [...] ta orduentxe enteretan gitzen zerokin, kontuokin.

9. Lanbideak

9.1. Doroteo errementaria

- **Hizlaria(k):** Elexpuru Altube, Domeke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ARA-061/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Errementaria bizi zen etxetik gertu. Aizkorak, aitzurrak... uretan sartzen zituen, gero txispa batean, mailuarekin jotzeko. Lan txarra izaten zen. Gurdien gorpilen burdinazko ertza, ubela, prestatu egin behar zen. Lagun biren artean konpontzen ziren ubelak. Genaro perratzailea. Doroteoren semeak ere ikasi zuen perratzaile.

Transkripzioa

- Domeke: [Felixen] bizi izen zana, bizi izen zan lehen, lehenau, errementaixe! Han bizi izen zan errementai bat.

- Zuk ikusiko zauen zelan lan eitten auen...

- Domeke: Bai, bai, eta... ze lan, ze lan txarrena auken ta dana... [Ekin] auenien... ba, por ejenplo, atara horreik... luzetu in biher zittuenien / bizittuenien/... aixkorak, eta, atxurrek eta, ezta? Ba, han sartu biher izeten /bizeten] auen, lelengo sartu horretan, uretan, gero sartu han mailluaz joteko, txispa baten, ta oso lan txarra ixeten zan. Ta beste bat oso txarra, orduen burdi asko eoten zan, oin ez dau /eztau/ burdirik eta, horreik errubera moruik bez, baiñe ugela esaten jako burdixei ifintten jakon burdiñazko... ertza.

- Gurrpilai?

- Domeke: bai, gurrpilei; ta, ha sartzen auen... ha preparau in biher zan / bizan/ lelengo, ta gero egurrekin indde eoten zan erruberie, ta ha lagun bixen artien zuluek eukitten zittuen ugelak, ta ugelai sartu untza batzuk, ebatu untzai, ta sartu in biher izeten zan. Ai! zenbat juramentu botaten auen!

- Beste hiltun bat: ta gero perratokixen be bai...

- Domeke: Doroteo auken izena.

- Errementarixak?

- Domeke: Errementaixek.

- Doroteo...

- Domeke: Doroteo.

- Eta zer izaten zan, bera auzoko...?

- Domeke: bai, hamengo, hamengo ingurukue, hamengo ingurukue, bai! Hamen beste errementairik nik ez neben ezautu, [...].

- Beste hiltun bat: bai, Genaro auen bat, ezta?

- Domeke: A! Baiña [perratzaillie] zan ha! Ha zan behixek eta astuek eta zaldixek-eta perretako! Ta bestie zan errementaixe... gero perretan ikesi auen Doroteon semiek, ta harek be itten auen perretan be.

9.2. Aramaioko Rodero denda

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza

- **Erref:** ARA-101/018
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:32:58. **Bukatu:** 00:34:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Meza ezin zen falta jaiegunetan. Erosketak egiteko aprobetxatzen zuten jaieguna baserritarrek. Rodero zen Aramaioko denda. Zelakoa zen kontatzen du. Ugazaba zalgurdiaz joaten zen Gasteizera erosketak egitera.

Transkripzioa

- Eta gero, hamen gaiñea, bizi be holatxen ez jaixek?
- A, bai...
- Esan gurot...
- Mezie, mezie... ha ez zan /etzan/ ha ezin faltau. Ha ez. Ez zan /etzan/ faltako. Andrak holakotxe tripakin ta oiñez jua hai hementik kalea edo Azkuara. Hementik gehixen kalea ze kalea jua ta errakauak itten zittuen... jueten zienien domeketan... mezie entzun...
- Eta errekauek in?
- Ta gero, errekauek in.
- A, dendak zabalik euazen orduen.
- A, orduen bai.
- A, bai?
- Bueno... Orduen, astegunetan nor jueten zan ba! Domeketan. Mezetan.
- Ta ze denda euen Aramaixon orduen?
- Ordun euen Rodero. Roderon alaba bat izen zan neure kinttekue, hil zan. Azkarragan seme bateaz ezkondu. Ha ezautuko zen, Felisa. Ta gero, nausixaue beste bat Madrillean ezkondu zan. Ta gero, beste bat ez dakit nun bizi zan, Donostian edo.
- Ta zelakue zan dendie?
- Hiru aizta.
- Dendie zelakue zan? Zela euen...
- Ze...
- Ze zan mostradorie... dendie? Zelako...
- A, bai dendie. Dendie danetatik...
- Danetik.
- Danetatik, mostradorie... Ondio zenbat denpora da ba itxi euela! Ez da denpora, urte asko e! Baiñe mostradorie alde batetik bestera ta (betaikuek) itten euen. Ta gero, Sebastian e... dendakuoi ta ha juaten zan karruaz Vittoixa gauzak ekarten. Zaldi bat eukien eta karruaz juaten zan. Ta gauzak ekarten zittuen.

10. Politika

10.1. Ogi ona saldu eta txarra jan

- **Hizlaria(k):** Gardoki Mazmela, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-065/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:16:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserrria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Baserriko bi ogi eramaten zituen amonaren etxera, eta artoa. Tremesa zer zen. Berak ez zuen ogi hura jaten, sekula. Errazionamenduko ogitxoak oso txarrak ziren, baina haietxekin konformatu behar. Okindegia non zegoen. Kartila batekin baino gehiagorekin joaten zen, beste batzuen ere hartzeko. Duela gutxi enteratu zen berak eramandako ogiak saldu egiten zituztela aitona-amonek.

Transkripzioa

- Gauza bat pasetan jaten: nik baserritti erueten nittuen bi ogi baserrikuek, erredonduek, erueten nittuen. Ta beste arto bat. Ta tremesa zan, horrekin, zeakin eindde...

- Zahixekin.

- Zahixe ta... ondo... zahixe be ez!

- Zentenuaz eindde.

- Ba, zentenua be ez. Garixei, urunei atzera geraketan jakonaz eindde, tremesa. Erueten nauen eta hor geraketan nitzten ni moska. Nik ez nauen jaten han bape, nik erueten nittuen [ogei], ogixe, ez nauen jaten, ta artorik be ikusi be ez. Ta eurak be ez auen jaten. Ta nik, nik erueten nauen, eskolatik urten, erueten nauen honeik, razionamentukuek, panezilluek moduen. Esaten zauen txarrauek izeten zien hareik! Baltzak! Ta iguel kordelak eta danak eukitten zittuen, e? Auen panaderixie, oin ein biher daue ba hori pastelerixie ta?

- Bai, [...]?

- Bai, hantxe auen panaderixie. Ta nik handik erueten nauen beheruzkuen horreik, panezilluok, erueten nittuen. Ta dana auen razionamentuen, auen orduen. Ene! Nik neuken kartilla bat etxekue horkue, beste kartilla bat auen horkue, ta beste bat Zentrokie. Horreik danon errekadista izeten nintzen ni. Mutikue, baiñe kaleko errekadistie. Danai erueten nutsen nik horko razionamentuko gauzie. [...] Ta bueno, holan pasetan juen. Ta ondio be ez da urte asko enterau nintzela. Klaro, nire aitteitte eta amamak be ez aukien diruik, diruik bape ez aukien. Gurien, baserrixen be ez! Danak gengozen diru barik. Ta enterau nintzen, horreik saltzen auen ogixe Barrutianera ta Kafetonera, saltzen auen ogixe. Pentsau.

- [Zeuk erueten zauen] ogixe.

- Pentsau!

- Pentsau! Joe...

- Orduen diru apur bat hartzen auen. Zenbat hartuko auen ba harekin?! E? Danakin be zer hartuko auen ba? Ta ondion ez da denpora asko enterau nitzela, e! Bai. Barrutian batek esan usten, ba "Zuk ekarten zauen ogixe guk jaten gauen!". Hor etxien [jaten] auen eta bueno! Ta, bueno, barreka egon giñan. Nik bai... nik, guk ez gauen jaten nik ekarririko ogixe. Ta, ta holan, ta holaxe ibiltten giñen gazte denporatan, bai.

10.2. Soldaduak taloa jatera etxera

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/006

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra hasiera Santa Marina egunez. Tristura handia sartu zen. Krutzetatik aurrera ezin zen pasatu. Soldaduak Luziaren etxera etortzen ziren taloa jatera.

Transkripzioa

-Akabo! Hasi zan, Santa Maiña egunien, "dieziotxo de julio" hasi zan gerrie, nik hamabi-hamahiru urte eukiko neben. Eta hasi zan gerrie, orduntxe egunien, danak hasi zien mobimentuen... Gu gaztieki giñen, baiñe zeoze pasetan zala igerri guntsen. Eta... Aldabe, entzutie badauketue?, Mak... Kantoikue? Aldabe?

-Ez

-Aldabe eta Pia, Aldabe, zera... Baiñe Aldabe hor behe aldekie zan izeteez, ta hak zeozar baekixen nunbait. Mobimentue hasi zani, batzuk hanka itten... Eta, jo, eske tristura bat sartu zan orduen egunien, tristura bat! Eta, ba, ezebez: gero ezin geinken juen Kurtzeta, Kurtzetatik aurrera ezin geinken juen, Kurtzetatik harutze ezin geinken juen. Eta hor gero, Kurtzetan azpiken holako kanpin moduko bat imiñi auen, txabolatxuek, eta zelan Uribarritik, Aldekotik, Aldekon onduen auen argixen errota bat esaten jakona, argixen zera be hortxe auen, eta handik ipiñi auen istalaziñue hara, txaboleta. Handik etorten zen, etorten zen je... zera, mutillek Axola, ... Beittu: nik honi zenbat talo indde nauen... Zerauzkue, hau, hau da Zerauzkue, orduntxe gerran, anaiek anaiei kontra. Anai bat eukien alde batetik eta berri bestaldetik, zera. Eta etorten zien ta esaten eusten -nik ha hizketie ez neen entenditten sarriten, neskatillie! Hamahiru urtekin!- Eta "erri arte bota, e?, erri arte". Itxurie, gaiñez in arte, erri, gaiñez in arte. Eta barriro joaten zien hara.

10.3. "Trabajadoreak"

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Irasuegi, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-069/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** "Trabajadoreak" zer ziren. Amorebietan lau edo bost fraide hil zituzten. Aita Onaindia asko etortzen zen Aramaiora.

Transkripzioa

- Ta trabajadoriek zertzuk zien?

- E... kastigaute! Kastigaute azenak! Esate bateako, edo kartzelan edo hantxe...

- Lanetan.

- Bidian itten edo sendak itten edo... Hiltteko enterretako itten... Kuestiñue da... kontraixokue.

- Bai.

- Bere aldeakue barik, kontraixokue.
 - Bai.
 - Eta, ba, zertu... etorri haxe etorri zan desperiduten. Gehixau notiziaik bez. Notiziaik bez. Hari jakin barik entierruen einde gaz Arexolan. Peruenien azen fraille batzuk, harek be hantxe Amorebietan egonda, baiñe... Amorebietan hasi zinin frailliok hiltten... Ez dakit e... bastante... lau edo hil bihar izan zittuen! Gurien, profesorie bai behintzet. Aitta Onaindia ezautu dozue?
 - Bai.
 - Onaindia?
 - Bai.
 - Ba, zenbat bider etorten zan hona e... asko etortzen zan. Tarto handixa euken. "Bodas de plata" in gittuenien be berak eman auen mezie Uribarrin, Uribarriko eleixan in gen. Eta berak emon hauen. Ta ondio bialdu eitten ostie zera... Karmengo e... Karmen.
 - Karmel.
 - Karmel edo... bai.
 - Bai.
 - Bialdu eitten dostie.
 - Kaputxinuak edo...

10.4. Instrukzio militarra eskolan

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/002
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
 Politika » Euskara eta politika
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Azkoaga auzoko eskolan gerraostean hasi zen, Valladolideko maisu batekin. Astean birritan, instrukzio-saioak izaten zituzten eskola ordutan. Gau-eskolara ere joan zen auzoko abadea, don Felipe Tolosa, maisu zela.

Transkripzioa

-30ian. Osea zu gerria hasi zanian sei urte.
 -Sei-zazpi bat.
 -Ordurako ya eskolan hasitta edo...?
 -Rojo?
 -Ordurako zu zeu eskolan hasitta edo...
 -Neu, eskolan? Keba! Artien ez!
 -Noiz hasi ziñen eskolan?
 -Bueno, ba ni geruau.
 -Gerria pasauta, edo gerra denporan be bai?
 -Gerra denporan, e, gerraostien juen giñen gu eskolara, ta eskolie...
 -Noiz hasi ziñan?
 -E?
 -Noiz hasi eskolan.
 -Ba nik etsut esateko fijo. Ni mutikue nitzen ni eskolan, joaten gitzen horra,

Azkoagan, Azkuagako eskolara. Ta hara juen, eskolara juen eta maistrue zan Valladolidzko bat, ta eskolie baiño gehixao erakusten oskun zera, instruziñuen ta... han eozen 45 bat mosketoiek, mosketoiek zerekuek, euren zerakin, iguel-iguelak. Ta gerraostien instruziñuen!

-Maixuak?

-Honbre! Instruziñuen ibiltten giñen, eskolara juanda, astien birriten. Instruziñuen, hartu mosketoie ta...

-Ta formauta...

-Bai, bai, formauta ta, gerran letxe, iguel-iguel.

-Eta mosketoiak martxan eozen?

-Bueno, mosketoiek zien zerekuek, baiña iguel-iguelak, zerrajo ta guzti, baiña ez, funtzionauten dauenak ez, e?

-A, gizurretakuak, edo...

-Ez, ez, horreik zien, e, zer batzuk ba... erakusteko.

-A, imitaziñuak?

-Bai, zeari erakusteko, gaztiei, gerria orduan pasauta euen eta gaztiei erakusteko.

-Ta zu orduan gerria pasauta hasi ziñan eskolan?

-Bai, orduentxe, gerraostetxuen, bai.

-Hamar urtekin ya, e?

-Bai, zortzi-beratzi-hamar. Bueno, baiña ni eskolara asko ez nitzan /enitzan/ juan be iñ, e. Gero juaten giñen, abare bat euen Tolosakua hemen, ta hareana juaten gitzen gabeko eskolara. Gabien emuten oskun eskola asko erakusten oskun /erakusteskun/ haretzek, erakutsi eskun.

-Gero gau-eskolak abariakin?

-Bai, don Felipe Tolosa. Harekin ibilli giñen.

-Hori abaria izan zan, herriko abaria?

-Ez.

-Auzokua?

-Bai, auzokue. Auzo danetan eozen abare bakotxa ta. Aurreti ezautu neben beste bat; hil zan.

10.5. Abioi batek metrailatu zuen Patxi

- **Hizlaria(k):** Elejalde Plazaola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-070/013
- **Iraupena:** 00:02:36. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Hainbat egunetan egon zen frontea Aramaion: Elorrio aldera, gudariak; eta, Aretxabaletara aldera, nazionalak. Gatzagara ihes egin zutenerako, ganaduak galduta zituzten. Txerria bakarrik geratu zen etxean, eta bera tiroz hil zuten, txerritegian zegoela. Ahuntzak zaintzen zegoela, abioi batetik metrailatu zuten Patxi, baina ez zuten asmatu jotzerakoan.

Transkripzioa

<p>-Hemen egon zan jentia ba… egunetan. Ni akordatan naz, hemen egozela, hortik Kurtzetako gaiñetik eta hemen. Geuk daukou

hor baso baten, ta han karoixa eukitten geben neuk, karoixa, karie itteko ta. Ta han euen holak esplanada zer bat, handik hona Tellamendi ondoko zerera, zenbat granada jaurti zittuen, bueno! -Baiña hemen nun euzen. Orduen gudarixak nun euzen? Hor… gudarixak nun egozen? -Hemen! -Hor gudarixak, eta Franconak? -Bestalde, Franconak beste aldekuak? Handikaldetik! Handikaldetik. -Hori da, Aretxabaleta aldia? -Ez, hau da Elorriko aldie. -A, Elorriko aldia. -Elorriko aldie, Aretxabaleta hemen dau. -Klaro, baiña han gudarixak, Elorrixon. -Bai, hara jaurtitten zittuen tiruek. -Klaro, gudarixak han. Hortik nazionalak etorten. -Ni akordauten naz… -Esan dozu Gantzagara fan ziñailla ganauakin edo… -Ez, ganauak ezebez, ezebe barik. -Ganauak dana etxien itxitta? -Bai, ganaurik ez euen hemen, ganaurik orduen. Dana kendu iñ oskuen ta. Ta ganau baten bat egongo zan be. Txarrix bai, besterik eztaikit baeuen be. -Eta txarrix balaz jo? -Baliaz, hortxe. Etorri giñanien handik 15 bat egunera, hor bagentzen hortik, Aramaixoko zeretik gora, eta ondiok da! Ta ixilik, e? Da! da! Kale aldera tiroka. Handik. Orduentxe laster martxau ebien. -Eta abioiak eta ibiltten zien? -Abionetie? Akordauten naiz behin, hortxe, ba hementxe parien, hortxe kamiño kontran ahuntzek, ba libre ebalten gittuan, ta zainketan nabillen ahuntzek. Ta han dau ondion artie, arte haundi bat, ta azpizen euen holako aterpe moduko bat eukan. Hantxe nenguen, hantxe zertu euen bai? Eta abioneta bat goittik behera, hortik goiko […] sartu da goitti behera eta ta-ta-ta, buelta iñ eta atzera, libre itxi nisten, enindun jo. -Baiña ikusi bai? Zu ikusi, uste dozu ikusi in zinddueilla? -Nik eztaikit ikusi instielako edo zeatik jaurti zittuein. Nik dakidana neure inguruan jaurti zittuala. -Ahuntzak garbiketan ez zan ba ibilliko? -Eztaki ahuntzak garbiketan ibilli bazan be. Hor? Bueno!</p>

10.6. Gariaren erdia inori eman behar

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-072/005
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:09:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Azkoaga auzoko abadeei garia eman behar izaten zitzaien abuztuan, eta jaietan oilasko eta arrautza batzuk. Udaletxean ere gerraosteko gari-kupoa eman eta etxerako gutxi geratzen zen.

Transkripzioa

-Orduen garixa etxerako, norberentzako, eta zahixa... zahixakin konpuesto antzerako zer bait...

-Bai, eta zer, garixa erdixa, eztaikit zenbat entregau bihar izaten zutsen abariari; gero aiuntamentura be han be zeozer pagau in bihar izaten zan, garixa be zenbat geraketan jakun ba?

-Zuek hamarrena pagaitten zeuein elizan?

-E?

-Hamarrena izango zan hori, ezta?

-Bai, bai.

-Eta zenbat, hori ze..? Garixa bakarrik emuten zan, edo ze emuten zan?
 -Bai. Garixa, artua be ereitten zan.
 -Baiña honeiri...
 -Abariei ta? Garixa.
 -Garixa bakarrik.
 -Garixa, agustuen garixa, eta gero jaixetan orduen izaten zien oillaskuok eta... dozena bat arrautza eta oillasko pare bat eta.
 -Etxe danetatik.
 -Bai, bai.
 -Eta ze itten euein hainbeste arrautzak?
 -Ba hori eurei pregunteu biher, ze itten euen. Nik hori eztakit. Igual saldu! Garixe, garixe badakitzu etxe bakotzetik zenbat entregetan zan? Lehenauko batzuk anega bi, bestiek hiru, bestiek lau. Eta horreik garixok danok be, abariek saldu itten zittuen. Ta guk falta!
 -Baiña hori da hamarrena esaten otsaiña?
 -Abarrena ze esan gura dozu?
 -Hamarrena. Hamarrena edo holako... beuken izenik horrek, inpuesto edo?
 -Ba nik sekula eztot esan, ba hamarrena edo zeozer izango zan hori. Eurek ipiñiko lege bat.
 -Zeuek zenbat anega entregaitten zittuein?
 -Ni akordetan naz entregaten gittuala, zenbat hartu be guk? Asko, gehixen hartute be, ba bi abariendako eukitten gittuen.
 -Bi abade horreik zer zien, auzoko elizakuak edo herrikuak?
 -Auzokuek. Bai, bai, guk abariei entregetan gutsien eta eurak ba euren usuan.
 -Anega bi gari eta gero...
 - Gero zera, hemengo fiestak San Juanak izaten zien, ta die, San Juanetan oillasko pare bat ta dozena bi arrautza.
 -Baiña hori hemen Azkuagan edo?
 -Azkuagan, Azkuagan. A, kalien? Aramaixon bertan ez hori. Oillaskuak eta ez, baiña aiuntamientuen garixa entregetan zan, e?
 -Baiña entregaitten zan aiuntamientuan gerraostien, ezta?
 -Bai, gerraostien.
 -Hori baserritar danak, kupua edo zela zan?
 -Bai, hori zan zeozer.

10.7. Zubipean gordeta egun osoz

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-072/011
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:24:57. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Arriola auzoan, senide baten etxean egon ziren, euren ganaduak auzoko hainbat baserritan banatu eta gero. Ganadu guztiekin itzuli ziren etxera, baina aitari ardi batzuk lapurtu zizkieten Tellamendiko gurutze inguruan. Herriko kuartelean zeuden gudariak egunero etortzen ziren etxera esne bila. Frontea herrira ailegatu zen egunean, etxeko andre eta umeak kaleko zubi baten azpian babestuta egon ziren egun osoz.

Transkripzioa

-Eta zenbat... esan dozu Arrixolara fan ziñaila ganaduakin, ezta?

-Bai.

-Eta han ze egon ziñain, beste baserriren baten?

-Nire osaba, aitten arreba bat bizi zan han. Eta haren etxien...

-Orduen bi famelixa eta bi famelixen ganauak eta danak?

-Bueno, auzuen partiu gittuen ganauak, e? Auzuen bertan hartu oskun batek etxe bat batek eta bat, eta bestiek beste bat eta ba holan hartu uskuen.

-Eta gero etxera, zeuenera bueltau ziñaiñien, danakin etorri ziñain?

-Bai.

-Zeatik hor bidian jente askok galdu in zittuen ganauak, e?

-Bai, baiña, ez, ez, guk, gure aittek bai galdu zittuen ardi batzuk hor goixen, hor zerien, zela esango dot, Teillamonte? Badakitzu, Tellamonte edo hori. Kurtzie hor badau ba?

-Zela esan dozu, Tella...?

-Tellamonte esaten utsie /esatetsie/.

-Tellamonte kurtzia da?

-Bai.

-Ta hor eukitten zittun ardi batzuk, eta hor bai maneja... kendu utsien / kendutsien/ ardixek, e? Horkuek kendutsien gero...

-Baiña asko ez?

-Ez, ba lehenao egoten zien ba erneixek, billotsa itteko dazenak alda batetik eta billotsak itteko dazenak beste aldetik. Hor gauken billotsak in bakuak; ez eukienak.

-Antzuak.

-Antzuak. Eta horreik, harei bai, kendutsien. Bestela ez, guk bestela ez keben euki... suertia euki geben, e? Egixe da. Ni akordetan naz horregaz.

-Eta hamen frentia orduen ze egon zan, herrixen bertan? Tiruak eta bonbazuak eta?

-Bai. Hemen kuartela egon zan. Hor esan dutsutena, guk egunero-egunero horko kuartelien egozen gizonak, soldauek, etxera etorten jakun goizien esnetara, ta akordetan naz lelengoko gerriek urten auenien, soldaue azkenengue, [...] egoten zien, pillia egoten zan atetan. Eta hartu gindduen batek [...] ba ekixen /bakixen/ zeozer, hartu gindduen eta sartu gindduen, erreka baten zubixa eguen, zerien...

-Tunela?

-Bai, tunela. Atorren ure, eta haraxe tunelpera sartu gindduen esaten, esan uskun: "geuk esan arte". Ama eta anai-arrebak, ba eztakit orduen zenbat izango gitzen, hiru-lau? Han sartu ginddun tunelien. [...] "geu etorri arte hemetik ez urten".

-Zenbat denporan egon bihar izan ziñein?

-Ba egundakak.

-Jatekorik eta bazeukatsuein?

-Keba! Ez urteteko aginddu oskun ta.

-Hantxe bilddurrez, ezta?

-Ba billurra, horixe!

-Zaratarik eta tirorik eta entzuten zan?

-Tiruak eta bai.

-A, bai, e?.

-Klaro entzuten ziela.

10.8. Dukeena baserria erre zenean

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrate, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-072/018
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:45:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Rufina gaztea zenean, Dukeena baserria erre egin zen. Itxura denez, etxeko nagusia abertzalea zen, eta auzoko karlista batzuk sua eman zioten etxeari. Bi behi galdu zituzten sutean.

Transkripzioa

-Norbaittek esan dost hau etxe hau erre in zala edo.

-Bai.

-Ze pasau zan ba hor, jakin baleke?

-Ba hemen ba aazen alde bixetakuek, ta nere aittegiñarreba zan nazionalistie. Eta hemen auzuen aazen karlistak.

-Karlistak?

-Bai. Eta ba, klaro, zerien, hau, ba, danau barri indda dau, lehen geuken hortik holako ate txikitxo bat, bedarrak-eta kamarara sartzeko. Hor kamarie daukou eta kamarara sartzeko. Ta hemen, hor auzuen bertan, eta betek hemen egoten zan, egixa da, solterue zan, mutilzaharra zan, eta betek etxien, hemetik urten be ez eben itten, hementxe egoten zan. Ta beste bat, ha zertxuaue zan, hortxe bertakue ha be, ta hor Zabolau euen horreik, eukein horrek mutilzaharrok hor [...] zerien, gure etxe onduen, honen baserrixorren zerien, dako holako aparkamentu txikitxo bat dau aparte, baiñe ya horrek hartute dauko beorrendako. Ta hor euen tabernie lehen. Ta hor itxurie bete-bete ein zien, ta karlistak, ba zelan aitte nazionalistie zan, ba aittei kamarara bota utsien zera, sue.

-Sua?

-Bai.

-Bedar kamarara?

-Bedar kamarara. Bai. Ta nik ondion ez neuen ezauketan ez nere gizona eta ez iñobez, e? Ez neuen ezauketan hemen. Itxurie horreik mutilzaharrok bete-bete in zienien, ba horreik emun utsien sue.

-Orduen, hori gerra aurretiko kontua da? Edo gerraostekua?

-Ba gerraostekua. Bai, bai, gerraostekua zan hori.

-Zu ondiok ezkondu barik.

-Bai, bai, ni ez nitzen orduen hemen. Ta gero ba erre in jatien, bastante, gaiñera. Ta euen itxurie neskazahartxon bat solterie, baiñe ba izin zan buruz be holan apur bat zera, baiñe bihergiñe, e? Nik entzunda eurei, oso bihergiñe. Eta ba esaten ei euen: "useiña, useiña, useiña", ta, klaro, gasoliñiaz zela emun utsien /emuntsien/ sue, gasoliñie zeratik sartute, "useiña" eta "useiña" neskiorek esaten. Ta fijau zielako... Etxien behixek be bi-edo erre in jatien. Nire aitte zana...

-Kamaria ze eguen, ittuiazen gaiñien?

-Bai, eztakit zera, behixek azpizen ta... Nire aitte zanak, akordaten naz hori, aitte zana etorri zan hona, sue ikusi euenien, ba, lagunketan, itxungitten. Guk ez geuken orduen amistadeik, baiñe sue egoten zan leku batera, ba, jentie pillatu itten da. Eta aitte etorri zan. Eta zelan -hari entzunda dauket nik- zelan hemen atara tarrasien, behi itzela ei zan, narrue kendu utsiela kanpuen, hortxe, bai. Hau birriten be bai, baste behin

be zelan zan hau [...] ? birriten dau hau suak hartute hau, etxe hau. Ta horri mutilzahar horri, gero hona etorri nitzanien, nire gizonak-eta sarri esaten utsien: "Bai, zueik guri sue emun oskuezuenien be..." ta "ee.. ni ez nitzuan izen, ni ez nitzuan izen" ta "zu be sozio izengo zintzen", ta esaten utsien eta betik, eta bera ez, ta bera ez, ta... Ta ha zan gixajo bat emuten auen, baiñe ba... ardauek eitten dittuen gauzak, edo nik ez dakit ba zer izengo zan.

-Bai, baiña puñetia zelako zera, ezta?

-Ba honbre! Behixek bi edo hiru erre jatien.

-Bai. Baiña pertsonak erre ezkio?

-Ba justo-justuen salbau zien eurak, e? Nik aittegiñarribai eta gizonai berai be entzunde dauket hori.

10.9. Aramaio bi fronteren artean

- **Hizlaria(k):** Ugarte Urrutia, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-078/005
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Aramaio goiko haitzean borroka gogorak egon ziren. Haitz hori hartu eta Anbotoraino jarraitu zuten nazionalak. Hiru hilabeteen egon ziren bertan. Beste aldean, Tellamendin, gorriak zeuden. Aramaio erdian zegoen, eta herritarrak egunez ez ziren kalera irteten ausartzen. Ganaduak erreka-eta, gauez ateratzen zituzten. Ganaduentzako jatekoa ere ilunetan ekartzen zuten. Hiru astez egon ziren egoera horretan. Gorriek ganaduak ostu egiten zituzten jateko.

Transkripzioa

-Don Ramon horrekin zenbat urtekin hasiko ziñan zu?

-E?

-Zenbat urtekin hasi Don Ramon horrekin?

-Ba, zazpi bat urteaz edo. Eta zortzi urte arte.

-Bueno, bueno. Eta, klaro, eskolok akabau ta gero... Hamen bape rekuerdoik badaukotzu hamen abantzie etorri zanien eta ze...

-Bai, bai.

-Militarrak pasau zien hemendik?

-E?

-Militarrak hemendik pasau zien?

-Bai, hau, hor goiko hatxien e, hori bonbardiau auen domeka baten. Eta hor goiko hatxien egon zan e, gorriek esaten jakon, gorriek eta nazionalak. Eta hor domeka atsalde baten in auen abanzie. Hemengo abioie eta kaiñonazue! Danok bilddurrez! Eta hori hartu auen, hori hatxoi, eta hori hatxoi hartu auenien, Anbotoraiño segiru auen. Eta gero Anbotora ailelgau zienien, hemen hiru astien egon gitzen, hemen Anbototik hemen hatx gaiñien, zera, militarrek edo...

-Gorriek.

-Ez, nazionalak, ya Anbotoraiño hartu auen. Eta hemen bestaldien, Tellamendi-edo esaten jakona, hor gorriek. Eta hor egon zien hiru astien edo. Hiru astien ez auen abanzaik ein. Eta gu hemen azpixin bilddurrez.

Kanpora be ezin urten!

-Baiña hemen tiroteoik-edo egon zan?

-E?

-Tiroik-eta hemen etxe inguruen egon zan?

-Ez! Baiñe ba... esan [dot ez], baiñe egunez urten ezkerro, hor hatx gaiñetik tirue botaten auen. Eta orduen ganauek be ure edaten errekarra ataaten zien, eta gabien illundu ta gero ataa biher izeten gittuen. Eta ganau-jatekuek be illunien ekarri biher! Eta hementxe hiru astien. Eta gurien aittek konfiantza puxka bat hartu eta juen zan illundu baiño lehenau ba arbixe ataaten zerea. Eta arbixe ataaten badabil eta hemendik horra baiño lehenau zera, arbitarie jo ta apurtu utsen tiruaz.

-[Ixil-ixilka fan biher]. Orduen egon ziñien hiru aste horreittan etxetik urten be in barik egunez.

-Bai. Eta gero, handik, Tellamontetik, gorrixok ba, gosie edo ez dakit zer...

10.10. Arrasaterako errepidea moztuta

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Urrutia, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-078/009
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:21:32. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Nazionalak Arrasaterako errepidea moztu zuten, eta gorriek Otxandiotik berria egin zuten. Basiliok ez zuen seniderik galdu gerran. Etxean ere ez zuten kalterik izan. Gorriek ganaduren bat eramán zieten, baina ordaindu eta gero.

Transkripzioa

- ... falta itten auen dirue eta. Gero orduen denporan ardaurik be ez auen. Billerle hartu auen zerak, nazionalak, eta Mondraue be bai, eta ezin salidaik... Gero Mondrauetik honutze etorri ez daixen, Aramaixo baiño beheratxuau zubixe apurtu auen. Eta kamiño barik, karretera barik geratu zan zera, Aramaixo. Eta lehelengo egunetan idixekin ekarten auen Arrazolatik konboie, zera, herrireko jana. Eta gero, hortik, Otxandixotik hona, Albiñaa, iñ auen kamiñue segittuen, eta hortik gero automobilaz. Eta hemen Rioja aldioi eta ardau lekuoi bestiokin auen eta hemen, Bizkai aldien, ardaurik ez eta ardau barik hemen!

-Osea ke, gorrixe orduen, gerran?

-Horixe!

-Zuk zeuk galdu zebe senideik gerran?

-E?

-Gerran seniderik galdu zebe?

-Ez dot uste. Ez, senideik ez.

-Zeueik, ganadurik edo ezer kendu otsuein edo etxiak igual jarraitu eben?

-Ez, hona ez zien ailegau, ez. Aurretik, hemen gorrixe eozela, ba, Bizkaixen okelie eta zera biher, eta etorri eta, behixek, ganauek ataa eta eurak hartzen auen, "hau behixau hara eruen biher" esaten auen, "eta bestioi be bai". Eta gurien auen behi bat edarra auen eta auenik onena apartau uskuen erueteko. Eta kobrau uste dot iñ auela. Hemendik Elorrixoa eruen, eta Elorrixon hill eta, ba, Bizkeiko jentiendako edo... enfin.

-Bai, klaro, Elorrixon kuartel haundixe auen.
 -Bai.
 -Eta baiña pagau itten auen...
 -Bai! Gorrixen diruekin, baiñe pagau, bai.

10.11. Gorpuzki eta hezurak nonahi

- **Hizlaria(k):** Etxebarria Elorza, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-082/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:08:31. **Bukatu:** 01:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gorputz asko erdi lurperatuta geratu ziren. Azpeitiar batek prestatutako segada azaltzen du. Kurtzetako karobi handi bat hildakoen gorputzez bete omen zuten. Urteetan ikusi izan ziren garezurak mendietan.

Transkripzioa

-Hilddeko soldauok bertan ustelduko zien? -Usteldu edo gero enterrau, bai. Batzuk bai, e? Beste batzuk, beste batzuk “Arriba España” itten eskue bistan eta, besoraiño bestela tapaute eta eskue… Eta beste bat hankie bistan be bai. Eta harek, hankie bistan auenak, kriston derrotxie iñ auen. Hor, Azpeitti-Azkoittiko jentie, konpaiñia gehixena berak bakarrik manejaue auen. Metraillietie ifinitte auken, eta bera, bestiok aurea juenda, baiñe bera atzea geratute. Hak jugadie! Eta harri zer baten, han harrixek daz han, eta han ostien gordeta. Behetik gora bestiok, ezer ez dauelakotan, abanzioi aurea juenda auen-eta. Eta harrapau zittuen tamaiñu batera eta jo-ta ebai in zittuen, gizon mordue. Ni neu ez naz akordetan, baiñe tio hemen kanpuen eta gizonak jausten… -Ikusi? -Bai, eta hor, zer baten, hor Kurtzetan karobi haundi bat auen, eta ha dana bete-bete in auien. -Karobixa? -Karobixe. Eta oin kurtze bat dau ipinitte han. -Kurtze bat? -Bai. Kurtze bat ifiñi auien hor Azpeitti-Azkoitti horko jentiek. Baiñe mutil gaztie, hamazortzi-hogei urteko mutillek, kriston mutikotiek, esaten auien. Eta ha enterrau auien hankie bistan dala. -Bada gero gerrie! -Gerrie, gerrie serixue da, serixue da. Eta gero hor, gu ira ebaitten-ta juen ta… bai, kanpuen enterrau barik be ustelduko zien, ze buruek eta topetan zien-eta, buru-hazurrek eta. -Osea ke hor gorputz asko geratu zien abandonauta. -Bai.

10.12. Abertzalea izateagatik arazoak

- **Hizlaria(k):** Elexpuru Altube, Domeke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-083/010
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:22:56. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Domeke fitxatuta zegoen udaletxean, abertzaleen propaganda banatzeagatik, eta kartzela-mehatxua jaso zuen “Orden Público”tik.

Transkripzioa

- Eta, esan dozu, gero Frantziara edo, zer iñ zebe, alde? iges?
- Ba, beira: nik ez dauket lotsarik esateko. Izen naz betik, gazte-gaztetatik, aitte izen da nazionalistie, eta ni ere bai. Eta gaztetatik dantzarixe izen naz, eta, ez dakitt, oneako edo txarreko, izen naz beti nazionalistie. Eta horregaittik aiuntamentuen nauken nik fitxie, ba, nozbaitt, botaziñon baten propagandie zabaltzen edo errepartiruten edo ibilitte.
- PNV edo ANV edo zer zan orduen?
- PNV. Eta nauken, ba, fitxa hori oso baltza. Kartzelaa eroan biher nindduela-eta, ez nindduen eraman, koñauri neuken... -esango ete dot-Orden Publikuen. Zelan daneakuek egon zien, Orden Publikuen auen lehengusue edo, baiñe oso alrebesekue, sozialistie edo komunistie edo...
- Zeure lehengusu bat?
- Bai.
- Eta ha auen zerien?
- Orden Publikuen. Eta harek pistolie ifini holaxen, eta esan eusten: "Bueno, ez zaittut eruten kartzelaa, dauketzun... neure izeba zainketan dozuleko". Beren izeba zan neukena nik zainketan, aman...
- Zure amandria?
- Amandrie. "Bestelan kartzelara eruengo zindduket". "Zergaittik ba?" ta "Ba, dauketzun fitxiaaittik aiuntamentuen". "Bueno, ba, gurozune ein" esan nutsen.
- Pistoliakin apuntauta?
- Bai.

10.13. Atzeguardia etxean bertan

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:12:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Atzeguardiako soldaduak etxean eduki zituzten. Bilbotik etorri ziren gorriok, asturiarrak tartean. San Andres gauetik apirilaren 3ra arte egon ziren Untzilla eta Suña inguruetan. Metrailadore eta banderak auzoan, eta inguruak lubakiz josita utzi zituzten. Etxean artatu zuten Belategi mendira zihoan soldadu bat. Hantxe hil zuten soldadu hori.

Transkripzioa

- Hamar edo hamaike, hola izeten zien. Ta gurera eta goiko etxera “Retaguardias”. Kanbixuek itteko, kanbixuek itten zittuen. Mundragotarrak asko. Euskeldunek be bai, mundragotarrak asko, “retaguardias”.
- Baiña horreik zer zien, gudarixak edo bestiak?

-Horreik zien, horreik zien...

-Franconak edo bestiak?

-Ez! Horreik zien bestiek. Franconak eruen zittuen ba gero aurrien! Horreik zien Bilbotik etorri zienak, gorrixek. Horreik zien gorrixek, asturianuek eta danak, zien. Eta gero haik hemen egon zien, oin esaten dutsut, San Andres gabien; “uno, dos y tres de abril” juen zien. Arteraiño danak hementxe egon zien. Ia danak etxeko; etorten zien, morokille jaten auien...

- Zemendittik apirilera arte hemen egon zien?

- Bai!

- Eta haik gobernau in biher?

- Ez, haik eurak jaten auen eta Murugainen hori itten, ba, zapadoriek itten zittuen trintxerak Murugaiñen be buelta danien in zien, han egoten zien Atxabalta begire. Eta Untzillen be atzekaldetik egoten zien, fan eta gero Untzillen ifini auien amatralladorie. [Eta behingorik eta] ta-ta-ta-ta-ta. Han ozela eta banderie ifiñi auen. [Ez dakit] ze kolorekue zan be, gorrixen banderioi. Ez dakit banderie edo zer izengo zan be! Untzillen harutzatxuauko, han zera... esaten dutsen lekuen beste menditxo bat dau [landutxeixuaz dauena], bueno, han, han ekin utsien atzekalde dana trintxerak, eta trintxerak eta trintxerak itten , ha zan, ze jente ezkutau zan, eta Murugaiñen. Eta hangotxe mutil bati pasau jakon handik egun bat edo bire: hemenditxik gora etozen hiru-lau mutil, milizianuek, etozen, eta bat kojo. Eta hor handikaldien daukagu guk albergie, eta aizta nausixe hemen auen, eta albergan ure eraten eta ekin zien. “¡Ay, me duele el zapato, me duele el zapato!”. “Pues, ¿qué tienes?” eta atzekalde dana apurtute euken, zera [urreldorpue], ezta? Eta nire aiztie emun utsen zapatillak. “Sí, sí, estos llevaré”. Eta bota zittuen botok. “Luego pondré... después”. Eta kurau utsen, orduen tiratisik eta ez auen, arropa bat, tela bat edo, zurixe, kurau-eta in utsen ha, eta gero mosue garbittu auen. Eta emun utsen toalla bat be, eta ha toallie hartu auen. “Esto dame pa ti”. Toallie hartute hantxe barriketan egon zien. “Vamos a Belategi”, ezta? Untzillatik gaintxuen dauen, Zabola parien dauen menditxue, “Vamos a Belategi”. Eta juen zien Belategire, osteko trintxeretatik. Eta berehalaxe izen zan egundoko tiroteue izen zan. Eta geuk “Ene, han, hori da tiroteue!” Badakizu zer? Segittuen hil auen bera. Hil, bai. Handik gero etorri zien beste batzuk asto atzien.

- Toalla ta guzti?

- Bai, bai. Botak be ez dakit jantzitze eukiko zittuen! Ikusi zittuenien bultuok, bultue ikusi auenien bestaldetik, Apotzatik eta, gero bestiek etorri zien erdi herirute eta, astue biher auela eta astue eruen uskuen, astue biher auela-eta, eruen uskuen, eta “Oye, el del toalla blanca se ha muerto”. Ha hor egongo da enterraute. Toalla hori “ya le han matau, el Rubio”. Rubixo gazte-gaztie, guapue zan! “Ya le han matau”. Ha ikusi auen, beste batzuk heriru, baiñe ha hil. Eta pentsaizu: toallie eta abarketok, eta ordu erdi baiño lehenau hil bera. Ha gixajue noa juen zan hiltten!

- San Andres egunien hori danoi?

-San Andres egunien etorri in zien. Hori zan hurrengo egun baten, hurrengo egun baten, hurrengoko baten zien. San Andres egunien... horreik hemen etxeko ibili zien baiñe! Danak ezauketan gittuen.

10.14. Untzillako dorrean metrailadorea

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-084/007

- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:16:01. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Nazionalen "Avance" ari Untzillako elizako dorreko metrailadorearekin eutsi zioten aldi batean, soldadu asko hil edo zaurituaz. Aurretik prestatu zuten zulo batean egon ziren gordeta Garaikoetxea eta Palazio baserrietako bizilagunak, "Avance" a etorri zenean. Zulotik ikusi ahal izan zituzten kanoikadek egin zituzten txikizioak.

Transkripzioa

- Hak kanpantorreko torrien badakitzu zer ein auen? Gero Abanzie... bueno, danak esango dittugu. Abanzie Atxabaltatik mobidu zan eta, piñuik eta ez auen orduen ezebe-ezebe, eta han Egillor esaten dutsaun etxetik gora, eta oin hor San Antonio, beste ermitatxo bat da, Atxabalta bidien goittik behera, ezta? Ha dana zelai, haik dana zelai, eta ba soldauok ekin zien ba abanzie, Untzilla etorri zien, eta torretik, esaten auen, ta-rra-ta-ta-ta-ta, dana, bli-bla, bli-bla, lurrea. Danak ez zien hilgo, baiñe gehixenak hildde bota, eta heriru, hortxe zelaixen, Untzillako torretik. Baiñe haik aurea, haik aurea.

- Haik asko!

- Haik asko, haik aurre etorri!

- Senarra: 800 hildako izen zien hor.

- Bueno, hillek ez zien izengo, heriruek edo. Dan-danak be ez zittuen hilgo, gizona! Danak ez zittuen hilgo! Herirute geratuko zien. Lehelengo tiruaz hilgo zien, ba, danak? Bota bai, rurururu... Esaten auen ba, ezta?, ametralladoriaz, torretik, torretik, eta...

- Kanpaia gure auien kentzia ametralladoria [jartzeko].

- Ba, nik ez dakit zetako, baiñe ametralladorie han eukien. Ta nik ez dakit ba zetako zan bota biher auenoi. Kanpai bat edo hotsa, ze hotsa! Kanpai bat bota biher eta ze hotsa! Eta gero, bueno, nundik ekingo jutsat hurrengo, ba, danok horreik illerakuek die! Gero...

- Gero etorri zien, abanzien etorri zien.

- Bai, etorri zien eta gu eta horreik, goiko etxekuek, hor gure etxe-arruen auen bidie, ezta?, Murugaiñera juen, ta, bidie, oin be bidie da ta orduen be "carretera", baserrikue, ezta?, bidie, ortu goixenien. Eta han bidien auen haretx haundi bat; haretxek euken dana susterra eta bidie eta dana, holatxen, eta ba nozbaitten, klaro, hainbeste denboran egozen hemen, nozbaitten baekixen gerrie etorri biher zana, Goikoetxekuek eta guk, guriek, in auen zulue, ez dakitzu?, han bidepeien in auen zulue. Inor ez zan enteretan, hor ez zan inor be enteretan, baiñe beti han, palakin atara eta egundoko zulue in auen. Eta "nozbaitten etorri biherko jok, ba, eta hantxe sartuko gaittuk, eta nozbaitten etorri biher jok". Eta halako baten, zelan zan lehelengo, ekin utsen, a, gero "abuelo". Milizianuek eukien, soldauek, reketiok, ez dakit, "requetes" edo, "requetés" deiketan eutsien haik. Haik euken abioi zahar haundi bat, "abuelo" esaten utsien. [Bizkeikuek] bapez, [Bizkeikuek] iñobez, ez eukien ezebe. Eta "abuelo" hementxe buelta eta buelta eta buelta ibiltten zan. Eta gero abanzie, horko tiroteue! Ekin zan abanzioi, eta gero, sartu gintzen danok zuluen. Sartu gintzen zuluen... ointxe ikustie... horko aiñeketie, horko, horko [deseso]. Hemengo kamillerue, hemendik gora danak, heriruek ekarten hemen, eta gu zuluen sartute, ezta? Kabiru gitzen, ba, gitzen aitte eta ama eta neu eta aitzie, gu lau; eta horreik beste lau edo zien. Baiñe zuluen, bultzetu eta han guk ikusten [gittuen].

10.15. Milizianoak inguruetan lurperatuta

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/009
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Gauean gordelekutik irten, eurek zerbait jan, eta ganaduak gobernatu zituzten. Hurrengo egunean, ondoko arku biko etxean babestuta zeudela, milizianoek atzera egin zuten. Asturiarrak ikusi zituzten soroan behera odolduta ihesi, birao batean. Etxe inguruan hil eta lurperatu zituzten miliziano batzuk. Bertan jarraitzen omen dute lurperatuta. Eustakik ez daki hildakook ezagunak izango ziren edo ez.

Transkripzioa

-Bueno. Gaboi. Erretirau gitzen. Ganaui, jaten be emun gutsen, ganauei jaten. Ganaue kortan jaten, geuk zeozer jan gen eta hurrengoko egunien itxoiten zer izen biher ete zan, ba! Eta hurrengoko egunien nora juengo gara? Hor, arku biko etxiek euen erdixen karrera handixe, ezta? Karrerie, sendo-sendo-sendue! Ba, ahal zien danok, han karreran hola jarri, karrerie joten baauen be, ez auela apurtuko, illeran jarri, eta orduntxe igo auen, orduntxe abandonau auen zeorrek, milizianuek. Eta han karrera parien. Eta, baiñe jausten zien, eulixe letxe jausten zan baiñe kaiñonazue! Bonbaik ez auen botaten, kaiñonazue jaurti eta...

-Eta hori, karrerie euen etxe hori, beste etxe bat, behearau?

-Ba, hortxe, hortxe beheko arku biko etxe hortxe, beheien. Eta gu bilddurtu gitzen hainbesteraño! Jausten zien, han etxera jarri gitzen eta, han karrera azpixon, karrera sendue zan eta, danak haren parien, haren parien, eta, karrerie hemen, ezta?, honetaa, eta...

-Teillatue jausi bazan, eutsiko otsan hareik karreriak?

-Hor euen ate zahar haundi bat, ate baltza esaten utsena, eta hak atiek euen apurtunak, holaxe, zezpalunak, hutsunak, eta handik atzetik pasetan zien, eskuetatik ebatu eta tarras, odola daixola. Han [sartzetik] garixe edo auen; sartu soluen eta soluetatik behera... asturianu... zera, "hoz y martillo" ebixen haik paparrien. Asturianuek, buzo azule, "hoz y martillo". Gorrixek. Bai. Haik jurementu baten! Ene, haik botaten euen jurementuek! "¡Nos han engañau, cabrones, nos han engañau, no tenemos, nosotros, no tenemos nada!" Ba, klaro, ezebe-ezebe ez utsen... abioirik be ez jakuen etorri ta. [Haik egunen lengua] handik behera. Ene, eta egon ondion, egon puska baten, egon, eta kaiñonazuek, tiruek, buenooo! Hor, eta pep-kun, tiruori izeten zan, ez zan entzuten, pep-kun, pep-kun, tiruori entzuten zan. Hemen Etxabeko gure bidetik gora be, horma zahar bat, etxeko horma zaharra, ondion milizianuok azkenengo ostikarak emun artien hantxe, pep-kun, eta bestiok hemen, bestaldien, pa-pa-pa, bestiok bestaldetik. Baiñe hareik hona aurreratu zien, Franconok, eta bestiok hortik behera izkutaу zien beheko arruetara, gero Aramaixoa eta Bizkeire, danak ezkutaу zien. Eta danok fuen zien...

-Horreik hortik ya Bilbo aldea fan zien?

-Ba, apurke-apurke, ba, gero hartu...

-Otxandixon izugarrixen izen...

-Otxandixo aurretik indde auen! Aurretik indde auen Otxandixo.

-A, aurretik indde auen?

-Bai, bai, bai. Zu: Eta hor tiroteuen, hor gure etxe ostien, etxie euken, hor, txabolatxo bat auen, txabolatxue baiño harutzatxuau bat hil iñ auen, ezta? Franconok, ihesi joiena hill auen eta han eurak enterrau auen. Eta harutzatxuau, ba, begira, berrehuen metro edo hirurehuen metro edo, handikalien, muna zahar baten onduan, beste bat hill auen. Eta ha bizirik hill auen, eta jefie, ez dakit ba nor zan, esan eutsela “dale otro tiro de gracia, dale otro tiro, que está vivo todavía”. Eta pu!, tirue emun eta ha muna zahar pera bota, lur bigun-bigune auen, han, muna haundi bat, bota eutsen munie gaiña eta han enterrau auen. Eta hemetikuoi zapatak bistan, holaxe, egon zan, botak bistan, bota baltzak bistan. Eta gero hemengo jentiek bota auen lurre. Eta hortxe da, hortxe da, bota auen lurre eta tapau auen.

-Eta ondio hor dau hori?

-Bai, bai, ez dau inork garbittu, hortxe hundiru zan, eta oin gero piñuek be sartute daz, handik asko piñuek sartu, eta bota, eta barriro sartu eta danak indde daz, Eta handik... zera, mutillok eta esan “ha non da?” Hola juen eta “non?” Ba, dana bertantxe da, baiña “ama!” Hementxe be ezin esan baiña, haik [loi-loi], piñuek eta, zulotute eta... Pistaik bada, baiña pistie hortik ez, gorautik... . Baiña hotxe enterrau, zulue hortxe in auen, eurak enterrau auen, zerok, soldauok edo, Francon aldeekuek. Enterrau auen eta, zapata baltzak holaxe bistan, lurre zapaldu eta zapata baltzak holaxen, bistan. Ene, zapata bistan! Eta gu, gaztetxuek, eta jueteko bilddurre emuten euskun eta hemengo, guriek eta izengo zien, hemengo gizonak bota eutsen lur pilo bat eta tapau zan eta hor da. Eta hadikeldekue be bai, handikeldekue lurre euken muna haundixe, ha lur dana bota eutsen gaiña, eta hantxe, hazurrek hor egongo die, munapeien. Eta gero, niri horko beheekuek esan usten harutze beste bat zulue tapaute auela. Eta besteik gu ez gauen ikusi, baiña hango beheekuek, gizonak esaten auen, beheko arku biko gizonak: “Bai, han handikaldien be bajauenan markie, han be tapaute egongo jan barruen. Baiña honeik bixok, honeik [horreikuek]. Eta...

-Horreik ezagunak zien?

-Ez, ez, ez! Ez dakigu, biherbada, ezaunek izengo zien iguel, baiña ez dakit nik. Ikusi ez gittuen in eta, ez dakit ezaunek izengo zien. Murugaindik behera bajau zienak izengo zien, Murugaindik atozenak.

10.16. Martin anaiaren larritasunak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/012
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:35:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gorriek bigantxa bat kendu eta Elorriora eraman zuten, hil eta jateko. Eustakiren anaia Martin gorrien gidari ibili zen Murumendin. Ia gorriek eurek hil zuten. Aretxabaletara lehenengo, eta Gasteizera gero, ihes egin zuen Martinek.

Transkripzioa

-Bueno, baiñe bai, orduen hareik gauze haundixek zien, e. Nere aitte Murugaiñen...

-Eta zuei ganaurik-eta ez otsuein kendu?

-Bai, bai! Biga bat-edo kendu uskuen, bai! Kendu uskuen ta...

-Hori, gorrixek?

-Bai. Gorrixek. Elorrixora eruen eta Elorrixon hildde. Kendu ta Elorrixon hiltten auen, ta jan. Bai, kendu, kendu eitten euen.

-Zuek orduan ardirik bazeukotzuein?

-Ez, orduen ni txikitxue nintzela kendu gittuen ardixek. Eta gure zera be, gure semie, nire anaie be larrei [jiraute] euen. Horreik milizianuek, sartu zien milizianuok, ezta? Hemenguek, gorrixok. Jente guztie batu eitten euen. Holaxe [...] baiñe, jente gazte-gaztetxue hartu eta derrigor hala, hartute, ta nire anaie be zahartxue, ba nire anaie be, ,zahartxuaue, bueno, bai, bai. Nire aurrekuen aurrekuen aurrekue edo holaxen. Ta ha be eruen in auen, Martin. Ha be eruen in auen. Ta hala! Ha be fuen zan Aramaixora. Ta Aramaixon hartu auen kuadrillie, konpaiñiaren batek hartu auen /hartuen/, "tú que eres vasco, nos vas a enseñar a Murumendi. Vamos a ir a Murumendi, Murugain" hor [...] itxurie. Ta zeroi, Martiñoi jarri zan aurretik, ta hortik erri... -negargurie emuten dau, niri ixexue negargurie emuten [dust]- ta handik erripetik gora, ezta? Ta hor erripan, hemendik aldien fuen ezkerro, bistan euen, militarrok bistan. Francon aldekiek. Ta ostetik fuen ezkerro, ostetik fuen ezkerro, ezer be ez. Ta gure horrek /guriorrek/ ba handik osteti-antzien eruen zittuen, osteti-antzien, hementik tirue tirituko utsielako Apotzatik, ta "Ene, éste nos está matando!" brigada zahar bat edo. Jefe zaharren bat izen biher zan /bizan/. "Ese nos está matando! ¿Pa qué nos lleva este de aquí? Que no es el camino, este, este nos está enseñando mal." Ta "Hala, lleva y dale un tiro!" Pentsaizu e? Holatxen, "ala! Lleva por ahí y dale un tiro!" Ta ba gure Martin "hil biher naixon /hilbinaixon!". Anaioi. Ta horixe esaten, ta aurretik joiezenak " ¿Vasco! ¿Dónde está el vasco? ¡El vasco! ¡Que bien suba! El vasco" ta ba "bueno, vete, vete!" ta fuen zan baskuoi, ta gure horrek /guriorrek/ esan utsen handik peligrue euela, handik Apotzaga dauela bistan, ta bestaldetik ez eukela kontraixorik. "Ah! Nos está dirigiendo muy bien!" Ta eruen auen gora. Gurie erdi negarrez ibili, ta gero hara fuen zanien, gure Marie -bueno batzuek sinisketan daue, ta nik ez dakit sinisketakue dan-, euken lepoko zera kataie Mariek, ezta, nausixe, aiztiek, bere arrebiek ta nire aiztiek, ta deittu utsienien Aramaixora fueteko miliziano, ifiñi utsen /ifiñitzen/ haxe kataie, Karmengo Ama Birjiñie ifiñi utsen /ifiñitzen/. Ta berak Martiñek esaten auen "haretzek! Haretzek bai salbau nauela!". Gero etorri zien behera. Bajau zien baiña "basko" gora ta "basko" behera, nausixoi aurrien baiñe! Ta bajau zien behera, Aramaixora. Ta [...] esaten utsien lekuen euen tabernie, beti eurak egoten ziena, ta euken goixen kamarie. Baiñe hori milizianuek beteta, danoi. Ta hantxe kamaran egon biher izen zan zati baten. Goiko kamaran, ezta? Nire anaioi. Zati baten hantxen egon, handittik urten ta jentie dana nahaske-nahaske dabillega, ez zan iñor akordau ha nor zan be, urten auen, basorik baso, basorik baso. Ez dakit etorri zan be. Fuen zan Vittorixera. Fuen zan Atxabaltara. Gero Vittorixera, fuen zan Atxabaltara. ... hemen asko fuen zien hola igexi. Fuen zan Atxabaltara. Ta gero orduen Atxabaltan sartzen isten auen, baiñe urteten ez euen isten. Espioixie dala ta Atxabaltan. Zera, militarrek Francon aldekiek urteten ez euen isten. Baiñe horko jentie Atxabalta ta kontenirute euen esniaz. Hortik Galartzakuek, ta hortik abixue bieldu auen, ba Atxabaltan euela. Bueno, Atxabaltan euela. Ta pozik ha fuen zanien, buenooo! Beheko etxekue bai, handik aldekie, Zabolako Itturraldekue be

bai, Barajuengue be bai. Bueno, kuadrillie zien hemendik, banaan, baiñe azkenien Atxabaltan juntau zien. Eta gero gure aizta nausixe fuen zan, diru puxkaren bat, ta erropakin Atxabaltara, ha euen lekura, primo batenien euen. Juen zan, ta “Alto!”, “Aiba!”, “No puedes vueltar. Tienes que quedar aquí. O te quedas, o haz lo que quieras, volver no puedes volver.” Ha be hantxe. Eta, bueno, han egon zien ta gero [hori] Vittorixera fan zan. Ezagunek bagauken Vittorixen. Ta aitzie, nire alabie, beste aitzie be fuen zan Vittoixara. Ta beste anaioi fuen zan orduentxe horreik grupuen juntau zien ezagunek ez dakit zenbat, “A Somosierra” fuen zien rekete. Somosierra. Ta akabau artien hantxen egon zan, Somosierran egon zan, rekete.

10.17. Milizianoek ondo jaten zuten

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zuazua, Eustakia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-084/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:03:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Milizianoak emandako atun gozoa Eustakik oraindik gogoan du. Janari asko edukitzen zuten milizianoek auzoan egon ziren bitartean. Behin astoan zeramaten otzarakada bat merlenka, lokatzetara erori zitzairen. Sukalde ona eta nahikoa diru omen zuten milizianoek.

Transkripzioa

-Ta nik holako atun gozorik ez dot sekule jan. Olixue ta...

-Soldauak emuten otsuein?

-Bai. Emuten uskuen e.

-Gorrixak edo baltzak?

-Ez ez, milizianuek, milizianuek. Harei ekarten utsien, konboie esaten zan, ekarten utsien, mor... jana asko ekarten utsien baiña horra! Ta karo, gero itten utsen potajie-ta eruten euen. Hemendik behin pasau jakuen, hemendittik hor... oin ez da hola... lehen euen estrada zahar bat. Ta estrada zaharrak euen naharrak eta kamiñorik be ez ta ezer be ez. Ta nik esan [nutsuan] “ese misterioso”, bidioi, handik bidetik gora, handik “puedes ir”. Ta astuen, behin pasau jakuen, astuen jaien lapikuek albueta. Baiña erdixen jaien zer bat -ez dao ondo, ala?-, erdixen jaien zesto haundi bat zerakin, peskadillatxuekin beteta, ezta? Danak peskadillatxuek, iguel-iguelak, peskadillatxuek, peskadillatxuek. Ta hortixik gora doiela, ebatu utsen nahar batek, bota utsen zeroi, peskadilla zestue “blasta!”. Ta euen e, lokotzara baltza, gora ta behera, bihorrak be ibiltten [zien] igual ta eurak, eta, gora ta behera, lokotzarak, lur baltza, lurre lohi-lohi-lohi-lohixe. Bal-baltza. Han batu [eskuekin], hor askie euen, askan garbi-garbi-garbi ein, ifini lehelengo moduen, ta iñok ez utsen igerriko. Haik garbi-garbi eindda eruen zittuen, askan garbittute. Ta gixajuek iguel gosiaz jan, haik goixen euzenak. Baiña haik jan ondo eitten euen e, kozinie hor behien ta jan ta ondo emuten euen. Jana ona ekarten utsen. Ta dirue asko ibiltten euela esaten euen haik. Guri “ra!”. Honeik metalok, dalakuok, han baldetxora botaten uskun, ta ikusi be...

-Gero diru horrek balixo euen ezertarako?
-A a, ba gero, gero erretirau zien diruok eta.

10.18. Hiru anaia izan zituen gerran

- **Hizlaria(k)**: Astola Argoitia, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-090/009
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:21:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Julianen hiru anaia zaharagoak euskal batailoiekin borrokatu ziren. Gurasoek makina bat negar egin omen zuten, baina hirurak onik itzuli ziren etxera, Langileen Batailoitik pasatu ondoren.

Transkripzioa

-Zuk seniderik-edo izan zebeu gerran?
-Anaiak be bai, hiru anaiak, zaharrauek, bai.
-Hemengo batalloitan egon zien?
-Bai, bai, hortxe egon zien. Bat egon zan "Batallón Mungia"n, hor zerien, Arabitte edo hortik, Gipuzkoa aldetik. Bestie artillerixan, hemen, Billerleko kamiñuen edo hor, "artillería pesada", gorrixen aldetik. Eta bestie, hirugarrena, justo-justuen harrapau eban. Eta ha "Batallón Loyola"n. Elgetan auen pariente batzunien krieu, morroi, eta, han bere lagunek-eta zerera apuntau zien: "Ensegira juen biher dogu danok eta goiezan boluntarixo" eta "Batallón Loyola"n apuntau zan. Eta ha be hemen auen...
-Osea ke, orduen anaiak...
-Hirurek gorrixen aldetik.
-Batallon Loyolan bat, Mungian beste bat...
-Zaharrena Mungian, ta gaztiena "Batallón Loyola"n, eta bestie, erdikue, Jose, zerien egon zan, "artillería pesada", hoixe ez dakit erregimentue.
-Artillerixan.
-Bai.
-Eta onik bueltau zien gerratik?
-Bai. Amak eta aittek makiña bat negar itten eben.
-Bai, bastante suerte.
-Hemen ikusi aireplanuok... Honek sartu arte ez, baie gero honek atakie jo ebenien, aprillien lehenengoko egunien... Dana aireoplanue, dana bonbie! Akabo! "Ointxe danak hilko die, gure semiek danak hilko die", eta beti hoixe. Eta gero honek pasau zienien be, hemetik ikusten genduzen zelan juten zien kargaute bonbaz, jun ta jun, jun ta jun, jun ta jun,... . Akabo, akabo eta akabo! Eta danak etorri zien bizirik!
-Aparteko zauri barik eta hola?
-Bai!
-Osorik, orduen.
-Bai. Etorri zien e, egon zien Batallon de Trabajadorietan, eta apur bat kastigaute-eta egon zien, baie... Hamen egon zan hori, lehengo egunien esan neutsuna, Antonio, horren aitte egon zan alkate, gero horrek sartu zienien, horren aitte izen zan eta bilddurre eukitten gendun, baie danentzako emon eban zer ona, informe ona. Ensegira atara ebezan danak! Bai. Orduen herriko alkatiek indder haundixe euken, hontako

auzuna batekuek be bai.

-Orduen, zure anaiok, hirurek egon zien "Batallón de Trabajadores"en?

-Bai. Gaztiena gehixen, luzeruen. Hori, Mariano edo, Loyola-n egon zana, Batallon de Trabajadoretan denbora gehixen horretxek ein eban. Bestiek gitxiau, bestiek ariñau etorri zien.

-Eta klaro, zu edadiaatik, ba, librau, ezta?

-Bai! Ni libre!

10.19. Aita kartzelaratua

- **Hizlaria(k):** Balanzategi Unzueta, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-091/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Aita Altzaga auzotik etorritakoa zen; eta, gerra hasi zenean, atxilotu egin zuten.

Transkripzioa

- Orduen, zu zu... eskolan hasi ta segidan gerria hasiko zan ez da?

- Bai...

- Hurrengo urtian edo...

- Nik aizta bat daukot "el año treinta y nueve" jaixotakue... Aitte be kartzelara erun nabien, orduen. Auzoko ta herriko, ez dakizu... zeak izaten dienak.

- Bai, seinalauak.

- Bai, bai. Gure, nire aittite egoten zan horreaz abadi horreaz Azkuan asko. Ta zan, eene! Nazionala, ez dakizu? Erreketie.

- Zan?

- Ba... Orta. Ortan... eske abadie be haundixe zan ta Orta. Ta zelan han eoten zien jokuen ta ez dakit zer, ba, harek eta... Gure aitte, barriz, holakoik ez zauken ezebe!

- Kontrakua?

- Bai. Gaiñea, bertan etxekue ez zan /etzan/. Bere semie ez zan /etzan/.

- A, ez dostazu /etztazu/ esan. Aitta nungua zan?

- Aitta, aitta Altzakue (Altzagakoa).

10.20. Aita Bilboko kartzelan

- **Hizlaria(k):** Balanzategi Unzueta, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-091/029
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:36:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, aita atxilo hartu zuten etxetik. Atxiloketa oso gogoan du. Bi gizon aramaioar etorri ziren aitaren bila,

eta handik Bilbora eraman zuten. Padre Vilariño jesuitarekin egon omen zen kartzelan. Gorriek eraman zuten aita, karlista zelakoan. Bilbo liberatu zutenean itzuli zen etxera.

Transkripzioa

- Zuk zer rekuerdo dauketzu gerrakue eta gerra ostekue eta...?
- Gerrakue? Neuk txarra! Aitte zelan kartzelan auen, ba, badakitzu...
- Baiña aitta zegatik eruen auien, segidan eruen auien kartzelaa?
- Bai.
- Baiña bera miliziano fan zan edo?
- Ez, ez! Etxetik eruen zauien.
- Norbaittek denunziauta edo?
- Norbaittek, e, kontuek. Badakitzu? Kontuek eruenda edo ez dakit nik zer. Eta bere parientie zala, ni gero enterau nintzen, hemen "al mando" auela. Eta ha etorri zan, etorri zien e, horretxeaz akordetan naz: soluen zebillen, solue lanketan, eta juen zien, nun dabillen eta, juen zien han abillela eta ekarri auien, horretxeaz akordetan naz, gizon bik ekarri auien erdixen, izen bazan lapurre moduen, ez dakitzu? Ekarri auien etxea eta, ba, garbittu ein biher zala, izerdittu in auela eta garbittu apur bat eta, zertarako eta, ba, beraaz juen biher dauela, juen biher dauela. Bueno. Baiñe, nora? Eta, hori, ezer esan be ez, e? Nora ta zer ta ezebez. Eta gurien ama be negarrez, eta amama be bai eta...
- Eta gizonak, bere billa etorri ziranak, militar jantzitta?
- Ez! Geu moduen! Besteik ez. Hemenguek zien, Aramaixokuek zien, gaiñera. Eta eruen zauien, eta hortik gero Bilbora eruen auien. Eta egon zan, ba, kartzelan, ez dakit, oin ez naz akordetan... Eurakin egon zan jesuita bat be bai, jesuita...
- Kartzelan?
- Kartzelan, bai. Eta harek, gure aittek holako letraik ez auken, eta jesuittiorrek eskribirute dedikau euskun, niri bat, liburu bat, "religioso, misas y esto y lo otro", eta nire anai nausixenai beste bat, bi. El padre Vilariño, haretzek zertu utsen. Oso gizon e, gure aittek ez auken ha saltzeko.
- Orduen padre Vilariño jesuittie izen zan aittakin kartzelan?
- Bai.
- Eta jesuittiori ez zan izengo aramaixotarra?
- Ez, ez. Han ezautu zan. Bilbokue edo, ez dakit ba nungue zan.
- Eta zer akusaziñorekin, zergatik e...?
- Militarra zala! Karlistie zala! Eta horreatik erueten auiela.
- A, gorrixek eruen auien?
- Hori da!
- A, joño! Gorrixak karlista moduen akusauta eruen auien!
- Bai, eruen auien, bai!
- Eta zuk esan dozu bera ez auela bere aittarekin konforme.
- Ez.
- Orduen aittitta eruen biherrien aitta eruen auien!
- Aitte eruen!
- Eta Bilbon zenbat denbora egon zan?
- Ba, nik ez dakit. Ba, gerriaz Bilbo liberau arte edo, ez dakit zer. Eta gero etxea etorri zan. Ba, ulie be jausitte ixte, eta, badakitzu, han barruen egoten... Bai.
- Zenbat urte eukan, zure aittori [hartu] auenien?
- Ez dakit zenbat euko zittuen...

10.21. Aita gerra denboran betiko ezkutatu

- **Hizlaria(k):** Lasaga Belategi, Mauri
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-093/005
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Aita gerra denboran etxetik eraman zuten aitortpena ematera, eta ez zuten gehiago bere berririk izan. Aita etxetik eraman zutenak aramaioarrak ziren, baina gero ukatu egin zuten aita eraman izana. Aramaiotik Arrasatera eta handik Bergarara eraman zutela badaki Maurik, baina Bergaran ezkutatu omen zen.

Transkripzioa

-Eta zure aitta-amak? -Mauri: Nire aitte-aman zera tristie da. Akordetan nazenien, ya… -Bueno, ez dogu orduen horretaz berba eingo. -M.: Ama larogeta… larogei in baiño hillebete lehenau zertu zan, hil zan. Baiñe aitte, gerra denporan hartu eta etxetik eruen eta gehixau ikusi ez. -Kontxo! Leku askotan pasau zan hori! -M.: Eta aitte hil zan berrogeta hamabi urteaz hil zan. Eta ama geratu zan berrogeta bi urteaz beratzi seme-alabakin etxien. Eta ez dou jakin nun hil dan ez nun dauen, ezebez. -Jaione: Hoixe tristie! -M.: Hori da tristie, hori! Hiru urtien… - Oin badabitz ba, […] topaitten. -M.: Bai, badabitz. Niri be preguntau dostie behin baiño sarrixau telefonotik, baiñe ez dau… Haxe izen zan gizona Aramaixon bakar-bakarrik. Hoixe pasau zan, holan eruen eta jakin barik desagareziru. Hirugarren egunien-edo desagareziru zan eta kitto. Nun dan be ez. Zenbat ahalegin in ete dogun! Baiñe ez da jakin. -Zeintzuk eruen auen? Francotarrak? -M.: Eruen auen aramaioarrak! Zazpi, sei, eta bat zan Vittoixekue. Geuaz egon zien berbetan eurak. Danak ezauketan gittuen, klaro! Aramaixon, ba, danak. Baiñe gero uketu in auen danak, gurien ez ziela egon. Eta akabo! Haxe izen zan, gehixau ezebe ez dou jakin. Eta hori ibili da, ni, jesuittie neuena anaie, zenbat ahalegin hak be in auen! Eta gaiñetikuek be bai, baiñe… Ha borrau zan, baten batek juramentue indde eukien ezer ez esateko. Derrigorra da, ze, zazpittik batek be ez esatie! Danak, eurak ez diela egon. Ta geurien egon zien, berbetan geuaz. Ondion esan auen: "Bo! Aittei iñ biher dutsau, e, trankil egon! –Anaiek martxau iñ auen. Anaie bestaldera pasau zan, bai? Eta –Semien deklaraziñotxo bat in biher dau. Besteik ez. Ensegira etxea dator". Ta gu trankillao geratu gitzen zera baiño, eta gehixau ikusi be ez. Handik eruen auen Mondrauera, eta Mondrauen geuken tio abadie, anaie, gure tio, bere anaie. Eta, klaro, janik be ez utsiela emun aiuntamentuen, eta berak, anaiek, eruen ei zutsen. Gero handik Bergarara, eta Bergaran gabe bat-edo in eta desagarezidu zan. -Orduen, preso eruen auen. -M.: Bai, bai, preso eruen auen. Hartu eta, bueno, preso! Guri esan uskun “Deklaraziñotxo bat ein eta ensegira etxea etorriko da”. Baiñe handik ya Mondrauera eruen auen eta gero Mondrauetik Bergarara, eta Bergaran, desagarecido. Eta zozterrik be ez eta kitto! Hiru urtien egon gitzen enterraixue be in barik. Ezin geikien ein. Zelan ez gakixen ezebe, hiru urtea in geen enterraixue. Ondion ez dakigu ezebe, eta hori, makiña bat ahalegin in daue, e? Bai anaiek, bai semiek, danak. -Euskal Herrixen jente asko dau, Euskal Herrixen

bakarrik ez, España danién. -M.: Ba, Aramaixon unico, bera bakarrik. Bestela hilgo zien, baie holan hartu eta desapareziru geure aitte. Ta aitte, ze, on bat. Bera, txikita barik beratzi umeaz, bo! Baten batek eukén arrabixon bat eta kitto. -Horrei ez jako bueltaik emungo. -J.: Gerra denporako gauzak! -M.: Sufriru dou, baie... Eske auzuen be, bueno, bueno, gizon gixajo bat, urten ezinke auena, ez diru eta ezebe, beratzi ume etxien, eta hartu eta eruen. Eta ama, akabo, gehixau ez zan ondo izen ama.

10.22. Gerra hasierako oroitzapenak

- **Hizlaria(k)**: Unzueta Etxebarria, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriolabengoa, Divina
- **Erref**: ARA-097/022
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:39:30. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra hasiera gogoan du. Zazpi urte betetzen zituen eguna. Eztanda handi bat entzun zen, beheko zubia lehertu zuten bonbaz. Gero zurezko habeekin egin zuten zubi berria. Zubian egondako habe bat beren etxeko teilatuan jarri zuten, baina brintzatu egin zen eraz kontra ipintzeagatik.

Transkripzioa

-Gerra denborako gauzak-eta asko dauket goguen.

-Bai?

-Asko! Ze ni gerrie hasi zanien...

-Zuk gerra denboran ze...

-“Treintaiseisien” hasi zan gerrie, ezta? Ta nik orduen, gerrie hasi zan egunien, “dieciocho de julio”, kunpliru nittuen zazpi urte. Ta hareaz egunaz be ondo gogoratzen naiz.

-Bai, e?

-Haxe egunaz be bai. Ze, orduen, ba, klaro, orduen arratsaldien-eta errosaixotan juen biher zan /bizan/ ta, badakitzu, joe, hori zan, sagraue zan. Eta, oin mezeta be ez ga jueten askotan, baiñe, orduen, mezeta, erresaixotaa, eta danea. Bueno, ba, orduen be errezaixota juenda, eta, plazuelan, oin esan doten plazuelan, hantxe, autobus paradako, hantxe, zubi gaiñien, han gengozen mutiko, mutiko batzuk han gengozen, eta entzun zan ikeragarritzko bonbazue, ezta? entzun zan. Eta “Aiba! Zer pasau dok, zer pasau dok” danok. Eta zan, hori beheko zubixori, hori Añebarriko zubixori, jarri eutsien zera eta hori bolau edo zertu.

-A, bai, e?

-Bai. Eta Gasteiztik etorri ziela militarrek esaten auien, Gasteizko militarrek ifiñi auiela, ifiñi eutsiela zera eta zubixori... Zementozkue zan, e?

Ikeragarritzko, zementozko ikeragarritzko zubitzarra zan-ta, jota aidien jaso auien, bai. Ta akordetan naz, etxea, sustaute ni etxea. Etxea etorri nintzen ta, etxien amak e: “Aitte juen dok, aitte juen dok”. “Noa juen da ba?”, ta, “Martzeliño ta bixek juen dittuk”. “Noa juen die ba?”, ta, “Ba, ikusten. Hori, Añebarriko zubixe bota ete dauien edo ikusten juen dittuk”. Ta, efetibamente, hartara juen zien. Ta ez zien juen kamiñotik, ezpada eze juen zien hor mendittik juen zien ikusten, kamiñuen baten batekin ez

enkontretako edo. Ta horreaz akordetan naz. Ta, bueno, gero handik ... Gero ha zubixe egon zan, e, iñ auien zerakin, egurrezko bigakin iñ auien zubi barrixe, iñ auien. Bertatik barik, aldemenetik iñ auien ze, gero bertan zubixe zelan iñ bi zan barrixe lehengo lekutik, ba, iñ auien aldemenetik, iñ auien, egurrezko zubi bat iñ auien. Ta bigak eruen zittuen gure basotik eta eruen zittuen, ba, horreik e, biga haundixek, ba oso, holakotxe bigatzarrak eta, eruen zittuen eta, akordetan naz, gero, bigak ba ez dakit gero ze, baiñe bat, biga bat gure aittek zertu auen, eskuratu iñ auen eta, hemen ha, hori zan e, bigok hemen euzen nunbaiten baztertute, eta, etxie reformau zanién, teillatue, teillatue ifiñi biga barrixek jarri biher zien, ta hartaiko bat...

-A, bai. Han dau?

-Kamaran hor dau, ifinitte dau. Baiñe, zer pasau zan? Eta aittek hola esaten ta egi arrazoie izengo da ze, bigie egon bada, edo, urtebete, bixen edo hiruen egon bada, e, zer baten, este, postura baten, ezin leike kanbixau, ze nerbixuek-eta alde batera eukitten dittu. Ta zer iñ auen hemen? bestaldera ere ifiñi, hemengo arotzok, ta zer pasau zan? Ba, holan, horman bazterritik, holako metro t'erdire edo, bringie in jakon. Eta aittek: "Ene! Bajakixat zerena dan, bajakixat zerena dan, eta, bixon arte, nik, ba, zenbat urte, aittei lagunketan ibili nintzen... Ba, han dau, puntel bateaz bringie dauen lekuen, hantxe...

-Orduen badakitzu zein dan bigie eta dana.

-Bai, badakit zein dan.

10.23. Salasan baserria bi fronteren erdian

- **Hizlaria(k):** Unzueta Etxebarria, Paula
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-099/033
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:55:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Salasanen baserria bi fronteren erdian egon zen hamabost egunez, alde batekoak Murun eta bestekoak Tellamendin baitzeuden. Elkarri tiroka ibiltzen zirenez, eta arrisku handian zeudenez, gurasoak eta abereak etxean gelditu eta gazteak Goikoerrotara aldatu ziren. Han egon ziren denboraldi batez. Zalgón zeukaten gorriek intendentzia.

Transkripzioa

-Akordetan za gerriek urten auenien nun zengozen?

-E?

-Gerriek urten auenien nun zengozen akordetan zara?

- Bai, Salasanen. Eta frente bat auen Murun eta beste frente bat Tellamendin. Eta tiroka ibiltten zien alkarri, tiroka ibiltten zien, eta Salasango etxien paretik pasetan zien balok txistu baten! Eta gu, bueno, ezin leikien urten etxetik, ze bertan hartzen auen Salasan, bertan hartzen auen. Eta aittek, ba, hoixe, bala galduren bat iguel egon leikiela-eta, zerien, eta eruen gindduen Goikoerrotara, harik eta, harik eta, zerok, bat edo bestie zertu arte. Goikoerrotan egon giñen, ba, hamabost bat egun-edo egon giñen Goikoerrotan geu, zerok, gaztiok. Aitte eta ama etxien geldittu zien, baiñe gaztiok Goikoerrotan egon giñen. Eta aitte eta ama etxien geldittu zien ganauekin. Eta, zera, ganauek... Hemen, Tellamendin

egon zien gorrixek eta zerien, Murun, bestiok. Eta, ba, gabetan zerak etorten ziela ganauek kortatik erueten edo, ba, klaro, jan in biher auien eta, ba, zeozer eukittek. Eta, ba, Salasandik ez auien eruen. Eta gero auen intendentzixe-edo esaten utsiena Zalgon. Han eukien zerok, janok edo zerok han eukien gordeta, honeik, zerok, gorrixok.

10.24. Aita atxilotu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Unzueta Etxebarria, Paula
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-099/035
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:56:06. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Aita atxilotu egin zuten San Martin egun batez. Atxilotu zutenetako bat lehengusua zuen. Aramaioko kartzelan sartu zuten. Zortzi egun inguruan herrian eduki eta gero, Gasteizera eraman zuten. Han hilabete egin ostean jaregin zuten.

Transkripzioa

-San Martin bezperan, behixek batzen ebillen eta etorri zien gizon bi atea, euren fusillok bizkerrien zittuela, eta atie-edo jo auien eta neuk urten neen. Ze, han beste batzuk be baozen, baiñe neuk urten neen. Eta “Aitte” esan usten, eta “Aitte kortan dau, behixek batzen dabil”, eta “Ba, geuaz etorri biher dau”, eta “Nora”, ba, “Hori gero jakingo dozu”. Eta esan nutsen, juen nitzen kortaa eta esan nutsen “Aitte, hor daz gizon bi, zera, urteteko”. Eta bat bere primue zan, aitten primue zan bat. Eta, ba, urten auen eta “Geuaz etorri biher dozu”. Eta orduntxe bertan, gabeako, ya eruen auien kartzelaa. -Aramaixoa? -Aramaixon, zerien, aiuntamentuen auen kuarto bat eta hori eukien kartzelioi. Eta gu jueten giñen, zera, janorduek erueten bertaa. Eta, zera, ba, zera, ba, aitten primue zan bat, etorri zana, eta amandrie Lekiñan, Lekiñakue zan amandrie, eta, gure aitten ama, aitten ama, bai. Eta enterau zanian zelan eruen auien eta nortzuk egon zien erueten, juen zan listo aitziorreana, zeatik aizta bixen semiek zien, eta itzelezko bronkan bat in utsen. Eta, ba, holan pasau zan. Eta gero, hamabost egun-edo iñ zittuen hemen herrixen, eta gero eruen auien Vittoixaa. Eta, bera eta, zera zan beste bat, zapatero neskon aitte, eta zera, beste bat, hamen Goiko Tabernan eukien orduen tabernie, Bengoanak-edo esaten utsiena. Ha be bai, eruen auien, eta besteik nor egon zan? A! Olabetxo be bai. Eta hirurok behintzet eruen zittuen hantxe, zereaa, kartzelaa. Hamen, herrixen, zortzi egun pasau erain utsien eta gero, gero Vittoixaa. -Zer eukien, gorri usaintxue edo? -E? -Gorri useiñe -do eukien, gorri useiñe edo? Zeaittik eruen zittuen? Gorrixek zielakuen? -A! Horixe! Gorrixek zielakuen, bai. -Eta zenbat denpora egon zan Vittoixan? -Ba, Vittoixan hilebete-edo iñ auen. Eta, ba, gero…

10.25. Fusilatua(k) Aramaion

- **Hizlaria(k):** Beitia Oruna, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina - Ozaeta Elorza, Arantza
- **Erref:** ARA-101/030
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:56:02. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Galdeketa egin zioten frankistek, baina bera lasai zegoen, ez zekielako herriko berri. Hainbat pertsona hil zituzten. Gero mitinetara joaten behartzen zituzten, baina bera ez zen inoiz joan.

Transkripzioa

-Patxik esan uskun han be, euren etxien be egon ziela, Zalgon egon zala… -Zalgon? Itxein, Zalgo, Zalgon… -Orduen etxie itten ebitzela eta han, koartela izen zala, ez dakit, han soldauek-eta egon ziela. - Zerien! Bai, kalien be egon zien, kalien be, oin, zera, Bitor bizi dan lekuen, han eukien euren almazeno, hara juen gitzen garbiketan eta dienok itten. Oilluek, oillarrak, oillaskuek be han lumatu biher gituen. Ni ez nintzen juen. -Zigortu in zinddutien, ez? Eta… -Honbre, honbre! Kartzelaa eruen biher gindduela eta, baiñe ez neuken, ni trankil ninguen. “Yo no sé”, nik ez neuken pekatuik. Nik ez nekixen. Esan neutsena: “Yo no sé lo que es ser… de política. Yo no sé nada. A ver, yo no he vivido aquí, yo no sé quién es quién”. Nik ez nekixen. Baiñe hemen, klaro, lan asko indde auen. Pentseizu: Itturaldeko gizon gixajue be eruen eta akabo! Simontxo zerekue, Gureixakue be hartu eta eruen auen, akabo! Sekretarixue be eruen auen eta nun zienik be ez! Itten zittuen e... kitto! -Ezauketan dozu norbaitt ulie-eta ebai eutsiena? -Ez ez neuken… Ya sartu zienien, ya apur bat, bai danai be, gure amai be bai, bajetako, ulie ebai biher deusiela, eta aitte kalie garbiketan, ta ama be bai. Eta ya, ba, esplikau eutsenien nor zan, gure aitte lagun haundixe zan horren aittaaz, sekretarixuaz. Eta ya ez eutsien ez, ama be etxera bieldu auen eta aitteaz be lagun in zien eta… Baiñe, falta auen… hareik sartu balitzez politto eta esplikaziñue eskatu, nor zer zan eta zer eindde auen… Iñok ez auen ezer ein, eta in auenok juen zien. Baiñe gero ez auen zertu. Gero, ba, klaro, obligetan gindduen mitinña-eta jueten. “Yo no, no voy. Yo no”.

10.26. Gerra nola hasi zen Aramaio inguruan

- **Hizlaria(k):** Ibabe Zubizarreta, Valentin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-109/021
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Valentin etxean zegoen. Uztailaren 18an Gasteiz aldetik etorritako abioi batek Otxandion botatako bonbek

hiru lagun hil zituzten. Frankistek aurrera egin zutenean, Aramaio ere bonbardatu zuten. Valentinen anaia bat gerratik libratu zen, baina beste biek behartuta joan behar izan zuten. Gerra bukatu aurretxoan, laugarren anaia ere ia eraman zuten.

Transkripzioa

-Eta zu, hortik eta hemendik, ia hamazortzi urtera allegau zara eta gerrie etorri da.

-Gerrie.

-Eta nun harrapo zebe zuk gerria, etxien?

-Etxien.

-Eta ze, ze, nola hasi zan edo, goguen dakotzu?

-Bai!

-Nundik etorri zien edo ze ...

-Bai, bai, bai. Hamen e, uztailan hamazortzien, hemen agertu zan abioi bat, Vittorixa aldetik ta hortik, Kurtzeta aldetik, hor San Kristobal aldetik, Otxandixo aldea juen zan da bonbak bota zittuen. Ta gu hemendik “Ze izen dok hori, zer izen dok hori? ta izen dok ta ze izen”... Gero beste buelta bat in auen ta ostera be beste bat be bai. Ostera “baiñe be zer dok ba hori?” Orduko ya zabaldute auen gerrie zaratiaz ta auela. Gero, nun esaten dauien bonbardiaue, bonbie bota auela Otxandixon ta hiru-edo hil zittuela, Otxandixon. Jaixek zien Otxandixokuek orduen, Santa Maiñak. Hiru-edo hillek eta heriduek asko azela, zaurittuek.

-Zueik hamendik entzuten zittuein bonbak?

-Bai, bai, entzun geuen, hemendik ondo. Bonba haundiek zien, e? Hogeta hamasei bota zittuen.

-Ta abioi bakarra, e?

-Bakarrik etorri zan. Vittoixa aldetik. Ez dakit nik hareik Vittoixako [aeropuertuek] non dauzen. Baiñe orduen ez auen preparaute gerrie abioiekin ta ezebe, ez! Gero preparau zan, gero.

-Ya, eta Aramaixora bertara? Aramaixon bota zittuen bonbarik edo?

-Hamen ez, ez. Orduen e. Hemen gero, abanzie in auenien bota zittuen asko, asko! Hemen egon gintzen billur bateaz! [Ointxe akabauko gaittue] danok! Dana abioie, goi, harutze ta honutze, besteik ez ebillen.

-Eta eurak atakaitten euenien, zueik gorde-ta nun itten ziñien?

-Etxien egon gintzen gu, etxien.

-Etxien?

-Bai.

-Eta zuk seniderik edo lagunik edo... galdu zebe gerran?

-Ez, ez dauket seniderik bape. Geu be lau anaiok harrapau ginttuen gerriek. Ene! Lau anai... Holakoik! [Hiru anai ...] hiru anaittik bat librau itten zala, bat librau ta beste bixok gerran egon gintzen.

-Francok eruenda edo ...

-Bai, bai, Francok, Francok. Eta gerrie akabau baiño hille bi lehenau laugarren anaie ostea kuartelea eruenda auen.

-Ha be ya [...]

-Ez auen... frentea-eta ez auen urten. Orduko, ha juen ta hille bi barru-edo akabau zan gerrie. Orduen Madrillea edo hartu auen, allegau zien zeok, militarrok allegau zien. Gu Guadalajarako frentien gengozen orduen.

10.27. Etxeak suntsituta bonbardaketan

- **Hizlaria(k):** Karetxe Urrejola, Pedro

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-111/009
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:14:06. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Etxeko aitona, bonbardaketan, kortako bazter batean gorde zen eta bizirik atera zen. Teilape baten azpiko etxe bat suntsitu zuten arren, bestea ez zuten hainbeste kaltetu. Ukuiluko txekorrak txikituta. Bonba-zuloak nonahi.

Transkripzioa

-Bueno, aurreti, hobeto esateko, harek, lehen ez dot zertu, harek, zera, Gipuzkoa aldeko [jentie] egon zanian, ba hemen gurien egon zien eta han be bai, eta hor aittejaune, alaba, aitte-alaba bigaz edo bizi zan, eta esan eutsien: "Aittejaune, bixer edo etzi bonbardio edo holako zer bat izengo balitze, jun horra ittua bazterrea!" Lehen auen hemen ohitturie, ba, sardiekin satsa etxe barruen itten zan pillue. Gipuzkoa aldien-eta hori ohitturioi...

-Nik ezautu dot.

-Neuk be bai hori. Eta esan eutsen: "Zu horra ittua bazterrea juen, sats morduen atzekaldea; etxie dana jausten bada, hortxe geldittuko zara bizirik eta". Exactamente. Etorri zan banbardieue, eta hortxe etxien aurrekaldien, honen etxetik, ba, zenbat esango dutsut, berrogeta hamar metrora, haren aurrekaldien sartu eban bonbie. Eta etxe gehixenak hemen, ba, oin aldatute dau hori be, eta zera, ha bestie, aldameneko etxie, bota ebanen erdi zerien geldittu zana zan gurie, oin semiek dauko arreglaute. Zera, gaillur bateaz, zer bi, etxe bi, ba, teillatu zeraaz, gaillur bateaz. Bai. Orduen hemetikaldekue jo-ta altxau in eban, eta bestie geldittu zan, ba, zati bat zertute, baie bastante osoik, gure aldekie. Eta ittuan auzen, kortan -guk "kortie" esaten dutsau, zueik "ittue" esango dutsezue-, eta hemetikaldeko kuartu txiki baten, korta txiki baten, auzen ez dakit biga bi ala idisko bat, ala idisko bi eta biga bat auzen. Harek zatittu in zittuen, apurtu guztiz. Eta ganauek auzen gure etxe aldea begire, horra horma begire egotie, kuartoiek handi, eta kuartoiek hemetikaldea jausi zien eta ganauok, behixok, geldittu zien bizirik kuartoi bittertietan. Eta esan dodana, ba, nik urten noan kanpoa, eta, mutikuen kontuek; oin koiñetue dana, ba, hortxe, beziñue, bestaldeko beziñue, eta aiñeketan hara zerien, eta, banoie, eta, han be, oin kurtzie dauen lekuen beste bonba-zulo haundi bat. Aldemenetik pasaute juen nintzen aurrea eta hango aittejaune -guk "aittittie" esaten dutsagu, aittejaune- honako lekutik kalaberie kendu eta arbolapeien auen hildde. Aguro etxea ostea, eta, amai esaten: "Ama, Goikolako aittejaune hildde dau". "Nun?" eta "Urlixek lekutan", "Bale". Eta gure osaba, aitten anaie, juen zan horra.

Gregorio eukun izena horrek, eta:

"Gregorio, Gregorio!" ta "Hemen nak! Hemen nak! Kenduizek honexek atzeka... -argixe ikusten ei eban handi atzekalde partea eta- kenduizek honeik harrixok eta urtengo joat kanpoa". Harri batzuk kendu eta handixi azpitti urten eban, sats-pilo azpitti, eskiñati, kanpora, eta bizi zan urtietan.

-Bestia, berriz, beste aittajuna, garbittuta.

-Bai. Ez zan geldittu hemetiko horma bazterrik metro ta erdiko alturan be ez, ez zan gelditu etxeko horma bazterrik.

-Bete-betien harrapau eban orduen.

-Bete-betien harrapau eban hondie.

10.28. Bonba bat sekula-belarra ereiten

- **Hizlaria(k):** Karetxe Urrejola, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-111/010
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ganbaran sekula-belar haziekin betetako zaku bat zegoen zintzilika eta bonba batek etxe osteko soroan erein zituen haziok. Pedoren etxe inguruan harrapatutako sei miliziano fusilatu ondoren, bonba-zulo batera bota zituzten.

Transkripzioa

-Pentsaizu: gabaran auen erregular sekule-bedar hazixe,–sekule-bedarra badakizu zer dan eta–. -Ez. -Trebolie. -A, guk bedar-baltza esaten xau. -A, zuk bedar-baltza esaten dutsezu? Bueno, berdin dutso, berdin dutso /berdintzo/. Bestela, pagatxie edo, badakizu zer dan? -Bai. -Bueno, ba, zera, trebolie. Kamaran zakue eskeitte, ezta?, kamaran kordel batekin zerien eskeitte, ba, etxetik harutzeko solo baten noberak ereindde letxe erein biher izen eban. Pentsaizu zelako presiñue eruen eban harek, harek zerak, e? -Osea, hazixe auen zakuen. -Zakuen. -Eta bonbiorrek in eben hazixe erein! -Hazixe erain handik etxetik fuera, atzeko soluen. Pentsaizu zelako indderra eruengo auen harek. Ta horretxek kontuok, zerien. Bai. Eta gero, ba, atzeti, badakizu. Atzeti ba, sartu zien abanzie eta ba, etorri zien zerak eta hemen behereko etxien, hortxe, tratorrak-eta dazen lekuen, ba, handikabanzie jo ebenien, ba, gixajuek martxetako zerik be ez, eta, martxau leixen orduen, akaso baten batek joko auen balan bat, dana zan balie-eta, erreka zuluken sartute eta hanka iñ leixen harek. Ba hantxe geldittu zien, ba, etxien kontrako ate kontran, eta rau! sartu zien bestiok aurrekaldetik, dozena erdixen bat hantxe atien kontra harrapau zittuen, bertantxe afusillau eta bonba-zulora. -Bota zittuen? Zeuk ikusi zeen hori? -Ikusi nik ez, baie ba, nik ikusi bertan zerien, etxien, bai. -Eta iñungo motibo barik? -Motibo barik. Preguntau be ez zer zien be. Ba, zer zien, ba, bistan auken harek, hemetikaldekuek euzenak zien, eta bestiek bestaldetik etorri zienien eta han harrapau zittuenien, ba, fuera! Ra! eta fuera. Ez dakit bost ala sei zien, hantxe lehelengo bonba-zuluken enterrau in ebezan. Haik han egongo die haik hazurrek, nunbaitten. -Eta horreik zer zien, milizianuek edo…? -Milizianuek!

10.29. "Ni gerrara boluntario inora ere ez!"

- **Hizlaria(k):** Iriarte Astola, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-114/003
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Errepublika garaian, Txominen anaia bat Katalunian egon zen soldadu. Gerra etorri aurreko egunetan, etxean zela, anaiaren kinto bat ihes egiten saiatu zen. "Ni gerrara boluntario inora ere ez! Deitzen digutenean, joan egin behar" esan omen zion anaiak kintoari. Txominen anaia miliziano egon zen; gero, "trabajadoretan".

Transkripzioa

-Ba, republikie? Bai, ba, bai. Gure anai nausixe onduntxe auen, e, zerien, ... republikien reboluziñue izen zan ba? Kataluñan!

-Bai.

-Soldau auen orduntxe. Soldau, bai. Ha soldau auen eta... Hak gero, gerrie urten auenien, ha etxien auen etorritte, treintaitresko kinttie zan-eta.

Treintaiseisien, gerrie urten auenien, gauza bat esango deusut: Ba, ni mutikue, ba, beratzi urte gerrie urten auenien, ba, baiñe gero hamar urte eukiko nittuen, eta, urazkenien, baserrixen, ba, hemengo abanzioi izen zan udebarri zerien, aprilien, ezta? Baiñe, aprillen aurretik, urazkenien, basoa, harutze basoa, ire ebaitten, eta, hor Barajongo bat, gure anaien-eta kinttue, eta ni anaiaz, ni mutikue, anaiaz basoa eta, Barajongue, Trojaola, bidetik gora, eta esan eutsen, anaiek esan eutsen, e:

-E, noa hoie, kinto? Trojaola, noa hoie?

-Hi, banaixuek. Ez hator?

-Noa? Harutze?

-Ba, hemen e, lehengo egunien iñ neixoan... deskuiru bat iñ neixoan eta, atzien jabitzek eta, deskuidetan бага harrapauko justiek eta...

-Hi, Jaxintto! Neu gerrara boluntarixio iñora be ez naixuek. Ni gerrie lehen nak ikusitte! -esan eutsen.

-Gerrie? Bai! -gero konturetu- Karo! Hi otubreko reboluziñuen zerien, Barzelonan!

-Bai! Gerrie lehen nak ikusitte. Neu gerrara, boluntarixio, iñora be ez! Deiketan doskunien juen in biher -esan eutsen.

-Hi, ba, ni e... banaixuek.

-Bai, bai. Niatik badauket, libre dauket e! Heuk gure doken lekure! Baiñe libre dauket, heuk ikusi!

-Eta hori Trajaolaoi, miliziano juen zan?

-E?

-Trojaola hori miliziano?

-Ez! Hori juen zan... hemen euzen, e, bestiok, reketiok hor azen, hemen, Gellan, Atxabalta aldea sartute lehendik edo, geratute. Eta esan eutsen:

-Hi, nun egoten dien badakik gero, horreik zerok?

-Horreik? Etxabea fan hai, Etxabe, hor egoten dittuk, egoten diela esaten juek. Nik neuk ez jakixat ezer, egoten diela esaten juek. Eta, ba, han goitik trapu zuri bat edo zer bat ataraik eta [zertuta] hartuko haue.

-Hoixe in biheko joat, bestela, [disfrontaute] edo ez jakixat, tiron bat edo botako justiek eta ...

-Heuk Ikusi! Heuk ikusi! Heuk Ikusi! Kinttuek gaittuk -esan eutsen anaiek, neure anaiek- Kinttuek gaittuk, baiñe neu gerrara boluntarixio ez, e? Deittuko juskuk, derrigor juen biher juau gerrara, hori bajakixau. Zakuen gazak! Baiñe deiketan duskule, deiketan duskuen lekuen juengo gaittuk. - Anaiek hori esan eutsen, baiñe haek gerrie ikusitte eukelako. Gero ba, miliziano ibili zan. Hemen geratute auen eta, deittu eutsien eta, ba, miliziano. Ha ta beste anai bat be bai.

-Baiñe miliziano, Francokin ez.
 -Ez! Francokin gero, baiñe...
 -Klaro, klaro. Orduen, klaro, zure anaiek iñ eben soldauskie republikan.
 -Bai, bai. Horreik, zera, han miliziano ibili zien, horreik. Eta horreik Bilbon, nire anaiek esaten joan Bilbon, zerien, pasau zien bestaldera ta, ba, bueno, gero ba, gero Trabajadorietan lanien.
 -Egon zan, e?
 -Bai.
 -Klaro, zu mutikue ondion, bestela zeu be bai.
 -E?
 -Zu ondio mutikua ziñalako, bestela zeu be bai.
 -Bai, bai. Beste anai bat neuken nik sei urte zaharraue eta ha justo-justuen librau zan. Sei urte zaharraue zan ha, cuarentaydoseko kinttie. Gerrie beste hiru hillebete tardetan badittu, hari be deittuko eutsien. Baiñe, ha kinttie ba ez zan...

10.30. Otxandio bonbardeatu zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Aspe Beitia, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ARA-115/022
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:30:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra denborako oroitzapenak. Gerra hasi zenean, Juliok zortzi urte zituen. 1936ko Santamaina jaietan, Legutioko soinujole eta jazbana ziren herrian; gerra zetorrela eta, soinua auzoko etxe batean lagata joan omen zen soinujolea Legutiora. Handik egun batzuetara, Otxandio bonbardatu zuten. Baserritik abioiak ikusten zituzten.

Transkripzioa

-Zortzi urte gerra denporie hasi zanien.
 -Bai?
 -Eta akabau zanien hamabi. Lau urte aguantau auen.
 -Eta zer rekuerdo dauketzu zuk gerriena?
 -Gerriena? Bueno! Gerriena asko!
 -Zu hamen zeontzela, bazekitzuein baetorrela edo...?
 -Beetorrela? Santamaina egune, diesiocho de julio, hasi zan gerrie, eta gu gebitzen jolasien, ta soñujoillie Billerlekue ta jazbanistie Mediabilla, zera, esaten eutsien. Soiñue hor auzuen itxitte martxau auen haek Billerlea, hortik goittik bueltan.
 -Bertan itxitta, soiñue bertan itxitta?
 -Bai, bai, bai.
 -Baiña, baiña, dieciocho de julio egun horretan hemen tiroik-eta ez zan egongo, pentsau leike, e?
 -Dieziotxo, orduen egunien bertan edo hurrengo egunien bonbardiau iñ auen Otxandixo. Jota haustute itxi auen. Abioie abioien gaiñien, aldiko hiru, aldiko hiru, aldiko hiru. Hemen buelta itten auen eta hantxe, brrru, zaratak.
 -Eta zueik hemendik entzuten bonbardeue, ezta?
 -Bueno! Eta abioiek ikusi sartzen. Handik etorten zien eta bueltan sartzen zien eta...

10.31. Soldaduen hilotzak

- **Hizlaria(k):** Aspe Beitia, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-115/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra denborako oroitzapenak. Borrokaldia pasatu eta gero, soldaduen hilotzak besoa agerian zutela lurperatu ikusi zituen.

Transkripzioa

-Bai, beste bandokuak, neri Julianek esan nontan Kurtzetako karobin bat edo… -Bai, karobixe. Karobi baten, bai. [...]. Hor oin, piñurixoi sartu auen, eta gero hori bota danien nik esan neen, eta Fermin Arraburuk be esan zittuen, han alkatiei eta zerai esan eutsen: han ekindde Goixenengo txabola, txabolie esaten dogu guk, handiko zerien, hara txabola eskabadorie pasau balaue hor inguruen, makiña bat hazur urtengo auela, harrixe baiño gehixau. Eta jentiek enterrau, bertakuek eta, eskue bistan, hankie bistan, bestie bistan eta hor ikusten gittuen, ikusi gittuen gero. -Eta zueik ikusi zittuein orduen esku eta hanka... beste dana tapauta. -Bai. Ez! Eskue bistan batzuk, saludetan edo, nik ez dakit zetako ipintzen eutsien ha, eskue holan, eurok enterraute eta eskue holan, bistan.

10.32. Anaia ganaduen askapean ezkutatuta

- **Hizlaria(k):** Arriolabengoa, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina
- **Erref:** ARA-117/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Tia-abuelak ez zekien erdararik, eta falangistek galdetu ziotenean "aquí hay rojos?" buruarekin baietz egin zien. Angelen anaia Florian ganaduen askapean ezkutatuta egon zen, etxea arakatzen zuten bitartean. Ohituta zeuden soldaduak ikusten, milizianoak egunero-egunero egoten baitziren gosaltzen. Teniente batek gomak ematen zizkion tiragomak egiteko.

Transkripzioa

-Abanzie egon zanien Kurtzetatik, horreik etorri zittunan, ba, milizianuek jazanan hor eta haik takarraran pasau zittunan hor, lehelengo, gure etxe ondolik beherutze. Eta gero etorri zittunan horreik falangistok, haren atzetik. Eta, hori, tia, jabillenan erropie garbiketan fregaderan. Eta gorra jaukanan harek, haundixe jaukanan gorra, eta erderaz be harek ez

jakixanan ezebe, gurien amak eta asko ez, baiñe harek gutxiau. Eta hareik preguntau jutsenen handik: “¿Aquí hay rojos?”, esan jutsenen, “¿Rojos, aquí hay rojos?”, eta bestiek buruaz itten jutsenan holan, baietz. Ez jonan entzuten ezebe, buruaz holan. Eta, jode, bota atioi eta etxie erregistetan, dana, etxe guztie erregistau junen. Eta hori, anekdota bat ordukue.

Horreaz akordetan non.

-Gordeta egon zitzen,ez? Edo kortan gorde in zitzen?

-Ez, ez. Kortan gorde zonan, askapeien gorde zonan Florian. Ha ni baiño nausixaue zonan eta, nik gerra denboran, orduen eukiko nittunan bost urte edo, bost urte eukiko nittunan, eta Florianek, ba, hamazazpi, ha ya mutil nausitxue. Eta egon zonan kortan aska azpixon gordeta egon zonan hareik etorri zienien.

-Izengo zan, bost urtekin, inpakto... hori holan ikustie soladauok sartzen eta.

-Bueno, bai, inpaktue bai, baiñe lehen aurretik be beti egoten zittunan, han egun gehixenetan egoten zittunan, ba, milizianuek armozten, morokille jaten eta holako gauzak itten egoten zittunan. Akordetan non, bat zan han teniente-edo itten auena, Koipe, eta harek ekarten usten honeik gomok, ibiltten zittuen hemorragiak eta lotzeko, ez dakitzu? Tubozko holako goma batzuk, holako tamaiñoako batzuk, eta tiragomie eitteko emuten usten hareik. Eta eukitzen zittuen harek katiuska elegantiek euken harek, narruzkuek. Eta ni mahaipien, haik armozten dazela hari katiuskai begire ibiltten nitzen.

11. Bestelako kontuak

11.1. Lehen gaueko eskubidea ukatu kondeari

- **Hizlaria(k):** Karetxe Urrejola, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ARA-111/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:00:47. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Historia orokorra
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Bestelako kontuak
- **Laburpena:** Oleta auzoko Katxelena baserrian jaio zen. Aramaioko Barajuen auzoan konde bat bizi zen. Kondeak herriko andreak ezkondu eta lehenengo gaua berarekin lo egitera behartzen zituen. Katxeleneko alaba batek uko egin zion. Kondeak auzitara eraman zuen emakumea, eta emakumeak auzia irabazi egin zuen. Kondearen hurrengoa dukea omen zen, eta harrezkero "Dukiarena" ere deitzen diote Katxelenari. Emakume haren ondorengoa da Pedro.

Transkripzioa

-Zela, Oleta auzuan zela dauko izena etxiak?

-Katxelena.

-Katxelena.

-Katxelena.

-Baiña atzo esan ostazun Dukiena, edo kondiena, edo zela esaten xaue?

-Bai. Hori da, hori da, lenaukuek esaten dauen moduen, hemen konde bat auen Aramaixon. Bajonen (Barajuenen). Konde bat bizi zan. Horrek berorrek obligetan zittuen henbra guztixek lehenengo gaba pasatzera

berakin.

-(Senidea) Ezkon barritten. Ezkontzen [zienien].

-Ezkon berritten.

-Bai, horri erderaz esaten xako “derecho de pernada”.

-E, bien. Orduen, hemeko batek, hemeko etxeko batek, negau in utsen / intzen/ hori. Ta emon utsen /emontzen/ plaittue berak honi. Ta honek in utsen /intzen/ irebazi. Kondiai.

-A, kondiari irabazi?

-Kondiai in utsen /intzen/ irebazi. Orduen, kondien hurrengokue zelan zan dukie, orduen ipini utsen /ipinitzen/ hori motioi honi etxioni, Dukiena.

-Orduen hemengo baserrittarrak duke bihurtu, ezta?

-Duke bihurtu. Ta harrezkero jarraitzen dau horrek Dukiena, hori motioi, etxiena.

-Ia, ia, ia, Dukiena. Eta hemengo kondieri frente in otsan hori, emakumia zan, edo gizakumia?

-Emakumia.

-Joño. Ta hor gero juiziuak egon zien edo?

-Juiziek egongo zien, orduen denporan, esaten dauen moduen, edo esaten eben moduen aurrekuek, ta hori esaten eban oniño ba ointsu hil zan gaixoren baten esaten eban hori. Ta in utsen /intzen/ irebazi kondiei. Ta orduen, kondie baiño dukie zelan hurrengoko zeraue dan, ipini utsien / ipinitzien/ hori motioi honi etxioi.

-Anda.

-Etxekuoni, hobeto esateko.

-Ia, ia.

-(Senidea) Honi [...].

-Eta hori zenbat urte, oin dala zenbat urte izango zan edo?

-Hori ezin neixu esan nik, horixe ezin neixu esan. Urte asko derrigor izen biher.

-Eta zu, nunbaitt, emakume haren umia zara, ezta?

-E, bai ba! Haren ondorik nator ni. Haren ondorik datorrena.

-Kontxo, kontxo. Balientia orduen e...

-Bai.

-Katzelenako andria.

-Bai. Ta hori ba sarri komentau dot nik hemen, ba, jentie ba, Katxelena esan ta ez dau ulertzen ezta? Ez dau aittuten zerak eta “Joño, nungue za?” o zera ta “Dukienekue” ia hemen inguruen danak dakixe ba Dukienekuek.

-Dukiena Azkoagan be badau, ezta?

-Dukiena Azkuagan dau. Baiña hau Dukiena hau da hango zereko, etorriko zeroi.

-Eta Barajuenen nun euen konde hori, ze etxetan edo?

-E, horixe ezin neixu esan. Zeiñetan ezin neixu esan, zeiñetan auen hori. Gero horren zera, horren zera, ba, gero aurrera jarraituko dutsut / jarraitukutzut/ zerien, ze horrek kondiorrek...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gaizkiulertua bizi guztian gogoan (ARA-006/004)

Herriko bati gertatutako gaizkiulertua. "Arranuek!" esan zioten eta berak "marranuek" ulertu.

2. Txalupa egiten ahalegindu zirenekoa (ARA-006/006)

Herriko mutil batzuei txalupa egitea bururatu zitzaaien kutxa baten taparekin. Errekan egin zuten lehen froga era ur azpira joan zitzaaien. Pasadizo horren inguruko kontuak. Garai hartan mutikoei bururatzen zitzaizkienak.

3. Herriko mutilak soldadu gerra garaian (ARA-006/009)

Gerra garaian soldaduak euren etxe inguruan egon zirela kontatzen du Julianek. Berak 6 urte zituen eta 16-17 urteko herriko soldadu batek tiroa botatzen erakutsi zion. Soldadu egon ziren herriko mutilak aipatzen dituzte.

4. Harriz betetako marmita behorraren buztanera lotu (ARA-006/011)

Herriko mutil batek marmita bat harriz bete eta behorrari lotu ei zion buztanera. Pasadizoa nola gertatu zen. Astoei ere lotzen omen zizkieten pote zaharrak buztanera.

5. Berriz ezkontzen ziren alargunei arranak (ARA-006/012)

Lehenago alargunak berriz ezkontzen zirenean arranak ipintzen edo jotzen omen zitzaizkien. Julianek kontatzen du Urkiolan ikusi berri duela antzeko egoera.

6. Bere jatetxea ireki zuen Bartzelonan (ARA-006/016)

Felisa Bartzelonara joan zen gaztetan, jatetxe batean lan egitera. Hango sukaldariak eta biek euren jatetxea ireki zuten gero. Ezkondu artean bakarrik lan egin zuen bertan, senarrak ez baitzuen nahi berak lan egitea.

7. Bartzelona gustatu arren, beti herrimina (ARA-006/017)

Bartzelona gustatzen zitzaion arren, beti izan zuen herrimina. Ama bizi zen artean, urtean birritan etortzen zen Aramaiora; gerora, urtean behin. Alargundu ostean, hasieran Bartzelonan bizi izan zen bakarrik, baina gero Aramaiora itzultzea erabaki zuen.

8. Bartzelonan jatetxea eta lotarako lekua (ARA-006/019)

Bartzelonan jatetxea non zuten azaltzen du. Euskaldunak joaten zitzaizkien gehienak. Gero, pisu bat ere bazuten jendeari lotarako tokia eskaintzeko. Ezkondu zenean, beste pisu batera joan ziren bizitzera, handik aparte. Senarrak nahikoa lan egin zuela ordura artean esaten zion. Nagusituta ezkondu zela dio.

9. Inguruko jatetxe gehienetan lan egina (ARA-006/021)

Inguruko jatetxe asko eta askotan ibili zen lanean: Ondarroan, Markinan, Arrasaten, Zarautzen, Logroñon.. Batzuetan jaietarako bakarrik joaten zen hiru edo lau egun pasatzera.

10. Aramaioko baserririk altuenak (ARA-006/024)

Aramaioko auzorik eta baserririk altuenak zeintzuk diren aipatzen dute. Antonioren emaztearen baserria ere altu omen dago.

11. Gerra garaian soldadu, batetik bestera (ARA-006/027)

Gerra garaian, soldadu zegoela, nondik nora ibili zen: Santandertik Asturiasera, gero Levantera. Katalunian hiru hilabete pasa ostean, Toledora. Azkenik, Toledotik Alacantera. Ibilbide guztia oinez egin zuten.

12. Gerra garaiko bizipenak (ARA-006/028)

Gerra iritsi zenean 19 urte zituen, eta orduantxe soldadu joateko zegoen. Nazionalekin ibili zen. Orduko bizipenak. Trenean sartu zituzten eta nora zihoazen ere ez zekiten. Italiarrekin harremana izan zuen.

13. Gerra hasieran arropa berriak eman zizkieten (ARA-006/030)

Gerra hasieran, Mirandara eraman zituztenean, arropak kenarazi eta arropa berriak eman zizkieten, gorbata eta guzti. Paseatzera joateko ere gorbata jantzi behar zuten. Italiarrekin batera egon ziren.

14. Kapitain albaitaria (ARA-006/031)

Gerra garaiko kontuak. Kapitain albaitariak laguntzaile bat eskatu zuen behin. Hark ez ei zuen frontierik ikusi; erabiltzen zituzten animaliak zaintzen ibiltzen ziren. Bartzelonatik Toledora bitartean lau mando galdu omen zitzaizkien, kamioitik erorita.

15. Behin frontean kanoikada jaso zuten (ARA-006/033)

Frontean bizi izandakoak. Behin bera, bi italiar eta Mirandako bat zeuden lekura kanoikada bat bota zieten. Italiarrei hankak moztu omen zitzaizkien. Berari eta Mirandakoari ez zitzaien ezer gertatu.

16. Baserriko lanaz gain, Arabako Aldundian (ARA-006/038)

Baserrian lan egin izan du beti, baina, horretaz gain, Arabako Aldundian lan egin zuen 31 urtez. 1958an hasi zen Aldundian.

17. Aramaioko alkate eta Aldundiko diputatu (ARA-006/040)

1972an Aramaioko alkate izendatu zuten eta zazpi urte egin zituen kargu horretan. 1979an Arabako Aldundiko diputatu egin zuten eta han beste lau urte pasa zituen. Berarentzat lan eroso izan omen zen, berak bestela ere Aldundian lan egiten zuelako. 60 urterekin hartu zuen erretiroa.

18. Aita zapatagilea (ARA-006/044)

Margaritaren aita zapata denda zuen eta amak ere laguntzen zion. Zapatak bertan egiten zituzten. Bortzegiak ei ziren euren espezialitatea. Oinetako onak egiten zituztela aipatzen dute. Nola egiten zituzten oinetakoak neurria.

19. Zapatei ferrak jartzen zizkien aita (ARA-006/045)

Margaritaren aita inguru guztietako bezeroak zituen. Inguru guztiko abadeei ere egiten zizkien oinetakoak eta baita medikuari ere. Oinetakoei ferrak jartzen omen zitzaizkien, erdiak edo osoak.

20. Oinetakoak nola garbitu eta sikatu (ARA-006/046)

Aita erakutsita, ondo garbitu behar izaten zituzten oinetakoak. Eta bustita zeudenean, haizetan sikatu; inoiz ere ez sutondoan ipinita.

21. Aita larrua osorik ekartzen zuen zapatak egiteko (ARA-006/047)

Margaritaren aita, zapatak egiteko, larrua erosten zuen lehenbizi. Aita josten zituen, gero aita zapatak egiteko. Zapatak saldu egiten zituen hasieran aita, baina segituan konpontzera ekartzen zizkiotela eta nahiago izaten zuen oinetakoak berak egitea, neurrira.

22. Gerra garaian estraperloari esker zapatak egiten (ARA-006/048)

Gerra garaian Margaritaren aita nola konpontzen zen estraperloari esker zapatak egiteko.

23. Zapatak egiteko larruak (ARA-006/049)

Margaritaren aita larru osoak ekartzen zituen zapatak egiteko. Zatiak gero konponketetarako gordetzen zituen. Zapatagintzaren inguruko azalpenak. Julianek larruak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

24. Hagina jausten zeneko ohitura (ARA-010/005)

Hagina jausitakoan, sutara botatzea zen ohitura.

25. Ogiaren inguruko ohitura zaharrak (ARA-010/006)

Ogia nola mozten zen. Buelta emanda egonez gero, zorte txarra ematen zuela esaten zen. Bere garaian etxeko guztiak erditik jaten zuten. Ogi zatiren bat lurrera jausiz gero, jaso, mun egin eta aitaren esaten zen.

26. Lexiko kontuak: hil vs "akabau" (ARA-010/007)

Etxeko animalia (jatekoa dena) hil egiten da; basokoa, "akabau".

27. Fauna eta meteorologia: esaera zaharrak (ARA-010/008)

Kukua azaltzen denean, udaberria datorrela esan nahi du. Zozoak... berdin. Antzarrak doazenean, udazkena datorrela. Sugeak agertzen direnean, trumoiak ekartzen dute. Oilarrak kantuan egiten duenean (eta gauez denean, are gehiago), eguraldi txarra datorrela esaten da. Ahuntzak, behorrak... basotik edo menditik behera datozenean, eguraldi txarra (elurra) datorren seinale da.

28. Tximisten inguruko kontuak (ARA-010/009)

Supersitizoak. Tximista dagoenean, arbolapea txarra dela dio. Aizkora, sardak... oso arriskutsuak direla dio; ganaduen adarrak ere tximista tiratzen omen dute.

29. Ohitura zaharrak eta sinesmenak (ARA-010/010)

Kutuna edo "amuletoa" a. Eskapularioak. San Blas kordioa. Lehenago etxekoren bat hiltzen zenean, kandela bedeinkatua pizten zen eta ur bedeinkatua botatzen zen. Ohiturak asko aldatu dira; gaurko gazteak.

30. Sinesmenak (ARA-010/012)

"Begitentziñue", erdarazko "mal de ojo".

31. Ogiaren bedeinkazioa (ARA-010/015)

Lehenago labako sua egiten zen 15 egunean behin. Jan aurretik, gurutzea egiten zitzaion.

32. Errege eguna; Gabonetako ibilerak (ARA-010/016)

Etxeko leihoetan jana ipintzen zen, hozteko edo fresko mantentzeko. Errege egunean, zapatak ipintzen zituzten opariak jasotzeko. Errondak Gabonetan. Gaztetako ibilerak; xelebrekeriak.

33. Ohitura zaharrak eta sinesmenak (ARA-010/018)

Pertsona bat gaixorik egonez gero, haren arropak bedeinkatzeko ohitura zegoen. San Felice. Garitxoak sendatzeko erremedioak; sinesmenak. Hagineko mina sendatzeko Urkiolako ermita bati buelta eman behar zaio. Amets gaiztoak desagerrarazteko erremedioak. Umeak hitz egiten hasteko ohitura zaharra.

34. Sinesmenak eta ohitura zaharrak (ARA-010/019)

Ganaduek gaitzik izan ez dezaten, kortan San Antonioren iruditxo bat ipintzeko ohitura. Gaixotasunen bat badago, karearekin garbitu.

35. Arropak noiz estreinatzen zituzten (ARA-010/021)

Arropak estreinatzeko data bereziak zeuden lehenago. Abriguak, Domu Santu Egunean estreinatzen ziren; trajeak, Aste Santuan. Bergarako pazkoak.

36. Ilargiaren inguruko sineskerak (ARA-010/022)

Ilea mozteko ilargiari begiratzen zitzaion; ilbehera izaten da garairik onena. Azazkalak noiz moztu.

37. Lixiba; lihozko arropak (ARA-010/023)

Amandreak lihoa (linua) nola iruten zuen. Gauean inguruko baserrietakoak elkartzen ziren gorutan egiteko. Ehunezko izarak. Lixibaren inguruko kontuak; prozesuaren azalpena. Lehenago izarak edo arropak apurtuz gero, konpondu egiten ziren; egun, gauzak asko aldatu dira. Lexiko interesgarria.

38. Zorte txarra ematen duen eguna (ARA-010/024)

Bidaiaren bat egin behar bada, badaude egun batzuk zorte txarra ematen dutenak. Asteartea eta 13.

39. Ostiral Santu eguneko ohitura zaharra (ARA-010/025)

Ostiral Santu eguneko ohitura zaharrak: idiak ez ziren uztarran lotzen. Eliza ondoan, zerrenda bat ipintzen zen. Bizilagun bakoitzak ordu erdiz zaintzen zuen kaliza. Behin, aita garotara joan eta gertatu zitzaiona.

40. Garizuma eta bijilia (ARA-010/026)

Garizumako ostiraletan bijilia egiten zen. Ostiral Santu egunean ez zen haragirik jaten.

41. Ilargiaren eragina zuhaitzak botatzeko orduan (ARA-010/027)

Sua egiteko egurra ilbeheran bota behar da. Materialerako egurra ere, ilbeheran ebaki behar da. Egurra "tolestaute". "Trontza-zerrie", zuhaitzak botatzeko erabiltzen ziren. Lehenagoko lanak astunak izaten ziren.

42. Laminak; Anbotoko dama (ARA-011/002)

Laminen inguruko kontu batzuk entzun izan ditu, baina gutxi. Anbotoko dama.

43. Umeak beldurtzeko pertsonaiak (ARA-011/004)

Umea beldurtzeko "sakamantekie" etorriko zela esaten zitzaion; ijitoak zetoze...

44. Bedeinkazioak; sinesmenak (ARA-011/005)

Tximistak etxea ez joteko ur-bedeinkatua eta kandela-bedeinkatua erabiltzen dituzte. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzeko ohitura.

45. Urkiolako San Antonio; ohitura zaharrak (ARA-011/006)

San Antonio egunean, Urkiolara erromeriara. Oraindik ere garrantzi handia duen jaia da. Aurreko igandean prozesioa egoten da. Aitonak zioenez, San Antoniori etxea egiteko harria eraman behar zitzaion.

46. Hagina jausitakoan, sutara botatzen zen (ARA-011/007)

Hagina jausten zenean, sutara botatzeko ohitura. Orduan esaten zen esaera.

47. Antzinako ipuinak; Anbotoko "señorie" (ARA-011/009)

Kondearen inguruko istorio zaharra. Anbotoko "señorie".

48. Ohitura zaharrak (ARA-011/010)

Kukua azaltzen denean, ohitura zaharra.

49. Sugeen inguruko aipamenak (ARA-011/011)

Sugeen inguruko azalpenak.

50. Antzinako esaerak (ARA-011/012)

Antzarrak pasatzen direnean, eguraldi txarra datorrela esn ohi da.

51. Antzinako esaerak (ARA-011/013)

Belarria gorritzen denean, norbait gaizki esaka dagoela.

52. Antzinako sinesmenak (ARA-011/014)

Ogia lurrera jausiz gero, aitaren egin eta mun maten zitzaion.

53. Umeei kutuna jartzen zitzaien (ARA-011/017)

"Kutuna"; ume txikiei ipintzen zitzaien.

54. Basoko animaliak, etxekoak (ARA-011/018)

"Akabau" vs. "hil". Basoko animaliak; etxekoak.

55. Arropak estreinatzeko garaia (ARA-011/024)

Arropak urteko zein sasotan estrenatzen ziren.

56. Antzinako erremedioak (ARA-011/025)

"Garixe" edo garatxoa (erdarazko verruga) kentzeko zer egiten zen.

57. Linuarekin haria nola egiten zen (ARA-011/026)

Linuarekin haria nola egiten zen. Prozesua azaltzen du.

58. Ipuin zaharra: sugea eta behia (ARA-011/027)

Ipuin zaharra. Sugeak behiari esnea edaten zion kontu zaharra.

59. Gaixoen inguruko sinesmen zaharra (ARA-011/028)

Pertsona bat gaixorik zegoenean, haren arropak bedeinkatzeko ohitura zegoela entzun izan du.

60. Begizkoaren inguruko aipamena (ARA-011/029)

"Begitantziñua" edo begizkoa. Abereekin egiten zela entzun izan du.

61. Sinesmenak (ARA-011/031)

Belarrian entzuten den zaratari ematen zaion izena.

62. Gabonetko ogia; bedeinkazioa (ARA-011/033)

Gabonetan ogi berezi bat egiten zen. Lexiko interesgarria. Ogia nola bedeinkatzen zuten etxean; gurutzea egin.

63. Garo-ebatea (ARA-011/035)

Garoa mozteko sasoi egokia.

64. Sinesmen zaharrak; bedeinkazioak (ARA-011/037)

Ekaitza datorrenean, kandela bedeinkatua ipintzen zen. Esaera zaharra.

65. Amets txarrak uxatzeko esaera (ARA-011/038)

Gauean amets txarrik ez izateko zer esaten zen.

66. Marokon soldadu (ARA-013/002)

Marokon (Afrika) egin zuen soldadutza. Tetuanen eta Chaouenen egon zen. 15 hilabetera lizentziatu eta bueltatu zen etxera, eta, etxean bi hilabete egin eta

gero, maniobretara joateko abisua jaso zuen. Felipe Afrikara joan zenerako taldea maniobratara aterata zegoen, eta "paisano" pasatu zuen hilabete.

67. Lurren bedeinkazioak (ARA-013/009)

San Juan bezperetan auzoko abadea joaten zen auzoko baserri guztietara soroak bedeinkatzera. Bedeinkazioaren ordain moduan, oilasko bat ematen zioten. Etxe ondotik bedeinkatzen zituen lur guztiak. Erramu Egunean, erramuak elizan uzten zituzten, eta bertan egoten ziren Aste Santua pasa arte. Gero, Pazku Astean, baserrira eraman eta soro, ortu eta zelaia bedeinkatzen zituzten sahatsez egindako gurutzeekin, ur bedeinkatuarekin eta txingarrarekin. Kandelaren argizariarekin gurutzeak egiten zituzten leihoetan eta ateetan hodeiak eta oinaztuak ez zitezen sartu. Sua ere bedeinkatzen zuten.

68. Etxea babesteko bedeinkazioak (ARA-013/010)

Lehen, ohe gainean ur bedeinkatuarentzako ontzitxo batzuk edukitzen zituzten (ur horrekin aitaren egiteko). Marmitakada bat ur bedeinkatu eramaten zuten baserrira. Pazko Bezperan egiten ziren bedeinkazioei buruzko azalpenak. Etxea babesteko gurutzeak: sahatsez egindakoak. Sahats arbolak non hazten diren. "Kruzegaixe", gurutzeak egiteko adar kuriosoak.

69. San Juanak: sua (ARA-013/013)

Baserri bakoitzak bere sua egiten zuen soro batean. Santa Agedatxo ermita ondoan ere sua egiten zuten; Aramaio denean ikusteko moduan. Gazteek suaren gainetik salto egiten zuten.

70. San Juanak: San Juan lore-sorta (ARA-013/014)

San Juan Egunean lore-sorta bat eramaten zuten elizara bedeinkatzera. San Juan lorak, larrosak... biltzen zituzten. San Juan lore-sorta esaten zioten. Ganbaran gordetzen zuten sorta, lehor zedin. Gero, hurrengo urtean, sutara botatzen zuten lore-sorta. Modu horretan, etxeari San Juanen bedeinkazioa ematen zitzaion.

71. Auzo bakoitzak bere abadea (ARA-013/015)

Auzo bakoitzak bere ermitan egiten zuen San Juanetako bedeinkazioa. Auzo bakoitzean abade bat zegoen; kalean, berriz, bi.

72. Auzoetako jaiak (ARA-013/016)

Andramarietan, Barajuengo festetara joaten ziren. Santa Marina egunean, berriz, Areixolara joaten ziren. Etxaguengo festetara gutxiago joaten ziren. Ermintetako festak. Azkoagako San Juanak gaur egun.

73. San Juanak: erromeria (ARA-013/017)

Azkoagako jaietan, San Juan aurreko jaian egiten zen erromeria, arratsaldetik ilunabarrera arte. Gerra aurretik, gazteen artean borrokak sortzen omen ziren...

74. Erromeriak (ARA-013/018)

Erromeriak nolakoak izaten ziren. Soinujoleak: Felix "Itsua", Julian (Felixen anaia), Isaak... Dantza egiteagatik ordaindu egin behar izaten zen. Ateratako diruarekin soinujoleari ordaintzen zitzaion. Jendeak dantza asko egiten zuen.

75. Aste Santua: "Tarrakatadie" (ARA-013/019)

Eguen Santu goizean mezara joateko jotzen zen kanpaia, eta Pazko Egunean kanpaia jo arte ez zen gehiago kanpairik jotzen. Tarteko egunetan, mezara joateko, karrakak jotzen zituzten monagiloek. Karraka edo "tarrakatadie" esaten zioten.

76. Aste Santua: kanpaiak entzun eta lanari utzi (ARA-013/020)

Aste Santuko bedeinkazioak. Larunbat goizean egiten ziren, elizpean. Kanpaiak jotzen zuenean, baserritarrek lanari uzten zioten berriz kanpaiak jo arte (egun pare bat izaten ziren; Eguen eta Bariku Santue).

77. San Blasen bedeinkazioa (ARA-013/021)

San Blasetan, ogia, artoa, pastelak... bedeinkatzen ziren elizan. Jan aurretik, aitagure bat errezatzen zuten. Ez zuten ogirik bedeinkatzen jan aurretik.

78. Gabonetan, ardo tostada (ARA-013/022)

Gabon-gauean, ardotan bustitako tostada jateko ohitura zuten. Gabonetako jakia: konpota makatzarekin.

79. San Juanak: ira berdea atarian (ARA-013/024)

San Juan goizean, ira berdea atarian botatzeko ohitura zuten. Arantzazko gurutzea ere jartzen zuten atean egun horretan. San Juanetako beste ohitura bat: San Juan Egunean, esnatu ostean, ortozik zelaitik buelta bat ematea osasunarentzako ona zelako, baina Feliperen etxean ez zuten egiten.

80. Arantza zuria eta arantza beltza (ARA-013/025)

Arantza zuria (elorrria) eta arantza beltza. Ezaugarriak, fruituak (aranak) eta ezberdintasunak.

81. Laminategi (ARA-013/026)

Etxean entzundako kondairak. Laminategi izeneko soro bat bada inguruetan. Orduko kontuek diote laminak dantzan ibiltzen zirela soro horretan. Laminak nolakoak izaten ziren.

82. Sorginzubi (ARA-013/027)

Sorginzubi izenaren jatorria. Sorginei buruzko kondairak. Etxean entzundako kondairak. Laminak, muti

83. Sorginak eta laminak (ARA-013/028)

Laminak: neska ederrak, mutilak engainatzen zituzten eta erreka-ertzetan egoten ziren. Sorginak: gauez ibiltzen ziren, eta neska-mutikoak beldurtzen zituzten.

84. "Anbotoko señoie" (ARA-013/029)

"Anbotoko señoie"ri buruzko kontuak.

85. Laminategi, erreka eta etxe zaharrenak (ARA-013/030)

Laminategi soroa non dagoen kontatzen du. Bi erreka inguratzen dute: biak Altzagako erreka dira. Induspe erreka. Aramaioko lehenengoko etxeak.

86. Frantsesen urrea (ARA-013/032)

Antzinako gerretan, frantsesen gerretan-eta, urrea gordeta utzi omen zuten frantsesek Jarindon, Gantzagan eta Aramaiotik beherako erreka bazterreko "arteroixen".

87. Kutunak eta eskapularioak (ARA-013/033)

Eskapularioak eta kutunak ipintzen zitzaizkien haurrei. Karmengo Amaren medaila edo "eskupaixoa" erabiltzen zuten mutikotan.

88. Txori-kantak (ARA-013/034)

Okilak kantatzen duenean, euria egiten duela esaten da. Hontzak udan, eguerdian, kantatzen badu, euria egiten duela esaten da.

89. Antzarak, usoak eta hegaberak (ARA-013/035)

Antzarak pasatzen direnean, eguraldi txarra datorren seinale. Usoak pasatuz gero, udazkena negu aldera... Hegaberak ere eguraldi hotzak eta itsaso txarren adierazle.

90. Larra-txoriak eta ota-txoriak (ARA-013/036)

Desagertutako txori klaseak: Larra-txoria, ota-txoria... Txori horien ezaugarriak, hegaldiak, kantua... Tximotxak.

91. Aste Santua: kukuaren kanta eta "txikolan" (ARA-013/037)

Kukua Pazko aurretik etortzen zen. Esaera: "tanbolitteruai irabazi hotzak kukuak!", Aste Santuan ez zen danbolinik jotzen eta. Aste Santuan, mutikoak "txikolan edo txirikolan" ibiltzen ziren jolasean. "Txirikolan" nola jolasten zuten azaltzen du. Garizumako jolasak. Herriko "tanbolintteruari" buruzko kontuak.

92. Lehengo Ibarra (ARA-016/002)

Miren 1918. urtean jaio zen, Iturroste baserrian. Kaleko baserria zen: kanean egon arren, behiak zituzten. Ibarra, bera gaztea zenean, kale bakarra zegoen. Kanean bizi ziren gehienak baserritarrak ziren: baratzetik eta abereetatik bizi ziren. Hala ere, denda eta taberna gehiago omen zeuden Miren gaztea zenean.

93. Arrasaterekin harreman handiagoa (ARA-016/003)

Arrasaterekin harreman handia izan dute beti. Euskaraz ere gipuzkeraz egiten dutela dio Mirenek, Arabarrekin harreman gutxiago zutelako.

94. Ibarako eskolak (ARA-016/004)

Eskolara neskak eta mutilak bananduta joaten ziren Ibarra. Hamalau urte bete arte ibili zen Miren eskolan. Oroitzapen ona du Nafarroako irakasle batena. Herriko eskolaz aparte, auzoetan ere eskolak zeuden.

95. Merkatura inguruko herrietara (ARA-016/005)

Ibarratik Arrasatera joateko zaldiek tiratutako karroa joaten zela gogoratzen du. Ostiraletan plazara joaten ziren etxean geratzen zena saltzera. Igandetan, Otxandiora ere joaten zen Mirenen ama.

96. Ibarra euskara (ARA-016/006)

Arabako herrietan euskaraz egiten ez zuten eta harreman handiagoa Arrasaterekin zuten Gipuzkoako euskara egiten zutela dio Mirenek.

97. Etxeko idiak errekadutarako (ARA-016/011)

Mirenen etxeko idiak errekaduak egiteko erabiltzen zituzten. Eskolako mahaia ekartzeko erabili zituztela oroitzen du.

98. San Juanak Ibarra (ARA-016/012)

San Juanetan sua egiteko ohitura izan dute beti. Plaza erdian su handi bat egiten zuten, eta inguruan kantuan eta salto egiten zuten. Gehienak mutilak izaten zirela dio Mirenek. Meza eta arrosarioa izaten zen arratsaldean.

99. Udaberriko bedeinkazioak (ARA-016/013)

Udaberrian soroak bedeinkatzeko meza bereziak egiten zituzten auzoetan eta herrian bertan ere. Trumoiaren kontra egiteko ura bedeinkatzen zutela kontatzen du Mirenek.

100. San Joanetako ohiturak (ARA-016/014)

San Joanetan garo berdea etxe aurrean bota, eta gurutze bat egiten zela oroitzen du Mirenek. Urte guztian edukitzen zen gurutzea. Soroan oin-hutsik ibiltzeko ohitura ere bazegoela gogoratzen du.

101. Bajongo kondearen istorioa (ARA-016/016)

Lami edo sorginen ipuinak ez ditu ezagutzen Morenek. Bera gazte zenerako pasatuta zeudela dio. Bajongo kondearen istorioa kontatzen du Mirenek.

102. Ogiaren erritua (ARA-016/017)

Ogiaren inguruko erritua kontatzen ditu Mirenek. Hasi aurretik gurutzea egiten zitzaion.

103. San Sebastian eguna (ARA-016/020)

San Sebastian egunean nobena egin eta gero dantzaldia izaten zuten. Tanborila eta soinua egon ohi ziren, herriko Roke zein Arrasatekoak etortzen ziren.

104. Oletako auzoarekin harremanik ez (ARA-016/022)

Oletako jaiak Bajongoko jaiekin batera izaten zirenez ez zuten ohiturarik joateko. Otxandiora joaten zirenez ez zuten Oleta auzoko gazteekin harremanik.

105. Ilargiaren gorabeherak (ARA-016/023)

Ilargiaren inguruko ohiturak azaltzen ditu Mirenek. Ilbeheran arbolak moztu edo txerriak hiltzen dira.

106. Etxeko denbora pasak (ARA-016/025)

Arrosarioa egunero errezatzen zuten etxean. Aitak erakutsi zion, eta Gabonetan kankar abesten zituzten.

107. Ura bedeinkatua (ARA-016/030)

Ura San Joanetan bedeinkatzen zen. Elizan bedeinkatu eta bakoitzak etxera eramaten zuen oherakoan aitaren egiteko.

108. Antzinako bizimodua (ARA-037/002)

Eustaki Agiriano. Senarra, Aretxabaletakoa. Palazioko alaba, bertan bizi da oraindik ere. Baserriko bizimodua, gogorra. Seme-alaba asko; gehienak etxean jaiotakoak.

109. 'Pernando amezketarra'ren ipuinak (ARA-037/007)

Aitak ipuin asko kontatzen zituen. Pernando amezketarraren ipuinak.

110. 'Pernando amezketarra'ren ipuinak (ARA-037/008)

Pernando amezketarraren ipuinak.

111. Gaztetako ibilerak; errondak (ARA-037/014)

Gabonetako errondak. Gazteen gaiztakeriak.

112. Mutil-taldeen arteko borrokak (ARA-037/016)

Gaztetako ibilerak. Inguruko auzoetako mutil-taldeen arteko borrokak.

113. Umeen arteko borrokak (ARA-037/017)

Inguruko auzoetako umeen arteko borrokak.

114. Umetako kontua (ARA-037/019)

Umetako kontua; abadearekin gertatutakoa.

115. Sugeen inguruko beste kontu batzuk (ARA-037/024)

"Txirringolia". Sugeen inguruko beste kontu batzuk.

116. Muskerren inguruko esaera (ARA-037/028)

Muskerren inguruko esaera.

117. "Narru"ren istorioa (ARA-037/031)

"Narru"ren istorioa.

118. Abadeak umeei kontatzen zien ipuina (ARA-037/034)

Abadeak umeei kontatzen zien istorioa. Elizaren, erlijioaren indarra.

119. Izarrak (ARA-037/036)

Izarren inguruko kontakizuna.

120. Izar buztanduna (ARA-037/037)

Izar buztandunaren inguruko kontakizuna.

121. Barajaungo kondea (ARA-050/003)

Barajaungo kondeari buruzko kontuak. Garai bateko esaera: ezkondu behar zuen emakumeak, lehenengo gaua kondearekin pasatu behar zuen.

122. Lamiak eta ur-txakurrak, erreka bazterretan (ARA-050/005)

Lamiei eta ur-txakurrei buruzko kontuak. Aramaio inguruko erreketan ibiltzen zirela esan ohi zien. Ur-txakurrak nolakoak ziren azaltzen dute: bizarrarekin eta ahoan sua ("argixe letxe"). Lamien kontuak esaten zizkien beldurtzeko, etxera goiz bueltatzeko...

123. Hontzaren uluarekin beldurtu (ARA-050/006)

Gauetz etxeratu behar zutenean, hontzaren uluarekin beldurtu egiten ziren.

124. Penitenteak (ARA-050/008)

Denboraldi batean, bide bazterretan penitenteak ibiltzen ziren gauetz. Alde batera eta bestera ibiltzen ziren, pausoa konpasean eramanez: kateekin zarata egiten zuten. Penitenteen sineskerak. Herrian hiru familia behintzat baziren era horretako penitentziak egiten zituztenak. Abade jantzita ibiltzen ziren, eta bidean norbait topatuz gero, katearekin jotzen zuten.

125. Kukua eta dirua (ARA-050/009)

Udaberriko esaera. Kukuak lehenengo jotzen duenean, haren kanta entzun eta poltsikoan dirua duenak, urte guztirako oparotasuna.

126. "Erleekin, geldi!" (ARA-050/010)

Erleek kortan abia eginez gero, errespetzeko ohitura. Erleak Ama Birjinari zamarretik begia atera ziola esaten zien gurasoek.

127. Baserrian kalteak eragiten zituzten animaliak (ARA-050/011)

Baserrian eta bertako abereei kalteak eragiten zizkien animaliak: sugeak (pozoiaz), azeriak, azkonarrak... Pozoiagatik ganaduari botika eman beharra. Azeriren bat harrapatzen zenean, azeriari lau hankak lotu eta eskean baserriz baserri joaten zen hura harrapatu zuena, guztientzat mesedea baitzen azeria harrapatzea.

128. Saguzaharrak harrapatzen (ARA-050/012)

Kortan saguzaharrak egoten ziren, eta haiek harrapatu nahian ibiltzen ziren umetan. Beraientzat jolasa zen saguzaharrak harrapatzea.

129. Erlezaintza (ARA-050/014)

Erlezaintzari buruzko azalpenak. Negu txarra pasatuz gero, erleak goseak egoten ziren udaberrian. Horregatik, eztia edota esnea azukrearekin ipintzen zieten. Irailean, eztia batzen zuten. Ganaduaren bekorotzaz sua piztu eta haren kea hauspoaz botatzen zuten erlauntzera. Erlekumeak zaintzea.

130. Sendabelarrak eta enplastoak (ARA-050/015)

Amandreak sendabelarrak erabiltzen zituen. Benda-belarra, erlakiztenak sendatzeko. Enplastoak: sendabelarra, olio apur bat, tipula eta arrautza zuringoarekin eginda. Aipatutako sendabelarrak: berbena, pasmo-belarra...

131. Rosali "kurandera" eta "mediku zaharra" (ARA-050/016)

Rosali eta, aurretik, bere ama izan ziren herriko "kuranderak" (petrikiloak). Partera lanetan ere ibiltzen zen Rosali: astoan eta motorrean eramaten zuten batera eta bestera. "Mediku zaharra" esaten ziotena oinez ibiltzen batera eta bestera. "Mediku zaharra"ren janzkera nolakoa zen aipatzen dute.

132. Ortuak bedeinkatzea (ARA-050/018)

San Juan bezperetan abadeak ortuak bedeinkatzen zituen. Bedeinkazio horren ordainetan, oilasko bat (txikia bazen, bi) eta esnea ematen zioten abadeari.

133. Elizako hilerriak (ARA-050/019)

Elizan hilerriak zeuden. Hilerri horiek kandlekin eta lazo beltzekin egoten ziren. Auzo bakoitzak bere hilerria zeukan. Hilerrira dirua botatzen zen. Erresponstua.

134. Olatak (ARA-050/020)

Olata: hiru puntako ogia. Domeka guztietan bat eraman behar izaten zuten elizara. Abadearen "amakasak" (serora) zaku zuri batean jasotzen zituen olatak hilerri guztietan.

135. Abadeari entregatu beharrekoak (ARA-050/021)

Familian zenbat hildako, hainbeste gari eman behar zitzaion abadeari. Artoa eta egurra ere eramaten zioten. Txerria hiltzen zenean, odolkiak ematen zizkieten.

136. Hiletako ohitura (ARA-050/022)

Hiletei buruzko azalpena. Etxean norbait hiltzen zenean, zimitzezko zesto lauki batean arizko mantel bat jartzen zen. Bertan ogi bat sartu eta beste oihal batekin estaltzen zen. Gero, familiako pertsona nagusi batek zorkiaz buru gainean eramaten zuen otarra elizara. Elizan, hilkutxaren ondoan egoten zen otarra. Ondoren, hilkutxarekin batera eramaten zen otarra kanposantura: han aldarean lagatzen zen otarra.

137. Ogiari musu eman eta gurutzea egin (ARA-050/023)

Ogia lurrera erortzen bazen, musu ematen zioten ogiari. Ogia ebaki aurretik, labanarekin gurutzea egiten zioten.

138. San Juanetan, lore-sorta bedeinkatu (ARA-050/025)

San Juan Egunean lore-sorta bat eramaten zuten elizara. San Juan lorak, larrosak, liliak... batzen zituzten sortan. Lore-sorta bedeinkatu egiten zen. Bedeinkatu ondoren, baserriko ate alboan exekitzen zen sorta, eta lurrera ira berdea botatzen zen.

139. Oinaztuen kontra, elur-arantza (ARA-050/026)

San Juan bezperan, sua egiten zen. Oinaztuen kontra, elur-arantza ipintzen zen baserriko atean.

140. Erramuarekin lotutako ohiturak (ARA-050/027)

Erramua bedeinkatzeko ohitura zuten. Hainbeste soro eta landa, hainbeste erramu gurutze egiten ziren: bedeinkatu ondoren, soroetan eta etxean jartzen ziren. Etxeko norbait hiltzen zenean, edalontzi batean ur bedeinkatua eta erramua jartzen ziren. Hilotza ikustera joaten zirenek, gurutzea egiten zuten hilkutxan erramuarekin.

141. San Juan sua (ARA-050/029)

San Juan bezperan, sua egiten zuten. Hilabete lehenago hasten ziren sua egiteko egurrak, narrak, otak... biltzen. Aurreko urtean bedeinkatutako lore-sorta sutara botatzen zen. Intxaurrak topatuta eduki, sutara botatzerakoan tiroa bota zezaten. Suaren gainean saltoka aritzen ziren.

142. Ogia nola egin (ARA-050/030)

Ogia nola egiten zuten azaltzen dute. "Eramaixe", galbahea, labe-sua... Sua egiteko pago-egurra erabiltzen zuten gehien bat. Labeko txingarrekin, sagarrak erretzen zituzten.

143. Mokotza, Garizuman (ARA-050/031)

Mokotza, hiru puntako opila: txorizoa, arrautza bi eta sagarrak edukitzen ditu. Garizuman egiten zen: aitapontekoek eta amapontekoek oparitzen zioten besoetakoari.

144. Ogiari buruzkoak (ARA-050/032)

Baserrian ogi ederra egiten zuten. Ez zuten kanpoan saltzen. Zapatuetan egiten zuten labe-sua. Astea bukatzerako ogi faltan gelditzen zirenean, auzokoei eskatzen zioten (ogia pisatu egiten zen). Gero, ogia egindakoan, bueltan eramaten zioten.

145. Lixiba egitea (ARA-050/033)

Lixiba nola egiten zen. Lixiba-harria. Sutako hautsa. Hamabostean behin egiten zuten lixiba.

146. Etxeko zereginak (ARA-050/034)

Baserriko eta etxeko emakumeen zereginak. Etxerako, kortarako, sororako... izaten zen emakumea. Gizonezkoak ez zuen etxe barruko lanik egiten. Gizonen lana: ardo-zaragia gastatzen zenean, beteta ekartzea.

147. Koñaka eta anisa (ARA-050/035)

Lehen, patxarana edateko ohitura gutxi. Koñaka eta anisa edaten zen. Kafeari anis tantatxo batzuk botatzeko ohitura.

148. Jatorduak (ARA-050/036)

Garia ebaki behar zenean, "armosua" zesto batean eramaten zen sorora.

"Armosua": berakatz-zopa edota esnea zopekin. Bazkaltzera etxera bueltatzen ziren. Eguneroko bazkaria: babak, txorizo eta urdaiarekin. Afaltzeko: porru-patatak, patatak txorizoarekin, gaztaina edo sagar erreak eta esnea...

149. Lo egin aurreko ohiturak (ARA-050/037)

Ohera joan baino lehen, arrosarioa erretzea. Arto-zuriketan, arrosarioa erreztatzeko ohitura. Sagarra jatea ona omen da ametsetan ez egiteko. Lo ona izateko, goiz afaltzea hobe.

150. Errobatibak Urkiolan (ARA-050/039)

San Antonio Eguna baino 15 egun lehenago, errogatiba egiten zen Urkiolan. Ohitura: Urkiolara bidean, Anboto ondoko harrobietan pasatzean, harri bana hartzen zuten "eliza gora altxatzeko". Urkiolan bazkaltzen zuten. Bazkal ostean, arrosarioa erreztatzen zen prozesioan.

151. Harriari bueltak ematea, nobioa eskatzeko (ARA-050/040)

Urkiolako harriari buruz hitz egiten dute. Gerora jarritako harria dela diote. Harri horri bueltak ematea, nobioa eskatzeko. Esaerak.

152. San Kristobalgo ermita (ARA-050/041)

San Kristobalgo ermitan olio egoten da belarriko mina duenari hura igurtzi eta sendatzeko. San Kristobal gidarien patroia da: ermita horretan autoak bedeinkatu izan dira. San Kristobalgo erromeria.

153. Santa Poloniako ura, hagineko minarentzat (ARA-050/042)

Urte guztian haginetak minak ez edukitzeko Urkiolako Santa Poloniako ura. Ahoan bueltaka ibilitako ura ermita barrura bota behar zen.

154. Zotinari buruzko esaerak (ARA-050/043)

Zotinari buruzko esaerak: "gazteak bizitzeko eta zaharrak hiltzeko" eta "zer ostu da?".

155. Doministiku egitean, "traukalas" esatea (ARA-050/044)

Norbaitek doministiku egitean, "traukalas" esatea.

156. Ilargiari begiratzea, baserriko lanetarako (ARA-050/045)

Baserriko lanetarako ilargiari begiratzea. Soroko lanetarako (haziak ereiteko, patata, tipula ateratzeko...), txerria hiltzeko (ilbeheran)... begiratzen zioten ilargiari. Ilea eta atzalak mozteko eta egurra botatzeko ere bai.

157. Hagina jausitakoan, sutara edo teilatura (ARA-050/046)

Hagin bat jausten zenean zer egiten zuten. Beheko hagina bazen, sutara botatzen zuten. Eta goikoa bazen, teilatura botatzeko esaten zieten.

158. Oletako oilarren kondaira (ARA-050/047)

Aramaioiko Oleta auzoko oilarren kondaira.

159. Gudako aztarnak (ARA-050/050)

Aramaion frontea egon zeneko kontuak. Gudako aztarnak Asentzion eta Ganborralden. Frontean hildako asko egon ziren paraje horietan.

160. Franco ikustera, Gasteizera (ARA-050/051)

Diktadura garaiko kontuak. Franco ikustera, Gasteizera. Autobusa jartzen zien hara joateko.

161. Autobusa eta trena (ARA-050/052)

Lehen, kotxerik ez zegoen. Autobusa, astean behin egoten zen. Trenez ere joaten ziren Gasteizera. Oinez Arrasatera, han trena hartzeko.

162. Martin apaiz ehiztariarena (ARA-059/003)

Arto zuriketa egiten zuten iluntzean, baina ipuinak kontatzeko ohitura handirik ez zuten. Martin abadea, meza emateari utzi eta ehizara joan zena. Fernando amezketarraren kontuak.

163. Infernuarekin beldurtuta (ARA-059/008)

Sermoietan esaten zuten ezustean etorriko zela munduaren akabera, azken epaiketa. Zerua, infernua eta purgatorioa. Kalbarioak. Beldurra sartzen zieten. Misioak egoten ziren garizuman. Turuta hotsak, sua eta deabrua sardearekin, nola ez beldurtu! Lehen jaunartzerako ere otoitzak ikasi behar ziren. Orain dena ezberdina da.

164. Anbotoko "señoria" (ARA-059/010)

Hodeia zegoenean, Anbotoko "señoria" haserre zegoela esaten zuten.

165. San Isidro, soroko laguntzailea (ARA-059/014)

San Isidrok laguntzen du soroko lanetan. Aingeruek egin zioten goldean behin, berak otoitz egiten zituen bitartean. Txikitatik entzun du istorio hori.

166. Gaztaren ipuina (ARA-059/019)

Putzuan gazta ikusi zuen azeriak; eta esan zioten, harrapatuz gero, berarentzat zela. Ura edan eta edan, baina ezin harrapatu. Ilargiaren isla zen.

167. Erleak, maitatuak (ARA-059/021)

Erleak maitatuak ziren bere etxean, bera neskatoa zela. Arbola enborretan izaten zituzten. Inportanteak ziren. Erlategia. Sua egiten zen, kearekin ziztadarik egin ez zezaten.

168. Gerra etorri zenean (ARA-059/022)

Gerra hasi zen urtean jaio zen. Aita Mendiolan egon zen arreba baten etxean, Eskoriatzan; ihes egin zuen. Amak ez zuen jakin non zegoen, sei hilabetean. Arbia egosten zegoen ama sukaldean, animalientzat, eta milizianoek huraxe janarazi nahi zioten, senarra ez zuelako etxean.

169. Umetako kantuak (ARA-059/024)

"Katamixinika". "Arre-arre mandako", umea belaun gainean jarrita.
"Atximutxi".

170. "Libiri eta labara" (ARA-059/026)

"Libiri eta labara" eta "Han goiko larretan", behizain zebiltzan haurren arteko kanta-esaerak.

171. Umetako jolasak (ARA-059/029)

Txikolan (egurtxoa botatzen), mariketaka (harriekin, zenbakiekin, txintxoka), asto-astoka. Kanposantu aldera joaten ziren jolasera. Txorro-morroka. Sokasaltoan "Al cocherito lere" kantatzen zuten, erdaraz.

172. Dotrina euskaraz, eskola erdaraz (ARA-059/030)

Dotrinan dena euskaraz egiten zuten, apaizarekin; eskolan, berriz, dena erdaraz. Don Felipe anti-erdara ei zen, oso euskalzalea. Eraztunik-eta ez zieten jartzen eskolan, euskaraz egiteagatik. Baina apaizak zigortu egiten zituen erdaraz zebiltzanak.

173. "Sacamantecas" eta eskekoak (ARA-059/031)

"Sacamantecas" eta zakuaren gizona etorriko zirela esaten zieten. Umeei tripak ateratzen zizkien "sacamantecas" horrek. Ijitoak agertzen zirenean, eskean, beldurrez airean egoten ziren. Askak zeuden, arropa garbitzeko, eta han uzten zuten karromatoa. Oiloak lapurtzen zituzten. Eskekoak ere joaten ziren, bi beti. Gabina: ahopean otoitz egiten zuen.

174. Konjuruak eta gurutze bedeinkatuak (ARA-059/033)

Konjurua elizan egiten zen, igandero, hodeiak alde egiteko bedeinkazioa. Soroak bedeinkatzen zituen apaizak, San Juan bezperan; oiloa ematen zitzaion trukean. Erramu egunean, gurutze bedeinkatuak jartzen ziren, soro bakoitzeko bat. Erramua erre egiten du San Juan bezperan orain ere. San Juan sua.

175. San Juanen abestia (ARA-059/035)

San Juan eguneko abestia.

176. San Juan sua (ARA-059/038)

San Juan sua nolakoa zen lehen. Santatxora ez ziren joaten. Beheko iturrian egiten zuten sua, eta jolas egiten zuten inguruan.

177. San Juan goizeko ihintza (ARA-059/040)

Iria ekartzen zuen anaiak, alfonbra moduan jartzeko ate aurrean. Atearen markoan arantza zuria josten zuen, larrosa batekin. San Juan goizeko ihintzaren gainean hanka hutsik ibiltzea ona ei zen.

178. Gurutzearen parean, geldiunea (ARA-059/043)

Arimarik ez zen agertzen, baina Iturraldetik gertu zegoen egurrezko gurutzean andariak geratu egiten ziren, aitagurea errezzatzeko, hildakoekin elizara zihoazela.

179. Auzoen arteko harremanak (ARA-059/046)

Barajuentarrak eskolara joaten ziren, baina "kontrarioa" izaten ziren beti. Zabolarrak joaten dira hara beti, baina beraiek ez dira San Juanetan etortzen. Untzillakoekin ez dute harreman handirik izan.

180. Hitz egiten ikasteko bedeinkazioak (ARA-059/049)

Barajuengo Ama Birjina beti izan da famatua umeei hitz eginarazteko. San Juantxoren irudia ere bai, ekartzen zen eta umeari bedeinkazioa ematen zion apaizak.

181. Astoarekin errotara (ARA-059/056)

Esnea saltzera joaten ziren kalera, astoarekin. Errotara ere bai. Ura ere gutxi egoten zen, eta zain egoten ziren eho arte. Argirik ez, urik ez bazen. Kandelak eta karburua. Txirritxolak etxean eta hilarrietan erabiltzen ziren.

182. Apaiza leihotik begira (ARA-059/064)

Dantzan gustura aritzen ziren, baina apaizak zaindu egiten zituen leihotik. Erretiro txarrak. Sermoian esaten zuen apaizak. Apaizei ez zitzaion gustatzen gizonak feriara joatea. Tiburziorena joaten ziren bueltakoan.

183. Santuak bueltan (ARA-060/013)

Kalean eliza egin zutenean, kanposantua egitea ere pentsatu zuten. Santuak bueltan etorri ziren kanposantura.

184. Arropa garbitzera erredera (ARA-060/018)

Arropa garbitzera erredera joaten zen bere ama, baina sorginik ez zegoen tokira. Lehen lamiak omen zeuden. Istorioak kontatzeko asti gutxi izaten zen, beti lanean.

185. Beti baserriko lanetan (ARA-060/019)

Ganadua izaten zuten. Baserriko lana: garia, artoa, babarruna... Pinu sartzen ibili zen mendian, baina fabrikan ez.

186. Artoa errotan ehotzera (ARA-060/020)

Diru gutxi eta lan asko. Kanpora saltzen zuten. Garia ez, 80 anega jasotzen zituztelako. Pentsua egiten zuten ganaduarentzat, errotan. Esneduna kalera joaten zen esnearekin. Babarrun gorria. Sobratzen zen jeneroa eho egiten zuten, ganaduarentzat eta taloa egiteko. Errota zuten beste batzuekin batera. Leku guztietan zeuden errotak. Argia ipini zenean 12 bat urte zituen.

187. Bilbo erori zenean (ARA-060/028)

Bilbo erori zenean, entregatu egin ziren. Oso ondo hartu zituzten. Lagunak nazionalekin zebiltzan, eta sardinak eman zizkieten, mezatik bueltan. Dirua ere bai. Egunean 10 pezeta irabazten zuten. Ez zuten dirua apreziatzen, pentsatzen zutelako diru hark ez zuela balio.

188. Orduko janzkera (ARA-060/036)

Zapatak ospakizunetan bakarrik erabiltzen zituzten, domeketan eta. Lehen ez zegoen hainbeste arropa, baina denetik zegoen. Txapela, 20 bat urterekin hasita. Emakumeek zapia edo moñoa.

189. Taloa eta babarrunak (ARA-060/038)

Goserik ez zen baserrian, gerra ostean ere. Artoa eho eta taloa egiten zen. Esnearekin. Morokila. Urte guztian babarrunak.

190. Gerra osteko otorduak (ARA-060/040)

Urdaia, txorizoa eta babarrun gorria. Goizean kafea eta esnea. Afaltzeko patatak edo berakatz zopa.

191. Konfesatzera (ARA-060/054)

Neska-laguntza egiten zuten. Konfesatzera ez ziren sarri joaten gizonak, urtean behin edo. Emakumeak hamabostean behin, gogor egiten zieten eta.

192. Karobiak hilobi moduan (ARA-060/066)

Karobia non zegoen. Gerra denboran hildakoak karobietan sartzen zituzten, lur ematen ez ibiltzeko.

193. Lamiak, karobi inguruan (ARA-060/068)

Lamiak egoten ziren karobi inguruan, eta batera eta bestera joaten ziren kate-hotsekin. Umetako beldurak. "Sacamantecas".

194. Altxorraren kondaira (ARA-060/073)

Altxorraren kondaira. Urrez betetako kutxa bat dago gordeta, baina inork ez zuen aurkitu.

195. Artzainen esaera (ARA-060/081)

Artzainen esaerak.

196. Eskopeta, otsoen eta sorginen etsaia (ARA-060/083)

Otsoak eskopetarekin desagertu ziren, sorginak bezala.

197. Gabonetako eskea (ARA-060/092)

Gabon eskea urte berrian egiten zen, etxez etxe. Neska-mutikoak. Intxaurrak, gaztainak eta sagarrak batu, eta gero banaketa egiten zuten.

198. Perratzailea (ARA-061/011)

Ganaduak zintzilik jartzen zituzten, buruak gora eta hankak behera, ferratzeko. Aramaioko jende gehiena joaten zen hara. Andrea plazara joaten zen tresnak saltzera.

199. Domeke izena (ARA-061/012)

Domeke izena. Aita pontekoa Ameriketara joan zen, eta aberastu egin zen. Sarri etortzen zen. Parrokiako kristoa berak ordaindu zuen. Bere izena jarri zion, Dominga. Euskaraz, Domeke. Gizonezko izena ere bada Domeka.

200. Umetatik behizain (ARA-061/013)

Eskolara zazpi urterekin hasi zen joaten. Ahuntzak eta behiak zaintzen bazekiten ordurako. Umeek enkarguak egiten zituzten kaletik, egurra ekarri sutarako, ganadua zaindu landan... Itxiturarik ez zegoen landetan. Ohituta zeuden.

201. Domekero konfesatzera (ARA-061/020)

Bi apaiz zeuden kalean orduan, Don Juan eta parrokoa. Don Juani mania apur bat zion. Hark euskaraz eta parrokoarekin erdaraz. Salbea eta. Konfesatzera joan, eta haserre egin zion. Domekero konfesatu behar zen, Jauna hartzeko.

202. Konfesatu gabe ezin Jauna hartu (ARA-061/021)

Baraurik konfesatu behar zen. Kontzesio Egun batean izan zuen disgustua: Don Juanek laguntasuna zuen etxe batzuekin, eta hango etxeko emakumea sartu zen aurretik. Ez zuen amaitzen. Eta meza emateko ordua iritsi zen. Eta ezin komulgatu!

203. Meza egunero (ARA-061/022)

Apaiza bizkarra ematen egoten zen mezetan, eta latinez zen meza. Kredoa ere ikasi zuen latinez. Erdaraz ikastea kostatu egin zitzairen. Egunero zegoen meza aste barruan ere, zazpitan. Domeketan, seietan. Parrokian, zortziak inguruan, egunero. Egunero joaten zen jendea. Sermoia euskaraz zen normalean.

204. Belauniko, bekatuak barkatzeko (ARA-061/024)

Apaizek misioak emateko kontratatzeko zituzten fraideak. Ejerzizioak eta misioak. Gurutze bideak. Prozesioak egin zituzten kaleetan, eta plazara iristean Agirretxe zegoen han. Agirretxek belauniko jartzeko eskatu zien, eta lurrari muin egiteko, bekatuak barkatzeko.

205. Ejerzizioetatik bueltan, dantzara (ARA-061/026)

Sukia gotzainarekin egon ziren ejerzizioak egiten Bilbon. Bueltan, San Anton egunean, mutilzaharrek erromeria egiten zuten, eta dantzan ibili ziren. Bi mutilzaharrekin egin zuten dantza. Zertzuk esan zizkien apaizak!

206. Lehen dantzaldia (ARA-061/028)

Dantza egin zuen lehen aldia, Etxanen, amandrearenean. San Migeletan joaten ziren. Etxanen plazarik ez zegoen, eta larrain batean zegoen erromeria, Ormaetxen. Dantzan orduan egin zuen lehen aldiz mutil batekin.

207. Errogatiba Urkiolara (ARA-061/030)

Errogatibak izaten ziren Urkiolara. Lehortea zegoen, eta apaizek pentsatu zuten baserritarrek San Sebastian eraman behar zutela, euria egiteko. Urkiolara joaten zirenean, enkargatuek astoan eramaten zituzten ardo garrafoiak, Anboto ostean merienda egiteko. Santu eramaleek majo edan zuten, eta ezin eraman. Lau neskaren artean eraman zuten. Hurrengo egunean euria egin zuen. Apaizak merienda eman zien santua ondo entregatzeagatik. Txokolatea eta txurroak.

208. Umetako jolasak (ARA-061/031)

Umetako jolasak: asakesak, sokasaltoka, zigola bandaka. Lau lauren kontra edo sei seiren kontra, harrapaka. Asakesak (tortolosak) lurrera bota, eta: pones, asakes... Kanika gora bota eta hartu. Ardienak txikiagoak eta bigunagoak ziren, aharienak gogorragoak eta hobeak.

209. Ahuntzak (ARA-061/033)

Antxumeak. Pazkoatan bildotsa eta letxuga jaten zuen. 18 bta ahuntz izaten zituzten. Ahuntzak ez du lan asko zaintzeko, umatze sasoian bakarrik. Eskolara joan aurretik esnea batzen zuten, txabolara joanda, gero gazta egiteko. Gazta freskoa.

210. Andra Maixetako erromeria I (ARA-061/037)

Aguazila egon zen Aramaion, baina ika-mikarik ez zen egoten. Andra Maixetako erromeria, zelaian, Ama Birjinaren aurrean. Apaizak kontra zeuden. Ezetz-baietz, mutilak apaizekin eztabaidan, eta mutil batzuk preso sartu zituzten. Herritarrek manifestazioa egin zuten. Mezara ere ez ziren joan hurrengo egunean.

211. Andra Maixetako erromeria II (ARA-061/039)

Apaizari kontra egiteagatik kartzelan pasatu zuten gaua. Aguazilak eraman zituen. Hurrengo egunean inor ez zen joan mezara. Eguerdirako atera zituzten. Gehiago ez zuten esan ez dantzarik egiteko.

212. Gerra garaian, Frantziara (ARA-061/041)

Frantziara joan ziren. Tiroen beldur, Andre Mariren ermita aldean babesten ziren. Gurasoak baserri batera joan ziren. Ahizpa etxera zegoen ezkontuta, eta haren gizona nazionalista zen; Frantziara joan ziren, kartzelara ez eramateko, ume birekin. Domeke haiekin joan zen. Urrian bueltatu ziren etxera. "Las francesitas". Kaleak garbitzen jarri zituzten orduan, erratz banarekin. Hurrengo egunean, Guardia Zibilaren kuartela garbitu behar izan zuten, eta haiek burlaka. Isuna ere bai. Soldaduek erabilitako koltxoak garbierazi zizkieten. Artilezkoak.

213. Erromeriara derrigortuta (ARA-061/042)

Ilerik ez zioten ebaki, baina beste batzuri bai. Zerora, makinarekin. Herri bat hartzen zuten aldiro, erromeria egiten zuten plazan, eta behartuta zeuden joatera.

214. Itsasontziz Frantziara (ARA-061/044)

Perpignan inguruan egon ziren Frantzian, Bilbotik ikatz-barkuan joanda. Erdi hilda iritsi zen, mareatuta. Bilbotik ezagutzen zuen itsasoa. 19 urte zituen.

215. Frantzian, tratu ona (ARA-061/046)

Frantziatik bueltatzeko irrikaz zeuden, baina purgatorioa topatu zuten bueltan. Frantzian tratua oso ona izan zen. Kuartel handi batean egon ziren. Oheak txarrak ziren, baina jan eta tratua ona. Euskaldun asko zeuden. Frantsesez ez zuten ikasi, baina ondo pasatu zuten. Sukaldean laguntzen ere ibili ziren, bertako jana ez zitzaielako gustatzen. Dirua ematen zieten jakiak erosteko. Gizon batek egiten zituen kontuak, astean behin. Birritan arropak eraman zizkieten. Abrigo eder bat ekarri zuen berak handik.

216. Frantziako orrazkera (ARA-061/048)

Felipa ile-apaintzaileak motz-motz mozten zien ilea, Frantzian. Permanentea.

217. Gerra amaitu zenean, buelta (ARA-061/049)

Gerra garaian, ihes egin zutenean, Euzkadiko gobernuko jendea zen mugimendu haren arduraduna. Gerra amaitu zenean, aukera eman zuten bueltatu edo beste norabait joateko. Mugan ez zuten arazorik eduki. Irunen giro tristea zegoen, eta Arrasaten ez zieten aurpegira begiratzen.

218. Luzarorako zigorrak (ARA-061/050)

Urtebete iraun zuten zigorrek. Joan ziren denak ibili ziren garbiketak egiten, txandaka. Baserrian dirurik ez zegoen. Anai bat langile batailoeitan eta bestea kartzelan. Gasteizko plazara joaten hasi zen, etxean laguntzeko. Hiru andre joaten ziren. Bezperan bidaltzen zuten jeneroa, kamioi txiki batean. Udaletxean pasea eskatu behar zen. Sagarrak, intxaurrak, gaztainak. Babarrun gorria plazara ez eramateko esan zion, berari emateko.

219. Gasteizko soldaduak (ARA-061/051)

Gasteizen gertatutako pasadizoa: hiru soldadu ikusi zituzten, eta haiei buruz euskaraz hasi ziren, erdaldunak izango zirelakoan. Euskaraz erantzun zieten.

220. Aurrekua San Kristobalen (ARA-062/002)

San Kristobalen jaien akabera egiten zen, eta Domeken aurrekua "atera" zuen. Aurrekua ikasten ibili ziren neska kuadrilla aipatzen du.

221. San Kristobalgo jaia (ARA-062/003)

Astoa ekarri Ibbetik, asto-otzarak kargatu eta San Kristobalera joaten zen familia osoa. Asto-otzaretan urdaiazpikoa, txorizoa, arrautzak, letxuga, tomatea, ardoa... eramaten zuten. San Kristobalgo iturriko metal-ura. Ohitura: belarriak olioaz igurztea. Jai-giroa: meza entzun, dantzan egin, bola-jokoan egin...

222. Bola-jokorako afizioa (ARA-062/004)

Uribarrin beti izan dute bola-jokorako afizioa. Untzillan eta Etxaguenen ere bada zaletasuna.

223. "Dontxona" (ARA-062/005)

Domeke jaio aurreko kondaira da "Dontxona". Istorioa: bazen mutil batekin zebilen neska bat, eta, antza, mutil horrekin ez ibiltzeko gela batean sartu zuen aitak. Urte askoan eduki zuen alaba giltzaperatuta. Neska atera zutenerako, itxuraldatuta zegoen, ilea ia lurreraino zuela...

224. Torraldeko kondaira (ARA-062/006)

Torraldeko kondaira: ba omen zen Torralden gaztelu bat, eta bertakoa Ibbeko neskaren batik zegoen maiteminduta. Anbotoko Mari Torraldera joaten omen zen bisitan. Zeruan argitasun bat ikusten zutenean, jendeak esaten zuen "Anbotoko señoie" pasatu zela.

225. "Anbotoko señoie"n koba (ARA-062/007)

Domeke egona da gaztetan "Anbotoko señoie"n koban. Anaia Xabinekin joaten zen Untzetara. "Anbotoko señoie" Salgon bizi zela esaten zen.

226. Arima purgatoriokoari harrika (ARA-062/008)

Domekeren aitari mutikotan esaten zien Goiko errotako presan laminak egoten zirela. Behinola, gau-eskolatik bueltan zetozele San Roke ermita inguruko gereziondo batean zurtasun bat agertu zitzaizen "aiaiai!!" eginez. "Arima purgatoriokoa izango da!" pentsatu zuten. Hurrengo egunerako txapelkada harri bete prestatu zuten mutikoek...

227. Auzoetako bidegurutzeak eta hiletak (ARA-062/009)

Auzoetako bidegurutzeetan gurutzeak daude. Zer etxeren ondoan dauden aipatzen du. Hiletetan gurutze horiek errespetatzen ziren. Hiletak nola izaten ziren azaltzen du: auzoetatik oinez eramaten zuten hilkutxa, abadea eta monagiloak zain non egoten ziren... Bide sendak edo gurdibideak.

228. Heriotzak: gaubelak, bederatziurrenak, lutua... (ARA-062/010)

Auzoko edo etxekoren bat hiltzean, gaubela egiten zen. Elizan, hilarria ipintzen zen bi edo hiru kandelerorekin. Gero, trapu bat jartzen zen; "hilarriko trapue". Bederatzi egunetan ipintzen zen hori. Zapi gainera limosna botatzen zen. Meza bukatutakoan, abadeak isopoarekin bedeinkazioa bota, errespontsua bota eta dirua batzen zuen. Biltzen zen diruaren arabera hainbeste "Pater noster" errezatzen omen zituen abadeak. Etxeko bat hiltzen zenean, emakumeak burua estaltzen zuten mantillarekin bederatzi egunean. Lutoa eta luto-erdia.

229. Aste Santuan, olata (ARA-062/011)

Aste Santuan, Eguen Santu Egunean, olatak (opil txikiak) eramaten ziren elizako hilarria. Emakume batek biltzen zituen olata horiek, eta abadearen etxera eramaten zituen. Gero, Arimen Egunean, eskolako umeak abadearen etxera joaten ziren olata hartzera.

230. Hil-kanpaiak eta su-kanpaiak (ARA-062/012)

Aramaioko auzo bakoitzak bere hilerria dauka. Hil-kanpaiak: gizon bat hil bazen bost kanpai, emakumea bazen hildakoa hiru eta umea zenean "kanpa txikiñe". Sua iragartzen zuten kanpaiak nolakoak izaten ziren.

231. Elizakoak (ARA-062/013)

Abadea etxeren batera joaten zenean "eleizakoak" ematera, kanpaiak jotzen ziren. Monagilo batekin joaten zen abadea. Kolean, abadearekin gurutzatuz gero, belauniko jarri eta aitaren egiten behar izaten zen. Abadea etxera joaten zenerako, gaixoaren etxean aldaretxo bat prestatzen zen. "Selemiñie".

232. Horei-kanpaiak (ARA-062/014)

Trumoi zetorrela iragartzeko jotzen ziren horei-kanpaiak. Sankristauak jotzen zituen kanpaiak. Horeia zetorreanean kandela bedeinkatua piztu eta errezo hau egiten zuten: "Santa Barbara eta Santa Kruz lagundu egizu, probien ogixe Jaunen miseriakordixe". Horeiak gari-soroak hondatutako kasuak.

233. "Urixolie" (ARA-062/015)

Ira ebakitzen ibili eta gero, eguraldi txarra zetorrela eta, ira bete gurdi etxe ostean utzi zuten. Baserri ondoko erreka urak gurdia eraman zuen... Gurdia trabatu eta kalean "ura jaiki zen gorainoko". Asto bat ere eraman zuen urak. 18 urte inguru edukiko zituen Domekek orduan.

234. "Salazango" santu-egilea (ARA-062/020)

"Salazanen" (Salesan) santuen irudiak egiten ziren. Pontelekuan dagoen Kristo gurutzeko egurrezko irudia han egina da. Errotan San Isidoren irudia eduki zuten. Inguruko jendearentzako egiten zituen santuen irudiak.

235. Umeen bedeinkaziok eta bataioak (ARA-062/022)

Torraltera joaten ziren meriendarekin. Aurretik, ordea, umeak bedeinkatzera joaten ziren elizara. Barajuenen bataioak ere egiten ziren.

236. Ama Barajuengoa (ARA-063/003)

Ama Barajuengoa zen eta aita Uribarrikoa. Solabarrira joaten zen mutikotan askotan, osaben etxera. Txerria hiltzen zuten, eta odolosteak banatu.

237. Errepiderik ez zegoen (ARA-063/005)

Uribarritik gutxi jaisten ziren umetan. Soldadu zegoela egin zuten errepidea.

238. Eskolara gutxi (ARA-063/008)

Oso gutxi joan zen eskolara, lana asko zegoelako etxean. Aita errotaria, enterradorea eta "mayordomoa" zen Uribarriko elizan. Bera ere ibiltzen zen errotari, mutikotan.

239. Errotako lanak (ARA-063/010)

Errotako lanak. Artoa eta garia eho. Etxean kentzen zitzaion azala, galbahearekin. Hilean hirutan ehotzen zen.

240. Onena apaizarentzat (ARA-063/019)

Txerria hiltzen zenean odolosteak (odolkiak) eta txorizoak apaizarentzat. Ogirik onenak ere bai. Eta eskerrik ere ez zuen ematen.

241. Egur bila (ARA-063/025)

Egur bila joaten zen urtean birritan. Ardoa eta hamarretakoak eramaten ibiltzen zen.

242. Gorostia ganaduarentzat (ARA-063/027)

Urtegia dagoen lekua basoa zen lehen. Gorosti bila ere joana da bera, ganaduarentzat. Zatitu, zapaldu eta ganaduak jan egiten zuen. Iratan ere joaten ziren. Urtean hogeit bat gurdi bai. Udazkenean egiten zuten hori. Ez zuten lur sail handirik, baina errotan lana bai.

243. Jende asko eskean (ARA-063/035)

Eskean jende asko ibiltzen zen etxez etxe. Zer edo zer beti ematen zen. Lapikoak konpontzera eta arropak saltzera ere joaten ziren.

244. Errekara arropa garbitzera (ARA-063/037)

Beheko errekkara joaten zen ama arropa garbitzera, astoarekin. Laguntzera joaten zen. Soldadu joan baino lehenago jarri zuten ura etxean, baina ur gutxi.

245. Arbolara lotuta (ARA-063/039)

Gerra garaiko kontua, 11 urte zituenekoa. Uribarrineko Estebani behiekin laguntzeko esan zion aitak. San Kristolera joan zen, eta komunistek arbolara lotu zuten. Nazionalistek lagundu zioten.

246. Zerrajeran lanean (ARA-063/041)

Gerraostean, zerrajeran hasi zen lanean, Arrasaten. Oinez joaten zen kalera Uribarritik eta gero autobusean lanera. Emakume asko zegoen han lanean. Makina bat afari egin dituzte. Gardokik soinua jotzen zuen.

247. San Kristobalgo erromeria (ARA-063/043)

Erromeriak. Uribarrikoa. San Kristobalgora leku askotatik joaten zen jendea.

248. Txori gehiago lehen (ARA-063/063)

Txori gehiago zegoen lehen. Zozoak, birigarroak, usoak.

249. Bergaran urtebete, gerra sasoian (ARA-064/006)

Umetako kontuak. Jolasean eta behizain. Sei urterekin, Bergaran egon zen baserri batean. Gerra denbora zen. Irakurtzen ikasi zuen han, bere kontura. Eskola asko gustatzen zitzaion; ezin zuenean joan, negarrez.

250. Eskolako kontuak (ARA-064/007)

Aramaion eskolan maistra onak izan zituzten, baina erdaraz. Juanita maistra amaren laguna zen. Sei urte arte ez zen joaten, baina Felisa ahizpa laurekin hasi zen. Burla egiten zuten orduan ere eskolan. Goiko eskolara ere joan zen. Mutilendako eskola udaletxean zegoen.

251. Sutea etxean (ARA-064/013)

Baserritik kalera ezkondu zen. Orain bizi den etxea ere baserria zen. Behiak zeuden. Duela 51 urte, erre egin zen baserria. Kandlekin ibiltzen ziren, eta sua piztu zen. Hormak geratu ziren bakarrik. Atera zituzten gauza batzuk. Urtebeteen beste etxe batean bizi izan ziren.

252. Linua ereiten (ARA-064/016)

Amandre Felipa laguntzera joaten zen, txerria hiltzen zutenean. Linua ereiten zen soroan, ebaki eta zulo batean sartzen zen. Asto batean bi tabla jarrita jotzen zen, eta gero ehulearengana eramaten zen, izarak egiteko.

253. Irratia eta lixiba (ARA-064/017)

Irratirik ez zegoen. Ezkondu zenean erosi zuen irratia, 1956an edo. Arropak eskuz garbitzen ziren. Aste barrurako soineko bat eta astebururako beste bat.

254. Emakumeak baserrian (ARA-064/018)

Emakumeen lanak. Ama 12 urtez geroztik etxeko kargu egin zen. 21 urterekin ezkondu zen. Umetan egiten zituen lanak: sorora joan, behiak batu... Antonik lan gehiago egiten zuen.

255. Umetako jolasak eta gaztetako ibilerak (ARA-064/019)

Umetako jolasak: txikola, gorde-gordeka. Mendira joaten ziren domeketan. Neskak ez ziren tabernetara sartzen. Behin sartu ziren, eta pipermina hartu zuten. Santa Agedako mutilekin ibiltzen ziren asko. Lagun taldea. San Martinetan kalejira egiten zuten. Erromeriak. Zein auzotara ez ziren joaten, urruti zeudelako. Untzillako erromeriara gurutzea jarri zutenean joan ziren lehen aldiz. Bero egiten zuen, eta ura saltzen zuten, edalontzia erreal batera.

256. Medailak kendu, dantza egiteagatik (ARA-064/020)

Soltean eta helduta egiten zuten dantza. Medailak kendu zizkien apaizak, Don Fidelek, dantza egiteagatik. Kongregazioak. Atxilotu ere egin zituzten hiru-lau, apaizarekin borroka egin zutelako jai batzuetan. Don Fidelen jarrera. Orain gehiegizko askatasuna dago.

257. Mezak eta prozesioak (ARA-064/022)

Elizara domekero joaten ziren, eta bederatziurrenak ere egiten zituzten. Maiatzeko loreak, meza eta arrosarioa. Prozesioa ere egiten zen kalean, elizatik gora eta gero plazara. Aldareak jartzen zituzten kalean. Aste Santuko prozesioan, andreak mantilarekin. Erramu igandean santuak zeinek eraman erabakitzen zen, elizpean; dirua eskaintzen zuten, pujatu. Pasoak zeintzuk ziren.

258. Elizako aldaketak (ARA-064/023)

Elizako aldarea nolakoa zen lehen. Meza bizkarra emanda ematen zen. Orain dela 54 urte bukatu zuten eliza margotzen. Orduantxe ezkondu zen bera. Aldarea geroago jarri zuten. Ama Birjina ere ez dago orain. Sermoia egiteko pulpitu bi ere bazeuden. Sermoietan infernua gora eta behera ibiltzen ziren. Bi frantziskotar etortzen ziren, Agirretxe eta Garmendia, eta bi pasionista. Makilarekin jotzen zuten lurra. Kanposantura ere joaten ziren. Dena zen bekatu.

259. Sermoi luzeak (ARA-064/026)

Sermoiak luzeak izaten ziren. Elizkizunak ere luzeagoak ziren, Aste Santukoak letaniekin. Ordubete gehiago bai, oraingoan aldean.

260. Martintxo eta jentilak (ARA-064/028)

San Martinen kondaira. Begibakarrek zuten garia, jentilek. Martin mutikoa hara joan zen lanera, eta botak gariz bete zitzaizkion. Mutikoa ezkutatu egin zen, eta jentilei entzun zien garia noiz eta nola ereiten zen.

261. Anbotoko señoia eta Torrealdeko jauntxoa (ARA-064/030)

Anbotoko señoia. Bi ahizpa ziren, bata ona eta bestea ez. Gaiztoak ona bota zuen Anbototik behera, eta sorgin bihurtu zen. Torrealdeko kondea. Ezkongaiak berarekin pasatu behar zuten lehen gaua. Kakaz zikinduta joan zen Berta izeneko bat, gaua ez pasatzeagatik. Gaztelako erregea.

262. Anbotoko Mari eta lamiak (ARA-064/032)

Amak-eta esaten zuten Anbotoko señoia pasatu zela zeruan, izarrak ikustean. Lamiak ere egoten ei ziren Sorginzubín. Ile pila bat batu zuten, errekan burdinaria pasatuta, eta orduan desagertu ziren. Urrezko orrazia.

263. Gauez, hobe etxean (ARA-064/034)

Entzunda dauka Monterronen Canuto izeneko bat bizi zela, eta handik berandu samar irten zen bati sustoa eman ziotela, maíndireekin eta kateekin. Beste bati ere irten omen zitzaizkion, esanez "gaua gauekoentzat eta eguna egunekoentzat".

264. Bidegurutzeetako agerpenak (ARA-064/035)

Bidegurutzeetako arimak. Txerri kuadrilla bat irten zitzaíen gauez batzuei bidegurutzera, eta desagertu egin zen gero. Horma baino zuriago joan zirela etxera. Andre Mari inguruan.

265. Martin apaiz ehiztaria (ARA-064/039)

Martin abade. Ehizara joateko meza uzten zuen apaiza.

266. Lehengo ospakizunak eta jakiak (ARA-064/042)

Gabonak ospatzeko modua. Familia elkartzen zen, eta ardi bat hiltzen zen. Buskantzak egiten ziren, intxaur saltsa, konpota... Erregenetan ez zen jostailurik egoten. Mandarinak eta suge kaxak (mazapana). Trapuzko panpinak egiten zituzten. Jaíetan ere oilaskoa eta garbantzuak. Babarruna eta sagar erreak, eguneroko otordua. Trukea egiten zuten kalean.

267. "Sacamantecas" (ARA-064/044)

"Sacamantecas", haurrak beldurtzeko. Koípea eskumuturrean ei zegoen.

268. Erleak eta muskerrak (ARA-064/045)

Erleak izaten zituzten, baina ez daki aparteko gauzarik. Muskerrak helduz gero, zazpi elizatako kanpaiak jo behar ziren soltatzeko.

269. Suge esnezaleak (ARA-064/047)

Entzunda dauka ama bat umeari titia ematen lo zegoela, eta hurrengo egunean esnerik ez zuela. Sugeak edaten omen zion esnea. Ganaduari ere hartzen zion esnea sugeak. Umea norberarekin egoten zen lo.

270. Ezkutatutako altxorrek (ARA-064/049)

Ezkutatuko altxorrek ei daude, bi behintzat bai. Bata, Solaian. Urrea, ez daki noizkoa.

271. Izpirituak ate joka (ARA-064/052)

Etxeetako izpirituak. Lehen esaten zen, atea jotakoan gauez, izpirituak izan zitezkeela, meza eskean.

272. Errogatiba Urkiolara (ARA-064/057)

Urkiolara joan ziren errogatiban, oínez, San Sebastian hartuta. Gero euri asko egin zuen. Astoan eramaten zen ardoa, eta bueltarako garrafoi bat uzten zen

Anboto ondoan. Borroka egon zen, batzuek mozkortu egin zirelako. Labana ere atera zuten. Berak 12 bat urte izango zituen.

273. 'Angiozarko itsua' irakasle (ARA-065/015)

Eibarrera joan zen, Angiozarko itsuarengana, soinua ikastera. Bost bat metodo ikasi zituen, piezekin hasi aurretik. Felipe Altzazpik esaten zion azkar ikasiz gero, bere plaza utziko ziola. Eta lehenbailehen ikasi nahi berak! Igandero joaten zen Eibarrera, bizikleta Etxazurin utzita. Zazpi pezeta kostatzen zitzaion eskola. Arzamendik 200 pezeta edo hilabetea. Bost laguneko ikasle taldea. Itsua izan arren, azkar asko igartzen zuen papera zabalik zuten ala ez.

274. Soinua jotzen, arbola azpian (ARA-065/017)

Angiozarko itsua pieza bana ematen zien aste guztirako, etxean ikasteko. Paperera begiratzen ez zionari igartzen zion itsuak. Auzoan arazoak izan zituen, denak baserriko lanetan zebiltzan bitartean bera soinua jotzen egoten zelako arbola azpian. Kexatu egin ziren, eredu txarra zelako gazteentzat.

275. Lehenengo ezkontza soinua jotzen (ARA-065/019)

Hamabost pieza ikasi zituenean, ezkontza batean jo zuen. Jerardo eta Sebastiana ezkondu zirenean, 18 urterekin. Ezkontzaren aurretik kalejira egiten zen eta meza ostean erromeria. Bazkalostean kalejiran joan ziren kalera. Afaldu eta lo ere hantxe egin zuten. Lo zegoela prakak gorde zizkioten.

276. Eliza aurrean jotzeko debekua (ARA-065/020)

Baserrietara sukaldari joaten zen Dominika. Plazan jotzen hasi zenean, hamabost pieza, plaza beteta. Dominika eta Mantzanos joan zitzaizkion, geratzeko esanez. Emakume bat laztanka zebilela, eta geratzeko. Oso emakume ederra da orain ere. Apaizari esan zioten, eta eliza aurrean ez jotzeko agindu zion hark. Alkateak esan zion nor jarri.

277. Soinu-jotzailearen soldata (ARA-065/022)

Galagarra etorri zen. Dirua batzen zuten batzuek, txandaka. Tiketa jarri alfilerrarekin, eta kobratu egiten zen. Dantzarien diruarekin egiten zuen aurrera. Galagarrak ordaindu egin nahi zion, eta 2.000 pezeta agindu zizkioten, eta euria zenean kontzejupean jotzen zuen. Soldadu joan aurretik izan zen hori.

278. Nola hasi zen herriz herri (ARA-065/023)

Jauregik lehenengo autobus bat eta gero bi jarri zituen, eta gazteek Arrasatera alde egiten zuten. Gero eta gutxiagok egiten zuten dantza herrian. Eta utzi egin zuen azkenean. Handik aurrera herriz herri ibili zen. Gerora, astero Arrasateko plazan jotzen ere ibili zen bi urtean, udaletxeak ordainduta. Baina gero eta jende gutxiagok egiten zuen dantza.

279. Behizain, beti kantuan (ARA-065/025)

Ganaduzain egoten zenean, kantuan edo txistua jotzen egoten zen beti. "Campanero" kantatzen zuen. "Han goian landetan".

280. Soldadutzan, Vesparekin erosketak egiten (ARA-065/029)

Auzorik auzo ibili aurretik, soldadu jantziarekin ere ibili zen soinua jotzen. Gasteizen egon zen soldadutzan, eta motorra zeukan, Vespa bat. Felipe Ametzuk eta berak soilik zuten motoa. Eta zortea izan zuten: sukaldera bidali zuten, erosketak egiteko, motoan. Motordun bizikleta. Denbora libre asko izaten zuen. Zer erosten zuen. Soldaduak moteltzeko hautsak.

281. Militarrez jantzita, soinua jotzen (ARA-065/032)

Soldadutzan baimena eskatzen zuen, soinua jotzera joateko. Militarrez jantzita joan behar zuela esan zioten. Gopegi inguruan zortzi egun egin zituzten maniobrak egiten. Ogitartekoak eramaten zituen berak. Normalean, ordu baterako bukatzen zituen musikari lanak. Alborada egiten zen, erronda etxerik etxe, eta hura zen arriskutsua, gauez. Behin izan zituen komeriak, gizon handi batekin ohean lo egin behar zuelako. Lurrean egin zuen lo.

282. Trenean, gasolinarekin (ARA-065/033)

Etzaguenera joan zenekoa, alboradara. Ez zeukan motorik, eta esnedunarekin Gasteizera joaten zen eta handik trenez zerrajerara. Beste behin Ondategira joan zen soinua jotzera. Motoa zuen orduan. Kamioia erabiltzen zuten argi egiteko. Tabernariaren etxean egin zuen lo, eta hurrengo egunean elurra zenez, kamioian Gasteizera. Trenean igo nahi zuen motoarekin, handik Arrasatera joateko, eta gasolina kentzeko esan zioten. Gasolina berokian gorde zuen, botiletan sartuta. Iritsi zenean, eta motoari gasolina jartzen hasi, errieta egin zioten, denak arriskuan jartzeagatik.

283. Erantzun zelebrea guardia zibilari (ARA-067/009)

Amamak ez zekien erdaraz. Guardia zibilari eman zion erantzuna "qué tal el nabo?" galdetuta: "Hoy mal año".

284. "Atzo hil ziran hamar atso" kantua (ARA-067/013)

"Atzo hil ziran hamar atso" kantua. Familia osoa txokolatezalea omen da.

285. Iparraldeko itsasoa aramaioarra aurkitu (ARA-067/015)

Osaba marinelaren gertakizuna: Iparraldeko itsasora joan zen batean aramaioar bat aurkitu zuen. Zer nahi zuen ekartzea eta gazta bat

286. Arima errariak eta laminak (ARA-067/020)

Emakume batek kontatzen zuen arimak pasatzen zirela Aramaiotik kateekin, Anboto aldetik etorriak. Laminak ei ziren Garagartzan. Eibarren pistolak egiten hasi zirenean galdu ei ziren denak.

287. "Ittaurren" zebilela behiak ia adarra sartu (ARA-067/024)

Gaizki bizi zen orduan. Neskak kriada joaten ziren gaztgerik. Edo baserrira lanera. "Ittaurren" ibilitakoa da Felisa. Arriskutsua izan omen daiteke ganadu gaiztoarekin egokituz gero. Behia arropak jaten ere ikusita dago.

288. Inudeen bizimodua (ARA-067/025)

Inude lana nolakoa zen. Norbere umea etxean utzi eta Madrilera edo norabait inoren umea zaintzera. Beste norbaitek hazten zuen norberarena.

289. Lehengusuarekin ezkondu zen (ARA-069/005)

Lehengusu batekin ezkondu zen Luzia. Ez zioten utzi nahi. Koinatari esker dago ezkondata.

290. Galerazitako ezkontza nola gauzatu zen azkenean (ARA-069/010)

Luzia Oñatin ibili zen josten ikasten. Sotera koinatari laguntzen zion. Harek egin zituen gestioei esker ezkondu ahal izan zuen. Senargaia prest zegoen hurrengo egunean Ameriketara joateko baina azken momentuan konpondu ziren gauzak eta berak maite zuen mutilarekin ezkondu ahal izan zuen.

291. Biarritzera ezkon-bidaia (ARA-069/011)

Iruten arazoak izan zituzten muga zeharkatzeko. Senarra paperak egiten ari zen bitartean poliziek etxean hartu eta jaten eman zioten. Donibane Lohizunera joan ziren lehendabizi. Gabon zahar eguna zen, eta gizonen artean afaldu zuen.

292. 'Aldapeko sagarraren' (ARA-069/021)

'Aldapeko sagarraren' eta 'El treinta de mayo' kantak.

293. 'Maritxu nora zoaz' kanta (ARA-069/022)

'Maritxu nora zoaz' kanta.

294. Astoko eta Otsoko (ARA-069/024)

Astoko eta Otsokoren ipuina eta kantua.

295. 'Larrosa koloreko begi ederrokin' (ARA-069/025)

'Larrosa koloreko begi ederrokin' kantua.

296. 'Arroz con leche, me quiero casar...' (ARA-069/026)

'Arroz con leche, me quiero casar...' eta 'Donde están las llaves Matarile-rile-rile' jolas-kantuak.

297. Txikolan (ARA-069/028)

Txikolan (txirikilan) zelan jokutzen den. Garizuma guztia txikolan pasatzen zuten.

298. Gizonak kateak arrastaka (ARA-069/036)

Gizon bat kateak arrastaka etortzen zela eta tximiniatik sartzen zela... Horrelakoekin beldurra sartzen zieten. Hontzak ere beldurra ematen zion.

299. Otxandioraino ogia eramatera (ARA-069/037)

Umetan astero joaten zen Otxandioraino osaba-izeba batzuei ogia eramatera. Bera oso beldurtia izan arren, astoaz joaten zen ilunetan mutil baten laguntzaz. "Ardangela" esaten zioten etxeko leku bati.

300. Ijitoekin susto galanta hartuta (ARA-069/038)

Otxandiora joan zen batean, itzuleran bide zati batean lagundu zioten; baina, Santa Marina aldera hurbildu zenean, ijito talde bat aurkitu zuen zaldiak trebatzen. Haietariko bat berarengana zuzendu zen eta Luziak ospa egin zuen arineketan. Hurrengo egunean ere hankak dardaraz zituen.

301. Traktoreen abantailak (ARA-070/010)

Aramaioko lehen traktore handia Salturralden egon zen, lau baserritarren artean eresia. Lantegiko lanetik aparte, Aramaioko baserri askotako lurrak lantzen zituzten traktore harekin, orduko hainbeste kobratuta. Mekanizazioak lanak erraztu eta arindu egin zituen baserrietan.

302. Gerratik ihesean (ARA-070/012)

Gerra ostea gogorra izan zen. Gerran etxeko gehienak Gantzaga auzora ihes eginda egon ziren egun batzuetan. Salturralde etxea granada zuloz eta tiroz josita aurkitu zuten itzuli zirenean. Etxeko artoa eta garia soldaduei eman behar izaten zieten. Auzoko Juanito Uxarrek kontatzen zituen gerrako kontu gogorrak.

303. Bi osaba galdu zituen gerran (ARA-070/014)

Gerran edo gerraren ondorioz, bi osaba galdu zituen; horietako bat gerran betirako desagertuta.

304. Errotatik irina eta argindarra (ARA-070/015)

1922an Azkoaga, Barajuen eta Zabola auzoen artean errota bat eraiki zuten, alea ehotzeko eta auzotarrentzako argindarra sortzeko. Egunez eho eta gauez argia ematen zuen. Beste auzo batzuek ere eraiki zituzten antzerako errotak.

305. Patxi Santa Agedan ile-apaintzale (ARA-070/016)

Aramaioko Txatxurrena taberna-ile-apaindegian ibili zen Patxi ile-apaintzaile. Aurretik, Santa Agedako gaixoei ilea eta bizarrak apaintzen egon zen urtebetez ikasten.

306. Anai-arreba asko ziren (ARA-070/021)

Hamaika anai-arrebatatik zaharrena Patxi da, eta hamar bizi dira oraindik. Amak lan asko zuen eta anai-arrebak bata bestea zaintzen zituzten.

307. Egunero lanean (ARA-070/022)

Hogeita bat urtean izan zuen ile-apaindegia. Ile-apaintzaile lanak lantegiko lanetik aparte ziren, ilunabar eta domeketako lana. Zazpi urtez Arrasateko Zerrajeran eta beste hogeita hamar urtez Fagor kooperatiban lan egin zuen, jubilatuta arte. Baldintza onetan eta pozik, hirurogeita bi urterekin jubilatuta zen.

308. Otxandiora gorrien bidetik (ARA-070/024)

Lehengo bizikletak balazta gutxi zuten eta aldatz beheran sokaz lotutako egur zatia herrestan eramaten zuten balaztatzeko. Otxandiora, Arrazolara eta edozein lekutara joaten ziren erromerietara. Gorriek egindako bidetik joaten ziren Otxandiora, baita baserritarrak plazara ere. Emaztea askotan joaten zen astoa kargatuta Otxandiora. Aramaion bertan ez zegoen herriko azokarik, denak baserritarrak zirelako herrian. Gasteiz eta Arrasatera ere joaten zen emaztea etxeko gauzak saltzera, baina autobusez.

309. Erromerietan herririk herri (ARA-070/026)

Igandetan herriko plazara dantzara joaten ziren. Azkoaga auzoko Felipe Beitiak jotzen zuen soinua plazan. Feliperen anaiak, dantzan zeuden mutilei kobratzen zieten soinu-jotzailearentzako saria. Patxiren lehengusu bat Jauregiren autobusen txoferra zen, eta Arrasateko banda edota beste musikarari batzuekin batera ibiltzen zen herririk herri.

310. Arabara baino nahiago behe aldera (ARA-070/027)

Gaztetan kuadrilla giroan astakeri batzuk egin zituzten. Arrasateko Garagartza auzokoak etortzen zirenean, borroka batzuk sortzen ziren. Baina ez omen dute Aramaion beste herriren batekiko amorru edota inbidiarik. Arabarako baino beherako joera gehiago dutelakoan dago Patxi, euskaldun girora.

311. Gaztak gari artean (ARA-072/009)

Saltzen ez ziren gaztak, gari-arkan gari artean gordetzen ziren lizundu ez zitezen. Gerraostean Udalari emateko gari-kupoa, urtero Udalak eskatzen zuena eman behar izaten zen. Anega bat edo bi izan zitezkeen. Musu-truke kentzen zieten kupo hori. Rufinaren aitak, gizona kartzelan zuen famili bateri lur-sail bat uzten zien patatak edo zerbait izan zezaten.

312. Osaba Madrilén preso (ARA-072/010)

Gerra denboran, aitari agindu zioten ardiak landa batean biltzeko, eta lapurrengandik defendatzeko pistola bat eman zioten. Etxetik alde egiteko esan zieten, nazionalak zetoze eta. Aita eta osaba bat etxean geratu ziren. Andre eta umeei, ganaduekin Arriolara joateko esan zieten. Osaba tiroz zurituta zegoela, harrapatu eta Gasteizera eraman zuten nazionalak. Osabaren hurrengo berria, handik hil pare batera, Madrilgo kartzela batean preso zegoela izan zen. Ama eta izeba joan ziren bisitatzen.

313. Abioiek oso baxu egiten zuten eraso (ARA-072/012)

Arriolan bizpahiru hilabete pasatu zituzten. Francoren abioiek oso baxu egiten zuten hegan erasoaldietan. Gerra bukatu eta berehala, lehengo bizimodura itzuli ziren. Osaba ere laster utzi zuten libre eta itzuli zen etxera.

314. Otxandioko erromeriak (ARA-072/015)

Oleta auzoko senideen etxera joaten zenean, Otxandioko erromeriara joaten zen dantzara. Han askatasun gehiago omen zegoen. Rufinaren aita oso zorrotza zen etxeratzeko orduekin eta.

315. Baserria jatetxe bihurtu zuten (ARA-072/021)

Dukeena baserria, orain direla hogei urte jatetxe bihurtu zuten. Gaur ez dute ganadurik etxean. Jatetxea zabaldu eta gero ganadu gorri batzuk bazituzten,

baina pena handiz kendu egin behar izan zituzten. Etxeko terrenoak auzoko ganaduzain bateri utzita dituzte.

316. Eskola garaiaz (ARA-073/003)

Eskolako kontuak. Zazpi urterekin hasi zen eskolan "Señorita Juanita" maistrarekin; zortzi hilabete inguru egin zituen Zubiondoko eskolan. Gero, Aramaioko eskolara joan zen; han maisua zuten. Mutilak goizetan joaten ziren eskolara; neskak, berriz, arratsaldetan.

317. Eskolan, handien babesean (ARA-073/005)

Eskolako kontuak. Urtebete inguru egin zuen udaletxeko eskolan, eta handik eskola berrira joan ziren. 13 urte ingurura arte ibili zen eskolan. Debekatuta zuten euskaraz hitz egitea. Auzoko mutiko handienek txikiagoak erdian hartzen zituzten babesteko.

318. Ume garaiko jolasak (ARA-073/006)

Ume garaiko jolasak: harrapaketan, torre-torreka... Garizuman, txirikiletan ibiltzen ziren auzoan.

319. Dotrina, zerura joateko (ARA-073/008)

Auzoan ez zuten abaderik, eta beste auzo batera joan behar izaten zuten dotrina ikastera. Abadeak esaten zien eskolarik ez zela behar; dotrina behar zela zerura joateko.

320. Artzain mutikotatik (ARA-073/011)

150 ardi inguru zituzten. Osaba ibiltzen zen artzain lanetan, baina Jose Luisek 10 urte zituela hil zen. Aitari ardiak gustatzen zitzaizkion, baina ez zen lan horretan ibiltzen; Jose Luis mutikotatik hasi zen artzain. Gazta asko egiten zuten; baserrietara saltzen zuten gazta. Lehenago, Durangora saltzen omen zuten gazta.

321. Sagar asko (ARA-073/012)

Jose Luisen baserrian sagar asko biltzen zen. Arrasatera, Gasteizera eta Otxandiora saldu ohi zuten sagarra.

322. Amaiur batailoiko gudariak (ARA-073/015)

Gerra denborako oroitzapenak. Krutzeta eta San Kristobal aldean zegoen frontea. Goizetan, Amaiur batailoiko gudariak Jose Luisen baserrira joaten ziren gosaltzera. 30-40 gudari inguru joaten omen ziren talo eta esnea edota artoa eta esnea gosaltzera. Baserrian ez zen haientzat adina esne izaten, eta gudariak esnea beste baserri batzuetatik eramaten zuten. Bildotsak, buzkantzak... erosten zizkien. Ondo ordaintzen zien.

323. Karlistek aita, osaba eta ardiak eraman (ARA-073/016)

Gerra denborako oroitzapenak. Karlistek lapurretan egiten zien baserritarrei. Aita, osaba eta ardiak eurekin eman zituzten karlistek. Jose Luisen aita fusilatzekotan eraman zuten, baina hilabetera libre utzi zuten.

324. Gari-jotzeari buruzko azalpenak (ARA-073/019)

Gari-lanak. Garia igitaiarekin ebakitzen zuten. Garia jotzeko larraina prestatzen zuten, eta idiek tiratutako trailua pasatzen zuten. Gerora,

makinarekin egiten zuten lan gari-jotzea. Makina beste auzo batetik ekartzen zuten. Makinaren funtzionamenduari buruz azalpenak ematen ditu.

325. 16 urterekin Zerrajeran hasi (ARA-073/021)

16 urte zituela, Arrasateko Zerrajeran hasi zen lanean. Soldadu joan zen arte torlojugintzan, "tubo hermanak egiten"... aritu zen. Lan horiei buruz azalpenak ematen ditu.

326. Soldadutzatik bueltan, Zerrajerara berriz (ARA-073/023)

Soldadutzatik bueltatu zenean, Zerrajeran jarraitu zuen lanean; laminazioan. Laminazioko lanari buruzko azalpenak ematen ditu.

327. Abadeak dantza egitea debekatu (ARA-073/025)

Erromeria kontuak. Hasieran, Aramaioko erromeriara joaten zen, baina abadearekin gorabeherak izan ziren herrian (abadeak ez zuen dantzari egiten uzten), eta herriko gazteak Arrasate, Otxandio edota Durango aldeko erromerietara joaten hasi ziren. Jose Luis Otxandio, Oleta... aldeko erromerietara joan ohi zen.

328. Otxandioko erromeria (ARA-073/026)

Otxandioko erromeria. Bandak jotzen zuen. Felipe Beitia soinu-jole aramaiorak urte askoan jo izan zuen Otxandion. Joxe Luisen laguna zen; soldadutzan ere elkarrekin egon ziren.

329. Tetuanen soldadu (ARA-073/027)

Tetuanen, Afrikan, egin zuen soldadutza. 18 hilabete egin zituen soldadu. Bero handia pasa zuen han. Lotarako lekua nola zen azaltzen du.

330. Auzolana (ARA-073/030)

Auzolana. Bideak, eliza... konpondu behar izaten zituzten. Bizilagunek elkarri laguntzen zioten etxeko hainbat lan egiteko.

331. 1944an, elurte handia (ARA-073/033)

1944an elurte handia egin zuen Aramaion. Mendi aldean, ia bi metroko elurra bota omen zuen. Elurrak iraun zuen denboran, ganadua baserrian eduki zuten, eta beraiek ematen zien jana.

332. Ura, argindarra eta Uribarriko errota (ARA-073/034)

Beti ezagutu izan ditu ura eta argindarra baserrian; baserri ondotik pasatzen zen erreka. Komuna ere bazuten etxean. Uribarriko errota baxkide ziren (guztira 30 baxkide inguru ziren), eta handik hartzen zuten argindarra. Errotako kanalak auzolanean garbitzen zituzten. Uribarriko errota buruz hitz egiten du: errota, argindarraren funtzionamendua, baxkideak...

333. Gauetan, errota martxan (ARA-073/036)

Gerraostean, errota itxita egon ziren. Garia eta artoa ehotzeko nola moldatzen ziren azaltzen du: "guardia zibilei zerbait emanda". Gauetan jartzen zuten martxan errota. Beste auzo batzuetatik ere jendea joan ohi zen Jose Luisen auzoko errota.

334. Jesuitekin morroi (ARA-074/005)

Elizpean edo kontzejupean jolasten zuten pilotan. Durangoko jesuitetan morroi egon zenean, futbolean jolasten zuten. 13 urterekin joan zen Durangora. Sukaldari laguntzaile jardun zuen urtebetez. 60 ikasle inguru, 10 bat “padre” eta beste hainbeste “hermano” ziren jesuiten ikastetxean.

335. Neskabila-mutikotako jolasak (ARA-074/006)

Garizuman txirikilletan jolasten zuten. Kui-kuika eta toke-torreka ere jolasten zuten. Neskak sokasaltoka, harrapo-harrapoka eta 'hazakazka' (tortolizka) jolasten zuten.

336. Gerra denboran, Santanderren atxilotu (ARA-074/007)

Durangotik itzuli zenetik, etxean egon da beti, gerra denbora kenduta. Bilbo galdu zutenean, atzera zihoazela, Santanderren harrapatu zituzten. Futbol zelaira lehenengo, seminaria gero, eta azkenik Corbanera eraman zituzten. 4.800 lagun egon ziren preso Corbanen.

337. "Batallón de Trabajadores"era zigortuta (ARA-074/008)

Corbanetik lauhun lagun Mirandara eraman eta "Batallón de Trabajadores" bat eratu zuten. Handik Gironara, eta geroago Toledora joan ziren. Gerra bukatu eta gutxira itzuli zen etxera, baina hiru hilabetez igandero aurkeztu behar izan zuen Aramaioko Guardia Zibilen kuartelean, eskuineko eskua altxatuta aurkeztu ere.

338. Berriro soldadutza egitera (ARA-074/009)

Gerra bukatu zen arte, italiarren batailoian egon zen. Gerra bukatu zenean espainiar batailoia batera pasatu zuten. Etxera itzuli eta urtebetera berriz ere soldadutza egitera bidali zuten, Burgosera. Urtebete inguruko soldadutza egin zuen.

339. Baserrian lan guztiak eskuz (ARA-074/010)

Marinak lau zapabost hilabete egin zituen neskame Gasteizen. Baina bestela beti etxean egon zen. Etxean ganaduak eta ardiak zituzten. Soroko lan guztiak eskuz egiten ziren; garia trilluarekin jotzen zuten larrainean. Gero lau baserriren artean matxaka izeneko makina erosi zuten. Etxe batzuetan behorrak gainean ibiliaraziz jotzen zuten garia.

340. Gari-jotzeko makina (ARA-074/011)

Matxaka apurtu zenean, Azkoaga auzoko Salturralde baserrian zegoen gari-jotzeko makina etortzen zen Urdungio baserriko gariak jotzera. Makina handia eta astuna zen, eta arazoak ematen zituen etxerik etxe garraiatzeko. Handik gutxira utzi zitzaion garia ereiteari.

341. Burgostik ogia ekartzen (ARA-074/012)

Gerraosteko goseterik handiena zela eraman zuten Iñaki soldadutzara. Han ogia sobera zegoela-eta, baimenarekin etxera ogiz kargatuta etorri zen. Burgosen ogia sobera, baina etxean errazionamenduko “chusco” beltzak jaten.

342. Etxean ura ez egoenean (ARA-074/013)

Ezkondur eta gero jarri zuten ura etxean. Argindarra auzoko erroetatik hartzen zuten. Errotako argi-sorgailua ez zuten ondo zaindu eta hondatu egin zen. Baldean ura sukaldara ekarri, ur hori sutan berotu eta garbitzen ziren. Marinak Etxagueneko uraskan beratzen jartzen zituzten arropak, gero xaboiz garbitzeko.

343. Sutako hautsa xaboi (ARA-074/014)

Uraska ondoan sua egiten zuten arropak egosteko. Gaztaina enbor huts batekin egindako pote baten egosten zuten arropa, harik eta txapazko bidoi bat eskuratu zuten arte. Lixiba egiteko sutako hautsa erabiltzen zuten xaboi gisa.

344. Lixiba hirua astean behin (ARA-074/015)

Uraskan xaboitu ondoren eramaten zituzten arropak etxera sutako hautsarekin lixiba egiteko. Hiru astetik behin edo egiten zuten lixiba.

345. Bi eztei-ospakizun ezkontzako (ARA-074/016)

Ia jaio zirenetik ezagutzen dute elkar. 1943. urtean ezkondu ziren. Astebeteko eztei-bidaia egin zuten, Donostia eta Bilbo bisitatuz. Ezkontza egunean ezteiak emaztegaiaren etxean ospatzen ziren gazteekin. Eztei-bidaiatik bueltan senar-emazteen etxean ospatzen zen helduekin. Marinarenean ardia hil zuten, eta Urdungion txahala. Ardoa eta pattarra ere izaten zen.

346. Itsasoa, putzu handi bat (ARA-074/017)

Orduan igandetan beti kafea hartzen zuten; bestela buruko mina eta zutenean hartzen zuten. Eztei-bidaia aurretik Marina behin ere ez eta Iñaki behin bakarrik egonda zeuden Donostian. Jesuitekin joan zen Donostiara, Getariatik bueltan kamioiez. Getarian itsasoa ikusi zuenean, putzu handi baten itxura hartu omen zion. Aramaio goiko gain batetik ikusten omen da batzuetan itsasoa.

347. Osaba harri-zulatzilea (ARA-074/018)

Aita, aitajauna eta hiru seme-alaba bizi ziren Urdungion Marina eta Iñaki ezkondu zirenean. Beste osaba mutilzahar bat ere egon zen etxean bizitzen, kanpoan lan egiten zuena. Harri-zulatzailerak jarduten zuen obra handietan, Esako urtegian esate baterako. Bost seme-alaba dituzte Marina eta Iñakik.

348. Baserritar gutxi Aramaion (ARA-074/020)

Hustu ziren baserri askotan berriro ere jendea bizi da, baina bizimodua etxetik kanpo irabazita. Baserritarrik apenas geratzen da Aramaion.

349. Elurteak etxea kaltetu (ARA-074/022)

Elurte handietan, teilatutik elurra kendu behar izaten zuten. Elurraren pisuagatik etxeek plomua galdu eta lan handiak izan zituzten zuzentzeko.

350. Otxandion hasi zen miliziano lanetan (ARA-074/024)

Gerran frontea etxetik ikusten zen, baina ez zen jausi bonbarik herri barruan. Gorriak mobilizatu zituztenean, Iñaki boluntario joan zen, hartara destinoa

aukeratzeko eskubidea zuelako. Otxandion egon zen miliziano, eguneko 10 pezetako soldatarekin. Gernikako bonbardaketa egunean, Iñaki gaixorik eraman zuten anbulantzia Zornotzatik Bilbora. Han izan zuen Gernikakoaren berri.

351. Idiekin Anbototik lur beltza garraiatzen (ARA-074/026)

Idiak etxeko lanetarako erabiltzen zituzten, baina ezkondu eta gero Anbototik lur beltza garraiatzen ibili zen. Oñatiko Zubillaga auzoko Errota Barrira eramaten zuten lur hori. Lehortzen zenean, eho ondoren, zorroetan sartu eta saldu egiten zuten. Galdategietan kolorea emateko erabiltzen omen zuten.

352. Lur beltzaren ustiapena (ARA-074/028)

Lur beltz horren ustiapena kontu zaharra omen zen ordurako. Durangarren batzuk aurretik ibiliak ziren ustiaketan. Iñaki eta beste bi garraiolari ibili ziren gurdiekin lurra eramaten; lurra atera, kargatu eta garraiatu egiten zuten. Kamioia Aramaiora etortzen zen lurraren bila.

353. Lur beltza diru iturri ona (ARA-074/030)

Idiekin Anbotora joatea luzeagoa zen kargatuta bueltatzea baino. Bidea ere oso txarra zen. Pisura kobratzen zuten. Mila bat pezeta izaten ziren bidaiako, eta diru hori gerraostean oso ondo etortzen etxerako.

354. Etxaguengo eskola berria (ARA-074/031)

Euren umeek Etxaguen auzoko eskola berrian ikasi zuten. Gaur egun eskola horretan auzoko elkarte bat dago.

355. Santa Kruz apaiza kartzelatik ihesi (ARA-074/032)

Kaleko Errotabarria baserri ondoan errekatik irten eta handik Zalgora joan zen Santa Kruz apaiza auxilio eske. Arropa lehorrak eta jateko zerbaiten eske. Horiek guztiak hartuta, Arragaburu (Arraburu) baserrira joan omen zen, eta handik bueltan Urdungiora ekarri zuten.

356. Ia fusilatu omen zuten Santa Kruz apaiza (ARA-074/033)

Bertan Iñakiren birramonak zerbait jaten eman eta arrosarioa errezatu ondoren, inguruko koba-zulo batean gorde zuten. Gero Frantziara hanka egin omen zuen, bakar-bakarrik zegoela. Hauek guztiak Aramaioko udaletxeko kartzelatik, ihes egin ondoren gertatu ziren, fusilatzeke zain zegoela. Primo de Rivera etortzeko omen zen fusilamendura. Santa Kruzek preso zaina nola engainatu zuen azaltzen du Iñakik. Koba-zuloan gordeta egon zen bitartean, Iñakiren aitajaunak eramaten zion egunero esnea.

357. Gorriekin mobilizatuta (ARA-074/035)

Gorriekin mobilizatu ziren auzoko hiru lagun Otxandioko "Batallón de Zarpadores"en. Telesforo Monzonen anaia zegoen kapitain.

358. Lehenengo tiro eta lubakiak (ARA-074/036)

Gopegi inguruan entzun zituen lehenengo tiro eta mortero-hotsak. Gero lubakiak egiten jarri zituzten. Frontean borroka gogortu zenean, Otxandiora itzuli ziren.

359. Otxandion eraso (ARA-074/037)

Ehiza-hegazkinek Otxandioren aurka eraso egin zutenean, emakume eta umeein babeslekuetan gordeta, oso gaizki pasatu zuten.

360. Aita gazterik hil zen (ARA-077/002)

Auzoko eskola gaur egun Intxaurren elkartea dagoen tokian zegoen. Han eskolatu zen Kepa. Irakasleak beti maistrak izan zituen. 20-30 bat ikasle elkartzen ziren eskolan, neska eta mutil elkarrekin. 11 urte zituela aita hil zitzaion, eta harrezkero ahal izan zuenetan bakarrik joan zen eskolara. Anaierik gazteenak urte bat zuen orduan, ama gaixorik zegoen eta osabek asko lagunduta irten zuten aurrera. 16 urterekin hartu zuen etxearen ardura osoa.

361. Kaleko gau-eskolak (ARA-077/003)

Sei urterekin hasi zen eskolan, kalean. Bederatzi zituela eraiki zuten auzoko eskola eta bertan jarraitu zuen ikasten. Aita hil eta gero kaleko gau-eskolara joaten zen. Hamabost urterekin bukatuko zituen eskolok.

362. Baserritik bizimodurik ez (ARA-077/004)

Ganadu asko izan dute beti Uribarrigaiñen. Soldadutzatik etorri zenean, okeletarako behiak kendu eta esnerakoak jarri zituen. "Leche Ona" etortzen zen Bilbotik esnearen bila. Egunean ehun esne-litro batzen zituen. Ezkondu zenean ganadu batzuk kendu eta lantegian hasi zen lanean.

363. Zerrategitik Fagorrera (ARA-077/005)

Lehenengo Lana zerrategian egin zuen lan. Gero Fagorrera pasatu eta bertatik jubilatu zen.

364. Traje eta gorbatarekin lanean (ARA-077/006)

Azken 13 urteak ate-zaintzaile jardun zuen Fagorren, Garagartzako lantegian. Burla egiten omen zioten, traje eta gorbatarekin lan egiten zuelako. Atezaintzan hartu zuen erretiroa.

365. Idi tratuan (ARA-077/007)

Gaztea zenean idiak aldatu beharra suertatu zitzaion. Arrasateko ferian idi berriak lortzeko egin behar izan zituenak azaltzen ditu. Idiak ordaindu gabe eramane zituen etxera.

366. Idi zaharrak saltzen (ARA-077/008)

Idi zaharra Oletako Felix tratanteari saldu zion. Berria kostatu zitzaiona baino 3.000 erreal gehiago lortu zituen zaharragatik.

367. Matxaka eta gari-jotze makina (ARA-077/009)

Arrasateko hurrengo ferian idiak ordaindu eta mundu guztia pozik azaldu zen. Soroetan artoa eta garia urtero lekuz txandatuta ereiten ziren. Erremolatxa eta patata ere sartzen zituzten. Garia matxakarekin jotzen zuten. Soldadutzatik etorri eta gero, gari-jotzaile handia erosi zuten hogeitazazpi urtean. Garia zorrora eta lastoa ganbarara botatzen zuen gari-jotzeko makinak.

368. Garia ereiteari utzi zioten (ARA-077/010)

Garia ereiteari utzi zionean, gari-jotzekoaren bere partea Inuzpeko bati saldu zion. 1960. urte inguruan utziko zion garia ereiteari. Poliki-poliki baserritar guztiak garia ereiteari uzten joan ziren. Gari-jotzeko makina txatarretara eraman zuten.

369. Garia ebakitzeko makina (ARA-077/011)

Garia ebakitzeko makinarik ez zuen, baina alokatutakoa ekartzen zuten etxeko lanetarako. 43 urte izango zituen lehenengo traktorea erosi zuenean. Oraintxe arte iraun du traktore hark.

370. Morroi eta neskameak etxean (ARA-077/013)

Gerraostean kaletik jendea etortzen zen, tripa betetze alde baserrian lana egitera. Umea zenean, morroi eta neskameak ezagutu zituen etxean. Haiek ere tripa-truke eta jantzien alde egiten zuten lan. Gabonetan zerbait ematen zieten, etxera eraman ahal zezaten.

371. Matxaka motorduna (ARA-077/014)

Aita zena oso aurrerakoia omen zen. Garia jotzeko matxakarentzako, gasolinarekin zebilen motor alemana, soka batekin abian jartzen zena, ekarri zuen.

372. Aita sagardo eta txakoligile (ARA-077/016)

Aitak fruta-arbola asko zituen landatuta. Sagardoa eta txakolina egiten zuen. Bilbotik karroza handi batekin etortzen ziren sagardoa erostera. Kepak uste du garai haietarako bere aita aurrerakoia izan zela. 1945. urtean hil zen. Beste baserri batzuetan behorrekin edo trilluarekin (trailua) garia jotzen zenean, aitak motordun matxakarekin egiten zuen lan bera.

373. Argindarra auzoko errotatik (ARA-077/017)

Auzoan bazuten errota. Bertan sortutako argindarrarekin argitzen zuten etxea berak akordua duenetik. Urik ez zegoenean, argirik ere ez zuten izaten eta argizariz eginiko txirritolarekin argitzen ziren. Urik gabeko igande batean, auzoko abadea haserre omen zen elizan argirik ez zegoelako. Mezatan bertan auzotarren batek erantzun omen zion. Don Vicente Irazuegui zen abade hori, eta herriko alkateak baino aginte handiagoa omen zuen.

374. Osabak kartzelan ezagutu zuen andregaia (ARA-077/019)

Osaba, Cirilo Mondragon, kartzelatik irten eta gero ezkondu zen. Laudioko kartzelan ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Bi seme-alaba izan zituzten.

375. Errepide zaharrak (ARA-077/021)

Baso bateko egurra saldu eta Montesa Impala moto bat erosi zuen 25 urte zituela. Bide estu batetik, baina etxeraino iristen zen motoan. Kaletik Uribarri auzorako errepidea 1950. urte inguruan egin zen. Igandetan kalera joateko ohitura zuten. Ordubete inguruko ibilaldia zen orduan. Otxandiora ere joaten ziren, oinez.

376. Fraideen agindua (ARA-077/022)

Abuztuko San Estebanetan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Meza, soinu-jotzailea eta bazkari berezia izaten zuten. Kaleko erromerietan dantza lotua egitea debekatuta zuten. Aste Santu inguruan, Arantzazuko fraideak etortzen ziren udaletxeko balkoitik sermoia egitera. Behin, Artetxe izeneko fraide batek, egindako bekatuengatik barkamena lortzeko plazako zoruari muin emateko agindu zien entzuleei.

377. Basoetan pinurik ez (ARA-077/026)

Arrasateko plazara astero joaten zen ama, etxeko sagar, arrautza, etab. saltzera. Hori izaten zen sarritan etxeko diru-sarrera bakarra. Garai haietan azeriak eta ez zuten hainbeste erasotzen. Aramaion gaur ikusten diren pinudi guztiak, gaztainadi, harizti eta pagadiak ziren orduan. Mendiaren beste aldetik, Otxandioraino, larrea eta iralekuak zeuden.

378. Otxandio eta Aramaio arteko muga arazoak (ARA-077/027)

Araba eta Bizkaia artean muga arazoak daude, Aramaio eta Otxandio arteko mugan. Jabe ezagun gabeko lursailen bat omen dago bertan.

379. Ura etxean (ARA-077/028)

Argindarra beti ezagutu du Kepak etxean. Sukaldean ura aitak jarri zuen. Aurretik patinatik (putzua) hartzen zuten ura. Ura etxera ekartzeko egin zituzten lanak azaltzen ditu. Bi idi-pare erabili zituzten, gurdi bati lotuta, ur andela egiteko materiala garraiatzen. Horretan zebiltzala, gurdiak oin bat harrapatu zion aitari.

380. Aita petrikiloarengana eraman zuten (ARA-077/029)

Salturralde baserri inguruan izan zen istripua. Aita astoan kargatuta kaleko petrikilora eraman zuten eta Kepak zortzi urte zituela, gurdiaekin jarraitu zuen. Petrikiloa Aramaioko emakume bat zen.

381. Aramaioko medikua (ARA-077/030)

Medikua bazegoen Aramaion. Baserririk baserri ibiltzen zen mediku hori. Larrialdietan Gasteizko Santiago ospitalera joaten ziren.

382. Gerra aurrean eskola euskaraz (ARA-078/002)

Auzoko abadearekin ikasi zuen Basiliok berak daukan eskola guztia. Dotrinarekin ez zen oso ondo moldatzen. Dotrina ondo ez ikastearren, igande arratsaldetan abadearekin berrikastera joan behar izaten zuen, zigortuta. Don Ramón Etxaniz abadearekin hasi zen, baina gero Don José Juaristi etorri zen. Irakurtzen erdaraz, baina kontuak egiten euskaraz ikasi zuen.

383. Maisu bereziak zituzten (ARA-078/003)

Ramon abadea jenio bizikoa omen zen, eta borroka baten ondorioz egindako promesa bategatik egin omen zen abade. Abade honen beste kontakizun umoretsu batzuk. Ramon Azpeitikoa zen, eta bera ordezkatu zuen Juaristi berriz, azkoitiarra; bata karlista eta bestea abertzalea.

384. "Kenduketak" eta "tolesketak" (ARA-078/004)

Eskolan "kenduketak" eta "tolesketak" ikasten zituzten, gaurko kenketa eta biderketen orde. Juaristi euskaltzaleagoa zen Etxaniz baino. Basiliok 12 urte zituela, maisurik gabe egon ziren gerragatik, hiru bat urtez. Gerraostean ez zen gehiago eskolara joan. Zazpi urtetik zortzira arte ibili zen Don Ramonekin.

385. Gerratik ihesi gurdiarekin (ARA-078/006)

Gorrien propagandagatik, etxetik irten ziren koltxoiak gurdian kargatuta, Bizkaia aldera ihes egiteko asmoz. Laster itzuli ziren etxera.

386. Milizianoak arrautzak erosten (ARA-078/008)

Nazionalek Arrasate hartuta zutela, gorrien milizianoek zaintzen zuten Aramaio. "Orden Público" deitzen zieten. Milizianoek eguneko hamar pezetako soldata zuten. Sarritan etortzen ziren etxera arrautzak erostera: dozena batek zazpi txakur handi balio zuen. Etxean babestuta eduki zituzten Legutioko senide batzuk eta Arrasatetik ihes egindako beste bi lagun. Horiek milizianoei saltzen zizkieten etxean egindako artilezko galtzerdiak.

387. Gerraoste gogorra (ARA-078/010)

Gerra bukatu eta gero, bizimodu nahiko normalera itzuli ziren. Ogirik ez zegoela gogoratzen du. 1941a arte oso urte gogorrak izan ziren, gariarentzako urte txarrak tartean. Estraperloa batzuk egiten zuten, baina euren aita ez zen izan horietarikoa.

388. Gerraostean ganadu gehiago etxean (ARA-078/011)

Gipuzkoatik Arabara etortzen ziren gari bila. Aramaio Araban egon arren, gari gehiena Legutiotik harago hartzen zen. 1941. urtean aldameneko baserria erosi eta ganadu gehiago jartzeko aukera izan zuten. Gerra izan zen arte hiru behi baino gehiago ezin izan zuten hazi. Idirik eta ardirik ez dute inoiz izan. Basiliok berak jarri zituen ahuntzak.

389. Jesuiten morroi (ARA-078/012)

Ahuntzen pare ibiltzen omen ziren eurak, arriskurik ikusi gabe. Ahuntzak etxe askotan jarri zituzten. Mendian haitz artean ibiltzen ziren ahuntzok, eta etxera ekartzen zituztenean, katean egoten ziren. Basilio gerraostean Durangoko jesuitengana joan zen morroi, erdara ikastera. Aita eta ama etxean bakarrik geratu zirenean itzuli zen Durangotik.

390. Seminarioko lanak (ARA-078/013)

Durangon sei morroietatik bat bakarra zen erdalduna, eta ez zuen erdara asko ikasi Basiliok. Eskola apur bat ere jaso zuen jesuitekin. Sukaldeko lanak, etxeko garbiketak eta txerriak gobernatzea zen bere lana. Basilio ez zen etxe barruko lanen zalea, eta pozik itzuli zen etxera.

391. Sukaldeetarako altzariak egiten (ARA-078/014)

Soldadutzara joan arte etxean egon zen lanean. Soldadutza bukatu eta hiru urte geroago lantegi batean hasi zen lanean. Handik urte eta erdira arotz lanetan ekin zion eta 25 urtez jardun zuen horretan, jubilatuta arte. "Muebles San Josepe" aroztegia jarri zuen beste lagun batekin, sukalderako altzariak egiteko. Altzari denda edota etxe partikularretarako egiten zituzten altzariak.

392. Aramaio eta Otxandioaren arteko arazoa (ARA-078/018)

Igandeetan Aramaioko plazara joaten ziren. Urkiolara San Antonioetan eta Arrazolara ere joaten ziren jaietan. Aramaio eta Otxandioko mugen arteko arazoaren istorioa kontatzen du.

393. Bildotsak erretzeko ikatza (ARA-078/019)

Bildotsak burruntzian erretzeko ikatza berak egiten zuen. Auzotar ikazkin batzuekin hasita, bera ere ikazkin bihurtu zen.

394. Basilio ikazkin (ARA-078/020)

Ikatza nola egiten zuen azaltzen du.

395. Bildotsak erretzen maisu (ARA-078/021)

Bildots asko erre zituen berak egindako ikatzarekin. Oraindik erretzen ditu bildotsak, baina azkeneko ikatza orain dela lau urte egin zuen. Gaur egun ez da gauza sentitzen txondorgintzan hasteko.

396. Igandetean tertulian eta karta jokoan (ARA-078/022)

Gerra aurretik soinua auzoetako jaietan jotzen zuten, baina herriko plazan ez oraindik. Gerraostean, Gobernu Zibilaren baimena lortuta, ekin zioten igandero plazan erromeriak izateari. Arratsaldeko pezeta bat ordaintzen zuten erromerian dantza egiteagatik. Angiozarko itsua eta bere anaia Julian etortzen ziren musika jotzera. Igandero ez ziren kalera jaisten. Batzuetan Beitikoa baserrian elkartu eta karta jokoan eta tertulian aritzen ziren. Auzoko elizan arrosarioa errezzatu ondoren elkartzen ziren.

397. Pasionistak Aramaion misioan (ARA-078/023)

Soldadutza aurretik Aramaiora besterik ez ziren jaisten igandetean. Herriko abadeak beti egoten ziren erromeriaren kontra. Gabiriako pasionistak misioetan etorrira, herriko jendearen aurrean plazan sermoia eman ondoren, plazako jendea plazaren zoruari muin ematera behartu zuen, bekatuak ordaintzeko.

398. Timoteo Añabarrek, hartzarekin desafioa (ARA-078/025)

Basilio umea zela, herriko Timoteo Garrok "Añabarre" desafioa izan omen zuen herriko plazan. Hartza baietz berak lurrera bota, zen desafioa. Hartza hori ekarri zuten nonbaitetik eta Añabarrek desafioa irabazi zuen. Oso gizon indartsua omen zen Añabarre.

399. Errotatik irina eta argindarra (ARA-078/026)

Añabarre hil zela badira 20 urtetik gora. Aramaiotik Otxandiora argindarra eramaten zuen zentral elektrikoan egiten zuen lan. Gantzaga auzoko errota, alea eho eta etxetarako argindarra emango zuena, 1921. urtean eraiki zuten. Iberduero etorri zen arte, kalera ere eramaten zuten argindarra Gantzagako errotatik. Bi errota-harri zituen, bata garia eta bestea artoa ehotzeko.

400. Abadiñotik Aramaiora garia ehotzera (ARA-078/027)

Errotak prezintatuta egon zirenean, Abadiñotik eta Arrazola aldetik astoekin etortzen ziren gauez Gantzagako errotan alea ehotzera. Basilio gau-errotari bezala ere aritu zen garai haietan. Egunez ere alea eho ahal izateko, tratua eginda zuten Guardia Zibilekin. Bizkaitik alea ehotzera etortzen zirenak batzuetan lo egiten geratzen ziren, eta astoei ere jaten eman behar izaten zitzairen. Auzoko hamar baserri ziren errotaren jabeak.

401. Gerra aurrean eskolan ibilia (ARA-079/002)

Gerra aurreran ibili zen eskolan, kalean. Mutilek eta neskek aparte ikasten zuten. Ez zuten dotrina askorik ikasten. Eskolan piper eginez gero, diru isuna jasotzen zuten. Antoniok ez zituen isun asko jaso.

402. Iturrieta, baserri handia (ARA-079/003)

Zortzi anai-arrebetan hirugarrena zen Antonio. Baserrian egitekoak izan arren, egunero joaten zen eskolara. 8-10 ganadu eta 120 ardi zituzten. Iturrieta baserri handia zen. Gurasoak, zortzi anai-arreba, aitona (amonarekin justu-justu gogoratzen dela dio) eta "hospizianoa" (hospiziokoa) bizi ziren baserrian. Neguan, ardiak baserrian edukitzen zituzten.

403. Eskola, udaletxeko goiko solairuan (ARA-079/005)

Bederatzi urterekin hasi zen eskolan, eta 14 urterekin bukatu zituen ikasketak. Udaletxeko goiko solairuan zegoen eskola.

404. Torre-torreka jolasean (ARA-079/007)

Mutikotan, gehienetan torre-torreka ibiltzen ziren jolasean. Ez zuten jolaserako denbora asko edukitzen. Eskolak gaztelaniz izaten ziren. Eskola bukatuta, baserriko lanetan aritu izan da beti.

405. 18 urte zituela, gerra etorri (ARA-079/008)

Antoniok 18 urte zituela etorri zen gerra. "Gorriak" mendialdean zeudela, eta herriko giroa ona zela dio. Abanzada izan zenean sartu ziren soldaduak herrira. Denbora horretan Antonio baserrian egon zen: ez zuten soldaduekin gorabeherarik eduki.

406. Bi urte soldadu italiarrekin gerran (ARA-079/009)

Gerran soldadu nondik nora ibili zen aipatzen du: Faltzesen, San Martzialen... Urte bi eman zituen gerran, Francoren lurreko armadako italiar konpainia batean. Soldadu italiar gazteenak 31 urte zituen; gainerako guztiak zaharragoak ziren. Ezin ulertuak hizkuntzagatik. Soldadu italiarrekin ikasi zuen makarroiak jaten. Antonio artilleriako konpainiako soldadua zen.

407. Senideak galdu Durangoko bonbardaketan (ARA-079/010)

Elorrio ondoan bizi ziren senide batzuk galdu zituen gerran, Durangoko bonbardaketan.

408. Gerra bukatuta, etxera buelta (ARA-079/011)

Gerran, beti Euskal Herritik kanpora ibili zen Antonio. Bi urte egin zituen gerran. Gerra bukatu eta etxera bueltatu zen. Bere lagun gehienek 15 hilabete gehiago egin zituzten soldadu.

409. Soroko lanak eta gari-jotzea (ARA-079/014)

Soroetan garia, artoa, arbia eta patata lantzen zuten. Ortuko gauzak ere lantzen zituzten. Garia azaroan ereiten zuten. Makinak ekarri aurretik, garia trilluaz jotzen zuten larrainean.

410. Zortzi anega gari entregatu behar (ARA-079/015)

Gerraostean, zortzi anega gari entregatu behar izaten zituzten. Garia bakarrik entregatu behar izaten zuten.

411. Errotara, gauez (ARA-079/016)

Auzokoen artean "soziedadean" zuten errota. Gerraostean, errotak itxi egin zituzten: gauez joaten ziren garia ehotzera. Errotako prezintoa kendu egiten zuten. Ez ziren estraperloan ibili.

412. Erromeriak eta abadeak (ARA-079/018)

Domekero erromeria izaten zen Aramaioko plazan. Urkiolara ere joaten ziren erromeriara. Dantza lotuan egitea libre zen, abadeak bekatua zela esaten zuen arren. Erromerietan abadeekin izandako gorabeherak: soinu-jotzaileak kentzea...

413. Baserriko eginkizunak eta plazara saltzera (ARA-079/022)

Udazken garaiko baserriko lanei buruzko azalpena. Soroko lanak. Ganadua larrera ateratzen zuten eguerdira arte. Egunean birritan jezten zituzten ardiak. Ardi-esnearekin gazta egiten zuten. Arrasateko plazan saltzen zituzten gaztak. Antonioren emaztea joaten zen salmenta egitera.

414. Aldaketak eta makinak baserrietan (ARA-079/026)

Garia ebakitzeko makina auzokoekin erdibana zuten. Jotzeko makina, berriz, zazpiren artean zuten. Gari-lanak auzolanean egiten zituzten.

415. Medikua eta praktikantea (ARA-079/028)

Etxera joaten zen medikua, oinez. Praktikanteak laguntzen zuen erditzeetan. Etxe bakoitzeko hilean hainbesteko bat ordaindu behar izaten zitzaion medikuari.

416. Albaitaria (ARA-079/029)

Albaitaria gernikarra zen, eta motorrean ibiltzen zen batetik bestera. Albaitariari buruzko azalpenak. Ganaduak eta ardiak bakunatu egin behar izaten ziren: albaitariak bakunatzen zituen.

417. Ganadu salmenta (ARA-079/030)

Okelatarako ganadua Arrasateko harategi-hiltegi batera saltzen zuten. Gasteizera ere saldu izan zuten. Tratanteak baserrira joaten ziren. Bildotsak tratanteari saltzen zizkioten.

418. Euskara Araban, Antonioren gazte denboran (ARA-079/034)

Antionioren gazte garaian, Arabako beste herriak ez ziren euskaldunak. Galduta zegoen euskara. Legution eta Aramaion bakarrik egiten zen euskara.

419. Eskoriatzako mesedetako mojen eskola (ARA-080/002)

Hiru urte zituela hasi zen Eskoriatzako mesedetako mojen eskolan. 1937an, hegazkinek komentua apurtu egin zuten, eta mojak eskolak emateari utzi zioten.

420. Errepublika garaia, urriko iraultza (ARA-080/003)

Errepublika garaiko kontuak. 1933ko urriko iraultzan, kale-jantzian eskolak ematera behartu zituzten mojak: ezin zuten eskolarik eman moja jantziarekin. Eskolatik santu eta gurutze danak kenarazi zizkien. Kanpotik bi maistra ekarri zituzten mojek.

421. Gau-eskola (ARA-080/004)

11 urtera arte mesedetako mojen eskolan ibili zen. Gerra garaian, eskola apurtu zuten, eta bertan eskolak emateari utzi zioten. Gero, eskola nazionalako gau-eskolara joaten hasi zen.

422. Dotrina zaharra, euskaraz (ARA-080/005)

Errepublika garaian, dotrina euskaraz ikasten zuten: "dotrina zaharra" esaten zioten. Gero, gaztelaniaz ematen hasi ziren. Ez zuten zigorrik izaten euskaraz hitz egiteagatik.

423. Madrilen neskame (ARA-080/006)

23 urte zituela, neskame joan zen Madrilera Eskoriatzako beste hiru neskarekin batera. Astean behin kalera ateratzen ziren, eta euskaraz egiten zuten elkarrekin. Sekula inork ez zien ezer esan euskaraz egiteagatik. Lau urte egin zituen Madrilen.

424. 'Uribarren y Compañía' burdin lantegia (ARA-080/008)

19 urtetik 23 urtera bitartean, Eskoriatzako 'Uribarren y Compañía' burdin lantegian egin zuen lana. Zer lan egiten zuen azaltzen du. Sarritan, argia kendu egiten zien, eta gasogenoarekin egiten zuten lana. Gauez ere lanean aritutakoa da.

425. Mutikotatik, morroi (ARA-080/012)

Denbora gutxi egin zuen eskolan. Ama hil zenean, aita morroi bidali zuen Linatza baserrira.

426. Irabazitako dirua aitari eman behar (ARA-080/013)

Ama hil ondoren, aita baserriko lanetan aritzen zen. Eugenio Elma lantegian ibili zen lanean. Irabazten zituen diru apurrak aitari eman behar izaten zizkion. Aitak lurrak erosi eta ganaduak ipini zituen.

427. Kaletik, baserri-etxera (ARA-080/014)

Aramaion kalean jaio zen Eugenio, udaletxe ondoko etxe batean. Gero, baserri-etxe batera joan ziren bizitzera. Aitak lan asko egiten zuen baserrian.

Aitak Eduardo izena zuen, eta baserri-etxea "Eduardona" moduan ezagutzen zen.

428. Hainbat baserrian morroi lanetan ibilia (ARA-080/017)

Hamar urte baino gehiago egin zituen morroi moduan. Aramaioko Zabola auzoko Garaikoa baserrian, Gantzaga auzokoko Linatzen eta Bergarako Osintxu auzoko baserri batean jardun zuen morroi.

429. Bigarren aldiz Madrilera joan (ARA-080/019)

Bi alditan egon zen neskame Madrilen. Lehenengo aldian 11 hilabete egin zituen, baina gustora ez eta etxera bueltatu zen. Gero, berriz Madrilera neskame joateko aukera sortu zitzaion. Lana eskaini ziotenean Karmenek baietz esan zuen Madrilen erdi-nobio bat zuelako.

430. Osintxun morroi (ARA-080/020)

Eugenio Osintxuko Keizti baserrian morroi egon zeneko kontuak. Bi morroi zeuden baserri hartan. Baserriko ugazabek Soraluzeko lantegi batean egiten zuten lana.

431. Neskame zegoela senargaia ezagutu (ARA-080/021)

Madrilen bigarren familia batean neskame egon zeneko kontuak. Oso gustura egon zen haiekin. Familiari buruzko azalpenak. Lau hilabete pasatzen zituzten Aramaion, eta horrela ezagutu zuen Karmenek Eugenio.

432. Ilea mozten, baserriz baserri (ARA-080/023)

Eugenioren aita (Karmenen senarraren aita) baserrietara joaten zen ilea moztera. Bide batez, sardinak eta antxoak eramaten zituen saltzeko. Baserrietan arrautzak hartzen zituen, eta, gero, kalean saltzen zituen.

433. Ezkondu aurretik, Bilbon neskame (ARA-080/024)

Senargaia ezagutu eta urte eta erdira ezkondu ziren. Madrilgo neskametzat utzi egin zuen ezkontzeko zegoelako. Ezkondu aurreko hilabete batzuetan, ordea, Bilbon egon zen neskame Madrilgo ugazaben senide batzuen etxean.

434. Ama eta amona fraideentzako lanean (ARA-080/025)

Karmen gaztelaniaz hitz egiten ondo moldatu izan da beti. Izan ere, Karmenen ama San Viatorgo fraideetara joaten zen arropak garbitzera, eta amona, berriz, urte luzez aritu zen fraideentzako arropa josten.

435. Gerran bizitako jazarpena (ARA-080/026)

Gerra denborako oroitzapenak. Aita kartzelan sartu zuten "gorriek", herriko beste hiru-lau lagunekin batera. Familiak jasandako jazarpenaz hitz egiten du. Behin aita kartzelatik aterata, komitean presentatu behar izaten zuen.

436. Eskoriatzako gerrako giroa (ARA-080/027)

Gerra denborako oroitzapenak. Eskoriatzako giroaz hitz egiten du. Herriko karlisten kontrako jazarpenaz hitz egiten du.

437. Medikua, sukaldaria eta rantxeroa etxean hartu (ARA-080/029)

Gerra denborako kontuak. Nazionalen aldeko mediku bat, sukaldari bat eta rantxero bat eduki zituzten etxean. Karmenen amak nahiago zuen soldaduak etxean hartzea koltxoiak entregatzea baino. Egunero ematen zien jatekoa etxera.

438. Gerran familiak bizitakoak (ARA-080/032)

Gerra denborako kontuak. Nazionalekin soldadu ibili zen Eugenio. Anaia eta arreba, berriz, kartzelan egon ziren Gasteizen. Aitari etxea hutsik laga zioten.

439. Sakristau, urte askoan (ARA-080/039)

Urte askoan ibili da Eugenio sakristau lanetan. Kanpaiak jo, abadeari lagundu, bandeja jaso... ziren bere egitekoak.

440. Herriko zinean lanean ibilia (ARA-080/040)

Lehen, herriko zinea udaletxean zegoen. Garai hartan, zinean aritu zen lanean Eugenio, tikeak hartzen. Jendea zaintzea zegokion berari.

441. Etxe zaharrak (ARA-080/043)

Garai bateko Aramaio nolakoa zen kontatzen du: etxe zahar asko zegoen. Lehen bizi ziren etxeari buruzko kontuak. Etxe ondoan transformadore bat zeukaten. Etxeak komuna kanpoko aldea zeukan, balkoian.

442. Kale-baserriak (ARA-080/044)

Garai bateko Aramaio nolakoa zen kontatzen du: etxe zahar asko zegoen. Kale-baserriak. Kale-baserri gehienetan hazten zituzten txerriak: zenbait etxetan ganaduak ere edukitzen zituzten.

443. Erreka (ARA-080/045)

Aramaioko erreka. Lohia asko egiten zen errekan. Lehen zaborra errekarat botatzeko ohitura zegoen. Ur-biltegiak non dauden aipatzen du.

444. Aramaioko biztanleria (ARA-080/046)

Garai bateko Aramaio nolakoa zen. Karmen Aramaiora bizitzera joan zenean, 800 biztanle inguru bizi ziren herrian; gaur egun, 1.500 inguru dira. Garai batean, jende asko joan zen Aramaiotik Arrasatera bizitzera.

445. Jauregiren autobusak (ARA-080/047)

Jauregik lau-bost autobus zituen. Langileak Arrasatera ematen zituen autobusak. Autobusen ordutegiak.

446. Zerrajerako kooperatibara eroatera (ARA-080/048)

Lehen, Aramaioko jendeak ohitura zuen Arrasateko Zerrajerako kooperatibara eroatera joateko. Roneo lantegia, Karmenen senarrak bertan lan egiten zuen, Zerrearakoa zen.

447. Roneo lantegiko lana (ARA-080/050)

Roneo lantegian zer lan egiten zuen azaltzen du. Altzariak eta piezak margotzen zituen Eugeniok.

448. Lanera oinez edo bizikletaz (ARA-080/053)

Roneo lantegian lan egiten zuen garaian, oinez edo bizikletaz joaten zen Eugenio Aramaiotik Arrasatera. Gero, autobusak jarri zituzten. Elurragatik lanera joan ezinda gelditzen zireneko kontuak.

449. Uribarren y Compañía lana (ARA-080/055)

Uribarren y Compañía lantegian zer lan egiten zuen azaltzen du.

450. Errazionamendua (ARA-080/057)

Errazionamendu garaiko kontuak. Kartilarekin astean zer jaki eskuratzen zituzten.

451. Gari-lanak (ARA-080/061)

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Garia trilluarekin jotzen zuten larrainean. Behiak gorotza egiten zuenean, zartagin zahar batekin jasotzen zuen.

452. Azkoagako auzo-eskola (ARA-081/002)

Azkoagako auzo-eskolan ibili zen. On Lorenzo zen maisua, eta erdaraz ematen zituzten eskolak. Sei urte zituela hasi zen eskolan.

453. Dotrina, abade-etxean (ARA-081/004)

Dotrina On Lorenzo abadearekin ikasten zuten, abade-etxean. Dotrina euskaraz ikasten zuten.

454. 'Nor da Jaungoikoa?' (ARA-081/006)

Dotrinan abadearekin ikasitako 'Nor da Jaungoikoa?' otoitza esaten du.

455. Ganadua eta gari-lanak (ARA-081/008)

Altzagazpin ganadu "mordotxue" zeukaten: zortzi-hamar buru eta behorrak. Garia trillatu behar zenean larrainean, trilloa pasa eta gero behorrak ibiltzen ziren gari gainean. Gari-lanei buruzko azalpenak. Artoa eta patata ere ereiten zuten.

456. Behi-esnea (ARA-081/010)

Mantzano izeneko bat ibiltzen zen inguruko baserrietako behi-esnea biltzen. Hark, gero, saltzen zuen Arrasaten. Santa Agedako fraileei ere saltzen zien esnea. Egutero jeizten zituzten behiak.

457. Aita, karretero (ARA-081/012)

Joxeren aita karretero lanetan ibiltzen zen idiekin. Egurretan, "trongotan"... ibiltzen zen. Joxe joan izan zen aitari laguntzera. Idi-probetan ere ibiltzen zen.

458. Bi urtean etxera joan gabe (ARA-081/013)

Soldadu egon zeneko kontuak. Bi urte egin zituen soldadu, etxera bueltatu gabe. Mirandan, soldadu batek agurtu egin zuen, antza, idi-probetan ikusi

izanagatik ezagutu zuen. Brigadak, hori ikusita, etxera joateko permisoa eman zion.

459. Soldadu denborako kontuak (ARA-081/014)

Soldadu denborako kontuak. Nondik nora ibili zen: Logroño, Afrika, Madril... Madrilen ministerioan egon zen denboran, izebaren etxera joaten zen bazkaltzera domeketan. Ministerioan, milizianoak zaintzea egokitu zitzaion.

460. Soroko kontuak (ARA-081/022)

Baserriko eginkizunak. Azaroan, artoa moztu eta garia ereiten zuten. Mutikotan, afal ondoren ekiten zioten arto-zuritzeari eta lo hartzen omen zuen. Urtean txerri bat hazten zuten.

461. "Idi okerrak" (ARA-081/024)

Azkoagako idi-probak. Etxeko idiak okerrak omen ziren. Aitak eta Joxek bakarrik gobernatzen zituzten, besteak ez ziren ausartzen. Bi urte egin zituen soldadu etxera bueltatu gabe, eta bueltatu zenean idiak nola harrera egin zion kontatzen du.

462. Gerrako oroitzapenak (ARA-081/027)

Guadalajaran frontean egon zeneko kontuak. Gerra hasi eta geroago eraman omen zuten soldadu.

463. Gerra Aramaion (ARA-081/028)

Aramaio bonbardatu zutenekoa. Bonba batek Joxeren etxeako teilatura "salto" egin zuen, eta beheko zelaian sartu zen. Untzilla inguruan hildakoak izan ziren.

464. Festa giroa (ARA-081/029)

Auzoetako erromeriak: San Juanetan, Andremaixak, San Martinak... Etxeetan gonbidatuak izaten zituzten. Auzoan "tanbolintteruak" bizi ziren, eta kalerik kale ibiltzen ziren.

465. Pilotan, "Txiki taka" (ARA-081/031)

Eskolako kontuak. Neskak alde batean eta mutilak besteak egoten ziren gelan. Maisu bakarra zuten. Jolas denboran, mutikoak pilotan ibiltzen ziren elizpean. Udaletxe azpian ere pilotan ibiltzen ziren bat-baten kontra: "Txiki taka" esaten zioten. Tantua galtzen zuenak txakur txiki bat ordaindu behar zion besteari.

466. Arriola auzoan harri ugari (ARA-082/002)

Goiko haitzetatik eroritako harriengatik omen dator Arriola auzoaren izena. Errepide berriaren lanetan, animalia zaharren hezur eta adarrak aurkitu omen zituzten.

467. Eskolara gutxi joan zen (ARA-082/003)

Eskolara gutxi joan zen, gehien bat gau-eskolara. Gerraosteko eskola ganora gutxikoa omen zen. Udaletxeko goiko solairuan zegoen eskola. Gero zubi gainen egon zen, eta baita bainuetxean ere. Don Joaquín maisu arabarrak ematen zizkieten gau-eskolak. Anaiarik nagusiena izanez, ez zuen eskolara joateko aukera asko izan. Eskola erdaraz jaso zuen.

468. Kaletarrak nagusi eskolan (ARA-082/004)

Kaletarrek mendean erabiltzen zituzten baserritarrak, gazteleraz ez zekitelako. 150 bat ardi eta 15 bat ganadu buru zituzten etxean. Idiekin egiten zituzten baserriko lanak. Etxean denentzako nahikoa jatekorik ez, eta anai-arreba batzuk etxetik alde egin behar izan zuten, morroi edo neskame. Fermin beti etxean egon izan da.

469. Pinua janda, ardi pila bat galdu (ARA-082/005)

Anaiak laster hasi ziren basolanetan. Ferminek ikazkin lanetan jardun zuen aitarekin etxeko basoetan, baina etxeko lanek zuten lehentasuna. Gogoan du elur-urte handi batean ardi pila bat galdu zituztela Arrazolan. Pinu landaren buruak bakarrik ikusten ziren elurraren gainean, eta haixek janda hil ziren ardiak, tripak hondatuta.

470. Gerrirainoko elurra (ARA-082/006)

Arrazolatik Abadiñora jaitsi zituzten ardiak, eta horri esker ez zituzten denak galdu. Menditik itzuli ezin, eta Santa Agedatik bueltan etorri ziren ardiei aurretik bidea garbituz. 20 bat ardi galdu zituzten.

471. Soineko arropak ere izoztu (ARA-082/007)

Urte batean, elur-bisutsarekin ardiak begiak garrangatuta oso larri ibili zirela gogoratzen du. Soineko arropak ere izotzarekin klik-klak egiten omen zuten. Duela 50 bat urte izan zen hotz handi hori.

472. Ardiek eguraldi txarra sumatu (ARA-082/008)

Beste elur-aldi batean, bederatzi egunetan ibili zen ardiak aurkitu ezinda. Ardiek eguraldi txarra sumatu, eta Anbototik Santa Ageda aldera jaitsita zeuden. Orain baino elurte gogorragoak izaten ziren orduan.

473. Lur-sail gehienak labrantzarako (ARA-082/009)

Zelaiak baino, labrantzarako soro gehiago egoten ziren orduan. Ogiarentzako garia eta ganaduak jatekoak denak etxean ekoizten ziren. Ia etxeko terreno guztiak laboratzen ziren. Fermin gaztea zenean, morroia zuten etxean, aitaren senide bat. Fermin bera zaintzeko neskame bat ere egon zen etxean. Ama aitarekin lanera joaten zen.

474. Ganaduentzako neguan jatekorik ez (ARA-082/010)

Zelairik ezean, ganaduentzako negurako jan asko ezin zuten bildu. Ardiak elurretan ezin ibili eta batzuetan bizkarrean hartuta ekarri behar izaten zituzten etxera. Ahuntz-orria (huntza) ematen zieten ardiei neguan, baina huntz horrek kalte egiten zieten.

475. Baserri eta basolanetan jardundakoa (ARA-082/011)

Etxetik kanpo ez du inoiz lanik egin Ferminek, basoan ez ezik. Noizbait eguraldi txarra zegoenean, Arrasateko tren geltokian jardun izan da pinu apeak neurrira ebakitzen. Basoan zerratokitarako zuhaitzak botatzen zituzten, kamioiak eskuz kargatuz. Aizkoraz eta trontzaz bota eta ebakitzen zuten egurra. Zazpi zortzi laguneko kuadrilla ibiltzen zen basolanean. Bedoñako tratante batentzako egiten zuten lan. Atxa eta Lana zerrategiak hartzen zuten egurra.

476. Hamabi ogerleko lan-eguneko (ARA-082/012)

Fermin basolanean ibili zenerako, kuadrillak ez zuen ikatzik egiten egur hondarrarekin. Hamabi ogerleko ordaintzen zieten eguneko soldata. Gero beste tratante batentzako egin zuten lan, hamabost ogerlekoan.

477. Otxandio eta Arrasateko plazatara joaten ziren (ARA-082/013)

Goizeko lauretan altxatu, astoak kargatu eta farol argiarekin joaten zen amarekin Otxandioko plazara igandero. Egunsentirako plazan egoten ziren. Sagarrak, gaztainak eta okaranak eramaten zituzten. Arrasatera gazta eta esnea eramaten zuten. Gaztaren salmentak dirua ematen zuen orduan. Gogoan du Otxandioko bonbardaketak utzi zuen txikizioa. Etxe asko ikusi zituen apurtuta.

478. Etxeko txorizoak eta irina gordetzen (ARA-082/014)

Otxandiarrak gose denboran gaztainak eta sagarrak batzera etortzen ziren mendiz Aramaiora. Guardia Zibilen beldurrez, etxeko txorizoak etxetik kanpo gordetzen zituzten. Garia gauez eho eta hura ere gorde egiten zuten. Errotak prezintatu zituztenean, sutarako egur, babarrun eta baserriko gauzen truke, Guardia Zibilek uzten zieten garia ehotzen.

479. Argindarra errotatik, eta ura sukaldean (ARA-082/015)

Auzoko errota auzotarrena zen. Argindarra ere bertatik lortzen zuten. 1922. urtean eraiki zuten errota, eta argindarra etxean betidanik ezagutu du. Sukaldean ura gerra aurretixoan jarri zuten, kilometro biko zanga jo ondoren. Uraren tutuak lan asko eman zieten, sustraiak tutuen barnera sartzen zirelako.

480. Arazo asko uraren hartunearekin (ARA-082/016)

Tontolan asko egin behar izaten zuten uraren matxurak konpontzen. Galbanizatutako tutuarekin ordezkatu zuten, baina hark ere ez zuen emaitza onik eman. Plastikozkoa izan zen irtenbidea. 70 bat ardi saldu zituen aita ura etxera ekartzeko.

481. Lihozko praka gogorak (ARA-082/017)

Etxe ondoko iturriko askan, edota kaleko latsarrian garbitzen zituzten arropak. Sutarako hautsarekin egiten zuten lixiba. Lihozko prakak erantzi eta gero, zutik jarraitzen zutela dio. Latsarri gutxi omen zeuden Aramaioko auzoetan.

482. Norbera baldean garbitu (ARA-082/018)

Norberaren garbiketak balde batean ura jarrita egiten zituzten. Komunekoa ukuiluko sats pilora zihoan. Basolanean zazpi bat urtez ibili zen.

483. Ardiak denbora gutxi baserrian (ARA-082/019)

Neguan ardiak etxean oso ahul egoten ziren. Erditzerakoan asko hil egiten ziren. Bildotsak jaiotzeko garaian bakarrik ekartzen zituzten etxera. Duela 30 bat urte ere, Gabon ostean ekartzen ziren ardiak etxera. Apirilaren erdirako itzultzen zituzten basora. Tellamendi osteko Erlan parajetik ardiak eta bildotsak lapurtzen zizkieten. Meatze zulo zahar batean aurkitu zuen behin ardi baten hanka beltza, eta ondoan sukaldeko aizto handi bat.

484. Ardiak eta astoak lapurtzen zituzten (ARA-082/020)

Astoa hartuta, aitzak Durangoko plazara eramaten zituzten bildotsak saltzera. Behin ardiak mendian, artaldea ikustera joaten ziren astean behin-edo. Gerra ostean sarri suertatzen zen ardiak ezkutatzea. Astoak ere lapurtzen zituzten baserrietan. Eskoriatzako Marin auzoan lapurtutako idien istorioa kontatzen du.

485. Gerra ostean lapurreta asko (ARA-082/021)

Ikazkin kuadrilla batek ere lapurtutako ardi asko jan omen zituzten basoan lanean zihardutenean. Larruak txondorrean erretzen zituzten, baina azkenean harrapatu zituzten. Bertako mutilak ziren.

486. Aramaioko taberna zaharrak (ARA-082/022)

Erromerietara joateko ohitura bazuten. Aramaioko Ibarrako plazan lehen bi taberna zeuden, Polikona eta Zentrua. Herrian zehar zeuden Goikotaberna, Txatxurrena, Elizoste, eta Sebastianena, taberna eta denda zena. Gaueko eskola bukatu ostean joaten ziren tabernara tertuliara. Plazan igandero egoten zen erromeria. Dantza egiteagatik mutilak ordaindu egin behar izaten zuten.

487. Basoko lanetara bizikletaz (ARA-082/023)

Herriko jaietara Bizkaia aldera joateko ohitura zuten. Abadiñoko San Blaseta oinez joaten ziren, ganaduekin edo ganadurik gabe, baita elurrarekin ere. Zumarragako Santa Lutziatara sarri joaten zen, baina Arrasateko Santamasetara ez askotan. Legutio aldeko basoetan lanean ibili zenean, bizikletaz egiten zuten joan-etorria. Etxetik kalera oinez jaitsi, kalean bizikleta alokatu, eta lanera. Benito Ormaetxeak alokatzen zituen bizikletak.

488. Bizikleta karrerak lanera bidean (ARA-082/024)

30 bat urte izango dira Benitok bizikleta denda itxi zuela. Lanera bidean, lagun arteko karrerak egiten zituzten. Behin gaztainadi baten beheara erori zen, bizikleta hondatuz. Arrasatera ere joaten ziren bizikletaz.

489. Gerrako larriak (ARA-082/026)

Auzoko bat gerran jasotako balazo batengatik hil zen. Ferminen gogoan du arbolapetan zelan gordetzen ziren tiroetatik babesteko. Hortzen artean zotzari eusten zioten, bonben eztandetatik entzumena babesteko. Kurtzeta gainean eroritako bonbak, etxeko kristalak apurtu eta sukaldeko harraskako txorrotak ireki zizkien. Kurtzetatik Tellamendira botatzen zituzten bonbak ikusten zituzten. Tellamendi jota landuta utzi omen zuten nazionalak.

490. Abioien arteko borroka (ARA-082/027)

Behin, lotan zegoela, bonba-hotsak esnatu zuen, sukaldera jaitsi, eta ez zuen inor aurkitu etxean. Gurasoak sasipe batean etzanda zeuden bitartean, umeak etxean negar batean. Beste behin, ehiza-abioi bi ikusi zituen gorrien "Abuelo" abioi ezagunari erasotzen. Aitarekin basora joaten zenean, hor-hemenka aurkitzen zituzten gizonak hilda. Herriko mediku zaharra, hildakoei urrezko hortz-haginak kentzera joaten zen.

491. Gerrako istorio gogorak (ARA-082/029)

Istorio makabroak: su emandako soldaduak; atzera geratutako soldadu gizajo bat guardia zibilek hil zutenekoa; eta kobazulo batera jausi eta bertan hil zenarena.

492. Milizianoak janari eske (ARA-082/031)

Arrasatear txapelgorri bat tiroka bere aldeko abioiak agurtzen. Gudarien ingurura joatea gustatzen omen zitzairen mutikoei, pastelak ematen baitzizkieten. Miliziano batzuek amari etxeko janari guztiak ateratzeko agindu zioten. Agintedun batekin egin zuen berba eta ezerezean geratu zen eskaera hori.

493. Ortura koltxoia bizkarrean hartuta (ARA-082/032)

Milizianoak hiru bat egunean egon omen ziren Arraga auzo inguruan. Auzotar batzuek ihes egin zuten, baina Arragaburukoak etxean geratu ziren. Karobian eta gordetzen ziren, baina beti etxe inguruan. Koltxoia bizkarrean hartuta joaten ziren ortura. Aza artean bala galduak nola sartzen ziren ikusten zuten.

494. Baserritik probetxu gutxi (ARA-082/033)

Garai batean ardi-larrua eta artilea ondo ordaintzen zuten. Gaur egun kendu alde ere ez dituzte eramaten. Bildotsak ere orain hogeitaz urteko prezio berberean saltzen dituzte. Aurten etxeko moxalak iaz baino merkeago saldu ditu. Tristea bihurtu da baserritarren bizimodua.

495. Eskola eta dotrina, erdaraz (ARA-083/002)

Gaur Zubiondo elkarteak dagoen lekuan orduan zegoen eskolan ikasi zuen Domekek. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Sei urterekin hasi zen eskolan, Julia Gulpide maistra nafarrarekin. Bai eskola eta bai dotrina, erdaraz jaso zituen.

496. Ikasketak eta eskulanak (ARA-083/003)

Ikasketez gain, eskulanak ere egiten zituzten josten, kakorratzean, etab. Eskulanon erakusketak egiten zituzten eskolan bertan.

497. Amona zaintzen zuen umetan (ARA-083/004)

Ama etxekoa eta aita Etxaguen auzoko Labeagabekoa (Labia) baserrikoa zen. Mugertza etxeak ez du baserri nortasuna gordetzen jadanik. Bera han bizi zenean, ganadu, txerri eta ahuntzak zituzten baserrian. Bost anai-arrebatatik gazteena zen Domeke. Amona elbarrituaren zaintzaz arduratzen zen etxean.

498. Hamabi urterekin ikazkin (ARA-083/005)

Osaba bat Ameriketara joan zen, eta beste batek ikaztegia jarri zuen Arrasaten. Aitak ikazkin jarduten zuen uda partean, eta anaiak ikatza saltzen zuen. Egurra pilatzen eta txondorra zaintzen jardundakoa da Domeke. Zurezko astoa erabiltzen zuten egurra garraiatzeko. Hamabi bat urte zituen orduan.

499. Ahuntzen hezurrekin tortolosak (ARA-083/006)

Itaurrean egiten zuenean ezin zen eskolara joan. Jaiegun arratsaldetan eskolara josten zen, galdutako eskolak berreskuratu nahian. Jolas-orduetan sokasaltoka, harrapo-harrapoka, tortoliska... jolasten ziren. Ahuntzen hezurrekin egiten zituzten tortolosak. 14 urtera arte joan zen eskolara.

500. Aita txondorraren barrura erori zenean (ARA-083/007)

Gerra hasi zen arte etxean egon zen, amona zaintzen. Albina mendian ikazkin ziharduela, aita txondorrari betegarria ematen zebilela, hankaz behera erori zen txondor barrura. Semeak atera zuen txondorretik eta arrastaka eraman errepideraino. Santa Agedako ospitalera eraman zuten, baina eguneroko zainketak ezin zituenek ordaindu, Aramaioko praktikanteak egin zizkion sendaketak etxean. Erredura larriak jasan zituen arren, ondo sendatu zen.

501. Otxandioko bonbardaketa (ARA-083/008)

Kalean tirorik ez zen izan, baina frontea herriko mendietan egon zen. "El Abuelo" izeneko abioi erraldoia gogoan du, bere italiar banderarekin. Otxandioko bonbardaketa izan zenean, tunel batean gordeta egon ziren herritar asko, oso gertu entzuten baitziren bonba-hotsak.

502. Gudariak herriko etxetan atsedena hartzen (ARA-083/009)

Bere etxean ere egoten ziren gudariak, inguruko herrietako mutilak zirenak. Ondo portatzen omen ziren gudariok eurekin. Atsedenean egunak hartzen zituztenean, Mugertzan egiten zuten lo zein arropak garbitu. Amaiur eta Dragonas batailoiak egon ziren Aramaion. Kuartela beteta, herriko etxeetan banatzen ziren gudariak atsedenerako. Esker onekoak zirela dio.

503. Amona gurdian hartuta, ihesi (ARA-083/012)

Ibarra husteko ordena jaso zutenean, amona gurdian hartu eta Gantzaga auzora joan ziren. Aita bakarrik geratu zen etxean ganaduekin. San Isidro egunean, Bilbora joan ziren, ahizparen etxera. Bilbo jausi zenean Frantziara egin zuten ihes, barkuz. Reims-en, Paris ondoan, egon ziren, maiatzetik azarora arte.

504. Frantziara babes bila (ARA-083/013)

Sei bat hilabete pasatu zituen Frantzian. Hiru aukera eman zizkieten: Ameriketara joan, Frantzian geratu edota etxera itzultzea. Bere ahizpa, haren bi alaba eta bera egon ziren elkarrekin Frantzian. Denak itzuli ziren etxera. Oso ondo hartu omen zituzten Frantzian. Kuartel handi batean egon ziren 150 bat lagun babestuta. Zurezko ohatzetan egiten zuten lo. Erosketak egin eta jatorduak prestatzeko eurek antolatu ziren, frantsesek gainbegiratuta.

505. Kaleak eta kuartela garbitzera zigortuta (ARA-083/014)

Càritasekoek arropa eta janariak ekartzen zizkieten. Etxera itzuli zirenean, ez zegoen militarrik herrian, Guardia Zibilak bakarrik. Domekeren bila etxera etortzen ziren, Nazionalen ospakizunetan dantza egitera joan zedin. Frantzian egondako denak, herriko kaleak garbitzera behartu zituzten. Ilerik ez zieten moztu. Kaleak astero eta kuartela astean birritan garbitu behar izaten zuten.

506. Esklabu lana egiten, eta gainetik isuna (ARA-083/015)

Gerran zauritutakoak zikindutako koltxoi guztiak garbitzera behartu zituzten, esklaboak izango balira bezala. Urtebete baino gehiago egon ziren lan horiek egitera behartuta. Udaleko idazkariarekin, liskar baten ondorioz, isun handi bat jarri zioten. Nolabait bildu zuten dirua isuna ordaintzeko.

507. Guardia Zibilak aita jipoitu zutenean (ARA-083/017)

Isuna jarri zioten; eta, hura ordaintzeko, Estatuko ordainketa-paperen bila joan behar izan zuen Gasteizera. Gerra denboran ez zuten ganadurik galdu etxean. Gudariak Arrazolara joan zirenean, aita eraman zuten gurdikada bat munizio eta tramankulu. Horren ondorioz, Guardia Zibilak aita kuartelean jipoitu zuten. Domekeri oso oroitzapen txarrak ekartzen dizkio gerra denborako kontuez jarduteak.

508. Anaiak preso eta etxean dirurik ez (ARA-083/018)

Jaso zuten gari guztia entregatu egin behar izan zuten urte batean. Arto-taloei esker atera ziren aurrera. Anaia bat kartzelan eta bestea "Batallón de Trabajadores"en zeuden zigortuta. Diru falta larria zuten, eta ama gaztaina eta sagarrak saltzera joaten zen Gasteizera astean behin, autobusez.

509. Udalak babarrunak ostu (ARA-083/019)

Gixie, (baimena), eskatu behar izaten zen Gasteizera joateko. Saltzeko zeramatzan babarrunak udaletxean kendu egin zizkioten, ezer ordaindu gabe. Domeke amarekin joaten zen Gasteizko plazara.

510. Abioien beldurrez (ARA-083/020)

Gerrako abioiak zeruan ikusiaz batera, jendea babestu egiten zen, beldurrez. Andra Mariaren ermitara joaten ziren babesera, hura bonbardatuko ez zutelakoan. Murugain eta Kurtzeta hartu zituzten arte, oso giro larrian bizi izan ziren Aramaioko kalean.

511. Jazbana herriko plazan (ARA-083/021)

Euskal dantzaria izan zen Domeke gaztetan. Aramaiotik kanpo ere joaten ziren dantza taldekoak dantzatzera. Gogoan dauka omenaldi batean Bedoñara eta Alderdi Egun batean Gasteizera joan zela talde osoa dantzara. 12-14 urte izango zituen orduan. Egun seinalatueta jazbanak jotzen zuen herriko plazan. Soinu-jotzailea igandero egoten zen.

512. Mutilekin dantza egitea bekatu handia (ARA-083/022)

Acci´n C´tolikatik joanda, Bilboko Begoñan gogo-jardunak izan zituzten; Anjel Sukiak, gero gotzaina izango zenak, zuzenduta. San Anton bezperan itzuli ziren gogo-jardunetatik, eta hurrengo egunean plazako dantzara jazbana etorri zen. Berak eta lagun batek bi mutilekin dantza egin zuten, eta hurrengo igandeko meza ostean, pulpitutik sakristiara deitu zieten biei; sekulako demanda jaso zuten abadearengandik. Baina hurrengo igandean ere dantza egin zuten.

513. Dantza taldearen ibilerak (ARA-083/024)

13 urterekin hasi zen dantza taldean, eta hamazazpi urte arte egon zen bertan. Esteban Arana aramaiarra izan zuten dantza maisu. Neskak bakarrik zeuden talde hartan. Zinta eta arku-dantzak, eta bana-banakoak dantzatzen

zituzten. Auzoetako jaietan ere dantzatzen zuten. Gasteizen ospatu zen Euskal Herriko Dantzarien Kontzentrazioan parte hartu zuten, bi pisuko autobusean joanda. Zezen plazan egin zuten dantza. Gerra denboran desegin zen dantza taldea.

514. Txoroko kale-baserri ezkondu zen (ARA-083/026)

Txoroko izeneko kale-baserri ezkondu zen, etxeko Andres Aginagalderekin. Kale-baserria zen garai hartan. Behi bat eta txerriak zituzten orduan. Ortu eta soroak ere bazituzten. Bost seme-alaba izan zituzten. Lehenengo Garagartzako harrobian; eta, jubilatuta arte, Elma lantegian egin zuen lan senarrak. Senarra jubilatuta zen egunean, autobusaren zain egoteko astirik gabe, oinez etorri omen zen etxera Arrasatetik.

515. Klean baserri asko (ARA-083/027)

Senarra jubilatuta eta laster kendu zituzten behiek. Txerri eta untziekin urteetan jarraitu zuten. Astorik ez zuten, eta ganaduak jatekoa organ edo sorbaldan ekartzen zuen Domekek. Kaleko etxe asko baserriak ziren orduan.

516. Lehengo soroetan, gaur etxe berriak (ARA-083/028)

Azken urteetan etxe berri asko eraiki dira Aramaion. Kanpoko jende asko etorri da bertara bizitzera, eta pena handia hartzen du Domekek inor gutxi ezagutzen duelako. Lehen herriko jende guztia ezagutzen zuen. Ibargoia auzoan lehen Lapikotxuena, Tuberuena eta beste etxe gutxi zeuden. Gaur egun etxe berri piloa dago. Klean lehen soroak zeuden lekuetan orain etxeak daude.

517. Lan handiz familia aurrera atera (ARA-083/030)

Senarraren soldata eta baserriko etekin urriekin, bost seme-alabei ikasketak eman diete. Lan asko egin behar izan dute, baina merezi izan duela dio Domekek.

518. Milizianoekin harreman ona (ARA-084/006)

Soldadu asko etxeko eginda zeuden. Gorrien diruarekin ordaintzen zuten etxetik hartzen zuten guztia. Arrasate eta Hernaniko soldaduak ere baziren han. Atzeguardiako milizianoek etxeko ganbaran egiten zuten lo. Gorriok ia-ia Untzillako elizako kanpaia bota zuten. Culebra ezizeneko bat zen orduan milizianoen arduradun nagusia.

519. Kanoikadak etxe gainean (ARA-084/008)

Muxibarren zeuden kanoietatik jaurtitako bonbak euren soro eta etxe gainean nola jausten ziren ikusten zuten. Apirilaren 1ean edo 2an izan zen eraso hori.

520. Otxandion Santa Marina egunean jasan zuten eraso (ARA-084/010)

Oraindik tiroak bukaturik gabe, aita ganaduentzako arbia ateratzera joan zen sorora. Santa Marina egunean, ahizpak eta biak etxeko sukaldetik ikusi zituzten abioiak Etxaguengo haitzetik pasatzen Otxandiorantz; handik tiro- eta bonba-hotsak entzuten ziren. Otxandion egin zuten txikizioa ikaragarria izan omen zen.

521. Gernikako bonbardaketaren hotsa (ARA-084/011)

Gernikako bonbardaketaren egunean, eurek soroan zeudela ikusi zituzten Gernikarantz zihoazen abioiak. Geroxeago, hango bonbardaketa-hotsa entzun zuten. Suñatik milizianoek alde egin zutenean, nazionalek hartu zuten haien lekua. Soldadu batek zeraman astoa, Eustaki eta ahizpari erregalatu zien, baina beste soldadu batzuek berriro eraman zuten asto hori.

522. Nazionalek aita hartu zuten gidari (ARA-084/013)

Nazionalek Gasteizen errekrutatu zuten Martin eta Somosierrara bidali zuten. Zorritz josita baina bizirik itzuli zen handik. Ez zituen Martinek behingoz ahaztu gorriekin pasatu zituen larritasunak. Nazionalek, berriz, aita zaharra behartu zuten euren gidari izatera, bandera eskuetan harrarazita.

523. Canovasen hiltzailearen urkatzea (ARA-084/017)

Etxean obretan zebiltzala, Canovasen hiltzailea Bergaran urkatu zuten; langileak urkatzea ikustera joan eta ez ziren inoiz itzuli lana bukatzera.

524. Gari lanak eskuz edo makinaz (ARA-084/018)

Ia ezkondu zen arte, gari lan guztiak eskuz egiten ziren. Ebaki, batu eta larrainean zabaldu trilluarekin (trailua) jotzeko. Gero makinek egiten zuten lanik gehiena.

525. Pinua, haritz eta pagoen lekuan (ARA-084/021)

Eustaki bere etxera ezkondu zen. Senarra Aretxabaletako Isurieta auzoko Olabeaga baserrikoa da. Zazpi seme-alaba dituzte. Senar-emazteak beti bizi izan dira baserrian eta baserritik. Bera ezkondu zenean, zelai, harizti eta pagadiak ziren nagusi inguruetan. Pinua geroago etorri zen. Iratzea behar zen ganaduentzako azpiak egiteko, baina azkenean pinu-hostotza ira bezain ona izan zen. Pinu-hostotza gurdikadak ekartzen zituzten, belar iharra bezala batu eta kargatuta. Pinu-hautsa deitzen diote etxean pinu-hostotzari.

526. Arrasatetik Oñatira, gerratik ihesi (ARA-085/006)

Gerra hasi zenean, Oñatiko Mendi Etxebarri baserrian bizi zen Maria. Frontea baserrian bertan zegoen, eta baserriko familia guztiak Oñatira egin zuen ihes, Mariaren gurasoenera.

527. Gerraostean, Arrasatera berriro (ARA-085/008)

Frontea Arrasatetik joan zenean, Oñatetik Arrasateko Mendi Etxebarri baserrira bueltatu ziren. Denbora horretan, baserria hutsik egon zen. Gerra denboran, soldaduek bederatzi "muelle" eta bederatzi koltxoi eraman zituzten. Baserrian, sekulako belartza hasita zegoen, eta haiek moztu eta Oñatira eraman zuten belarra; hango ganaduarentzako.

528. Aitajaunari zilar zakukada kendu (ARA-085/009)

Gerra denboran, aitajaun eta amandreari zakukada zilar kendu zien soldaduek. Zilarrezko txanponak zituzten baserrian. Ortuko jeneroa belar-metan ezkututzen omen zuen aitajaunak.

529. Aitajauna milizianoetatik ezkutatu (ARA-085/012)

Gerra denboran, Arrasaten frontea egon zen. Gerrak ez zuen hain gogor jo Oñatin. Arrasaten milizianoak ibili ziren. Mariaren aitajauna milizianoek ez atxilotzeko errekan ezkutatu zen. Ezkutuan zela, txakurrarekin izandako gorabehera kontatzen du.

530. Errotak eta errazionamendua (ARA-085/014)

Gerraostean, garia entregatu egin behar izaten zen. Uribarri auzoko Markuleti erroten ehotzen zuten garia. Arrasateko kalean bizi zen izeba batek jasotzen zien errazionamendua.

531. Baserriko lanetik bizi (ARA-085/016)

Eskola bukatutakoan, baserriko lanetan aritu zen. Azak, azaloreak, legutxak... landatzen zituzten; jendea baserrira joaten zitzairen ortuariak erostera. Soro sail handian zituzten; artoa, arbia... ereiten zituzten.

532. Umetako jolasak (ARA-085/017)

Umetako jolasak aipatzen ditu: kromoekin, txirikiletan, diabolarekin... ibiltzen ziren.

533. 'Hija de Maria' kongregazioa (ARA-085/019)

Gazte denboran, Hija de Maria kongregazioan ibilitakoa da. Zinta urdina erabiltzen zuten; Kontzesioko Ama Birjinaren irudiarekin.

534. Etxera berandu joanez gero... (ARA-085/022)

Etxean gogor hartzen zituzten berandu joanez gero. "Aramaittekoak" baino beranduxeago iristeagatik belarrondokoa jaso zuenekoak kontatzen du.

535. "Aramaitteko" kanpaiak (ARA-085/023)

"Aramaittekoak" esaten die iluntzeko kanpaiei. "Aramaitteko" kanpaiak jotzerako etxean egon behar izaten zen.

536. Baserrira itzulera... (ARA-085/025)

Frontea Arrasatetik joan zenean, Maria eta familia Mendi Etxebarri baserrira bueltatu ziren. Oñatin egon ziren denboran, baserria hutsik egon zen, eta hango lanekin hutsetik hasi behar izan zuten itzulera. Garia, artoa... ereiten hasi ziren berriz. Garia eskuz jotzen zuten.

537. Gari-jotzea (ARA-085/027)

Mendi Etxebarri baserrian, garia eskuz jotzen zuten. Lehenengo, gari-metak egiten zituzten; gero, sortak harriaren kontra jotzen ziren.

538. Berduren salmenta (ARA-085/030)

Jendea baserrira joaten zitzairen berdura erostera. Santa Agedako fraideei eta mojei berdurak saltzen zizkien. Amandrea eta aitajauna joan ohi ziren Santa Agedara berdurak gurdian hartuta. Hiru-lau behi eta idi-parea zituzten baserrian.

539. Dantza egitea gustuko (ARA-085/032)

Erromeria kontuak. Gazte denboran, inguruko auzoetako erromerietara joaten zen lehengusinarekin. Dantza egitea gustatzen zitzaion. Dantza soltean gehiago aritzen ziren lotuan baino. Arrasatera joaten ziren dantzan egitera. San Martinetan Aramaiora taxian joaten ziren; han senideak zituzten.

540. Gerraosteko gosea (ARA-085/035)

Gerraostean, gose handia egon zen. Mariak eta ez zuten goserik pasa, baserriak emandakotik bizi ziren eta. Jendea patata bila joaten zen Mendietxebarri baserrira. Lapurretak ere izaten omen ziren.

541. Aita, "xexteroa" (ARA-085/038)

Mariaren gurasoak Oñatin bizi ziren. Aita "xexteroa" zen, eta otarrak egiten zituen. "Txarraskonean" bizi ziren; kale berdinean baziren beste otarregile batzuk ere. Etxe ondoko lokalean edukitzen zituen egurrak uretan; erreka pasatzen zen etxe ondotik.

542. Otarregintza (ARA-085/039)

Mariaren aita otarregilea zen. Otarregintzan ibilitakoa da aitarekin, asko gustatu ez arren. Zumitzak nola ateratzen diren azaltzen du. Oñatin eta kanpoan saltzen zituen otarrak aitak.

543. Oñatiko kale-baserria eta ganadua (ARA-085/041)

Oñatiko Mariaren jaiotetxea kale-baserria zen. Behi-parea eta astoa zeuzkaten; korta kalean bertan zuten. Anaia gazteenak oso gustuko zuen astoan ibiltzea. Urtean, txerri bat hazten zuten. Labesua zuten, eta etxean egiten zuten ogia.

544. Gari-jotzeari buruzko kontuak (ARA-085/044)

Gari-jotzeari buruz hitz egiten du. Garia eskuz jotzen zuten; gero, hasi zen gari-jotzeko makina auzorik auzo.

545. Mendi Etxebarritik Lasagara (ARA-085/048)

Arrasateko Mendi Etxebarri baserritik Aramaioko Lasagara ezkondu zen. Baserri bateko eta besteko bizimodua alderatzen ditu. Lasagara bizitzera joan zenean, etxeokoek esaten zioten nola joan zitekeen "basamortura" bizitzera; Lasaga mendian zegoelako. Lasaga inguruetan ia ez zen biderik.

546. Ortu eta soroko lana (ARA-085/055)

Mendi Etxebarri baserrian ikasi zuen ortuko lanak egiten. Lehen, ortuko lana aitzurrarekin egin behar izaten zen. Soroak lantzeko goldea eta laia erabiltzen zituzten.

547. Tomatea lastoekin estali (ARA-085/056)

Mendi Etxebarrin lur onak zituzten: "erraz lantzen ziren". Barazki ugari ateratzen zuten. Tomatea urtarrilaren amaieran edo otsail hasieran ereiten da. Lastoz egindako tapa batzuekin estaltzen zituzten tomate landareak, ez izozteko. Tomatea apiril amaiera edo maiatz hasieran biltzen da.

548. Arrixola auzoa (ARA-086/002)

Mendian goitik behera etorritako harriek ematen omen diote izena Arriola auzoari, "Arrixola" esanez. Gurasoak Arexola auzoko Peruena baserritik etorriak ziren. 11 anai-arrebatatik seigarrena izan zen Felix.

549. Felix auzo-alkate (ARA-086/003)

Eskolan Arexola auzoko abatetxeko gelatxo batean hasi zela gogoratzen du. Arriola auzoa Arexola auzoko parrokian sartzen da. Francoren denboran hasi ziren auzo-alkateak hautatzen. Arriolak eta Arexolak hasieran bananduta, gero elkarrekin eta berriz ere bananduta hautatu izan dituzte euren alkateak. Felixi batean egokitu zitzaion auzo bietako alkate bakarra izatea.

550. Anai-arrebak neskame eta fraide (ARA-086/004)

Umeak eskolara neguan edota etxean lanik ez zegoenean bakarrik joaten ziren. Hori omen zen etxe gehienetako ohitura. Anaia nagusia Gasteizko Marianistetara joan zen erdara ikastera. Arreba nagusiak, berriz, Altolako bainuetxean egin zuen lan. Beste arreba bat Bilbon egon zen neskame, eta beste anaia bat fraide joan zen.

551. Neguan eskolara (ARA-086/005)

Felix auzoko Bengoa baserrian egon zen morroi zazpi urtetik hamabira bitartean. Handik neguan joaten zen eskolara. Goizean esnea banatu, errotara joan, eta arratsaldean eskolara. Lanean hasi zen arte ez zuen eskola gehiagorik izan. Orduan gau-eskolara joaten hasi zen Aramaion bertan. 28 urte zituela Zerrajera lantokian egin zuen argiketari ikastaro bat eta lan horretan jardun zuen erretiroa hartu arte. Arrasateko Eskola Profesionala ireki aurretik Apendiz Eskola egon zen Zerrajeran.

552. Bainuetxe zaharra (ARA-086/006)

Gaztetan kalera ere etorri izan zen iluntzetan eskola partikularrak jasotzera. "Baiñera zaharrian" (Bainuetxe zaharra) ematen zituzten bai eskola normalak, baita partikularrak ere. "Baiñera" zahar hori eraikuntza handia zen. Igeltsero batek biltegia bertan zuen, eta Guardia Zibilen kuartela ere han zegoen. Guardia Zibilok joan zirenean bota zuten Bainuetxe zaharra.

553. Aramaio eta Ibarra (ARA-086/008)

Arexolako abatetxeko eskolako maisua Don Jose abade otxandiarra zen. Auzo-eskolan neskabila-mutikoek elkarrekin ikasten zuten, baina kaleko eskolan aparte egoten ziren. Aramaioko kale aldearen izen ofiziala Ibarra da, baina Felixek dio berak ez diola inori inoiz entzun izen hori erabiltzen. Baserritarrentzako kalea izan da beti. Ibarra hori herriari abizena jartzea bezala dela uste du Felixek. Ibarra izen horrek nahasmena sortzen omen du.

554. Ama emankorrak. Umetako jolasak (ARA-086/010)

Aitona eta arreba gaixotu zirenean etxera itzuli zen Felix, eta eskolak utzi zituen. Bere amak 12 ume izan eta gero 84 urte hartu zituen. Amaren ahizpa batek ere 13 ume ekarri zituen. Txorro-morroka eta toke-tokeka jolasten zuten umetan. Jolaserako asti askorik ez zutela izaten dio Felixek.

555. Lurren ustiaketa (ARA-086/011)

Soroan garia jaso eta gero "artaria" eta trailuarekin landu eta arbia ereiten zuten. Batzuetan ez zuten izaten nahiko sats, eta arbia ez zen ondo hazten. Baserriko lurrak bi zatitan banatzen zituzten, txandaka artoa eta garia ereiteko. Lurrak larregi ustiatzen zituzten, eta emateko zuten ia guztia xurgatzen zioten. Ez omen zuten nahikoa sats etxeko soroentzako, baina urteetako ohiturari jarraituz, nola edo hala terreno guztiak ereiten zituzten.

556. Gari-jotzearen bilakaera (ARA-086/012)

Lehenengo gariak eskuz jotzen zituzten harri baten kontra. Umetan gogoan du behiak tiratutako trailuaren gainean egoten zirela garia jotzen. Beste etxe batzuetan behorrek gariaren gainean ibiliz hankekin jotzen zuten. Gero "matxakak" etorri ziren. Arriola eta Arragako auzoek ira piloan egiten zituzten auzo-batzarrak. Arriola auzoa haizpean hasita kale-kaleraino iristen zen.

557. Batzar egunak jakinarazten (ARA-086/014)

Auzoko junta izango zela jakinarazteko, Felix eta neba-arrebak baserririk baserri ibiltzen ziren mandatuarekin.

558. 16 urterekin bidegintzan (ARA-086/016)

Felixon denboran auzoan bide berri bat egin zuten auzolanean, idiekin menditik harria jaitsita. Gariarentzako lur ona omen zegoen auzoan, ondo drainatzen zena. Felix 16 urterekin Etxaguengo errepidea egiten ibili zen lanean, bidegintzan.

559. Lanera autobusez (ARA-086/017)

Kaminero lana bukatu eta Zerrajeran hasi zen. Antzinako autobus zaharretan joaten ziren lanera, barnean eta kanpoan bidaiariak edozein modutan jarrita. Tanzaniako autobusak ezagutu ditu Felixek.

560. Azoketara baserriko gaiak saltzera (ARA-086/018)

Elurte handiak egiten zituenean lanegun batzuk galtzen zituzten. Autobusa joaten ez bazen, langile batzuk oinez joaten ziren lanera. Konbinazio txarragatik, baserritarrek arazoak izaten zituzten Arrasateko edo Gasteizko azoketara saltzera joateko. Otxandioko plazara Felix bera ere joaten zen saltzera. Astoarekin mendi bidez joaten zen eta denetik saltzen zuen. Dozena bat asto joaten ziren Aramaiotik Otxandioko azokara.

561. Otxandioko azoka (ARA-086/019)

Fruta urte osoan, eta neguan babarrunak, gaztainak etab. eramaten zituzten Otxandioko azokara. Udaberrian "paatxa" (pagotxa) hazia eramaten zuten. Hazia ondo garbituta bazegoen salneurri hobe izaten zuen. Hazia batzeko, pagotxa-soroaren zati bat ebaki barik utzi behar izaten zuten. Itxura denez, Otxandion ezin zuten pagotxa hazia jaso, eta eguraldiagatik edo, garia ere gutxiago jasotzen zuten. Patata, ordea, asko jasotzen omen zuten. Otxandion izotza askoz ere lehenago etorri eta beranduago joaten omen da, Aramaiorekin alderatuz gero.

562. Ganadua ondo zaindu ezinda (ARA-086/020)

Otxandion ardi asko omen zituzten. Felixen etxean 80 ardi inguruko artaldea izatera ailegatu ziren. Orduan ganadua oraingo aldean txarto tratatzen zela dio Felixek. Gogoan du neguan elur batzen ibiltzen zirela, ardientzako larrea bistartzearren. Aramaio herria nahiko isolatua zegoela dio, eta baserritar erdiak baino gehiago maizterrak zirenez, zaila egiten zitzairen bizimodua aurrera ateratzea.

563. Neguko ganadu-jatekoak (ARA-086/021)

Aramaion trenik ez dute inoiz eduki. Arriolatarrak Azkoagatik gora joaten ziren otea batzen, etxera ekarri eta txikitu ondoren ganaduari emateko. Ardiak elur egunetan bakarrik etxeratzen ziren. Gari lastoa, "erretxistoa", ere ematen zioten ganaduari jateko.

564. Igitaia, sega eta makinak (ARA-086/022)

Garai batean igitaiarekin lan asko egiten zen. Garia, garoa eta maldetako belarra ebakitzeko erabiltzen zen, besteak beste. Geroago dena segaz ebakitzen zuten. Felixek hogetaka urte zituela etorriko zen lehenengo garia ebakitzeko makina. Gero trilladora etorri zen, lastoa ganbarara bidaltzen zuena.

565. "Matxaka" makina (ARA-086/023)

"Matxaka" makina nola ibiltzen zen azaltzen du Felixek. Handik irtendako garia beste makina batean garbitzen zen.

566. Erlijioaren indarra (ARA-086/024)

Bere gazte denboratik hona, erlijioak indar asko galdu duela dio. Bera mutikoa zenean, hemengo mundua erlijioa besterik ez omen zen. Zerua eta infernua, batez ere infernua. Erlijioak gizakien bizia oso baldintzatuta omen zuen. Arto zuritzen edo gabeko lanak egiten, arrosarioa errezatzen zuten. Gari lanetan ere errezatzen zuten. Felixek letaniak buruz ikasita zituen.

567. Oiloak era zaharrean zainduta (ARA-086/025)

Baserriko oiloek lo egiteko otea etxeko lekuri txarrenean jartzen omen zen, ohitura zaharrei jarraituz. Normalean, sats-piloaren gainean jartzen zuten otea. Satsak zerion gasa kontuan hartu gabe, oiloak epelean edukitzen ziren. Era honetan zaindutako oilo asko behar izaten ziren arrautza gutxi erruteko. Gauza hauetan pentsatzeko astirik ez omen zuen baserritarrak, erlijioak denbora larregi hartzen ziolako.

568. Erlijioaren eragina (ARA-086/026)

Orduko denboretan, 80 urteko agurea, zeharo okertuta egon arren, domeketan elizara joan eta ordu erdiz belauniko egoten omen zen, erlijioak hala agintzen zuelako. Etxean ere letaniak belauniko errezatzen ziren.

569. Eguneroko jatorduak: babarrunak eta porru-patatak (ARA-086/027)

Eguneroko jatordua babarruna izaten zen bazkaltzeko, eta porru-patatak afaltzeko. Bisitariek txorizoa jaten zuten arren, etxekoentzako urdaia egoten zen. Etxean fruta asko jaten zuten, eta negu partean gaztainak. Gaztainedek apirilera arte irauten zuten. Neguko afaria porru-patatak edo berakatz-zopa eta gero gaztainak izaten zen.

570. Gerraosteko janari eskasia (ARA-086/028)

Gerraostean goserik ez omen zuten pasatu, baina ez zutela ondo jaten dio. Egun osoan garoa ebakitzen jarduten zutenean zer jaten zuten kontatzen du. Garoa hogeitaz gurdikadatik gora ekartzen zuten urtero etxera.

571. Aita Argierrotako argindar kobratzaile (ARA-086/029)

Aita argindar kobratzailea zen, eta kalera sarritan joaten zen. Aramaioko errotarik onena Eguzkierripa auzoko Argierrota omen zen. Argindar asko ekoizten zuten, auzoetatik aparte kalera saltzeko beste. Gantzagako errotrak ere ekoizten zuen argindarra, baina ez kalera saltzeko adina. Eguzkierripa, Arraga eta Arriola auzoko bazkideak ziren Argierrotako jabeak. Felixen aita etxerik etxe joaten zen hilean behin eta kontadoreak ikusi eta ordainagiriak egiten zituen kobratzeko. Bezeroek dirutan ordaintzen zioten.

572. Argindarra, ura eta garbitasuna (ARA-086/031)

Felix umea zenean jarri zituzten argindarra eta ura etxean. Norberaren garbitasuna ez zuten gaur egun beste zaintzen.

573. Jaiak eta dantzak (ARA-086/032)

Bizkaitik jende asko etortzen omen zen Andramari jaietara eta baita herriko jaietara ere. Domeketan Kontzejupean jotzen zuten musika, nahiz eta sarritan abadeek protestatu. Bergarako Ariznoa dantzalekura motorrez joaten ziren.

574. Zazpi urtetik zortzira eskolarik ez, gerragatik (ARA-087/003)

Mutilen eskola udaletxeko goiko solairuan zegoen. Jolas denboran, plazan ibiltzen ziren. Don Joakin Arana izan zen Julianen lehenengo maisua. Sei urtetik 12 urtera arte ibili zen eskolan (urtebeteko etenarekin, gerragatik).

575. Herria, fronte bien erdian (ARA-087/004)

Gerra denborako azalpenak. Herria fronte bien erdian egon zen. Julianen etxea nahiko jazarrita egon zen gerra denboran. Etxean seguru ez zeudela sentituta, bere anai-arrebak senide batzuen baserrira bidaltzen zituen amak. Julian amarekin gelditzen zen baserrian. Aita kartzelan zegoen.

576. Aita "gorrien" munizioa garraiatzen (ARA-087/005)

Gerra denborako azalpenak. Julianen aita soldadu "gorrien" munizioa idiekin garraiatzen ibili zen gerra denboran. Bilbora arte joan zen aita. Bilboko Begoña auzoko baserri huts batean egon zen bere bi ahizpa eta koinatuekin harik eta nazionalak pasatu ziren arte. Begoñan egon ziren denboran, aitak idiak bi esne-behirengatik trukatu zituen. Behi-esnea kalean saltzen zuten gero. Bi behiren esnearekin ateratako diruarekin bizi izan ziren.

577. Ahizpak Frantziara eta aita etxera (ARA-087/007)

Hiru ahizpa Frantzia aldera joan ziren eta Julianen aita etxeratu egin zen behiak eta astoa hartuta. Durangon milizianoek astoa eskatu zioten eta kainoiren batek hil zuela esan zioten gero. Ordezko astoa eman zioten ondoren.

578. Aita atxilotuta herriko kartzelan (ARA-087/008)

Aita etxeratu zenean, lehengusuak etorri zitzaizkion bila atxilotzera eta herriko kartzelan eduki zuten astebetez. Jatekoa eramatera joaten ziren etxeokak.

579. Aita Burgosko kartzelara, txosten txarrengatik (ARA-087/009)

Aitari kartzelara jatekoa eramatera joan zenekoa kontatzen du. Aramaiotik Gasteizko kartzelara eraman zuten eta beste aramaioar batzuekin elkartu zen han. Ondoren Burgosera eraman zuten, alkateak Julianen aitari buruzko txosten txarra bidali zuelako.

580. Aitaren etxeratzea (ARA-087/010)

Julianen aitaren lehengusina batzuk Gasteizen militarrekin ezkondata zeuden eta militar haietako batek kartzelatik atera zuen Julianen aita. Bertako apaiza zen salataririk gaiztoena eta etxeratutakoan berriz kartzelarako arriskuan egon zen aita. Julianen ama kaleko parrokoarengana joan zen laguntza eske. Kartzelatik atera ostean ere, baldintzapeko askatasunean bizi izan zen denboraldi batez.

581. Ama kalea garbitzera eramaten zuten (ARA-087/011)

Julianen aita abertzalea zen. Amarekin soroan zebilela tiroka egin zieten gerra garaian. Aita kartzelan eta ama kalea garbitzera eramaten zuten, abertzalearen emaztea izatearren. Margaritek ere agindu egiten zioten amari nola garbitu behar zuen esanez.

582. Alkatearen salaketengatik fusilatutako gaztea (ARA-087/013)

Nazionalak sartu zirenean, karlisten esku gelditu zen udaletxea eta alkate jarri zutenak hainbat herritar salatu zituen. Aramaioko mutil bat, abokatua zena eta mitinak ematen ibiltzen zena, fusilatu egin zuten Bilbon alkate haren salaketarengatik.

583. Aita baserritarren elkarteko idazkari (ARA-087/015)

Julianen aita baserrian lan egiten zuen. Baserritarren elkarteko idazkaria izan zen gerra aurrean zein ondorenean, eta Julianen arrebak aktak idazten zituen. Aitaren ama gazterik alargun geratu zen eta baserriko lanak egiteko kaleko emakumeak hartzen zituen.

584. Izeba Emakume Abertzaleen Batzako lehendakari (ARA-087/016)

Emakume Abertzaleen Batzako lehendakaria izan zen Julianen izeba eta Frantziatik etxeratutakoan, kartzelaratu egin zuten. Gerra aurrean telefonista lanak egin zituen.

585. Arratiako astoarekin komeriak (ARA-087/019)

Aita kartzelan zegoela, Olaetako gizon bat etorri zitzaien etxera astoaren bila. Berea izan ez arren, eraman egin zuen. Orduko pasadizoa kontatzen du.

586. Zerrategiko lana (ARA-087/021)

Baserrian lan egin izan du. Hamasei urte ingururekin basolanetan hasi zen. Arrasateko enpresa batek pinudiak erosi zituen eta basoaren barrenean zerrategia jarri zuen. Han zer-nolako lanak egiten zituzten kontatzen du.

587. Zerrategiko lan-baldintzak (ARA-087/023)

Baserriko lanak eta zerrategikoak egiten zituen. Bazkaldu bertan egiten zuten. Sei-zortzi lagun aritzen ziren basoan eta zerrategian lanean. Egunean sei ogerleko ematen zizkieten, lantegietan baino soldata hobe. Atxurrekin egiten zituzten idientzako bideak.

588. Aspaldiko giza hezurak Ibabe inguruan (ARA-087/024)

Idientzako bideak zabaltzen ari zirela, giza hezurak topatu zituzten. Hezurak orain dela 500-600 urte ingurukoak ote ziren esan zion Ibabeko Justok. Aramaio Torraldeko jaunaren menpean zegoen garaian, soldaduek neska gazteak eramaten zizkieten gizon hari. Ibabe baserriko Bertaren bila etorri zirenean, etxekoek aurre egin eta soldadu bat hil omen zuten; haren hezurak izango zirela esan zion Justok Juliani.

589. Karobian hamarnaka gorpu lurperatuta (ARA-087/025)

Gerra garaian karobi batean hirurogei lagun inguru lurperatu zituzten. Gehienak Azpeiti eta Azkoitikoak zirela esaten omen dute. Gurutzea dago bertan.

590. Leziako txabolako milizianoa, fusilatua (ARA-087/026)

Gerra garaian Leziako txabolan miliziano bat harrapatu zuten guardia zibilek. Milizianoak ihes egin zuen baina salatu zuen aramaioarra behartu zuten hura topatzera. Topatu zutenean, Guardia Zibilek bertan hil zuten eta herritar batzuk behartu zituzten haren gorpua lurperatzera.

591. Medikuaren "Mil quinientas" gaitzizenaren jatorria (ARA-087/028)

Gerra garaian bazegoen Aramaion mediku zahar bat, "mil quinientas" gaitzizenekoa. Nazionalek herriren bat hartzen zutenean, karlistek eta margaritek desfilea antolatzen zuten. Haiek botatako etxafuego bat medikuaren etxera sartu zenean, biraoka irten omen zen, eta mila eta bostehun pezetako isuna jarri omen zioten horregatik.

592. Abadea eta "amadekasa" irakasle (ARA-088/002)

Auzoko eskolan ibili zen. Lehenengo maisua auzoko abadea izan zen, Don Antonio Ariztimuño, eta harekin abade-etxean batez ere dotrina ikasten zuten. Abadearen "amadekasak" ere irakasten zion eskola. Juan Marik zazpi urte zituela eraiki zuten eskola berria.

593. Maistra baserrian apopilo (ARA-088/003)

Auzoko-eskolak bukatu zirenean, eskola-etxea auzotarrek erabiltzen zuten elkartzeko gun e bezala. Eskolan neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Juan Mariren arreba bat bertako maistra baten nebarekin ezkondu zen. Gau-eskolak ere maistra berak emanda jaso zituen, maistra hori Juan Mariren etxean apopilo egon zen bitartean.

594. Esnea kalera astoan (ARA-088/004)

14 urtera arte ibili zen eskolan. Eskolara joan aurretik esnea eramaten zuen kalera, Manzano-ren biltegira. Honek gero Arrasaten saltzen zuen esne hori.

595. Lurrezko pitxarrak (ARA-088/005)

Aramaioko kaletarrak Manzano-ren biltegira joaten ziren pitxarrarekin esne bila. Mutikotan gogoratzen du lurrezko pitxarrarekin gari lanetan sorora ura eramaten; baita pitxarra puskatuz gero jasotzen zituen errietak ere. Egunean hamar bat azunbre jaisten zituen kalera. Udan eta neguan ez zuten esne kantitate bera izaten.

596. Karretero lanetan (ARA-088/006)

Hamar bat behi eta idi pare izaten zituzten kortan. Aita eta anaia zaharra karretero lanetan ibiltzen ziren etxeko idiekin. Etxean gari lanak bukatu eta garo-biltzeko garia heldu bitartean ikatza egiten zuten. Kaleko okindegirako laberako egurra gurdietan eramaten zuten. Okina oñatiarra zen.

597. Bildotsak azerien truke (ARA-088/007)

Okindegirako egurra garraiatu zuten harik eta labe elektrikoa jarri zuten arte. Aita ehiztari handia omen zen, eta artzainekin tratu hauxe egin omen zuen, azeriak sortzen zien arazoa konpontze aldera: berak azeriak harrapatzeagatik, artzain bakoitzak urtean bildots bat emango zion. 37 azeri harrapatutako urteak izan ziren. Bizkaiko Arrazolan ere tratu bera zuen. Tiroz edo zepoekin akabatzen zituen azeriok.

598. Azeriak harrapatzen aitarekin (ARA-088/008)

Mutikotan Juan Mari aitarekin joaten zen azeritara. Berak txakurrarekin azeriak uxatu eta aita akabatzen zituen. Juan Marik etxafuegoa botatzen zuen txakurra askatzen zuenean, aita jakin zezan.

599. Azeri-txakurren lana (ARA-088/010)

Azeriak nola uxatzen zituen azaltzen du. Txakurra azeri edo erbiaren atzetik zihoanean aita zaunka-hotsean igartzen zion. Juan Marik ere ikasi zuen txakurren "hizketa" hori. Urte batean 40 bildots jaso zituen aita azeriak harrapatzearen truke. Elorrio, Arrazola, Urkiola eta Aramaioko mendietan ibiltzen ziren azeritan urte osoan. Artzainek hala eskatu eta sinatuta, aita ehiza denboratik kanpo azeriak harrapatzeko baimena lortu zuen gobernadorearengandik. Urte batean 37 azeri hil zituzten.

600. Astoa oso baliagarria zen. Errazionamenduko tabakoa (ARA-088/012)

Lurra bustia zegoenean idien apatxek eta gurdien txirrikek bideak hondatzen zituzten. Halakoetan astoa erabiltzen zuten ganadu-jatekoak ekartzeko. Urte txarretan lastoa kanpotik ekartzen zuten ganaduari emateko. Arto-baba sail

handiak izaten zituzten. Gaztaina eta esnea ere beti izaten zituzten eta jateko zerbait beti izaten zuten etxean. Errazionamendu garaiko aitaren tabakoarekin gogoratzen da. Erretzen ez zutenei garraio lanak egiten zizkien, euren tabakoaren truke.

601. Familia zabala (ARA-088/013)

Aita txerri-hiltzen ibiltzen zen etxerik etxe. Juan Mari bederatzi anai-arrebatatik bosgarrena izan zen. Etxekoak hamabi ziren eta izekoren bat ere beti egoten zen etxean amari laguntzen.

602. Egurra eta ikatza basotik (ARA-088/014)

Basoan lan asko egiten zuten, aizkora eta trontza-zerrarekin. Sutarako egurra eta ikatza prestatzen zuten etxeko basoetan. Eskolako eguerdiko atsedenean joaten zen Juan Mari basora lanean zeudenei lapikoa eraman eta eurekin bazkaltzera.

603. Gerraosteko beharrak (ARA-088/015)

Gerraostean aita sarritan ikusi zuen beharra zutenei laguntzen. Gaztainadi handiak zituzten eta gaztainak saltzen zituzten. Kiloa pezeta bian saltzen zutela gogoratzen du. Txatxurreneko Floren joaten zen Gasteizera gaztainok saltzera.

604. Baserrian esne-behiak jarri zituzten; Lana kooperatiba (ARA-088/016)

Juan Marik ez du inoiz baserritik kanpo lanik egin. Etxera arteko pista berria egin zutenean esne-behiak jarri zituzten Uribarrenbekoa baserrian. Esnea Lana kooperatibak eramaten zuen. Idiak kendu eta traktore txiki bat ekarri zuten. Lana kooperatibako Zuzendaritza Batzordean urte askotan aritu zen Juan Mari.

605. Baserria esne-behi granja bihurtuta (ARA-088/018)

Lana kooperatiban sartu zenean, korta osoa berritu zuen, azken aurrerapenak jarritz. Ordurako berrogei behi bazituen baserrian. Etxeko soro gehienak zelai bihurtu zituen. Artoa babarrunentzako makila baino parra hobea dela dio, bero handitan gerizpe ona ematen baitio.

606. Erromeriak baino ehiza nahiago; behi gazta (ARA-088/019)

Erromeriak igandetan izaten ziren, baina batzuetan ehizara joatea nahiago izaten zuen. Ostiral eta zapatu ilunkara batzuetan, ordea, jaisten zen kalera, partidatxoa jokatzera. Otxandioko azokara joaten ziren gaztainak saltzera. Udar amak gazta egiten zuen soberan zuten behi-esnearekin.

607. Oilagorrak eta okela zubipean kontserban (ARA-088/020)

Arrasaten hilean birritan izaten zen ganadu feria. ISO motor bat eduki zuen, eta gero kotxea. Motorrarekin txakurrak atoian eramaten zituen ehizara. Oilagor asko harrapatzen zituen, eta gordetzeko aitzak erreka zubipean jarritako egur batetik esekitzen zituzten tripak atera eta gero, baina lumatu gabe. Hilabete ondo irauten zuten oilagorrok zubipean. Ahuntz okela ere era berean gordetzen zuten.

608. Guardia Zibilen mantenua baserritarren ardura (ARA-088/022)

Gogoan du gerraostean nola entregatu izan zuten gurdikada garia herriko Kontzejupean, eta gero etxean jateko garia Arabatik estraperloan ekarri beharra. Artorik ez, baina babarrunak ere entregatzen zituzten. Guardia Zibilentzako esnea txandaka eraman behar izaten zuten auzorik auzo. Txapelokerrek beste bezeroak baino gutxiago ordaintzen zuten. Herriko baserritarrek auzolanean prestatzen zuten txapelokerrentzako sutarako egurra.

609. Garia ehotzeko tranpak (ARA-088/023)

Errotak prezintatuta egon zirenean, aitzak Gasteizen lortu zituen prezinto berriak, eta hala gauez ehotzen zuen beharrezko artoa eta garia. Txapelokerrekin ere ondo konpontzen zen, beti ere ardo tragoxka eta mokadutxoren bat etxean emanda.

610. Auzoko bide eta bestelakoen konponketak auzolanean (ARA-088/025)

Gurdiak hondatutako auzo eta basabideak auzolanean konpontzen ziren urtero. Udalak kuartilu bat ardo ematen zuen eguneko eta langileko. Elizetako erreteila eta eskoletako inguruak ere auzolanean konpontzen ziren.

611. Latorrizko ontziak; eztia iragazteko galtzerdiak (ARA-088/026)

Azunbreak lau kuartilu zituen. Latorrizko azunbre-ontzia gogoan du Juan Marik. Latorria herdoildu egiten zen, eta azukrea eta horrelakoak aluminiozko ontzietan gordetzen zituzten. Aita erlezaina zen eta etxerako eztia izaten zuten. Akazia eta arbi loretan asko ibiltzen ziren erleak. Emakume galtzerdi finetan iragazten zuten eztia.

612. Argizaria, distira ateratzeko (ARA-088/028)

Argizariarekin etxeko gaztaina-ohol zoruak leundu eta kandelak ere egiten zituzten. Bere arreba biek zoruari distira nola ateratzen zioten gogoratzen du.

613. Azeriekin etxerik etxe; zekorrak estraperloan (ARA-088/030)

Azeriak harrapatzen zituztenetan, etxerik etxe joaten ziren gero azeriok erakusten eta ematen zieten batzen. Aitzak kontatu zion azkonarrak neguan hiru bat hilabete euren zuloatik irten barik egoten zirela. Udazkenean kalte handiak egiten omen zituzten azkonarrok. Zekorrak estraperloan eramaten zituzten Otxandioko harakin batentzako, eta honek, ez deklaratzearren, kortan hiltzen zituen, gero bere tabernan saltzeko.

614. Bizkaira bildotsak estraperloan (ARA-088/031)

Oleta auzoko artzain bat urte askoan egon zen Uribarrenbekoan. Bildotsak Durangora eramateko basoz joaten zen, probintzia batetik bestera pasatzeko zerga ez ordaintzearren. Norbaitek salatu egin omen zuen, eta behin guardia zibilak saihesteko lanak izan zituen.

615. Katiuskak aurrerapen itzela (ARA-088/032)

Neguan abarka edo larruzko oinetakoekin ibiltzea gogorra izaten zen, eta txirukak (katiuskak) agertu zirenean aurrerapen handia izan zen. Etxean jatekorik ez zuten inoiz falta izan, nahiz eta batzuetan ogiarekin larri samar ibiltzen ziren.

616. Gerra aurretik hasi zen eskolan (ARA-090/002)

Auzoko eskolan ikasi zuen. Gerra aurretik Don Luis maisu erdaldunak gogor egiten omen zuen euskararen aurka. Ahal zuenetan bakarrik joaten zen eskolara, eta beste lagun batzuk baino gutxiago joaten zenez, atzeratuta ibiltzeagatik lotsatuta joan ere. Gerra denboran eskolak etena izan zuen, eta gerraosteko lehen maistra nafarra izan zen.

617. Barazkiak banatzen Gasteizen (ARA-090/003)

13 urterekin eskolak bukatu eta morroi joan zen Gasteizera. Ortu langintzetan jardun zuen, eta astean behin hornidura-azokara eramaten zituen barazkiak. Hiriko beste bezero batzuei etxera eramaten zizkien barazkiak otzaretan. Astoz egiten zuen banaketa. Berari "mutil" deitzen zioten bezeroek.

618. Gasteizen gazteak "Gora Euskadi"ka (ARA-090/004)

Euskaldun gutxi zeuden orduan Gasteizen. Julian bizi zen Aldabe kalean zegoen euskaldun bakar horietako bat, gipuzkoarra bera. Gasteizen erdara apur bat ikasi zuen, eta gero soldaduskan gehiago. Urte bi eman zituen morroi. Gogoan ditu orduko gazte batzuk "Gora Euskadi"ka kaleetan. Poliziak harrapatzen bazituen, soldadu errekrutatu eta atzerrira bidaltzen zituzten armadarekin borrokara.

619. Etxeko hazienda. Garia eskuz jotzen zuten (ARA-090/006)

Etxean behorrak, baso-behiak, ardiak eta ahuntzak zituzten. Negurako belar askorik ez, baina lastoa nahikoa izaten zuten. Eguraldi onarekin garia lurrean zabaltzen zuten, berotzen zenean harriaren kontra eskuz jotzeko. Gari-jotzeko makinak azaldu ziren arte eskuz jo zuten garia. Oletan artoa hobeto etortzen zen garia baino.

620. Gerra denboran elikatzea; errazionamendua (ARA-090/007)

Gerra ostean, ez zuten goserik pasatu. Ganadu eta oiloekin nahikoa okela eta arrautza izaten zuten. Oleta gari lekua ez zenez, entregatu beharrik ez zuten izaten. Garia etxerako lain ozta-ozta edukitzen zuten. Txokolatea, olioia eta horrelakoak errazionamendutik jasotzen zituzten.

621. Gerrako hilabete gogorrak (ARA-090/008)

Gerra denboran ez zuten alde egin etxetik. Udaberri garaian, aita mutikoren batekin eta ardiekin joaten zen Aramaioko Barajuen auzora. Bederatzi hilabetean izan ziren tiroak Oletan; Loiola, Perezagua eta Mungia batailoiak pasatu ziren handik. Soldaduen janariak aita garraiatzen zituen gurdiarekin. Gorriek bide berri bat egin zutenetik, kamioiak erabili zituzten garraiorako.

622. Oletako bonbardaketa (ARA-090/010)

Bonbardaketek ez omen zuten etxe askorik hondatu Oletan. Azkeneko egunean izan zuten bonbardaketarik larriena. Gorriek hildako etsaiei oinetakoak kentzen omen zizkieten, eurek janzteko.

623. Etxeko behor guztiak gerran galdu zituzten (ARA-090/011)

Etxeko behorrak gerra denboran mendian ezkutatu ziren. Etxean gordeta zituzten pare bat ere kendu zizkieten, baina horiek ordaindu egin zizkieten. Soldaduak, alde bietakoak, ondo portatu omen ziren Julianen etxeokoen.

624. Garai bateko olak gerrako babesleku (ARA-090/012)

Etiket hurbil ola bat egon omen zen, baina Julianek ez zuen ezagutu lanean. Bere aita, ordea, oroitzen omen zen olako lanean. Burdin mea olara ekartzen zuten eta burdinurtua Somorrostrora eraman. Oletan suteak ere ba omen ziren, baina ez Julianen denboran. Bere auzoari batzuek Olaeta esaten diote eta beste batzuek Oleta. Gerra denboran ola zaharreko arkupetan gordetzen ziren.

625. Azken sutea Otxandiora eraman. Ura eta argindarra (ARA-090/013)

Oletako sutea zaharren arrastorik ez omen dago inon. Elektrizitatea etorri zenean eraman ei zuten azken sutea Otxandiora. Etxerako argindarra errotetan ekoizten zuten. Sukalderako ura errekatik ekartzen zuten baldetan. Arropak erreka izkinan jarritako lhiba-harrian jota garbitzen zituzten.

626. Sukaldean ura jarri zutenean (ARA-090/015)

Julianek hamabost bat urte zituela jarri zuten ura sukaldean. Uralitazko hodiak sartzeko zangak eskuz egin zituzten.

627. Zorrotzailea nahiago ezkontzeko, maiorazkoa baino (ARA-090/016)

Gerraostean behor berriak eskuratu eta gerra aurreko antzerako aziendarekin jarraitu zuten. Gero jendeak ez zuen gura izan baserrian jarraitzerik, eta ezkondu orduko kalera joaten ziren. Baserriko maiorazko batekin baino "txorrotzaile" (zorrotzaile) batekin ezkontzea nahiago izaten omen zuten neskek. Julian etxera ezkondu zen, Arratiako Igorre herritik etorritako Begoñarekin.

628. Ganaduak kendu eta lantegira joan behar (ARA-090/018)

Anaiek etiketik alde egin zutenean, berak bakarrik ezin baserria aurrera eraman eta sei ardi ez beste ganadu guztiak kenduta, lantegian hasi zen lanean. Laminadora Alavesa (Eulasa) lantegian eman zituen hogeitaz urte. Oleta auzoan zegoen, eta dago, lantegi hori.

629. Baserriarekin ezin jarraitu (ARA-090/020)

Etxean aita adindua eta bera besterik ez zeuden, eta laguntasunik ezak behartu zuen ganadua kentzera.

630. Otxandiora gehiago Aramaiora baino. Neska-laguntzen (ARA-090/021)

Aramaiora San Martin jaietan bai, baina bestela gaztetan Otxandiorako joera izaten zuten. Hango plazako erromerietan musika bandak jotzen zuen eta jende asko elkartzen zen bertan, aramaioarrak barne. Blankako jaietan Gasteizko zezen plazara joaten ziren. Aramaioko Arriola eta Barajuen auzoetako jaietara joaten ziren. Neska-laguntzen ere ibiltzen zen Julian, neskari jarraitu ezinda batzuetan.

631. Otxandioko kanposantua Aramaioko lur-sailetan (ARA-090/025)

Lehengo otxandiar zaharren "Gero Araban deskantzakogo zak" ez zuen ulertu Julianek, harik eta jakin zuen arte Otxandioko kanposantuaren zati handi bat Arabako terrenoetan zegoela, "Limitaduan". Otxandioko Udalak ira-zortekak Limitadotik banatzen zituen. Terreno horien zergak ez omen ditu inork ordaintzen.

632. Otxandioko eskola Limitaduen (ARA-090/026)

"Limitaduan" dauden baserriak kontatzen ditu. Otxandioko eskola ere bertan eraiki zuten. Eskola hori eraiki zuten arte, Oletako umeak Legutiora joaten ziren.

633. Gerrako aireplano batetik paperak botatzen (ARA-090/028)

Gerran zauritutako hamabi soldadu Julianen etxean egon ziren. 1937ko apirilaren 4an Francoren aldekoek aireplanotik paperak bota zituzten. Haietako bat erakusten digu. Egun hartan baja asko eduki zuten nazionalak.

634. Lainoei esker, bonbardaketatik salbu (ARA-090/029)

"El Abuelo" izeneko gorrien aireplanoaren zarata oraindik gogoan dute Julianek eta emazteak. Italiarren aireplano txikiak zetozenean, Oletan denek zekiten haien atzetik hegazkin bonbaketariak etorriko zirela. Txikiek oso baxu egiten zuten hegan, parajea aztertu ondoren handiei esateko non bonbardatu. Behe-lainoa zegoenean, herritarrak babestuta sentitzen ziren.

635. Maisuaren eta abadearen arteko ika-mikak (ARA-091/004)

Azkoaga auzoko eliza aurreko eskolan hasi zen 5-6 urte gaz, Don Lorenzo Martinez valladolidtarra maisu zenean. Adinagatik gela bitan banatuta, baina neskatilek eta mutilek elkarrekin ikasten zuten. Eskolak erdaraz jasotzen zituzten, baina eskola ondoan bizi zen abadeari ez zitzaion gustatzen erdaraz hitz egiten entzutea, ez eta neskatilak mutikoekin jolasean ikustea ere. Abadea eta maisua ez omen ziren ondo konpontzen. Maisuak gau-eskolak ere ematen zituen mutilak Arrasateko Eskola Profesionalerako prestatzeko.

636. Josten ikasten (ARA-091/008)

12-13 urterekin eskolak bukatu eta josten ikasi zuen. Etxerik etxe josten ibiltzen zen emakume batekin hasi, eta gero Arrasaten jantzigintza ikasi zuen. Gerra denboran eskolak etena izan zuen.

637. Jostun maistrak (ARA-091/009)

Altzaga auzoko Benita Madina baserririk baserri josten ibiltzen zen. Leku askotara josteko makina aldean eramaten zuten, karga txandatuta. Benitarekin urte eta erdi eta Arrasaten sei hilabete eman zituen josten ikasten. Arrasateko akademiako maistra Arrasateko Uribarri auzoko Mendietxebarri baserriko Rosita zen. Aramaioar askok ikasi zuten Rositarekin.

638. Joskintzan eta baserriko lanetan (ARA-091/011)

Arropa asko jositakoa da Sebastiana. Etxean, Garaikoazpi baserrian (Txanbergenian), josten zuen. Joskintzaz aparte etxeko lanetan ere jarduten zuen. Dozena bat ganadu buru eta bizpahiru behor izaten zituzten. Etxean txerri, oilo, untxi eta beste ere edukitzen zuten. Itaurrean egin behar zenean, eskolara joan barik geratzen zen. Geroago, bere alabek ere, eskolatik irteten zutenerako, josteko lan txikiak zain izaten zituzten etxean.

639. Lihoa (linua) ereiten zuten (ARA-091/014)

Baserrian artoa ereiten zen garaian lihoa (linua) ere ereiten zuten. Lihoa etxean lantzen zuten, eta ehuntzera Eskoriatzako ehule batengana eramaten zuten. Aramaion ere bazegoen ehulea, baina ez omen zen hain ona. Lihorekin hazia urte batetik besterako gordetzen zuten. Sustrai eta guzti atera eta gero putzuan edukitzen zuten, gainean harriak jarrita.

640. Lihoa (linua) lantzen (ARA-091/016)

Sustraiak bigundu arte egoten ziren liho (linu) landareak putzuan. Gero liho-mailuarekin jotzen zituzten landareok. Sustraietatik irtendako haria latzagoa zen eta zakuak egiteko erabiltzen zuten. Landarea jo eta gero "karraskia"rekin garbitzen zuten fin-fin utzi arte. Goruan amak eta amamak jarduten zuten.

641. Trangatzea; ehuna (ARA-091/018)

Lihoa (linua) trangatzen laguntzera auzoko andreak etortzen ziren. Arratsaldean txokolatea hartzen zuten emakumeok. Baserri gutxitan ereiten zuten lihoa. Trangatu ondoren eskuz leuntzen zen, eta haria egiteko gertu egoten zen. Haria matazan batu eta ehuntzera eramaten zuten Eskoriatzako ehulearengana. Ehunaren bi zabalekoak izaten ziren oherako izarak. Ehuna 70 zm.ko zabalerako biribilkietan etortzen zen.

642. Lihoa (linua) eta artilea (ARA-091/019)

Urte bitik behin ereiten zuten lihoa (linua). Neguan amak eta amamak lihoa eta aititak artilea egiten zuten. Karda eta maratila gogoan ditu Sebastianak. Liho soroak loretan oso politak omen ziren. Ez du gogoratzen garai hartan beste inork lihoa ereiten zuenik.

643. Gerraosteko lapurrak. Ura eta arropa garbiketa (ARA-091/021)

Garia entregatzen zenean, aititak "Miñazulo" izeneko zulo batean gordetzen zituen irin zakuak guardia zibilengandik ezkutatzeke, baina norbaitek ostu zion zakuren bat. Neguan teilatuko urez baliatzen ziren, baina udan errekatik ekarri behar izaten zuten. Etxe ondoan garbitokia izan zuten arte arropa errekan garbitzen zuten. Lixiba egindakoa da Sebastiana.

644. Tejeduria lantegia (ARA-091/025)

Gasteizera lanera autobusez joaten zen; Jauregi-ren autobusak astean birritan joaten ziren Gasteizera. 23 urtera arte, ezkondu zen arte, egon zen baserrian. Kalera ezkondu zen. Tejeduria lantegian egiten zuen lan senarrak kotoizko ehunak egiten. Tejeduria-ren azpian tindategia jarri zuten. Mahoia zen gehien ekoizten zuten ehuna.

645. Aita kartzelan, etxeakoak beldurrez (ARA-091/031)

Aita kartzelan zegoela, Susanaren ahizpa bat jaio zen. Aita atxilotu zutenetik, etxean beti beldurrez egoten ziren milizianoekin. Labesua gauez egin arren, goizean milizianoak zain egoten ziren. Etxean ez, baina soroan erori zen bonbaren bat. Etxean, kortan edo ganbaran gordetzen ziren.

646. Guardia zibilek esnea doan (ARA-091/033)

Gerraostean astean baserritar batek esnea eramane behar izaten zuen guardia zibilen kuartelera. Esne hori doan hartzen zuten guardia zibilek.

647. "Sebillabandaka" jolasean. Erromeriak auzoetan eta plazan (ARA-091/034)

Sebillabandaka, pote-poteka, txirikiletan etab. jolasten zuten neska-mutikoek. Udan auzorik auzo ibiltzen ziren jaietako erromerietan. 16 urtetik aurrera plazako erromerietara ere joaten ziren.

648. 'Hijas de María' eta luistarrak (ARA-091/035)

Sebastiana Hijas de Maríacute;a kongregazioan egon zen. Don Demetrio eta Don Felipe abadeak gogoratzen ditu. Hijas de Maríacute;a eta San Luistarren kongregazioen estandarte bordatuak jarri zituzten Azkoaga auzoko elizan.

649. Ira batzera urrutiko basoetara (ARA-091/041)

Jarindo eta Etxanbileta-ko basoetara joaten ziren ira batzera. Aita joaten zen seme-alaba batzuekin. Bidean batutako basoko sagarrak erre eta babarrunak egosteko parrilla bat eramaten zuten. Ira igitaiaz ebaki, lehortzen utzi eta gurdiaekin garraiatzen zuten etxera, ira-pilatan metatzeko. Aretxabaletako Marin auzoko baso batera ere joaten ziren iratara.

650. Azkoagako eskola (ARA-092/002)

Azkoagako eskolan ibili zen umetan. Irakasleak: don Lorenzo eta señorita Dioni (ordezko irakasleen izenak ere aipatzen ditu). Adin desberdinetako neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Azkoaga, Zabola eta Barajaungo umeak joaten ziren Azkoagako eskolara.

651. Azkoaga auzoa (ARA-092/003)

Azkoaga, Zabola eta Alzaga parrokia bat dira. Alzagarrak elizara, kalera edo Azkoagara. Bakoitza bere auzoan bataiatzeko ohitura. Barajaunek bere parrokia dauka, baina eskolarik ez eta lehen hango umeak Azkoagara joaten ziren.

652. Abade euskaltzalea (ARA-092/005)

Eskola denborako kontuak. Nolako maisu-maistrak eduki zituen. Abadea tolosarra zen eta oso euskaltzea: gogor egiten zien erdaraz egiten zutenean. Eskolan, dena erdaraz. Dotrina, abadearekin euskaraz.

653. Beti ezin eskolara joan (ARA-092/006)

Eskola denborako kontuak. Sei urtetik hamalaura arte ibili zen eskolan. Beti ez zuten eskolara joateko aukerarik: anai-arrebak txandatu egiten ziren etxeko lanetan.

654. Umetako jolasak (ARA-092/008)

Eskolako jolas-orduko jolasak: neskak mariketakan, garizuman "txikolan", sokasaltoan, asto-astoka... Elizpean, mutilak alde batean eta neskak bestean jolasten zuten.

655. 'Hijas de María' kongregazioa (ARA-092/009)

14 urterekin, 'Hijas de María' kongregazioan sartzen ziren auzoko neska denak. Mutilen kongregazioa, San Luis. Hileko lehenengo domekan elizan elkartzen ziren kongregazioan.

656. Etxeko giroa (ARA-092/011)

Eskola amaitu, eta etxeko lanak egiten jarraitu zuen. Soroko lanak ere egin behar izaten ziren. Etxean zenbat senide ziren. Amaren anaiek Arrasateko Zerrajeran egiten zuten lana.

657. Oñatira, neskame (ARA-092/012)

16 urte egiteko zituela, Oñatira joan zen neskame. Txokolate-lantegiko nagusiak ziren bere ugazabak.

658. 'Chocolates Onena' (ARA-092/014)

Oñatin neskame egon zeneko kontuan. 'Chocolates Onena' lantegiko nagusiak ziren Kontxiren ugazabak. Lantegian norbait falta zutenean, Kontxi joaten zen txokolatea pisatzera. Umeekin Zubillagara joaten zen.

659. Neskametzako lanak (ARA-092/017)

Oñatin neskame egon zeneko kontuan. Kontxik etxeko zereginak egiten zituen, eta, aldian behin, txokolate lantegian zerbait egiteko abisua ematen bazioten, lantegira jaisten zen. Umeak beste neska batek zaintzen zituen. Neskame egon zen denborako oroitzapen ona du.

660. Neskametzatza utzi eta etxera (ARA-092/019)

22 hilabete Oñatin neskame egon eta gero, etxera bueltatu zen. Anaia bati ebakuntza egin zioten, eta etxean lanerako jende falta zuten.

661. Abereak (ARA-092/022)

Sei esne-behi, txahalak eta idi-parea zituzten baserrian. 100 ardiko artaldea zeukaten.

662. Ama, plazara (ARA-092/023)

Ardi-gazta egiten zuten. Kontxiren ama Arrasateko plazara joaten zen salmenta egitera astean birritan. Arrautzak, gazta, oilaskoak, baba, gaztaina, patata... saltzen zuen. Kaleraino astoaz jaisten zuen jeneroa, eta, gero, autobusa hartzen zuen Arrasatera joateko.

663. Gerraosteko gabezia (ARA-092/025)

Gerraosteko gabeziaz hitz egiten du. Diru ugaritasunik ez. Etxeko jeneroarekin bizi ziren. Behi-esnea letxeriara eramaten zuten. Gerora, etxera joaten hasi ziren esne bila.

664. Errazionamenduko kartila, kaleko senideentzat (ARA-092/026)

Gerraosteko kontuak. Kaleko senideei ematen zien errazionamenduko kartila, beraiek hartzeko falta zuten janaria. Baserrian ez zuten ogi eta arto faltarik.

665. Garia entregatzea (ARA-092/027)

Gerraostean, garia entregatu behar zen udaletxean. Abadeari anega erdi gari eman behar zitzaion, eta, etxean hildako berri bat edukiz gero, anega eta erdi "errezoen alde". Senide asko zituzten hilda: abadeari gurdikada gari eramaten zioten.

666. Etxaluze baserriari buruzkoak (ARA-092/028)

Errenteroak izan ziren 1975era arte. Zaldibarkoak ziren baserriko ugazabak: Aramaion hiru baserriren jabe ziren. Ugazabari errenta dirutan ordaintzen zioten: garia ere entregatu behar izaten zioten. Abenduko bigarren domekan joaten ziren errenta ordaintzera Zaldibarrera.

667. Abadeari garia erosi behar (ARA-092/029)

Etxean senide asko ziren. Abadeari eta baserriko ugazabari garia entregatuta, etxean falta izaten zen. Gero, abadeari erosi behar garia.

668. Soroak bedeinkatzea (ARA-092/030)

San Juanetan abadea soroak bedeinkatzera joaten zen baserrietara, eta trukean oilaskoa eman behar izaten zitzaion. Oilaskoarekin batera gazta bat eta ardi-esnea ere ematen zioten Etxaluzekoek. Egurra ere eramaten zioten. Abadearen "amakasa" (serora) bere arreba zen.

669. Abadearen eragina (ARA-092/032)

Auzoan zenbat baserri zeuden. Abadeak oiloak, untxiak, ortua, sagastiak... zituen. Tolosa abadeak 40 urtetik gora egin zituen Azkoagan. Abadea estimatzen zuten. Auzoko bideak eta ur-kontuak haren bidez egin ziren: auzoaren ordezkaria izan zen diputazioan.

670. Gari-lanak (ARA-092/035)

Gari-lanak eskuz egiten zituzten. Garia igitaiarekin ebaki, metak egin, larrainean zabaldu... Garia trillo bategaz jotzen zuten. Estualdiren batean, garia eskuz ere jo izan zuten. Gero, auzokoen artean alokatutako matxaka erabiltzen hasi ziren. Auzolanean egiten zuten lana. Ondoren, makina handi bat erosi zuten lastoa ganbarara botatzen zuena.

671. Ganaduarentzako jatekoa (ARA-092/038)

Garia ereiteari utzi ziotenean, ganaduarentzako belarretarako erabili zituzten soroak. Lehen, ganaduarentzako jan nahikorik ez zenean, lastoa erosi egin behar izaten zuten.

672. Domeketan, meza eta arrosarioa (ARA-092/040)

Domeka arratsaldetan, auzoan arrosarioa entzun ondoren, dantzaldira joaten ziren herriko plazara. Goizetan, meza egoten zen.

673. Plazara joatea jokatu ez (ARA-092/045)

Kontxiren amona eta ahizpa joaten ziren Otxandiora, Urrunagara eta Legutiora saltzera. Kontxi ez da plazan saltzen ibili; etxeko zereginetaz arduratzen zen.

674. Gaztainak (ARA-092/047)

Gaztaina denboran gaztaina asko saltzen zuten. Gaztainak, berritan, egosita jaten zituzten; gero, erreta. Afaria: patatak piper gorriekin edo porruarekin eta gaztainak.

675. Gasteizko feria (ARA-092/048)

Ez zuten joerarik Gasteizko plazara joateko. Lehen, eguenetan bakarrik egoten zen autobusa. Auzoko gizon bat eguen denetan joaten zen Gasteizko feriara.

676. Amandrea "kurandera" (ARA-093/002)

Aitajauna karlisten gerran balaz zauritu zuten. Elgoibarko ospitalean artatu zuen erizain batekin ezkondu zen Aramaiora. Jaioneren amandrea zena "kurandera" (petrikilo) lanetan hasi zen Aramaion, eta bere alabari irakatsi zizkion lan horren trikimailuak. Alaba 21 urterekin umezurtz geratu zen eta amaren lanari jarraitu zion.

677. Aitajaun ehulea (ARA-093/003)

Amandrea ez, baina Jaionek aitajauna ondo ezagutu zuen. Oinetatik elbarritua zenez, ehungintzan jarri omen zuen bere emazteak lanean. Lihozko ehuna egiten zuen etxean. Aitajaunak ez omen zuen karlisten gerrako konturik kontatzen. Jaione 11 anai-arrebatatik gazteena izan zen.

678. Gerran Frantziara ihesi (ARA-093/007)

Gerra hasi zenean, Jaione, ama eta hiru ahizpa ikatz-ontzi ingeles baten Frantziako "La Rochette"ra eraman zituzten. Anaia batek Iparraldera ihes egin zuen eta beste zazpi anaiek, denak gudariak, preso edo "Batallón de Trabajadores"en bukatu zuten.

679. Anaia ELAko lehendakari (ARA-093/008)

Anaia zaharrenak Eibarko Armeria Eskolan ikasi zuen. Bilbora joan zen lanera eta han ELA sindikatuko lehendakari egin zuten. Anaia honek gerran Iparraldera hanka egin behar izan zuen. Anaiei gerrako ibilera batzuk kontatzen ditu Jaionek.

680. Anaiak gerran egindako lanak (ARA-093/009)

Iparraldera ihes egin zuen anaia batek; eta bertako ospitalean sendatzen ziren gudariei agiriak egiten zizkien, atzerrira joan nahi bazuten. Anaia horrek, ihes

agin aurretik, Bilbon zegoela, makina bat aramaioar kartzelatik ateratzen lagundu zuen.

681. Pobreenak neskame (ARA-093/010)

Gerra hasi zenean, Mauri neskame zegoen Eskoriatzan. Jaioneren anaia Pedrok Jose Antonio Agirre lehendakaria ezagutzen omen zuen. Maurik zortzi anai-arreba izan zituen eta Jaionek, berriz, hamar. Jaioneren etxean diru gehiago omen zuten Maurirenean baino, eta neskame joan beharrik ez zuen izan Jaionek. Jaionerenean ama "kurandera", eta ahizpa erizain eta emagina zeuden etxean.

682. Komentziako ezkontza (ARA-093/011)

Jaioneren amak bere ama galdu zuenean, ama pontekoak Azkoaga auzoko Sarria baserrian aurkitu zion senargaia eta harekin ezkondu zen. Jaioneren ama "kurandera"k berak prestatzen zituen sendatzeko erabiltzen zituen ukenduak. Hezur, azal eta eta abarretako arazoak konpontzen zituen.

683. "Kurandera"ren ukenduak (ARA-093/012)

"Kurandera"k (petrikiloak) laborategi antzeko gela bat zuen etxean. Osagai naturalak erabiltzen zituen, etxeko erleen argizaria, besteak beste. Aitajaunaren anaia Somorrostron zegoela, silikosiak jota emaztea eta seme-alaba guztiak galdu eta gero, Aramaiora etorri zen eta anaiaren etxeko ortua eta erleak zaintzen laguntzen zuen. Jaioneren ama "kurandera"k olio, ardoa eta argizaria erabiltzen zituen ukenduetarako, baina ez omen zuen belarrik erabiltzen.

684. "Kurandera"ren jakituria (ARA-093/013)

Mauriri berari apurtutako eskumuturra "kurandera"k nola sendatu zion azaltzen du. Benda, oholtxo, olio eta ardoarekin sendatu omen zion. Jaioneren amak zuen jakituria bere amarengandik jaso zuen. Ama "kurandera"k zenbat gaitz eta gaixotasun sendatzen zituen azaltzen du alaba Jaionek.

685. "Kurandera"ren lanak eta ospea (ARA-093/014)

Mauriren ahizpari gurdiaren txirrika gainetik pasatu zitzaion, eta ukalondoa eta belauna txikitu zizkion. "Kurandera"rengana eraman zuen aita eta, artatu ondoren, hezurrok lehen zeuden bezala uztea lortu zuen. Jaioneren ama "kurandera"ren ospea Aramaitik kanpo ere ezaguna zen, eta Donostiatik edo Bilbotik ere etortzen zitzaizkion gaixoak.

686. "Kurandera"ri isuna jarri zioten (ARA-093/015)

Amari isuna jarri zioten medikua izan gabe "kurandera" (petrikilo) lanetan jarduteagatik. Amak ez zien bezeroei asko kobratzen, eta haiek sarritan opariak ekartzen zizkioten. Frantziara ihes egin zuen anaia Ingalaterrara joan zen gero, eta bertatik nylonezko galtzerdiak bidaltzen zituen etxera.

687. Familiak sakabanatuta (ARA-093/017)

Jaioneren anaia, familia Aramaion utzita, Ingalaterrara joan zen. Anaia gazteena New Yorkera joanda zegoen, eta beste anaia bat Kanadara. Anaia zaharrenak 25 urteko aldea zuen Jaionerekiko, eta Mauri koinatak ezagutu ere ez zuen egin, Kanadan hil baitzen. Amak 73 urte hartu zituen; hil zen aurreko egunera arte artatu zituen gaixoak.

688. Petrikilo familia (ARA-093/018)

Amak etxean zuen laborategia. Berak egiten zituen ukendu, enplastu edo txaplatak. Osagai ezberdin asko erabiltzen zituen, eta txaplatak abereen larru finarekin jartzen zituen. Bikea ("pez negra") eta trementina ere erabiltzen zituen. Mauri Jaioneren anaia Imanolen emaztea izan zen. Amaren lanak ikusita, seme-alaba guztiek ikasi zuten petrikilogintzako trikimailuren bat.

689. Herriko eskolak (ARA-093/019)

Gaixoak sarritan etxean geratzen ziren egun batzutarako. Ama hil eta gero, alaba emaginak Mauriren seme bati istripuz apurtu zituen berna hezurrak zuzendu zizkion. Bai Jaione eta bai bere ahizpa emagina oso kaligrafia dotorekoak izan dira. Aramaioko kaleko eskolak aipatzen dituzte. Maurik Azkoaga auzoko eskolan ikasi zuen.

690. Aramaioko bainuetxea (ARA-093/020)

Jaione eta Mauriren garairako Aramaioko bainuetxea itxita zegoen. Bainuetxea bota eta eskola eraiki zuten bertan. Bainuetxearen eraikuntza oso polita omen zen. Hilabete guztiak irudikatzen zituzten estatuak omen zeuden bertan. Plaza ondoan zegoen eskola batean ikasi zuen Jaionek, sei urterekin hasita, gerra hasi zen arte.

691. Iparraldean errefuxiatuta (ARA-093/021)

Gerra hasi zenean, Jaione Bilbora joan zen. Gero Frantziako La Rochette-era. Handik Baiona ingurura joan ziren, eta denera lau urte pasatu zituen Frantzian. Baiona inguruko baserritar guztiak euskaldunak ei ziren. Hango euskal esaerak gogoratzen ditu. Mauriren senarra izango zena, Imanol, morroi egon zen Iparraldeko baserri batean.

692. Iparraldeko euskaldunak (ARA-093/022)

Imanol "gorri"tzat hartu omen zuten Iparraldean egon zenean. Horrek sortutako egoera barregarriak azaltzen ditu Maurik. Harrezkero, bisitan joaten ziren senar-emazteak Imanol egon zen baserrira.

693. Orduko botikak eta botikariak (ARA-093/023)

Gerra hasi zenean, Jaione Bilbora ikastera bidaltzeko asmoa zuen familiak, baina gerrak dena aldatu zuen. Garai hartan medikuak agindutako botikak botikariak berak prestatzen zituen. Usain handia egoten omen zen botiketan.

694. Gau-eskolak mutilentzako bakarrik (ARA-093/024)

Mauriren auzo-eskolan neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, baina Jaioneren eskolan neskak bakarrik ibiltzen ziren. Maurik oso gutxitan joan ahal izaten zuen eskolara, baina etxeko gazteenek sarriago joateko aukera izan zuten. Gau-eskolak, berriz, mutilentzako bakarrik omen ziren orduan. Mauri eskolako matematiketan biderketa eragiketaraino iritsi zen; zatiketak ez zituen ikasi.

695. Eskolak erdaraz (ARA-093/025)

Eskolan euskaraz egitea debekatuta zegoen. Jaioneren seme nagusienak zigortu egiten zituzten eskolan erdaraz ez jakitearren. Jaionek eta Maurik dotrina euskaraz ikasi zuten.

696. Erromeriak eta dantzak (ARA-093/026)

Beste auzoetako neska-mutilak ere etortzen ziren gramofonoz alaitutako Azkoaga auzoko iganderoko erromeriara. Jaione dantza-talde batean aritu zen, eta Aramaiotik kanpora ere joaten ziren dantza egitera. Emakume aramaioar batzuk, zigor gisa, gerraostean kaleak eta kuartelak garbitzera behartu zituzten.

697. Nazionalistak eta karlistak familian (ARA-093/029)

Jaioneren aita nazionalista eta Mauriren aita karlista Aramaioako udaletxeko zinegotziak izan ziren legealdi berean. Jaioneren aitonak karlisten aldean borrokatu zuen azken karlistadan. Mauriren aita gerran desagertu zen eta hiru urtean ezin izan zuten hileta-elizkizunik egin.

698. Aita desagertzea (ARA-093/030)

Aita desagertzeari buruzko pasartea kontatzen du.

699. Nobio kontuak (ARA-093/033)

Senargaia nola ezagutu zuen kontatzen du Jaionek. Maurik ere bere senargaiarekin izan zituen lehenengo harremanak azaltzen ditu.

700. Karlisten banderaduna (ARA-093/034)

Batak nobio karlista eduki zuela, eta bestea karlisten "abanderada" izan zela kontatzen dute. Cochabambako apezpikua (Azkoaga auzoko Labiena baserriko semea) etorri zenean Mauri banderarekin joan omen zen harrera egitera, eta egunkarian atera ei zuten banderarekin...

701. Senarra kartzelara (ARA-093/036)

Ezkonduta eta urte batzuetara Mauriren senarra atxilotu, jipoitu eta kartzelaratu egin zuten. Kartzelan zegoela, 19 hilabeteko alabatxoa hil zitzairen. Sei hilabete eman zituen preso.

702. Jazbana Aramaioko plazan (ARA-093/039)

Gaztetan ez zeukaten Legutio edo Otxandio aldera joateko joerarik. Irtetekotan, Arrasatera joaten ziren. Igandero zegoen Aramaion erromeria. Lehengo plaza zabalagoa eta dantzarako egokiagoa zela diote. "Jazbana datorrela domekan!!!" ahoz aho pasatzen zen herrian.

703. Dantza lotua bekatu larria (ARA-093/040)

"Baltziuan" (dantza lotua) egitea bekatu omen zen, eta apaizek leihotik zaintzen omen zituzten plazako dantzak. Gero pulpitutik salatzen zituen dantzariak, eta konfesatzerakoan absoluziorik eman ez.

704. Aramaioko erromeria ezagunak (ARA-093/041)

Auzoetan ez ezik, ermitetan ere egiten ziren erromeria ederrak; San Kristobalgora egunpasa ere joaten ziren. Letasurrekoa, Marixeka eta beste erromeria batzuk gogoratzen dituzte.

705. Abadearen desafioa, pilota jokoan (ARA-093/042)

Garraibide publikorik ez zegoen, eta Aramaiotik Arrasateko jaietara joaten ziren oinez, baina nekez Arrasate baino urrutiago. Mutilek pilotan jokatzen

zuten elizpean. Abadea pilotari ona omen zen, eta Mauriren senarrari desafioa jarri zion. Abadeak sotana jantzita jokatu omen zuen.

706. Jaione erdara zalea eta aitona ehulea (ARA-093/044)

Jaioneren familian bertsotarako eta kantarako zaletasun handia zegoen. Jaione umetan oso erdara zalea zen, eta anaiek pezeta bat ematen zioten euskaraz egiteagatik. Jaionek ez daki bere amona nongoa zen. Aitonari "Pedro ehulie" deitzen zioten. Oso trebea omen zen ehungintzan. Ehungintza tresneria guztia, eta beste tresneria eta altzari zahar asko galdu dira baserrietan.

707. Milizianoak baserrian (ARA-093/045)

Milizianoak esnea edatera etortzen ziren Mauriren baserrira. Soldaduak berorika egiten zioten amari. Esnea ordaintzen zuten, baina ordaindu gabeko oilaskoa ere eramane zuten egun batean. Jaione Bilbon zegoela, gudariak txistua eta danbolinarekin etortzen ziren; gorriak zirenean, ordea, oiloz eta untxiz kargatuta egoten ziren.

708. Gorriak lapurretan baserrian (ARA-093/046)

Egun batean, ia etxean zuten urdai guztia kendu zieten "Dragones" batailoikoek. Kanpandorrean gorde zuen amak urdai hori, eta usteldu egin zen bertan. Etxe ondoan zegoen gurutze bat ere eramane zuten gorri horiek, kirieleisonka. Agintari batek behartu zituen gurutzea bere lekura itzultzera.

709. Edarra hamar ogerlekoren truke (ARA-093/047)

"Pakun, pakun!!" gerrako tiro-hotsa gogoratzen du Maurik. Bilboko "Dos Caminos"eko miliziano asko egon ziren Aramaion, denak euskaldunak. Amak etxean zuen edarra polit bat saldu zion soldadu bati hamar zilarrezko ogerlekoaren truke. Jaionek, berriz, trapero bati eman zion edarra bat.

710. Berorika, zuka edo hika (ARA-093/048)

Abade eta medikuei berorika zuzentzen zitzaizkien herritarrek garai hartan. Mauri etxean zuka mintzatzen zen.

711. Nesken kongregazioak (ARA-093/050)

Mauri moja bidali nahi izan zuten etxean, baina berak ez zuen onartu. Jaioneren 11 anai-arreben artean ere baten bat fraide edo moja bidaltzea nahi izan zuten, baina ez zen inor joan. Hijas de Mar*&* Congregazioan egon zeneko istorio bat kontatzen du Maurik. Erromeriara joateko baimena eskatu behar izaten zuten. Jaione Acci*&* Cat*&* Licakoa izan zen, baina berari dantza egitea asko gustatzen zitzaion.

712. Elizaren indarra eta eragina (ARA-093/051)

Fraideek garizuman plazako zoruari muin ematera behartzen zituzteneko kontuak. Aste Santuan gauez eta kandlekin joaten ziren kanposantura kaletik eta auzoetatik.

713. Kaminoa eta argindarra berandu Zabolara (ARA-095/004)

Kaminorik ere ez zegoen Zabolara duela hogeit bat urte arte. Argindarra ere oso berandu sartu zen. Halaxe izan behar zelakoan bizi ziren.

714. Etxea erre kanoikadaka (ARA-095/010)

Gerra denboran, bi fronteen erdi samarrean geratu ziren Gesalibarreko Eguzkitzan. Zortzi kanoikada bota zizkieten baserrira francotarrek, eta etxeak su hartu zuen. Ahal zutena hartu eta Arrasatera jaitsi ziren.

715. Txakurak besotik haginka egin (ARA-095/012)

Baserria konpondu eta pozik bueltatu ziren etxera. Hasieran, ez zuten ez abererik eta ez ezer. Gatzagako tratante batengana joan ziren behiak erostera. Txakur batek besotik heldu zion eta hogeita lau haginzuolo egin zizkion.

716. Eguzkitzatik Uribera jaitsi bizitzera (ARA-095/014)

"Elizan sartzen" lagundu zion Felisak amari anai txikia jaio zenean. Abadeak baserria bilatu zien Uriben (Arrasate ondoan) eta hara jaitsi ziren. 12 urte zituen Felisak. Handik hilabetera aita hil zitzaion hotzak hartuta.

717. Bataioa eta elizan sartzea (ARA-095/016)

Jaio eta berehala bataiatzen zen umea. Zortzi bat egunera-edo elizan sartzea. Ohean egoten zen ama berria. Zegoena jaten zuen. Gogoan du babak jan ondoren denek leku batetik esnea jaten zutela.

718. Taloa eta morokila ugari jandakoa (ARA-095/017)

Gerra ostean garia entregatu behar izaten zen eta artoaz konpondu behar. Taloa eta morokila ugari jandakoa da. Gari-lur txarra zen Uribekoa. Artoarentzat, aldiz, oso ona.

719. Ezkutuka lortu behar ogia (ARA-095/019)

Inguruko errota: Mendietxebarri, Markulete eta abar. Ogia hamar egunean behin edo egiten zen, irina zegoenean. Esnea okindegi batera eramaten zuten eta handik ogia ekartzen zuten erdi ezkutuan.

720. Felisa garia ereiteko goldaketan bakar-bakarrik (ARA-095/021)

Zabolara etorritakoan garia ere ereiten zuten. Felisa bakar bakarrik ibilita dago behiekin goldan garia ereiteko. Basora gurdiaz egurretan ere bai. Gero txikitu egin behar. Lan mota guztiak egin ditu.

721. Garia ereiten (ARA-095/022)

Domu Santu aurretxoan ereiten zen garia eta San Joanetarako ebaki. Garia nola ereiten zen kontatzen du: goldatu, erein... Zenbat lan! Oraingo lana ez ei da lana.

722. Garia ebaki eta jotzen (ARA-095/023)

Igitaiaz ebaki garia eta sortak eginda lehortzen edukitzen zen soroan. Gero etxera ekarri eta jo egiten zen makinaz edo eskuz.

723. Garia errotara astoan (ARA-095/024)

Astoan eramaten zen garia errotara. Handik laster irina ekarri eta gero etxean ogia. Uriben garia altua egiten zen eta gero galdu egiten zen. Zabolari txikiagoa egiten zen.

724. Aramaiora autoz errekaduak egitera (ARA-095/026)

47 urterekin atera zuen gidabaimena. Lehengoan ere joan zen kalera autoz. ("Derrigor joan biha juat kalera", esaten zion bere buruari. Erreparatu: gizonezkoen hiketa darabil bere buruarekin). Oso pozik itzuli zen.

725. Letxuga eta porru hazia etxean hartzen du (ARA-095/031)

Letxuga eta porru hazia nola gordetzen duen. Aza hazia, berriz, dendan erosten du. Oiloei egunero aza ematen die jaten. Untxiak ere baditu. Hauekin izaten duen zenbait arazo.

726. Arbi edo azalorerik ez baina zerbak bai (ARA-095/033)

Arbirik ez du ereiten, nahiz eta asko gustatzen zaizkion arbigarak jateko. Azalorerik ez du sartzan aspaldian. Zerbak bai. Maiatzeko ilbeheran erein behar da, bestela garatu egiten da. Ilbeheran egiten ditu ereintzak ahal dela. Loreak ere hainbat klase lantzen ditu.

727. Txakur-korotza ongarri oso ona loreentzat (ARA-095/036)

Satsa erabiltzen du ongarri gisa. Lastoa erabiltzen du azpigarritzat. Txakur-gorotza ongarri oso ona loreentzat.

728. Aita "trabajadoreetan" (ARA-096/003)

Aitak alde egin zuen gerra hasieran Bizkai aldera. Osaba eta izeba bat Arjentinara joan ziren. Aita Santanderren harrapatu zuten, eta "trabajadoreetan" ibili zen urte askoan. Ondo ezagutzen omen zuen Espainiako geografia. Amak eta izebek hazi zuten bera.

729. "Amerikara nua neure borondatez" kanta (ARA-096/005)

Denetik kantatzen zuten, "Boga-boga" eta horrelakoak. "Amerikara nua neure borondatez" bertsoen hasiera kantatzen du. Askok kantatzen zuen familia guztiak, bi edo hiru bozetara ere bai. "Mejikanadak" gustatzen zaizkio. Gitarra jotzen ere ikasi zuen apur bat.

730. Aramaioko tabernak (ARA-096/006)

Riojanoaren tabernara agertzen zen Paulo serenoa kantatzeari uzteko esatera. Orain baino taberna gehiago zegoen. Tabernen izenak. Polikonera joan, "sol y sombra" edan eta jokoan egiten zuten jota ke. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen.

731. Laminen kontuak (ARA-096/009)

Laminen kontuak kontatzen zizkieten, halako zubian egoten zirela eta. Behin, gaztetan Azkoagatik neska-laguntzetik zetorrela, hontzaren oihua entzun eta ileak ere tente jarri zitzaizkion.

732. Martin Abade, apaiz ehiztaria (ARA-096/012)

Sorginzubi deitzen da lekua. Martin Abaderen ipuina sarri entzun du; Urkiolako abadea ei zen. Apaiz ehiztariaren elezaharra kontatzen du.

733. Auzoetako mutilekin borrokan (ARA-096/015)

Belarrondoko ederrak hartzen zituzten Aramaioko eskolan. Maisu bati buruzkoak. Mutil nagusienak ipintzen zituen berba egiten zutenak apuntatzen. Gero egurra ematen zien maisuak. Borrokan ere egiten zuten auzoko mutilekin.

734. Maisuaren belarrondokoa (ARA-096/016)

Berak euskaraz egin izan du beti gurasoekin eta mutil artean herrian. Behin maisuak sekulako belarrondokoa eman zion beste mutiko batekin haserretzeagatik. Belarria txistuka izan zuen luzaro.

735. Toke-torreka (ARA-096/018)

Jolasak. Toke-torreka nola jolasten den. Behin lesionatu egin zen eta amandreak egin zion sendakuntza. Hagina nola atera zion.

736. Amandrea eta izeba (ARA-096/019)

Amandreak "pegauak" (enplastoak) egiten zituen. Aitaren arreba, Rosali, emagina eta erizaina zen.

737. Harrikada lagun bati gura barik (ARA-096/022)

Behin sekulako harrikada eman zion bera baino nagusiagoa zen lagun bati, nahi barik, katu bati botata. Arineketan joan eta basoan ezkutatu zen, gaztaina-arbola baten barruan.

738. Egunero borrokan lagun batekin (ARA-096/024)

Egunero egiten zuen borrokan lagun batekin. Behin harrikada bat jo zion buruan eta han amaitu ziren borrokak.

739. Estu eta larri Txomini harrikada eman ondoren (ARA-096/025)

Txomin izeneko mutil nagusiari harrikada eman ondoren, pare bat hilabetez haren mendekuaren beldur egon zen. Behin besoetatik hartu, jaso eta "orain zer?" galdetu zion. "Gure barik" erantzuna. Orduan lasaitu zen.

740. "Urtebarri barri" kantuan (ARA-097/001)

Gogoan du lau urterekin nola joan zen Urtebarri egunez etxez etxe kantuan talde baten barruan. Etxekoandreak "itxuskixaz" irten eta aurrean eraman zuen taldea. Bera baino zaharragoa zen mutil batek "salbatu" zuen.

741. Martin Abaderen mitoa (ARA-097/004)

Martin Abaderen mitoa (Mateo Txistu, beste leku batzuetan). Meza bertan behera utzi eta erbiaren atzetik joan zen abadearen istorio ezaguna.

742. Santa Kruz apaizaren ihesa (ARA-097/005)

Santa Kruz apaiza basagerlari lanetan zebilen inguruan. Atxilotu egin zuten eta preso zeukaten Aramaioko udaletxean. Ihes egitea lortu zuen fusilatu behar zuten bezperan. Uretan leporaino sartuta egon zen luzaro, eta baserritar baten laguntzaz kobazulo batera joan eta han ezkutatu zen.

743. San Isidoren miraria (ARA-097/007)

San Isidoren miraria. Soroan utzi ganaduak goldearekin, elizara joan, eta itzuli zenean lanak eginda aurkitu ei zituen. Maiatzaren 15ean da eguna, artoa ereiteko sasoia. Artoa oso inportantea zen garai hartan.

744. Orduko taloa askoz ere hobia (ARA-097/008)

Morokila ere bai, baina batez ere taloa jaten zen orduan. Orduko taloa askoz ere hobia omen zen. Irinaren kalitateagatik ziur asko, ordukoa finagoa zelako. Harri ezberdinez ehoten zen garia eta artoa. Euren baserrian ez zen goserik pasatzen.

745. Eztia ogiaz "bustita" (ARA-097/011)

Zubixalden erleak zituzten eta bera hara joaten zenean, ogia eztiaz "bustita" ematen zioten. Hura bai gozoa! Behin kanpoan kalean zuen ematen zion emakumea, Julianek ogia "bustita" eskatu eta andreak uraz bustita eman zion, eta hala ere jan.

746. Aramaiok Otxandio engainatu eta lurrak bereganatu (ARA-097/014)

Esaera batek dio Otxandio eta Aramaiok lurrak banatzeko sistema bat adostu zutela: goizean oilarrak kukurruku egindakoan, bi pertsona, bakoitza bere herritik, irten eta tril egiten zuten lekuan jarriko zutela muga. Baina Aramaiotarrak oilarrari kandela ipini, lehenago abiatu eta Otxandio ondoraino heldu zen. Horregatik da hain handia Aramaio. Bestalde, aitzak kontatzen zion behin hildako bat agertu zela Otxandio eta Aramaio bereizten duen errekan eta otxandioarrek Aramaio aldera bultza egin ziotela, kasuaz hango epailea arduratu zedin.

747. 1953ko uholdeak (ARA-097/015)

Oso gogoan ditu 1953ko uholdeak. Puestoko zekorrarekin izandako komeriak. Zekorra leku seguruan utzi eta etxera abiatu zen arriskua handiak hartuz. Abereak ganbarara igota zituzten ordurako eta ez ziren ito.

748. Aspaldiko uholdeen oroimena (ARA-097/016)

Etxaguen aldeko haitzetan euria beldurgarri egin zuen. Errekak ikusten omen ziren mendian behera etortzen. Arrazola aldean ere (bestaldean) uholde handiak izan ziren. Amonak esaten omen zuen entzunda zuela duela 120 urte ere uholde handiak izan zirela; ama umeei ganbaran egon zela.

749. "Sar Jurji, artuak ereitteko goxegi" (ARA-097/018)

Sar Jurji, artuak ereitteko goxegi/ San Markos, artuak ereindda balegoz" esaera.

750. Amandrearen kutuna (ARA-099/002)

Asko gogoratzen da amandreaz. Amandrearen kuttuna zen bera. Altua eta jatorra zen. Nola janzen eta orrazten zen.

751. Jaunartze-eguna (ARA-099/003)

Jaunartzea nola izan zen. Goizeko zortzietan egin zuten komunioa. Amandreak lagundu zion. Gero etxera joan, gosalduta eta meza nagusira. Soineko dotorea

eraman zuen. Ahizpa guztiak soineko harekin egin zuten jaunartzea. Bazkari berezia egun hartan. Dotrina euskaraz ikasi zuen.

752. Santugilea zen aitajauna (ARA-099/004)

Aitajauna santugilea zen. Etxeko gela baten zuen lantegia. Kanporako ere lan asko egiten zuen. Zuraz erabiltzen zuen, haritza batez ere.

753. Mamuak bidera irten zienekoa (ARA-099/006)

Ahizpa bat oso okerra ei zen. Garizuman txikolan ibiltzen ziren; behin hotz egiten zuen eta lagun taldea etxe batera sartu zen sutondoko epeletara, hango gizonak gonbidatuta. Berandu baten etxera zihoazenean mamu bat irten zitzaien izara zuriz jantzita eta kateak arrastaka. Egundoko sustoa hartu zuten. Laster jakin zuten nor zen, etxeko atarian izara eta kateak ikusi zituztenean.

754. Azakaska (ARA-099/008)

Azakaska eta txikolan ibiltzen ziren. Txikolan Garizuman. Azakaska nola jokutzen den kontatzen du. "Pones", "nones" eta abar, erabiltzen zituzten hitzak.

755. Uholde handia (ARA-099/012)

Neskak eta mutilak batera bainatzen ziren. Salasan baserria urak hartu zuen aspaldi; urria zen, Santa Teresa eguna. Orduko gorabeherak. Larri ibili ziren etxean. Astoa eraman zuen urak. Etxaguendik behera etorri zen uholdea. (Beste grabazio batzuetan jaso dugunez, 1953an gertatu zen)

756. Bi mutilek lagunduta Arrasatetik bueltan (ARA-099/017)

Arrasatera josten ikastera joaten zenean bizikletan, bi mutilek laguntzen zioten itzuleran. Oso jatorrak ei ziren.

757. Abadeak estu hartzen zituen dantzan eginez gero (ARA-099/019)

Bolinburukoa zen gizona. Erromerian ezagutu zuen. Berari Letazur-ko erromeria gustatzen zitzaion. Herriko plazan txistua eta Danbolina jotzen zuten. Don Juan izeneko abadeak estu hartzen zituen. Dantzan eginez gero, infernura joango zirela esaten zieten.

758. Herriko kurandera (ARA-099/022)

Aramaioko kuranderak enplastoen bidez osatzen zuen. Berak belauneko gaitza izan zuenean harengana jo zuen. Kanpoko jende asko etortzen zitzaion. Inoiz etxean edukitzen zuen jendea osatu arte. Apurtuak sendatzen zituen. Ondo konpontzen zen herriko medikuarekin.

759. Herriko plazan belauniko herri guztia (ARA-099/025)

Misinoetan plazan belauniko eduki zuten herri guztia, Sermolari frantziskotarrak etorri ohi ziren eta sekulako beldurra sartzen zieten. Munduaren akaberako egunean eguna ilunduko ei zuen.

760. Torrealdeko Jauna eta Anbotoko Señora (ARA-099/027)

Esaera zen Torrealdeko jaunarekin pasatu behar izaten zutela lehenengo gaua ezkontzera zihoazen Aramaio neskak. Anbotoko Señoraz, berriz, batetik bestera zebilela ez zeruak eta ez lurak hartu nahi ez zuelako.

761. Albinara iratan (ARA-099/031)

Albina dena basoa zen. Sasoian egunero joaten ziren ira ebakitzera. Talde handia joaten ziren. Bueltan gurdiaz zetozeela Krutzetan elkartzen ziren eta juerga baten jaisten ziren.

762. Linuaren lanak eta ondorengo jolasak (ARA-101/005)

Umetan ezagutu zituen linuaren lanak: soroan sortak egin eta lehortzen utzi; etxera ekarri eta jo hazia apartatzeko; txarrantxan pasatu. Gero Eskoriatzan zegoen ehundegi batera eramaten zen han haria eta ehuna egiteko. Latzak ei ziren harekin egindako izarak. Linu-lanak egindakoan afaria egiten zen, eta afalostean abarketa-zarka jolasten zuten, korroan jarrita

763. Umeak moja eta fraide eraman abadeek (ARA-101/007)

Abadeek moja eta fraide eraman zuten ume asko. Abadeek izututa edukitzen zuten jendea infernuarekin.

764. Madrilen eskolan (ARA-101/010)

Madrilen eskolan ibili zen 13 urterekin joanda. Oso maistra gaiztoa izan zuten. Lagunak zituen eta ondo pasatzen zuen. Azkar ikasi zuen erdaraz. Izeba zuen euskaldun bakarra etxean. 1936ko uztailean Aramaion oporretan zegoela lehertu zen gerra eta ez zen atzera itzuli Madrilera.

765. Gasteizera ikatza eramatera gurdiaz (ARA-101/020)

Aitak ikatza idiekin gurdian eramaten zuen Aramaiotik Gasteizera. Gauez, goizeko ordu bata aldera irten eta goizalderako Gasteizen. Behin gizon batek jarraitu zion eta beldurra pasatu zuen.

766. Ogi asko egindakoa (ARA-101/027)

Ogi eta olata asko egindakoa da bera. Ogi noiz, zenbat eta zela egiten zuten. Etxerako egiten zen. Gasteiztik ogi txiki bat ekartzen zuten amarentzat. Noiz eta zergatik utzi zioten garia ereiteari.

767. Fideoa egiten gerra ostean (ARA-101/028)

Herriko lokal batean fideoa egiteko makina ipini zuten. Nola egiten zen kontatzen du. Askok saltzen zuten gerra ostean. Senide baten bidez lortzen zuten irina. Merkataritza normaldu zenean utzi zioten fideoa egiteari. Krisiak iraun izan balu makarroiak ere egingo zituzten. Dena dela, hemengo jendea ez zitzaion pasta gustatzen. Baba zen hemengo janaria.

768. Bi fronteen erdian, Aramaio (ARA-101/029)

Gerra denboran kanoikada asko sartu zen bere etxe inguruan. Nazionalak jan eske etorri ohi ziren beren baserrira, baina ekarri ere ekartzen zituzten gauzak. Aramaio bi fronteen artean egon zen denboraldi batez; ama kaletik etxera itzuli ezinik egon zen.

769. Bi bandoetako soldaduentzat josten (ARA-101/032)

Bateko eta besteko soldaduei jostun-lanak egin zizkien. Dragoientzako brodatuak eta Francoren soldaduentzako alkandorak josten jardun zuen. Markesak eta jende handia egon omen zen herrian.

770. Txakur handi bat euskaraz egiteagatik (ARA-108/002)

Zortzi urte zituela hasi zen Uribarriko auzo-eskolan, eskola eraiki berrian. Eskola eliza ondoan zegoen. Maistrei buruz hitz egiten du. Eskolan galarazita uzten euskaraz hitz egitea; euskaraz egiten zuenari txakur handi bateko zigorra jartzen zioten. 14 urtera arte ibili zen eskolan, baina giro ona egiten zuenean etxeko lanetan lagun behar izaten zuen.

771. Aramaioko gau-eskolara (ARA-108/003)

Aramaioko gau-eskolan ibili zen Don Joakin maisuarekin. Eskola partikularrak ziren, ordainpekoak.

772. Gari-jotzea eta larrainak (ARA-108/005)

Baserri inguruko soro gehienak lantzen zituzten. Artoa eta garia ereiten zuten. Ganaduari zer jateko ematen zioten: arbia, erremolatxa, "erretxistoa" edo gari sorta. Gari-lanak auzokoak elkarri lagunduta egiten ziren, eta merienda ederrak egiten zituzten. Etxe atzeko lautadan jotzen zuten garia. Bekorotzarekin "korotznaixe" egiten zen, eta horrekin garbitzen zen larraina. Gero, haren gainetik behia trailuarekin pasatzen zen. Enrike gustura ibiltzen zen trailu gainean bueltaka. Behiak bekorotza egiten zuenean zartagin zahar batekin jasotzen zuen. "Matxakea" eta gari-jotzeko makina etorri ziren gero.

773. Auzoko hargina (ARA-108/007)

Enrikeren auzoan bazen hargin bat Baleriano Ibabe. Auzoko soro barrenetako hormak berak egin zituen. Lan horiek auzolanean egiten ziren; hiru-lau lagun aritzen ziren hari laguntzen. Arangio menditik ekartzen zuen harria gurdiarekin.

774. Soro lanak (ARA-108/010)

Soroko lanak: artoa eta garia txandaka lantzen zituzten. Lur bakoitzak bere ezaugarria izaten ditu: ez da komeni ziaten lur ezean ereiten hastea... Garaia baino lehen ereiten hasteagatik aitzak errieta egin zienekoa kontatzen du.

775. Labesua, ogia eta artoa (ARA-108/011)

Hamabostean behin labesua egiten zen etxean. Gerra ostea zen, eta errota txixta zeudenez nahiko lan izaten zuten garia ehotzeko. Ogirik ez zegoenean, merienda garaian, artoa erditik ebaki eta eztia erdian jarrita jaten zuen.

776. Erlauntzak eta eztia (ARA-108/012)

Etxean erlauntzak zituzten. Enrikeren aitari zen erlezaina. Enrike ere ibilia da erlezaintzan.

777. Eztia ateratzen (ARA-108/015)

Erlategitik eztia nola ateratzen zuen azaltzen du.

778. Soroko lanak eta ganadua (ARA-108/016)

Soroko lanak: arbia ereiten zuten garia kendu ostean; arbia kendutakoan, berriz, artoa eta baba. Oso zelai gutxi izaten zuten; ganaduari arbia eta "erretxistua" ematen zioten jateko. Esne gutxi batzen zuten, etxerako lain. Pare bat txahal ere hazten zituzten.

779. Esne-behiak (ARA-108/017)

Enrike soldadutzatik bueltatu eta esne-behiak jarri zituzten baserrian. Orduan, utzi egin zioten garia ereiteari baserrian. Basoan pagoan zituzten. Pagoak saldu eta ateratako diruarekin behiak erosi zituzten. Esnezaleari eramaten zioten esnea. Gero, Lana kooperatibako bazkide egin zen.

780. Etxe inguruko basoak nolakoak ziren (ARA-108/020)

Basolanak. Pagadiak bota eta pinua sartu ohi zen gehienetan. Pago eta gaztaina batzuk ba omen dira oraindik.

781. Iralekua (ARA-108/021)

Udazkenean, urrian edo, ira asko ekartzen zuten behien azpiak egiteko. Iralekua goian zegoen, eta gurdiaekin ira eta pago adarrak nola jaisten zituzten kontatzen du. Uztarriko behiek eramaten zuten gurdia.

782. Gaztaina bilteta (ARA-108/023)

Gaztaina asko biltzen zuten. Jornalariak izaten zituzten gaztainak biltzeko. Bildutako gaztainak larrainean bota eta irarekin estaltzen zituzten. Aletu ostean, zakukada bat gaztaina kalera eramaten zen, eta haren ordeztzeko jeneroa ekartzen zen.

783. Jatorduak eta etxeko zereginak (ARA-108/024)

Gaztaina denboran, porru patatak edo beratzen zopa eta gaztainak jan ohi zituzten. Arto denboran, egunez artoa ekarri eta gauez zuriketan aritzen ziren. Arto-zuriketan aritzen ziren bitartean, arrosarioa errezatzen zuten.

784. 12 lagun baserrian (ARA-108/025)

Zenbat senide bizi ziren baserrian: gurasoak, zazpi seme-alaba, amandrea, izeba bat eta neskame lanetan aritzen zen lehengusina bat. Jornalari lanetan, auzoko bizilagunak ibiltzen ziren.

785. Basoan bonba aurkitu (ARA-108/028)

Enrikek gerra garaiko bonba bat aurkitu zuen Albinan basolanean zebilela. Bonbari su eman zioten.

786. Amat kooperatiban lanean hasi (ARA-108/030)

26 urte zituela Amat kooperatiban hasi zen lanean. Gero, Amat eta Ederlan lantegiek bat egin zuten.

787. Herriko agintariak (ARA-108/032)

Herriko agintariak zein ziren aipatzen du: abadea, albaitaria, guardia zibilak eta idazkaria.

788. Egunero mezara, meza-laguntzaile (ARA-108/036)

Egunero joaten zen mezara. 16 urtera arte ibili zen "monagilo". Meza-laguntzaile lanak zein ziren azaltzen du. Abadeak egunero ematen zuen meza, jenderik egon ez arren. Meza latinez izaten zen; sermoia, berriz, euskaraz.

789. Abadearen sermoiak (ARA-108/038)

Uribarriko jaietan abadea zelatan ibiltzen zen. Gero, ikusi eta entzundako gorabeherei buruzko kontuak esaten zituen sermoietan.

790. Aramaioko erromeria (ARA-108/040)

18 urtetik aurrera, Aramaiora joaten ziren erromeriara. Urtean, lau aldiz edo joaten omen ziren, ez astero.

791. Aste Santua eta pasiotarrak (ARA-108/041)

Aste Santuan, pasiotar fraideak joaten ziren Aramaiora; auzo bakoitzera bat. Gero, egun bat egoten zen kalean bildu eta plazari musu eman behar izaten zitzaion. Aste Santuko elizkizunak.

792. 1925ean erregea Aramaion (ARA-109/002)

Sei urtetik 13 urtera bitartean eskolatu zen. Zazpi urte zituela, herri osoa begira zuela, Espainiako erregea Aramaiotik Gasteizera pasatu zen. Kotxe bakarrean etorri zen errege hori. Geratualdi bat egin zuen, baina kotxetik irten barik joan zen.

793. Primo de Riveraren eta Errepublikako eskolak (ARA-109/003)

Eskolan justu-justu kontu batzuk egiten irakatsi zioten. Primo de Riverak auzo-eskolak itxi zituen, eta Errepublikak berriro ireki zituen. Etxaguen, Untzilla eta Uribarri auzoetan eskola berriak eraiki zituzten Errepublikan.

794. Etxeko ganaduak; Arrasateko feria (ARA-109/008)

Hogei ganadu buru inguru izaten zituzten, idiak barne. Etxerako lain esne gordeta, beste guztia txahalek hartzen zuten. Garai hartan kaleko 4-5 etxetan izan ezik, beste guztietan zuten esne-behiren bat, behi pareta normalean, uztarrian eransteke. Valentinen izeko bat Arrasateko plazara joaten zen etxeko gauzak saltzera. Valentin ferietara joaten zen, bere osabarekin. Bergarako Elorregi auzotik errekan gorako herri guztietako baserritarrak elkartzen ziren Arrasateko ferian.

795. Elurra batzen larrea bistaratzeko (ARA-109/010)

Gerra aurretik Arrazolara joaten ziren erromerietara. Ehunka ardi izaten zituzten Ibabe baserrian. Uda partean Tellamendi eta Anboto bitartean erabiltzen zituzten ardiok, eta baso-behiak ere bai. Neguan ganadua etxe inguruan egoten zen, baina kanpoan. Elurra zenean bakarrik etxeratzen zituzten. Halakoetan gogoan du elurra batzen ibiltzen zirela larrea bistaratzeko.

796. Argindarra errotetatik (ARA-109/015)

Valentinek lau urte zituela jarri zuten argindarra, etxe inguruan zegoen Arane errotatik. Kaleko eta Arraga eta Arriola auzoko batzuekin elkartu ziren

Eguzkierripakoak argindarra jartzeko. Gantzaga auzoko errotatik ere eramaten zuten argindarra kalera. Azkoaga eta Arriagako errotek ere ekoizten zuten argindarra. Urte gutxiren barruan jarri ziren errota horiek guztiak argindarra egiten.

797. Unanueren argindar zentrala (ARA-109/020)

Argindar zentral bat egon zen Aramaion, Unanuerena, Otxandiora ere indarra bidaltzen zuena. 1935eko urriko uholde handiak hondatu zizkion makinak.

798. Mandazain fronterik fronte (ARA-109/022)

Valentin Asturias, Teruel, Castellon eta Guadalajarako fronteetan ibili zen, besteak beste. Teruelgo hotzak gogoan ditu. 20 hilabete eman zituen gerran, 1937ko abuztuan hasita. Asturiasen "ikusit" zituen lehenengo tiroak, baina bera mandazaina [acemilero] zenez, ez zuen armarik hartu behar izan.

799. Soldadu mandazaina izan zen (ARA-109/023)

Kanoiak eta munizioak garraiatzen zituen mandoekin. Hirurogeitaka mando eta mandazainekin jardun zuen Valentinek. Kanoi bat mugitzeko, desmuntatuta, zortzi mando behar ziren; eta beste lau, munizioa eramateko. Garagarra eta lastoa jaten zuten mandook. Gerra bukatu eta beste bi urtez Marokon, Xauen-en, egon zen soldadutza bukatzen, han ere mandazain.

800. Gerra Zibila bukatu eta II. Mundu Gerra etorri zen (ARA-109/024)

1944an itzuli zen soldaduskatik etxera, 26 urterekin. 1942a etxean pasatu zuen; baina, II. Mundu Gerra hasi zenean, kinta batzuk deitu zituzten berriro armadara, eta bera Arroako (Zestoa) kuartelera eraman zuten.

801. Lubakiak egiten Aramaion (ARA-109/026)

"Abanzea" izan aurretik, Untzillatik Murugainera lubakiak egiten ibiltzen ziren gauez. Milizianoak baserriak ebakuatu nahian ibili ziren. Ibabe baserrikoek ez zuten inora alde egin.

802. Gerran galdutako behiak (ARA-109/027)

Gerraostean, ez zegoen lanik inon, eta berak baserriko lanetan eta ikazkintzan jardun zuen. Maiatzean prestatzen zuten egurra, eta abuztuan txondorrak piztu. Aita gazterik hil zitzaion eta berak ez zuen ezagutu. Sei anai-arreba izan ziren. Gerra denboran, ganadu batzuk kendu zizkieten etxetik. Esne-behiak jarri eta esne asko zutenean, behi-gazta egiten zuten.

803. Gerraostea baserrian; erroten egoera (ARA-109/029)

Gerraostean ardi-gazta egiten jarraitu zuten. Babarrunak eta garia entregatu egin behar izaten zituzten gerraostean. 1950 urte inguruan hasi ziren gauzak normaltasunera bueltatzen. Gerraostean, auzoko antigoaleko errota zaharra lanerako baimenduta egon zen. Markuletakoa ere bai. Baina lhabetarrak bazkide ziren errota prezintatu egin zuten.

804. Jatorduak. Gaztainadien ustiapena (ARA-109/031)

Ogia egiteko gariz justu samar ibiltzen ziren arren, taloak egiteko arto nahikoa izaten zuten. Gosaltzeko salda eta esnea ogia edo taloarekin hartzen zuten; eguerdian babarrunak urdai apur batekin eta gauean patatak. Gaztaina

denboran gaztainak jaten zituzten. Gaztainondoak gerra aurretik hasi omen ziren gaixotzen. Gaztainadi asko zeuden, eta zoruetarako oholak egiteko aprobetxatzen zituzten.

805. Ikazkintza. Herriko errementaria (ARA-109/032)

Arrazola inguruan ikazkin ibili zirenean, karreteroek eramaten zuten ikatza errepideraino, eta handik Bilbora kamioiak. Etxe inguruko basoetakoa herriko errementariarentzako (Doroteo Hoar) edo Gasteizen saltzeko izaten zen. Doroteok ferra, igitai, aitzur eta beste egiten zituen. Errementari honek alde egin zuenetik ez da besterik egon Aramaion.

806. Medikua eta petrikiloa herrian (ARA-109/033)

Herrian medikua bazegoen, eta etxe bakoitzak hileko hainbeste ordaintzen zuen medikuagatik. Petrikilo-emagina ere bazegoen. Gaixotasunengatik medikuarengana joaten ziren, baina hezurak petrikiloak sendatzen zituen. Zegamako Don Ceferino Garziarena zen orduko mediku euskalduna, eta oinez ibiltzen zen etxerik etxe.

807. Tabernariak. Aisialdia (ARA-109/034)

Herriko tabernariak behiak zituzten, eta Arrasateko Zerrajera lantegian ere egiten zuten lan. Orduan jende gutxi joaten zen tabernetara. Meza ostean kontzejupean elkartzen ziren, pilotan jokatzeko. Partidak txandaka jokatzeko zituzten. Gerra aurrean ez ziren asko joaten kalera. Igandetan gazteak Andra Mari ermitan, edo negu partean auzoko baserri ezberdinetan elkartzen ziren.

808. Mutikotako jolasak; Garizuman, txirikolan (ARA-109/035)

Mutikotan arineketan elkar harrapatzera jolasten zuten. Garizuman, txirikolan (txirikiletan) jolasten zuten. Auzo guztietan zeuden txirikolan jolasteko lekuak.

809. 36 urterekin hasi zen lantegian (ARA-109/037)

"Talleres Mondragoneses de Precisiøn" lantegian egin zuen lan 25 urtez, kalibre, erregela eta eskuairak egiten. Bartzelonara joaten zen ekoizten zuten gehiena. 1980 urtean itxi zen lantegia. 36 urterekin lantegian hasi zen arte baserrian egon zen, ikazkintzan eta baserri eta basolanetan.

810. Makinak etorri aurretik garia larrainean jotzen zuten (ARA-109/038)

Garia larrainean jotzen zuten, lau behor elkarri lotuta gainean ibilaraziz, edo trailuz, ganadu pareak tiratuta. Matxaka makinak ordezkatu zituen ganaduak garia jotzeko. Geroago etorri zen lastoa zuzenean ganbarara botatzen zuen gari jotzeko makina. Azkoaga auzoko makina bat ibiltzen zen baserririk baserri gari-jotzen. Behorrekin garia nola jotzen zuten azaltzen du. Hektarea pare bat gari-soro lantzen zituzten.

811. Auzoko jaiak eta kofradia (ARA-109/040)

Auzoko jaiak Andra Mari ermitan ospatzen zituzten. Bertako kofradiak antolatzen zituen jaiak. Kofradiakoak goizeko mezara joaten ziren; konfesatu eta jauna hartu ondoren gosaldia egiten zuten. Meza nagusia gero izaten zen. Hildakoen eta balantzea egin ondoren, bazkaria izaten zuten. Gero erromeria, eta bostetan arrosarioa. Kofradiak urteko kuota kobratzen zuen. Kofradiakoren bat hiltzen zenean, kofradiak egiten zion hileta.

812. Ganaduen ermandadea (ARA-109/041)

Ganaduen ermandadea Andra Mari ermita ondoan biltzen zen. "Lana" lantegia hasi zenean ganaduentzako aseguria jarri zuen, eta horrek ekarri zuen ermandadearen bukaera. Eguzkierripa auzoko eta kaleko ganaduak zeuden ermandadean. Batzordeak urtero tasatzen zituen ganaduak, eta ganaduren bat galtzen zenean ermandadeak ordaintzen zuen galera. Baso-ganadua ez zen egoten ermandadean. Etxekoak hiru hilabete behin Andra Mari ermitaren aurrera eraman behar izaten ziren.

813. Tuberkulosia, "Lana" kooperatiba eta Europar Batasuna (ARA-109/042)

Ermandadean zeudela ez, baina "Lana" lantegiko aseguruan zeudela tuberkulosiagatik ganadu guztiak aldatu behar izan zituzten baserrian. Kalte handia eragin zuen gaitzak Aramaion. Ganadu eta lur-ondasunak eduki behar ziren "Lana" kooperatiban bazkideku ahal izateko, langileak izan ezik. Europar Batasunean sartu ginenean, "Lana"ri esnetegia kendu zioten, eta baserritar askok kooperatiba utzi zuten. Ordurako basoan pinu asko sartuta zegoen eta basoko ganadu asko galduta.

814. Lehengo auzolanak (ARA-109/044)

Garai batean bideak konpontzea auzolanean egiten zen. Gabon inguruan auzotik kalerainoko bideak egiten ziren, eta Udalak baserri-etxeko kuartilu bat ardo ematen zuen, lana bukatu ondorengo askarirako. Herriko parrokiako lanetan baserritar askok hartu zuten parte auzolanean. Parrokiako gangako egurrak gogoratzen ditu.

815. Gari-jotzea auzolanean (ARA-109/046)

Gari-jotze garaian baserritarrek elkarri laguntzen zioten. Ajuriaren gari-ebakitzeko makina agertu zen arte, garia igitaiz ebaki zuten.

816. Eskolako kontuak (ARA-110/002)

Sei urte inguru zituela hasi zen Aramaioko herriko eskolan. Oinez joaten zen eskolara. Bazkaltzera etxera itzultzen zen: negu garaian, izeba baten etxean bazkaltzen zuen; lotara etxera bueltatzen zen. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Sole Lasagabaster arabarra zuen maistra. Eskolan ezin zuten euskaraz hitz egin. Eskolan zer ikasi zuen. Baserrian lan asko izaten zen garaian, eskola asko galtzen zen.

817. Etxebarri baserrian umezain (ARA-110/003)

Bederatzi urte egin aurretik umezain joan zen Etxebarri baserrira, izebarenera. Eskolarekin tartekatzen zuen umezain lana. Urtebete edo Etxebarriko eskolan ibili zen.

818. Amak irakatsi dotrina euskaraz (ARA-110/005)

Eskola garaiko oroitzapenak. Etxaguengo eskola eta kaleko eskola alderatzen ditu. Etxaguengo eskolan ume gutxiago ziren, eta dotrina euskaraz ikasten zuten abadearekin. Kanean, berriz, dotrina erdaraz izaten zen. Dotrina euskaraz amarekin ikasi zuen, etxean.

819. 'Hijas de María' eta 'Acción Católica' (ARA-110/006)

Hijas de María eta Acción Católica elkarteei buruz hitz egiten du. Medaila bat jantzi behar izaten zuten zinta urdinarekin. Acción Católican gurutzetxo bat jartzen zuten.

820. Ezin baltseoan egin (ARA-110/008)

Hijas de María eta Acción Católicako debekuak. Erromeriara joan arren, ezin zen baltseoan egin; debekatuta zegoen.

821. Sebastianarekin josten ikasi (ARA-110/010)

Baserrian zenbat ganadu zuten aipatzen du. Etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen. Aitaren lehengusina Sebastianarekin josten ikasten aritu zen; bost lagun egoten ziren josten ikasten.

822. Soroko lanak, urte sasoiaren arabera (ARA-110/012)

Garia lantzeko lurra idiekin prestatzen zuten. Maiatz aldera, artoa eta baba ereiten zuten. Udazkenean, berriz, garia ereiten zen; ekain-uztail aldera ebakitzen zen. Sorotik garia kentzen zutenean, arbia ereiten zuten. Arbia edo erremolatxa ganaduari jaten emateko izaten zen. Ez zuten lurra

823. Igandetean, opil bana (ARA-110/013)

Errazionamendu garaiko oroitzapenak. Gurdian eramaten zituen aitak entregatu beharreko gari zakuak. Lur onak zituzten garaia lantzeko, eta nahiz eta entregatu behar izan, gari nahikoa izaten zuten etxerako. Igandetean, meza ondorenean senitarteko okin batengana joaten ziren, eta hark opil bana ematen zien. Okinak Mario Irure zuen izena.

824. Eguzkierripako errotara (ARA-110/014)

Errotak itxita zeuden garaian, gauetan joan ohi ziren garia ehotzera. Eguzkierripako errotara joaten ziren; aita hango errotako bazkide zen.

825. Arraga auzoa (ARA-110/015)

Arraga auzoan ez zegoen errotarik. Auzoa zer baserrik osatzen duten aipatzen du: Arragaburu, Iturrieta, "Arragaiñ" (Arragagañkoa), "Belardona", "Lionena" eta "Asentziona". Arragako San Pedro ermitaren jatorriari buruz hitz egiten du.

826. Jolasak eta auzokoekin harremanak (ARA-110/016)

Ume garaiko jolasak. Garizuman, txirikolan. Azakazka, harrapaketan, arineketan... ibiltzen ziren neska-mutilak elkarrekin. Maria Luisaren etxe inguruan jolastu ohi zuten. "Arrixola" (Arriola), "Aixola" (Arexola) eta Etxaguen auzokoekin harremana izan dute beti Arragakoek.

827. Trailuaren gainean gustura (ARA-110/018)

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Lehenengo, idiekin pasatzen zuten trailua larrinean. Aita edo anaia aritzen ziren idien bekorotzak jasotzen. Umetan, gustura ibiltzen zen trailuaren gainean bueltaka. Gero, auzoko batzuen artean "matxakadora" erosi zuten.

828. Ganaduarentzako jatekoa (ARA-110/019)

Ganadu ugari zuten; haientzako jatekoari buruz hitz egiten du. Arta-lastoa, otea, lizarra... eman ohi zioten ganaduari.

829. Txerrikumeak hazi, gero saltzeko (ARA-110/022)

Untxiak, oiloak eta txerriak ere izaten zituzten baserrian. Oiloak libre ibiltzen ziren. Txerrikumeak hazten zituzten gero saltzeko.

830. Arrasaterako, saltzera (ARA-110/023)

Etxean egiten zuten gazta. Etxean bertan saldu ohi zuten. Arrasateko plazara ere joan Maria Luisaren ama gazta, ardi-esnea, baba eta arrautzak saltzera. Gero, Maria Luisa hasi zen joaten azokara. Autobusean joan ohi zen Arrasatera.

831. Etxerako erosketak (ARA-110/024)

Arrasatera joan ohi zen baserriko jeneroa saltzera. Salmentan ateratako diruarekin zer erosten zuen azaltzen du: fruta, haragia, arraina...

832. Jatorduak eta elikadura (ARA-110/025)

Jatorduak nolakoak izaten ziren. Gosaltzeko: esnea eta, neguan, morokila. Bazkaritan: baba txerrikiarekin. Afaltzeko: patata edo zopa. Gaztaina denboran, berakatz-salda eta gaztainak jan ohi zituzten. Ez zuten arrautza asko jaten. Ardia hiltzen zenean, ardi-haragia jaten zuten; baita zezina ere. Gazta asko jaten zuten, eta ez zuten asko estimatzen. Fruta, intxaurrak... ez ziren falta izaten baserrian. Domeketan, garbantzuak edo arroza jan ohi zituzten.

833. Gaspar jatetxean sukaldean ikasten (ARA-110/028)

21 urte zituela Bergarako Gaspar jatetxean hilabete batzuk pasatu zituen sukaldean ikasten. Jan eta lo bertan egiten zituen. Astean arratsalde bat izaten zuten libre. Jatetxeak Gaspar izena zergatik zuen azaltzen du.

834. Oilaskoak lumatzen Gasparrenean (ARA-110/030)

Bergarako Gaspar jatetxean sukaldeko lanak egiten ikasten aritu zen. Oilaskoak nola lumatzen zituzten azaltzen du. Pazkoetarako oilasko asko prestatzen omen zuten. Bildotsa labean ere asko prestatzen zuten.

835. Ezkontzako azalpenak (ARA-110/037)

Ezkontzari buruzko azalpenak. Barajuengo ermitan ezkondu eta senargaiaren baserrian egin zuten bazkaria etxekeekin. Maria Luisa eta senarra eztei-bidaiera joan zirenean, auzoko gizonak baserrira joan omen ziren afaltzera. Donostiara eta Iruñera joan ziren eztei-bidaian.

836. Bolinburu baserrira ezkondu (ARA-110/040)

Eztei-bidaiatik bueltatu ondoren, senarren baserrira joan zen bizitzera. Bolinburu baserrian, 10-11 lagun bizi ziren bertan. Maria Luisak soroko lanak egin ohi zituen. Pixkanaka, senarraren anai-arrebak ezkondu eta baserritik joaten hasi ziren.

837. Esnea Santa Agedara saldu (ARA-110/042)

Bolinburu baserrian Arragaburun baino ganadu gehiago zuten. Bolinburun esne-behiak zituzten, eta esnea saldu ohi zuten. Esnea Santa Agedako fraideei saltzen zien. Egunero eramaten zuten esnea astoan. Denborarekin, esnea biltzeko tankea jarri zuten baserrian.

838. Aitaren gazta (ARA-110/047)

Arragaburu baserrian gurasoek gazta nola egiten zuten azaltzen du. Eskuz egiten zituen gaztak. Gero, erosi zuten gazta egiteko tresneria. Maria Luisaren aitak estimazio handia ziaten omen zuen Arrasateko azokan.

839. Basobideak eta karreteroak. Oletatik Otxandiora galtzada (ARA-111/004)

Trenbide-trabesak Gasteizera idiekin eramaten zituzten. Oletan "gurtarte" bideak bakarrik zeuden, hormaz inguratutakoak. Oletako eliza ondotik Otxandiora galtzada, "oinbidia", zegoen. Zerrategia basoan zegoen, eta lana eskuz egiten zen. Basotik egurra ateratzeko bideak oso luzeak ziren.

840. Otxandiotik Oletarainoko bidea (ARA-111/006)

Basoko errail-bidearen arrastoa oraindik ikusten da, errailok aspaldi ezkutatu ziren arren. Otxandiotik Oletarainoko bidea gerra aurreko urtean egin zen. Bera mutikoa zen, baina gurdietan erreka-harriak nola ekartzen zituzten gogoan du. Gerrako "abanzean" bide horretatik pasatu ziren.

841. Gerrako "abanzea" Oleta auzoan (ARA-111/007)

"Abanzea" etorri aurretik, Oletako etxeetan miliziano gipuzkoarrak egon ziren. Kurtzeta gainean tiroketa gogorak izan ziren. Oletako etxe asko suntsitu zituzten bonbardaketetan. Egun haietan berak ikusitakoak azaltzen ditu.

842. Eskola urteak eta jolasak (ARA-111/013)

Gerraostean, bederatzi urterekin hasi zen auzoko eskolan. 14 urtera arte ikasi zuen. Eskolak erdaraz ziren, baina euskaraz mintzatzeagatik ez zituzten zigortzen. "Txirikolan" (Txirikiletan) jolasten zuten asko. Frontoirik ez, baina bolalekua bazuten.

843. Mutikotan ardiekin Aretxabaletara (ARA-111/014)

Udaberrietan Aretxabaletako Oro auzora joaten ziren ardiekin. 10-11 urterekin hasi zen bera Orora joaten. Udan Aitzigar mendian egoten zen artaldea. Aramaion artalde asko zeuden hain terreno gutxirako, eta udaberrian batzuek alde egiten zuten. Oron udaberria goizago hasten zen. Bildotsak bertatik saltzen zituzten Aretxabaletara eta Arrasatera. Orduan, bildotsak handiagoak hazten ziren orain baino, eta gazta gutxiago egiten zen.

844. Esnea saltzea hobe gazta egitea baino (ARA-111/015)

Hasieran eskuz eta gero prentsaz egiten zuten gazta. Geroago esnea bera saltzen hasi ziren. Izarrako Pastor Vasco gaztandegiari saltzen zioten esnea. Garai hartan Oletako artzain gehienentzako esnea saltzea hobe zen gazta egitea baino.

845. Abeltzaintzaren gainbehera (ARA-111/017)

7-8 behi eta 150 ardi inguru zituzten baserrian gerra-garaian. Geroago idi pareia ere jarri zuten. Aitajauna mutikoa zela jarri zituzten etxean ardiak, eta Pedrok kendu zituen azkenak. Etxeko abeltzaintzaren gainbehera azaltzen du.

846. Gerraostean patata soro berriak (ARA-111/018)

Idiak etxeko lanetarako erabiltzen zituzten. Gerraostean ez zegoen ez ogirik ez oliorik. Babarrun, esne eta okela nahikoa izaten zuten etxekoentzako. Otxandion, patata sartzeko, soro berri asko landu zituzten.

847. Errotari iruzurgilea (ARA-111/019)

Oleta auzoan ez zuten apenas garirik ereiten, beraz, ez zuten izaten entregatu beharrik ere. Ereiten zuten apurra jo ere eskuz egiten zuten harriaren kontra. Baina gero ezin zuten eho, errotak itxita baitzeuden. Artale berriaren ordeztan jasotako arto-irin zaharrarekin taloak egin ezinda ibiltzen zen amona.

848. Errazionamenduan "primera" mailakoak (ARA-111/020)

Gerraostean ez zegoen ez dirurik ezta jatekorik ere. Errazionamendu garaian "primera, segunda eta tercera" mailako kartilak zeuden. Primerakoak ziren gutxien jasotzeko eskubidea zutenak, eta maila horretan zegoen Pedroken etxea.

849. Argindarra beti ezagutu du, baina ura gerraostean jarri zuten (ARA-111/021)

Iberduero konpainia etorri zen arte argindarra errotan egiten zen. Argindarra beti ezagutu du etxean, baina sukaldean ura gerraostean jarri zuten. Baserrietan ura jartzeko izan zituzten buruhausteez mintzatzen da.

850. Oleta eta Otxandioko urak. Kloroa nahitaezkoa (ARA-111/022)

Oletako plazan iturria jartzeko arazoak izan zituzten. Otxandiok Oletatik ura hartu zuen. Urari kloroa erantsi beharrarekin batera hartu zuen Udalak uren kudeatzea. Lehen ur ona eta doakoa zuten. Oraingoa ondo ordaindutakoa da, baina ez lehengoa bezain ona.

851. Otxandio erosoago Aramaio baino (ARA-111/023)

Arropa errekan garbitzen zuten. Pedrok ez du ezagutu etxean lixibarik egiten. Aramaio aldrebes dago oletarrentzako; Otxandiora joatea errazago dute. Aramaiora lehen biderik ere ez zegoen, eta mendiz joan behar izaten ziren. Aramaio ez omen du erakusten borondate asko Oleta auzoarekiko, baina Otxandiok gutxiago, Pedroken esanetan.

852. "Limitadua", Aramaio eta Otxandioren arteko liskarra (ARA-111/024)

Aramaio eta Otxandio artean badago lur-sail bat, "El Limitado", urteetan nahiko ika-mika sortu dituen. Gai honetaz mintzatzen da Pedro. Otxandiok usufruktuan hartu omen zuen lur-sail hori aspaldi, eta orain ez dio itzuli nahi Aramaiori, benetako jabeari, dirudienez. Arartekoak ere parte hartu omen du.

853. Udaleko idazkariak lur-sailen eskubideak saldu (ARA-111/025)

"El Limitado"ko lur-sailak kondearenak omen ziren. Haiek erabiltzeko eskubideak, berriz, Aramaiorenak izan ei ziren, baina Udaleko idazkariak eskubideok saldu egin omen zituen, eta ondorioz Foru Aldundia lur-sailokin geratu.

854. Otxandio herriaren mugak (ARA-111/027)

Otxandiarrek urtero egiten dute herriko mugarrietatik itzulia ("Mojonadia"). Pedoren aurreko denboretako ohitura omen da. "Limitadua"rena aitajaunaren garaikoa zelakoan dago Pedro. Abadiño eta Zeanuriko lurak Otxandioraino bertaraino ailegatzen dira, eta "Limitadua" kenduz gero, lur barik geratuko litzateke herria. Otxandiok Bizkaiarekin eta Arabarekin dituen mugak azaltzen ditu. Otxandiarrak ez omen daude arabarrak izateko gertu.

855. Erromeriak; Barajuen auzora neska-laguntzera (ARA-111/030)

Emaztea izango zena Otxandioko erromerian ezagutu zuen. Musika bandak eta soinu-joleek ere jotzen zuten Otxandion. Aramaioko eta Legutioko jendea joaten zen Otxandioko erromerietara. Neska-laguntzera ez ziren oso urruti joaten. Behin Aramaioko Barajuen auzoko neska bati laguntzera joan zenekoa kontatzen du. Debekatuta omen zegoen zirri egitea.

856. Auzoko jaiak egunez aldatu behar (ARA-111/031)

Erromerietan mutilek pezeta bi ordaintzen zituzten dantza saio osoan dantza egin ahal izateko. Lehenago Oletako jaiak Kontxesi egunean izaten ziren. Eguraldi txarra egiten zuenean, gonbidatuak egun askoan geratzen omen ziren, eta abuztuko Andra Marietara aldatu zituzten auzoko jaiok.

857. Karobirik ez zuen ezagutu lanean (ARA-111/032)

Idi-probarik ez, baina auzoko jaietan trontzalariak eta sokatirak izaten ziren. Harri-jasotzeak ez zuen Gipuzkoan besteko tirarik Oletan. Basomutilen kuadriletan batek jatordua prestatu, besteak trontzak zorroztu, hark zuhaitzak inausi, besteek trontzan..., lanak banatuta edukitzen zituzten. Bere aurretik karea egiten zela dio, baina Pedoren akorduan ez da egin Oletan.

858. Aitajauna "abanzeak" harrapatu zuen (ARA-111/033)

Trintxeratan eta karobi zaharretan hobiratutako soldaduak gogoratzen ditu. Aitajauna arditan zela, "abanzeak" harrapatu zuen, eta Zeberioraino eurekin joatera behartu zuten. Kendu ez zizkioten ardiekin, etxera itzuli ahal izan zen. Hamar ardi inguru galdu omen zituen.

859. Oleta auzoa nekazaritzarako paraje altu samarra (ARA-111/035)

Garia zemendian (azaroan) ereiten zuten, abuztuan ebaki eta lurra landu ondoren arbia ereiten zen. Artoa ereindako lekuan, erne eta gero, babarruna ereiten zuten eskuz. Ereindako haziak ondo hartzeko lurra epeldu eta gero erein behar izaten ziren. Ortuko gauzak berandu ipiniz gero, hobeto etortzen dira.

860. Izozte gogorak Oletan (ARA-111/036)

Gogoan du duela hamabost urte inguru, ekainaren 11n, egin zuen izoztea. Pago-hostoak, irak eta pinuak ere erre egin omen zituen izotzak. Aramaion ez ei du sasoi horretan horrelako izotzik egiten, ezta altuera bereko auzoetan ere. Oleta auzoa 400 metrotik gora dago.

861. Auzolanean egindako lanak (ARA-111/038)

Garai batean auzotarrek auzolanari erantzun egiten zioten. Galtzadak egiten, bideak konpontzen etab. jarduten zuten, etxe bakoitzeko pertsona batek partu hartuta. Elizako erreteila ere egin izan ziren auzolanean.

862. Elkarri laguntzea normala zenean (ARA-111/039)

Garia igitaiz ebakitzen zuten. Jo, eskuz jotzen zuten, harik eta lastoa eta alea banatzen zituen makina etorri zen arte. Etxe bik elkarri lagunduz, egun pare batean jotzen zuten eskuz etxeko garia. Lehen auzoek elkarri laguntzea oso arrunta zen. Txerria hiltzen zenean, auzo eta senideen etxeetara eramaten zen odolkiren bat opari gisa; ohitura hori gaur ere bizirik dago.

863. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak (ARA-111/040)

Pedroren lehengusu bat ibiltzen zen etxerik etxe txerriak hiltzen. Txerria hil aurretik anis apur bat gailatekin hartzen zuten. Txerria hil eta gero berakatz zopak arrautzekin, eta gainean txerriaren gibela jaten zuten. Kafea eta kopatxo bat hartuko zuten bukatzeko. Txerria zatitzen zen egunean ere afaria egiten zuten. Ilea kentzeko, txerrien azala irarekin erretzen zuten.

864. Bergarako Ugesarrira neskame (ARA-112/007)

Eskola bukatu eta Bergarako Ugesarri baserrira neskame joan zen Mari Jose. Ugesarri Harane auzoan dago. Baserriko familiari buruz hitz egiten du. Umezain lanak egiten zituen.

865. Ugesarriko soldata eta propinak (ARA-112/009)

Ugesarri baserrian etxeko moduan egon zen Mari Jose. Urtean, 1.000 pezeta irabazten zituen; jantziak ere bertan ematen zizkien. Irabazitako dirua amari entregatu behar izaten zion. Esnea partitzen ibiltzen zenean, propina jaso ohi zuen batzuetan. Etxeko semeetako batek ere propina ematen zion. Propinetako dirua beretzat gordetzen zuen. Diru hori bere gastuetarako erabiltzen zuen: "pernamentea" egiteko...

866. Neskame lanak (ARA-112/010)

13 urte zituela joan zen Bergarako Ugesarri baserrira neskame. Baserri horretan, ganadu asko zuten. Ganajatekoak eramatea, umeak zaintzea, etxeko garbitasuna egitea... ziren bere eginkizunak. Etxeko andreak asko laguntzen zion. Ugesarri baserrian etxeko moduan egon zen; sei urte egin zituen han. Behin umeak hasi zirenean, kalera jaitsi zen beste lantoki batera.

867. Otazuara, umezain (ARA-112/011)

Ugesarri baserritik kaleko Otazua jauregira joan zen lanera. Otazuako familiari buruz hitz egiten du. Laneko gorabeherak kontatzen ditu. Lau ume zaintzen zituen. Etxe horretan gosea pasa zuen. Sei hilabete egin zituen han lanean.

868. Don Jose Maria Agirrenean dontzeila (ARA-112/012)

Otazuako lana utzi eta etxera bueltan izeba eta amarekin, don Jose Maria Agirrenean "errekadista" ibiltzen zen gizon batekin topo egin eta Mari Josek berarekin joan behar zuela esan zien (ezin lanari ezetz esan). Etxe horretan lan asko egin behar izaten zuen, baina nagusia ona zuen. Maria Jose mahaia zerbitzatzen ibili zen; dontzeila. Don Jose Maria Agirre 'Altos Hornos'eko ingeniaria zen. Bi urte egin zituen han lanean.

869. Guztira, 11 urte neskame (ARA-112/013)

Don Jose Maria Agirrenean bi urte dontzeila egin eta gero, albaitariarenean beste bi urte egin zituen lanean. Guztira, 11 urte eman zituen neskame lanetan.

870. Aramaioko eta Arrasateko lantegietan, ezkondu arte (ARA-112/014)

Bergaran 11 urtean neskame ibili eta gero, Aramaiora bueltatu zen gurasoenera. Aramaion, herriko ehun lantegian hasi zen lanean gurasoen bidez. Ehun lantegian urtebete egin zuen; Arrasateko Elma lantegira joan zen gero. Elman zazpi urte egin zituen lanean; ezkondu zen arte.

871. "Gatzikarro"-ra neskame (ARA-112/016)

Zazpi urte zituela auzoko "Gatzikarro"(Gatxekoarro) baserrira joan zen neskame: umezain eta itulan egitera. Bertan egiten zuen lo. Eskolara, astean egun baten joaten zen. Aramaioko kalera joaten zen erosketak egitera. Etxeko nagusiak jo zueneko kontakutzen du. Urte eta erdi egon zen "Gatzikarro", eta etxera bueltatu zen.

872. Umetatik etxeko lanetan lagun behar (ARA-112/017)

Etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen. Aitak irakatsi zion dakien eskola apurra. Garitan ordaintzen zuten errenta; etxerako ez zitzaien garirik geratzen. Artoa joan ohi zuten; arto zopak, morokila... Errazionamenduko ogi beltza ere jaten zuten.

873. Abadeak "palo" (ARA-112/019)

Dotrina kontuak. Berandu joanez gero, abadeak jo egiten zituen, eta horregatik askotan ez ziren joaten. Gurasoei esan egiten zien ez baziren joaten. Abadea Aramaiokoa zen.

874. Abadeak panderoa kendu nahi gurasoei (ARA-112/021)

Abadeak herritarrekin zer harreman zuen kontakutzen dute. Mari Jose Rosaliaren gurasoak Aldeko baserriko ganbaran panderoa jo eta dantzari aritzen ziren. Abadeak hori jakin zuenean panderoa kendu nahi izan zien. Abadeak bereizketak egiten omen zituen herritarren artean.

875. Anega bat gari eta gurdikada egur abadeari (ARA-112/022)

Errezoak egiteagatik abadeari anega bat gari entregatu behar izaten zitzaion. Gero, abadeak saldu egiten omen zuen garia. Baserritar asko jateko gabe geratzen zen. Udan, San Estebanetarako, bi oilasko eman behar izaten zizkioten. Gurdikada bat egur ere eramane behar izaten zioten; pago-egurra edo egur ona izan behar zuen. Auzokoak joan behar izaten ziren abadearen

egurra txikitza; umeak, berriz, ganbarara jaso behar izaten zuten egur. Gero, umeei merienda ematen zien; batzuei hobia besteei baino.

876. Ordu biko sermoiak (ARA-112/024)

Abadea jende gaztea, bikoteak... zelatatzen ibiltzen zen. Bi neskek abadeari adarra jotzeko, burla egiteko... egindakoa kontatzen dute. Sermoiak bi ordukoak izaten ziren. Abade gogorra zen.

877. Abadea, auzoko agintari (ARA-112/027)

Lehen, auzo bakoitzean abade bat zegoen. Abade bakoitzak bere "amakasa" (serora) izaten zuen, eta auzoak berak gobernatzen zituen. Ortuko lanak auzoak egiten zizkion.

878. Garizuman, txirikolan (ARA-112/028)

Eskola denborako jolasak. Garizuman, txirikolan jolasten zuten goiko kaminoan. Harrapaka, pote-poteka... egiten zuten jolas. Denbora gutxi izaten zuten jolasera.

879. Behi-esnea, diru-iturri (ARA-112/029)

Ganadu asko zuten baserrian. 12-14 behi izaten zituzten kortan. Esnea saltzen hasi zirenean, hasi ziren aurrera egiten; diru-iturria baitzen. Esnea kalera eramaten zuten, esnezalearengana.

880. Esnezalearekin gorabeherak (ARA-112/031)

Mari Jose Aramaioko fabrika lanean hasi zenean, baserritik lantegira bidean esnea uzten zuen esnezalearenean. Esnea jasotzen zuen emakumearekin izandako gorabeherak kontatzen ditu.

881. Senargaia nola ezagutu (ARA-112/035)

Senarra nola ezagutu zuten. Rosaliak txiki-txikitatik ezagutzen zuen gero senarra izan zuen. Mari Josek, berriz, erromerian ezagutu zuen.

882. Antzuolako erromeriara (ARA-112/036)

Erromeria kontuak. Mari Jose Bergarako baserrian neskame egon zen denboran Antzuolako lagunak zituen, eta hara joaten zen erromeriara.

883. Erromeria joan aurretik baserriko lanak egin behar (ARA-112/038)

Rosalia Aramaioko erromeria joaten zen. Oinez egiten zuen baserritik kalera eta kaletik baserrirako joan-etorria. Gauetan, hamarretarako etxean egon behar izaten zuen. San Martin jaietan erromeria joan aurretik oloa ebakitzen aritu zirenekoa kontatzen dute.

884. Segan, txikitatik (ARA-112/039)

Rosalia txikitatik aritu izan da segan. Garia segarekin nola moztzen zen kontatzen dute. Aita hil ondoren, utzi egin zioten garia egiteari.

885. Gari-jotzeari buruzko kontuak (ARA-112/040)

Gari-jotzeari buruz hitz egiten dute. Makinaz, "matxakadoraz", jotzen zuten garia. Makina baino lehenago, trailuarekin jotzen zuten garia larrainean.

Auzoko beste baserri batzuetan nola egiten zuten kontatzen dute: behorarekin, lastoa bereizteko makina...

886. Behorrari etxafuegoa buztanean jarri (ARA-112/041)

Rosalia neskame egon zen baserrian larrinean aritzen ziren behorrekin. Gero, behorrak basora bidaltzen zituzten, baina, gari usaina hartuta, sorora bueltatzen ziren. Behorra bidaltzeko etxafuegoa buztanean jarri ziotenekoa kontatzen du.

887. Arto pillo artean, arrosarioa errezatzen (ARA-112/042)

Egun osoan lanean aritu, eta gauean, etxeratutakoak, arrosarioa errezatu behar izaten zuten arto-zuriketan egiten zuten bitartean. Amak errezatu ohi zuen. 15 misterioa arrosarioa errezatzen zuten.

888. Auzolanak eta laguntza (ARA-112/043)

Neska koskorak zirela, auzoko bizilagun batzuen etxera joaten ziren arto-zuriketan laguntzera. Gari-lanak egiteko auzoko batzuk elkartzen ziren. Auzolanak egiteko etxean mutilik ez zenez, Bergarako lehengusu bat joaten zen beraien etxera. Rosalia birritan joana da auzolanetara.

889. Osabak pikatutako segak (ARA-112/045)

Osabak sega pikatzen zion, eta Rosaliak etxeko belarrak segarekin ebakitzen zituen.

890. Gaiztakeriak (ARA-112/047)

Gaztetako ibilerak. Auzoko gizon bati buruzko hainbat pasadizo kontatzen du. Gaztetan egindako gaiztakeriak

891. Karramarroa kolkotik behera (ARA-112/049)

Gaztetako ibilerak. Auzoko gizon bati egiten zizkien gaiztakeriak kontatzen ditu. Sugandilak, karramarroak... jartzen zizkieten arropen. Rosaliak laneko arduradunari erlojua kendu zionekoa kontatzen du.

892. Basolanean eta trontzan ibilia (ARA-112/050)

Basolanean, pinuak sartzen, birlandatzen... ibilitakoa da. Trontzarekin gaztaina enborrak botatzen ibilitakoa da. Aitak zuhaitzak kapatzen zituen, eta Rosaliak eta amarekin trontzan egiten zuten.

893. Ehun-lantegiko lanak (ARA-112/054)

Mari Jose Aramaioa ehun-lantegian aritu zen lanean. Zer lan egiten zituen azaltzen du. 15-20 lagun inguruk egiten zuten lan ehun-lantegian.

894. Gasolina bila astoarekin (ARA-112/057)

"Matxadakora" martxan jartzeko, astoarekin joan behar izaten zuen gasolina bila Urbinara. Gasolindegia non zegoen azaltzen du

895. Igandetan, Legutiora (ARA-112/058)

Tratu handia zuten Legutioko familia batekin. Igandetan, Legutiora joaten zen astoarekin. Sagarrak eta makatzak eramaten zizkien, eta bueltan patatak eramaten zituen etxera. Trukea egiten zuten.

896. Umea zela, sute batek etxea kixkaldu (ARA-113/002)

Oletako Goikoetxea baserrian jaio zen. Elias umea zela bere jaiotetxea erre egin zen. Gerran zeuden, eta baserriaren ondoan blindatu bat zegoela hartu zuen sua etxeak. Ganaduetatik hiru buru besterik ez zituzten bizirik atera. Etxean bizi ziren bi familiak soinean zutenarekin irten ziren sutetik.

897. Etxea sutan eta militarrek tiroka (ARA-113/003)

Hamabi urteko lehengusina Maria, oiloek ateratzen zuten zaratarekin esnatu zen eta berehala iratzarri zituen lotan zeuden guztiak. Sutea oso zabalduta zegoen ordurako, eta ozta-ozta irten ahal izan zuten etxetik. Etxea sutan zegoela, erasotzat hartuta edo, etxe inguruan zeuden militarrek tiroka hasi ziren.

898. Etxea erre, baina gerragatik erre-batzea ezin egin (ARA-113/004)

Etxea erre eta gero, Aurtola auzuneko bi baserritan banandu ziren erretakoan bizi ziren familia biak: Kortazarrenan Eliasena; eta Martenan, osaba-izekorena. Aurtola izenaren jatorria azaltzen du. Gerra sasoigatik erre-batzea ezin izan zuten egin. 1936ko San Andres eguna zen; eta, etxea erre ondoren, bonbardaketa jasan behar izan zuten. Egun horretan bonba batek Frantzisko Galartza oletarra nola hil zuen kontatzen du.

899. Sutearen ondoren, baserri martxa berreskuratzen (ARA-113/005)

Osaba Paulinoren artaldea ez zen erre sutean basoen zegoelako. Apurka-apurkaazienda berriro jarri zuten martxan. Etxean nahiko ganadu-janik ez, eta ardiak elurra hasi arte basoan egoten ziren.

900. Eskola-etxea baserri bihurtu zuten (ARA-113/006)

Aurtola auzunetik Oletako eskolara etortzen ziren. Eliasek 14 urte zituela aitak eskola-etxea erosi zuen, eta Aurtolakoa utzi egin zuten. Denborarekin zortzi behi eta ehun ardiko artaldea jarri zuten etxe berrian, korta eta guzti. Elias Gasteizko Escuela de aprendicesera bidali zuten.

901. Jaunartze-batzea (ARA-113/007)

Eskolan hasi eta lehen jaunartzea, biak egin zituen sei urterekin Eliasek, azken hori "marinero" trajearekin. Jaunartze-egunean jaunartze-kideek batzea egiten zuten senideen arteko baserrietan. Neskatila-mutikoez elkarrekin egiten zuten lehen jaunartzea.

902. Gerraosteko eskola (ARA-113/008)

Maisuak kanpotik etortzen ziren, eta hauek kale egiten bazuten, auzoko Felixek ematen zituen eskolak. Hurritzezko makila erabiltzen zuten maisu askok ikasleak zigortzeko. Cara al Sol abesarazten zieten eskolan. Eskolan ezin zuten euskaraz egin, baina kalera irten bezain pronto mintzatzen ziren euskaraz. Gau-eskolak baziren, baina fundamentu gutxikoak.

903. Eskola etxea gerora Eskola Zahar bihurtu zen (ARA-113/009)

Aitak erositako eskola-etxean aurretik maisu maistrak bizi izan ziren. Gaur egun Eskola Zahar deitzen diote etxe hari. Eliasen familiak eskola-etxea erosi

eta gero ere aldi batean eskola jarraitu zuen, harik eta eskola berria eraiki zen arte. Patrocinio izeneko burgostar maistra bat izan zuten apopilo etxean.

904. Maisu batek izugarrizko jipoia eman zion (ARA-113/010)

Eskolan neskatila-mutikoek elkarrekin ikasten zuten, adin guztietakoek. Galiziar maisu batek eman zion jipoia azaltzen du. Horren ondorioz Otxandioko eskolara joan zen, Gasteizko ofizio eskolarako prestatzera. Otxandiarrak eta oletarrak ez ziren ondo konpontzen, eta eskolan borroka asko izan zituen Eliasek. 14 urterekin hasi zen Gasteizko "Escuela de Aprendices" diozesiarrean, Arana kalean.

905. Gurasoei eskola premiazkoa iruditu (ARA-113/011)

11 urte izango zituen maisuaren jipoia jaso zuenean. 14 urterekin hasi zen Gasteizko Escuela de Aprendices Diocesanan. Eskola premiazkoa zela uste zuten Eliasen gurasoek, eta egunero bidaltzen zituzten umeak hara.

906. Baserriko lanak eta jatekoak (ARA-113/012)

Sutearen ondoren joan ziren baserrian leku gutxi zeukaten, eta familia hasi zenean Elias eta anaia beste baserri batera joaten ziren lo egitera. Etxean, itaurrean edota ganadu-janak egiten jarduten zuen umetan Eliasek. Barazkiak, babarrunak eta txerrikiak izaten ziren eguneroko jakiak. Ogirik ez, baina esnea eta taloa gura adina izaten zuten.

907. Ogi gosea errazionamendu garaian (ARA-113/013)

1944ko errazionamenduan bakoitzari olio litroaren zortzirena egokitzen zitzaion, zortzi egunerako. Ogi txuskoak ere gogoan ditu. Ogi-opil zati bat jatea festa izaten zen orduko neskatila-mutikoentzako.

908. Gerraostean kaletarrak ere soroak lantzen (ARA-113/014)

Tabernakoak eta auzoan bizi ziren nafar basomutil batzuk ziren Oleta auzoan ganadurik ez zuten bakarrak. Gerraostean Otxandioko kaletarrek soroak landu behar izan zituzten jatekoak lortzeko. Sorook Limitaduko terrenoetan egon ziren.

909. Limitaduaren irtenbiderik gabeko arazoa (ARA-113/015)

Eliasek dio Limitaduko terrenuen arazoa ez dela behingoan konponduko. Usufruktua Otxandiorako eta jabetza Aramaiorentzako, kondearen dokumentu batean "para siempre" jartzen omen du, eta behin baino gehiagoetan jarri ere. Otxandioren eskola, lantegi eta beste eraikuntza asko Limitaduan eraikita daude.

910. 500 urte jada, Limitaduen arazoarekin (ARA-113/016)

1500. urtean Aramaio Bizkaiko parte ei zen. Kondearen alabak Limitadua ezarri zuenean utzitako dokumentua oraindik ere indarrean omen dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak bitartekari lanetan Aramaiori eman zion arrazoa, eta honek bizkaitarrak haserretu zituen. Ondorengo epaiketa bizkaitarrek irabazi zuten. Limitaduko terrenoen zergak hala-moduz kobratzen omen dituzte.

911. Otxandioko baso-bisita (ARA-113/017)

Garai batean Otxandioko Udalak herriko baso-bisita egiten zuen urtero. Mugarririk mugarri joaten ziren, otartekoak hartuta, eta Limitaduko terrenoetatik pasatzearren azunbre bat ardo ordaintzen zuten. Eliasek mutikotan ezagutu zuen ohitura hori.

912. Ofizialtza ikasi eta Eibarren hasi zen lanean (ARA-113/020)

Gasteizen ofizialtza ikasi ondoren, Eibarrera joan zen lanera. Otxandioko eskolara oinez joaten zen, baina Gasteizen apopilo egon zen, etxetik jaki asko eramaten zituelarik. Zapatu-domeketan etxera itzultzen zen, baserriko lanetan laguntzera. Eibarren lana hobeto ordaintzen zuten Otxandion baino.

913. Euskaldun gutxi Gasteizen. Oletako taberna (ARA-113/021)

Gasteizen ikasten egon zenean tabernari bakanen bat kenduta, inork ez zuen euskaraz egiten. Elias eta bere lagunak "Los vascos" izenarekin ezagutzen zituzten. Beste ikastetxe batzuetako ikasle giputzekin euskaraz mintzatu ahal ziren. Elias mutikoa zenean, Oleta auzoan taberna-denda bat zegoen, Herriko Taberna izenarekin. Aurrengo telefono publikoa bertan jarri zuten. Erosketak Otxandion egiten zituzten. Mandatuak bizikletaz egiten ziren.

914. Jai, erromeria eta irteerak (ARA-113/022)

Oletan auzoko jaietan bakarrik jotzen zuten musika. Otxandion, ordea, jai guztietan izaten zen erromeria, herriko bandak jotzen zuela. Leku askotatik etortzen zen jendea. Tabernarik taberna lagunartean abesten ibiltzen ziren. Dantza egin eta gero, neska-laguntzen joaten ziren. Saltzen zuten esnea kobratzera, hilean behin joaten ziren Gasteizera. Medikua Otxandion izaten zuten. Aramaiora jaietan gonbidatu gisa joaten ziren. Garai hartan orain baino alaiago bizi omen ziren.

915. Auzolana. Auzoa eta elizaren arteko auzia (ARA-113/023)

Auzolanak asko elkartzen zuen jendea. Bideak eta plazak auzolanean konpontzen zituzten. Auzoko eliza ere auzolanean zaharberritu zuten, baina materiala erosteko kreditua eskatu behar izan zuten. Abade-etxea ere auzoak egindakoa zen, eta gotzaindegiak etxea jabetu nahi izan zuten. Epaiketa auzoak irabazi zuen.

916. Herriaren eraikuntzak auzoan. Taberna zaharra (ARA-113/024)

Abade-etxea auzoko elkarte-etxe bihurtu zuten. Abade-etxea eta Herriko Taberna herriak egindakoa dira. Lasagoena baserrian egon zen taberna zaharra gogoratzen du Eliasek. Zahagiko ardoa piku-pasekin ematen zituen orduan tabernetan.

917. Besaulkigile eta armagile Eibarren (ARA-113/025)

Doitzaile ofizioa ikasi zuen. Eibarko Atxa lantegian dentista eta bizarginentzako besaulkiak egiten jardun eta gero, eskopetagintzan hasi zen San Migelen tailerrean. Giro oso euskalduna aurkitu zuen Eibarren.

918. Eskopetak esku-lan asko zuten (ARA-113/026)

Eskopetaren baskulak doitzen jardun zuen San Migelen tailerrean. Lana eskuz egiten zuten, zizel eta karrakarekin. Eskopetak bukatzeko esku askotatik pasatu beharra izaten zuen. Tailerreko lana etxera eramaten hasi zen. Atxa tailerrean urte pare bat egin zituen, eta San Migelenean beste hainbeste.

919. Otxandion eta etxean tailerrak (ARA-113/027)

Lagun batekin Otxandion tailerra jarri zuen, eta gero etxeko korta zaharra egokituta, armagintzako lanak irakatsiz, tailerra eratu zuen. Armagintzaren krisia etorri zenean bera Otxandioko Aulasa lantegira joan zen lanera, eta bere lankideak beste lantegi batzuetara.

920. Otxandiotik Zaratomora lanera (ARA-113/029)

Bost urtez Aulasan jardun eta gero, Galdakaora joan zen Elias. Zaratomoko Pradera Hnos. lantegian hasi zen lanean. Emaztea eta alaba biekin joan zen Bizkaira.

921. Aitajaun hargina. Ezteiak (ARA-113/031)

Emaztea Amurriokoa zen, baina haren aitajauna Oletako Mota baserrikoa, Felipe Arana. Auzoko harrobi zahar batean hargin ikasi zuen, eta Madrilen Telefonicarenean eraikuntza egin zutenean hara joan zen hargin lanetara. Harri-jasotze apustu batean izerditu handi bat hartu ondoren, bat-batean hil zen aitajauna. Elias ezkondu zenean osabak bakarrik joaten ziren ezkontzetara. Auzoko parrokia-aretoan izan zuten eztei-bazkaria.

922. Eztei-bidaia Madrilera (ARA-113/032)

Amaginarreba Madrilen bizi zen, eta hara joan ziren eztei-bidaian. Madrilera bidaian hartu zuen lehengoz aireplanoa Eliasek. Ordurako eskopetagintzan etxean zebilen.

923. Basauriko lehenengo ikastola sortu zuten (ARA-113/035)

Basauriko Ariz auzoan bizi zirela, lankide eta lagun euskaldun batzuekin elkarlanean, Basauriko lehen ikastola sortu zuten, auzoko elizaren gainean. Bertako parroko erdaldunak asko lagundu zien. Eliasen alaba biek hantxe ikasi zuten. Ikastolako obra gehiena auzolanean egin zuten. 1970eko hamarkada hasieran izan zen hori.

924. Untzillako auzo-eskola (ARA-114/002)

Auzo-eskolan ibili zen. Eskola, eliza ondoan zegoen. Suña eta Untzilla auzo bat dira, eta parrokia eta auzo-alkate bat dute. Aretxabaleta aldeko baserrietako umeak Untzillara joaten ziren eskolara. Galartza aldekoekin harreman ona izan dute beti.

925. Dotrina euskaraz (ARA-114/004)

Untzillako auzo-eskolan erdaraz ikasten zuten. Burgosko maistra batek ematen zien eskola. Dotrina eskolaz aparte ikasten zuten; abade-etxean, elizan... Abadeak ematen zien dotrina, eta euskaraz ikasten zuten. Gerra irten zen arte ibili zen eskolan; baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen.

926. Anaia "trabajadoretan" min hartuta (ARA-114/005)

Txominen anaia bat Katalunia aldean "trabajadoretan" zela bonba batekin zauritu eta ezkerreko eskua kaltetu zuen. Ezkerraldeko titia ere galdu omen zuen. Santa Agedako mediku batek sendatu zion eskua.

927. Anaiaren medikuetako ibilerak (ARA-114/006)

Txominen anaia bat Katalunia aldean "trabajadoretan" zela bonba batekin zauritu eta ezkerreko eskua kaltetu zuen. Ezkerraldeko titia ere galdu omen zuen. Haren medikuetako gorabeherak kontatzen ditu. Santa Agedako mediku batek sendatu zion eskua.

928. Frontea "armatu" (ARA-114/008)

Gerra denborako azalpenak. Tropak nondik nora mugitu ziren azaltzen du. Aretxabaleta, Arrasate, Kanpazar... aldean soldaduak geratu egin ziren, eta frontea "armatu" zen. Aramaion lau guardia zibil omen zeuden.

929. Murugainen bandera gorria (ARA-114/009)

Murugain mendian bandera gorria jartzen zuten milizianoek. Hura ikusitakoan, erreketek kentzera joaten ziren.

930. Milizianoek inguruak hartu (ARA-114/010)

Gerra denborako azalpenak. Etxean, gurasoak, anaia, arreba eta Txomin zeuden. Beste bi anaia milizianoek deituta joan ziren. Zemendia (azaroa) zen, eta gari-lanak egin zituzten egunez. Gauean, zalaparta handia entzun zuten. Eguna zabaltzean, milizianoak inguruko mendiak hartu zituztela ikusi zuten. Miliziano bat ezaguna zuten, eta harekin izandako elkarriketa gogoratzen du.

931. Untzillan, ospitalea jarri (ARA-114/011)

Gerra denborako azalpenak. Milizianoek Suña eta inguruko mendiak hartu zituzten. Untzillan, ospitalea jarri zuten auzoko etxe batean. Milizianoek auzoko etxe batzuk hustu zituzten frontea bertan zegoelako. Txominen familia etxean geratu zen; ez zuten haiek adina arrisku.

932. Untzillatik San Antonio aldera eraso (ARA-114/012)

Gerra denborako azalpenak. Sakona baserri inguruan bonbak jausi ziren. Untzillako elizatik San Antonio aldera, Gipuzkoako mugara, metrailadorearekin erasotzen omen zuten.

933. Bonbardaketak (ARA-114/013)

Gerra denborako azalpenak. Abioiak ere bertan ibiltzen ziren, eta beldurrez ikaratuta egoten ziren. Bonbardaketak egoten zirenean, gurasoak eta arreba etxean geratzen ziren; mutilak, berriz, bizilagunen txabola batean babesten ziren ardiekin.

934. Haurra jaio milizianoak auzoan zirela (ARA-114/014)

Gerra denborako azalpenak. Abadeak ihes egin zuen, eliza apurtu zuten... Auzoan ume bat jaio zen milizianoak ingurua hartuta zuten garaian. Haur hura bataiatzeko zer gorabehera izan ziren kontatzen du.

935. Milizianoak iratan lo (ARA-114/015)

Gerra denborako azalpenak. Auzoan zeunden milizianoekin zer harreman zuten kontatzen du. Esnea erosi ohi zien milizianoek. Arditegiko iratan egiten zuten lo.

936. Eskolan ikasitakoak (ARA-114/016)

Eskolako oroitzapenak. Eskolan zer ikasi zuen: irakurtzen, idazten, matematikak (justukoa) eta sinatzen.

937. Baserriko lanetan lagun behar (ARA-114/017)

Gerra pasatu ondoren, joaten zen eskolara baina ez beti. Etxean lagundu behar izaten zuen; aita urteetan aurrera eginda zegoen eta osasun arazoak zituen, eta anaia, berriz, gerratik eskuko ezintasunarekin bueltatu zen. Bost-sei behi, 50-60 ardi eta txahalak zituzten.

938. Erreketeek ardiak "harrapatu" (ARA-114/018)

Gerra denboran, erreketeen "abanza" etorri zenean, Txominen etxeko ardi batzuk mendi aldera ihes eginda zeuden, baina gerrako hegazkinak batera eta bestera zebiltzanez ezin zuten haien bila joan. Erreketeek Txominen etxeko 19 ardi eta bildots aharia eurekin eman zituzten; auzoko beste ardi batzuk ere hartu zituzten eurekin.

939. Aita ardi bila joan (ARA-114/019)

Gerra denboran, erreketeek Txominen etxeko 19 ardi "harrapatu" zituzten. Auzoko beste baserri batzuetako ardiak ere hartu zituzten. Hiru baserritar elkartu eta ardi bila joan ziren. Ardiak aurkitu zituztenean, erreketeekin zer gorabehera izan zuten kontatzen du.

940. Erreketeek ardiak saldu (ARA-114/020)

Gerra denboran, erreketeek Txominen etxeko 19 ardi eta bildots bat "harrapatu" zituzten. Erreketeek ardiak Arrasaten saldu zituzten gero. Txominen aita ezagutu egin zituen bere ardiak, eta ardiak erosi zituen gizonari zer gertatu zen kontatu zion. Erreketeak bildotsarekin geratu eta banketea egin zuten harekin; zortzi egun baino lehenago hil omen ziren haietako bi.

941. Osabak egindako ore-mahai (ARA-114/023)

Aitaren bi anaia eta amaren beste bi anaia Ameriketara joan ziren gerra aurretik. Aitaren anaietako bat arotza zen, eta jaiotetxerako oroigarri moduan "eromahai" (ore-mahai) bat egin zien. Gerezi-egurrarekin egin zuen altzaria.

942. Garia entregatu behar (ARA-114/025)

Gerraostean, garia entregatu behar izaten zuten. Jasotzen zuten uzta baino gutxiago jaso zutela esaten zuten, bestela gehiago entregazten zien. Gurdikada gari entregatu behar izaten zuten.

943. Baba lasto artean ezkutatu (ARA-114/026)

Gerraostean, baba konfiskatzen hasi ziren. Lasto artean ezkutatzen zituzten bi-hiru zaku baba. Inspektorea herrikoa zen.

944. Arrasaterako errotara (ARA-114/027)

Gerraostean, auzo-errotara "prezintatuta" egin zuten. Gauetan, zigilua apurtu eta martxan jartzen saiatzen ziren. Arrasateko ferian hitz egiten zuten errotari batekin, eta gau partean joaten ziren haren errotara. Artoa eta garia eramaten zuten errotan ehotzeko. Errotariari baserriko txorizoa oparitu zioten.

945. Santa Agedako errotara (ARA-114/028)

Auzoko errota itxita zegoenez, Arrasateko errota batera joaten ziren ezkutuan; errota hura ere itxi egin zuten, ordea. Gauzak horrela, Santa Agedako errota batera joan ziren. Hango gorabeherak kontatzen ditu.

946. 12 urterekin, auzo-errotara (ARA-114/029)

12 urte zituela, gauez auzo-errotara astoarekin joan zenekoa kontatzen du. Anaia batek linternarekin seinaleak egiten zizkion guardia zibilak non ziren ohartarazteko. Guardia zibilak atzetik ibili zituen, baina ez zuten harrapatu.

947. Gari-jotzea (ARA-114/030)

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Larrainean jotzen zuten garia; idi-parea eta trailuarekin. Gero, "matxakarekin" (motorrarekin) jotzen zuten garia. Suña auzokoak elkarri laguntzen zioten gari-lanak egiterakoan.

948. Suña eta Untzilla (ARA-114/031)

Suña auzoari buruz hitz egiten du. Zazpi baserri-etxe daude Suñan. Gerra denboran, hainbat baserri erre ziren Untzillan.

949. Baldosa lantegian hiru urte (ARA-114/032)

Arrasateko 'Mosaicos Omu' baldosa lantegian egin zituen hiru urte lanean. Lantegiko nagusiei buruz hitz egiten du.

950. Igeltsero lanak (ARA-114/036)

Igeltsero lanetan Aretxabaletan ibili izan da gehien bat; etxegintzan ibilia da. Hainbat lan aipatzen ditu. Auzoan, ganadu askak egindakoa da.

951. Itulan eta goldan, mutikotatik (ARA-114/039)

Itulan, goldan, aitzurrean... egindakoa da mutikotatik.

952. Aretxabaletako erromeriara joaten hasi (ARA-114/041)

Erromeria kontuak. Domeketan, Aramaioko erromeriara joaten zen; Andremari jaietan abadearekin gorabeherak izan ziren herrian, eta festa galdu egin zen. Orduan, Aretxabaletako erromeriara joaten hasi zen Txomin. Suñan eta Untzillan festetan bakarrik egoten zen erromeria.

953. Herrian gorabeherak erromeriak zirela eta (ARA-114/043)

Erromeria kontuak. Abadeak eragin handia zuen Aramaion: soinua jotzea bekatu zela, dantza egitea bekatu zela... esaten omen zuen. Abadearekin gorabeherak izan ziren herrian Andremari jai batzuetan: mutil batzuk guardia zibilen koartelera eraman zituzten; hori ikusita, neska batzuk euren borondatez koartelera joan ziren... Julian Angiozarko itsua soinujolea izaten zen Aramaioko festetan.

954. Udaletxeko eta bainuetxeko eskolak (ARA-115/003)

Herriko eskolan ibili zen Julio. Zazpi urte zituela, udaletxean zegoen eskolan hasi zen. Gerra denboran, eskolak eten egin ziren. Gerraostean, udaletxeko eskolan jarraitu zuen; gero, bainuetxeko eskola berrian ere ibili zen. Debekatuta zuten euskaraz hitz egitea. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

955. Azkoagako auzo-eskola (ARA-115/004)

Martina Azkoagako auzo-eskolan ibili zen On Lorentzorekin. Cara al Sol kantatzen zuten. Umeak adinaren arabera bi taldetan egoten ziren banatuta.

956. Diktadura garaiko hileta (ARA-115/006)

Diktadura garaiko oroitzapenak. Herriko agintari baten hiletan, hilkutzaren ondoan zinta bati helduta joan zela gogoratzen du Martinak. Mutikoek Cara al Sol kantatu behar izan zuten Juliok dioenez.

957. Maisua makilarrekin (ARA-115/008)

Eskolako kontuak. Maisuei buruzko oroitzapenak; makila ibili ohi zuten eskuan... Hatz puntak elkartuta gora begira jarri eta makilarrekin jo ohi zituen ikasleak. Euskaraz hitz egitea debekatuta zuten. Uda partean, lan ugari izaten zen baserrian eta ezin izaten zen beti joan eskolara. Gau-eskolan ibilitako da Julio.

958. Auzoak elkarri harrika (ARA-115/010)

Azkoaga eta Barajuen auzokoen arteko harremanari buruz hitz egiten du Martinak. Elkarri harriak botatzen ibiltzen omen ziren. Uribarri eta Arexola auzokoen arteko harremanari buruz ere hitz egiten du Juliok.

959. Borrokarako grina (ARA-115/011)

Auzoen arteko borrokak. Gantzagakoen eta aramaioarren arteko gorabeherak. Garai batean, borroka egiteko "afana" omen zegoen. Pazko bigarrenetan, Santa Anan feria eta erromeria egiten ziren; orduko borrokak dituzte hizketa gai.

960. Eskola, jolasak eta dotrina (ARA-115/013)

Ume garaiko jolasak. Neskak zer jolasetan aritzen ziren: sokasaltoan, "alturitas", "asakaska"... Eskolatik ateratakoan, dotrinara joan behar izaten zuten. Azkoagako abadearekin elizpean ikasten zuten dotrina; euskaraz eta erdaraz.

961. "Txikolan" eta "toketorreka" (ARA-115/014)

Ume garaiko jolasak. Mutilak zer jolasetan aritzen ziren: Garizuman, "txikolan"; "toketorreka"... Neskak eta mutilak ez ziren ibiltzen batera jolasean.

962. Aretxabaletara neskame (ARA-115/015)

Eskola bukatu eta gero, Aramaion josten ikasten ibili zen. Ondoren, neskame joan zen Aretxabaletara, Zubianera; han, lau urte egin zituen. 19 urte zituela joan zen neskame; orduko oroitzapenei buruz hitz egiten du.

963. Neskame garaiko oroitzapenak (ARA-115/017)

19 urte zituela, neskame joan zen Aretxabaletara. Etxeko lanak egiten zituen. Etxeko andrea arduratzen zen janaria prestatzeaz. Orduko oroitzapenei buruz hitz egiten du. Igande arratsaldetan jai izaten zuen.

964. Gaztetatik baserriko lanetan (ARA-115/018)

Eskola bukatu eta gero, baserrian geratu zen. 12 anai-arreba ziren etxean; bost anaia eta zazpi arrebatan gazteena Julio. Anaia zaharrera baserrira ezkondu zen. Etxeko giroari eta baserriko lanari buruz hitz egiten du.

965. Gurdizain, ikazkin eta basolanean ibilia (ARA-115/020)

Gurdizain, ikazkin, basolanean, zerrategian... lanetan aritua da Julio. Trontzarekin botatzen zituzten pagoak.

966. Gerra denboran, gorriak ikusitakoa (ARA-115/023)

Gerra denborako oroitzapenak. Frontea non egon zen azaltzen du. Aretxabaletatik gora "abanzada" egon zen. Auzoko bizilagun batzuei buruz hitz egiten du: ganaduak ezkututzen ibili ziren, soldaduek eurekin eman nahi zuten beste bat....

967. Aramaioko gainean gizonak "jausten" ikusi (ARA-115/025)

Gerra denborako oroitzapenak. Metrailadorera non zegoen. Aramaioko gainean, gizon asko "jausi" zen ; Azkoitia-Azpeitia aldeko soldadu asko hil omen ziren. Toki horretan, erreketen aldeko soldadu ugari hil zen.

968. Gurasoak zangan gorde (ARA-115/031)

Gerra denborako oroitzapenak. Barajunera joateko bidegurutzean "retaguardia" (atzeguardia) egoten zen. Martinaren gurasoak goldaketan ari zirela zangan gordeta salbatu omen ziren. Bitartean, Martina eta anai-arrebak "iputixen" (korta ondoko gela) egon ziren gordeta. Abioiak eta tiro hotsak entzuten zituzten.

969. "Abuelo" hegazkina (ARA-115/032)

Gerra denborako oroitzapenak. "Abuelo" milizianoen abioiari buruz hitz egiten du. Udalatx parean su hartu omen zuen hegazkin horrek, eta Elorrio aldera beherantz jaitsi zen ke arrastoa utziz. Krutzetan abioiak bota zituzten.

970. Ehiza-hegazkinak (ARA-115/034)

Gerra denborako oroitzapenak. Ehiza-hegazkinei buruz hitz egiten du. Ortu barreneko horman gordeta, ehiza-hegazkinak behe-behetik pasatzen ikusi zituen. Auzoko bat zauritu zutela dio.

971. Abadeari garia, egurra... eman behar (ARA-115/042)

Gerraostean, abadeari garia entregatu behar izaten zioten. Gero, jasotako garaia saldu egiten zuen abadeak. Egurra eta oilasko pareia ere eraman behar izaten zitzaion abadeari. Guardia zibilei buruz ere hitz egiten dute.

972. Txerrikumeak hazi eta saldu (ARA-115/044)

Julioren baserrian ez zuten ganadu askorik. Txerrikumeak hazten zituzten. Txerrikumeak azokan sartzen zituzten Julioren aita; astoari gurdia lotu eta han jaitsi ohi zituen txerrikumeak herrira.

973. Aitaren gurdia (ARA-115/046)

Etxeko gurdia nolakoa zen azaltzen du.

974. Bi-hiru txerri eme eta txerri apoa (ARA-115/047)

Bi-hiru txerri eme eta txerri apo bat edukitzen zituzten. Julio mutikoa zela, Eskoriatzara, Santa Agedara... joaten ziren txerri emeekin.

975. Txerrikumeak hazteko ohitura (ARA-115/049)

Aramaio inguruan baserri askotan hazten zituzten txerrikumeak gero saltzeko. Txerrikumeak hazten zituzten hainbat baserri aipatzen ditu.

976. Biberoiaz hazitako txerrikumeak (ARA-115/051)

Martinaren etxean txerrikumeak hazten zituzten. Behin, txerri amak txerrikumeak maitatu ez eta biberoiaz hazi zituztela kontatzen du. Aldiko sei-zortzi txerrikume jaiotzen ziren. Hamabostean behin feria handia egiten zen Arrasaten; hara joan ohi ziren txerrikumeak saltzera.

977. Pazko bigarreneko feria (ARA-115/053)

Aramaioiko Santa Anan feria egiten zen Pazko bigarrenean. Txerrikumeak, txekorrak... saldu edo trukatu ohi ziren azokan. Inguruko jende asko biltzen zen bertan. Behin feria jasotzen zenean, erromeria egoten zen.

978. Ganadua konfiskatu aurretik irenduta saldu (ARA-115/054)

Txekorrak konfiskatzen zituzten, baita iditarakoak ere. Konfiskatze lanetan zein ibiltzen ziren aipatzen du. Julioren aita konfiskatu aurretik txekorrak irendu eta bizkaitar bati saldu zizkionekoa kontatzen du.

979. Otxandioko harakina (ARA-115/056)

Debeku garaia izanagatik, zenbait harakinek haragia saltzea libre izan zuten. Otxandioko harakin bati buruz hitz egiten du.

980. Gari-jotzeko larraina prestatzen (ARA-115/058)

Gari-jotzeari buruz hitz egiten du. Larraina nola prestatzen zen azaltzen du.

981. Erromeriak eta debekuak (ARA-115/062)

Aramaioiko erromeriara joaten ziren. Abadearekin, 'Acción Católica'-ko kideekin... zer gorabehera izaten ziren kontatzen dute: soinua jotzea debekatuta zegoen.

982. Kongregazioa eta konfesioak (ARA-115/064)

Martina Hijas de María kongregazioan ibili zen. Kalera joaten ziren konfesatzera; ez zuten nahi izaten auzoan konfesatzea. Konfesioetako gorabeherak kontatzen ditu: kalejiran ibili zelako ez zioten absoluziorik eman ia kongregaziotik bota zuten.

983. Soinujolea koartelera (ARA-115/067)

Herriko erromeria bateko gorabehera kontatzen du Juliok. Soinujolea guardia zibilaren koartelera eraman zuten, eta erromerian zebiltzan denak haren atzetik joan ziren, hura defenditzeko.

984. Lurrari musu eman behar... (ARA-115/069)

Abadeak botere handia zuen herrian. Misioetako kontuak. Herriko hainbat tokitan lurrari musu emateko agindu zien toki horietan egindako bekatuengatik. Julio makurtu egin zen, baina ez zion lurrari musurik eman.

985. Misioak eta hil-kanpaiak auzo denetan (ARA-115/070)

Aramaioko auzo denetan misioak egon zireneko kontuak aipatzen ditu. Pasiotar fraideak zortzi egun egin zituzten auzoetan sermoiak ematen. Iluntzean, bakoitza bere etxera zihoazela, auzo denetan hil-kanpaiak jo ziren. Arantzatzuko bi fraide ere joaten omen ziren Aramaiora; Garmendia eta Agirretxe.

986. 1928an jarri ura baserrian (ARA-115/073)

1928an jarri zuten ura Erdikotxiki baserrian; bera jaio zen urtean. Arexola auzora geroago iritsi omen zen ura. Aska bi jarri zituzten han: bata ganaduak ura edateko; bestea, berriz, arropak garbitzeko.

987. Ametibarreran arropak garbitzera (ARA-115/074)

Barajuen auzoko "Txoriena" (Orunanagusi) baserrian ez zuten urik. Ametibarrera joan behar izaten zuen arropak garbitzera; baserritik kilometro bat baino gehiagora. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

988. Arriolako garbitokia (ARA-115/075)

Arriola auzoan arropak non garbitzen ziren azaltzen du.

989. San Lorenzo eguneko trumoiak (ARA-115/076)

San Lorenzo egunez lixiba egiten ari zela Ametibarren trumoiak ia eraman zuenekoa kontatzen du.

990. Ametibarko ura (ARA-115/077)

Ametibarko urari buruz hitz egiten du. Ur epela omen zen. Beste ur batzuei buruz hitz egiten dute: bainuetxeko uretzak, lpurtotzeko uretzak...

991. "San Lorentzok esku batean sua eta..." (ARA-115/078)

San Lorenzo egunez lixiba egiten ari zela Ametibarren trumoiak ia eraman zuenekoa kontatzen du. "San Lorentzok esku batean sua eta bestean ura" esaera esaten du.

992. "San Antoniok bidali zuen nigana" (ARA-115/081)

Elkarrekin nobio moduan nola hasi ziren kontaktzen dute. Martina Urkiolatik oinez bueltan zen, San Antonio egunez. Juliok esaten du "San Antoniok bidali zidan nigana...".

993. Ia pinurik ez zen sasoi hartan (ARA-117/007)

Baserriak asko aldatu dira azkenaldian. Etxe inguruak antzera daude. Lehen dena soroa zen, pinurik ez zegoen ia. Aldekoak izan ziren Aramaion pinudia sartu zuten lehenak.

994. Laneko eta elizako kontuak nagusi (ARA-117/008)

Laneko gauzak izaten ziren mahaian kontaktzen ziren kontuak. Amak elizako kontuak gehiago. "Errezau fuerte eta lana gehixau" egin behar ei zen.

995. Auzoen arteko borrokatxoak (ARA-117/010)

Aldekoan behi asko izaten zuten. Bera mutikotan laguntzen ibiltzen zen. "Hor goiko landetan" kantatzen du. Auzoen arteak burlak eta borrokatxoak izaten ziren neska-mutikoen artean. Nagusiagotan ere bai inoiz, harrika egin neska laguntzera zetozen kanpoko mutilei eta horrelakoak.

996. Eskolara oinez, bazkaria aldean hartuta (ARA-117/013)

Udaletxe gainean zegoen eskola. Uribarritik kalera etortzen ziren oinez, hankak bustita askotan. Tortilla eta odolestea jateko. Arratsaldean, eskolatik irtenda gero, elizara bisitara joan behar, eta udaberrian dotrinara.

997. Maisuaren eta abadearen zigorren beldur (ARA-117/015)

Oso oroitzapen txarra du eskolaz. Maisu kalamidade bat zuten, eta haren ordezkoa txarragoa. Makila erraz erabiltzen zuen. Behin zigortu egin zituen, baina dotrinara joan behar zuten Uribarrira eta alde egin zuten. Hurrengo egunean, maisuak etxera bidali zituen; anaia topatu zuen bidean eta "txorixek ikesten" joateko aholkatu zien. Hurrengo egunerako dena konpondu zen abadeari esker.

998. Kaletar batekin izandako istilua (ARA-117/017)

Kaletarrek aurrean erabiltzen zituzten baserritarak. Anekdotak bat kontaktzen du: kaleko mutil handiago bati ostikada bat eman zion, eta gero haren mendekuaren beldurrez ibili zen; baina mutil zaharrago batzuek defenditu egin zuten. Orduan bakoitzak defendatu behar zuen bere burua.

999. Maisu mozkorra (ARA-117/018)

Balnearioan urtebete bakarrik ibili ziren eskolan. Ez zuten ezer ikasten. Maisu mozkorra izan zuten. Behin tabernatik eraman zuten Angelek eta beste batek eskolara, besotik hartuta. Partikularreko dirua aurreratzeko eskatu zion behin.

1.000. Mediku Zaharra (ARA-117/019)

Maisua, medikua, abadea... ziren herriko pertsonaiak. Mediku Zaharraren kontuak. Xelebre samarra zen. Ona zen artatzen, jendea ezagutu ere ondo egiten zuen, baina mediku gisa nolabaitekoa zen.

1.001. Zortzi abade Aramaion (ARA-117/020)

Guardia zibilak, sekretarioa eta abadeak ziren herriko nagusiak. Abadeen artean Uribarrikoak agintzen ei zuen gehien. Baziren orduan zortzi bat abade Aramaion. Abadeak ondo konpontzen ziren elkarrekin. Eguenetan Gasteizera joaten ziren dotore-dotore; "juergara", Angelen ustez.

1.002. Gabonetako "erronkak" (ARA-117/025)

Apur bat nagusitutakoan, Gabonetan "erronkak" egiteko ohitura zegoen, okerrak. Behin kanpaiaren sokari azaburu bat lotu zioten, eta haizea irteten zenean bere kasa jotzen zuen. Abadea larri, zer halako ote zen igarri ezinik.

1.003. Elizako kanpaiak (ARA-117/027)

Auzo guztietan jai bezperetan "errepikak" jotzen ziren. Domeketan, meza baino ordubete eta ordu erdi lehenago ere bai. Azkena, mezara sartzeko unean. Kanpaien bidez adierazten ziren elizkizunak.

1.004. Angelen lehen jaunartzea (ARA-117/028)

Angelek bakar-bakarrik egin zuen jaunartzea, familiakorik eta jantzi berezirik gabe. Dotrina buruz ikasi zuen.

1.005. Jainkoaren zigorra Angelen begiko gaitza (ARA-117/029)

Begietako gaitza izan zuen, eta behin abadearekin egin zuen topo, Gasteizerako autobusean sendagilearengana zihoala. "Granujatu egin da bai eta jainkoaren kastigua da" esan zion amari. Angeli ez zitzaion asko gustatu.

1.006. Penitentzia zelebrea (ARA-117/031)

Abadeak aitari esku barruan mun egitea agindu zion penitentzia bezala. Lotsa handiak pasatu zituen aitari esateko, baina arazo barik konpondu zen gauza.

1.007. Oiloari igeri erakusten (ARA-117/033)

Oilo bati igerian erakusten ibili ziren bera eta laguna, eta hurrengo egunean akabatuta agertu zen. Etxekoandrearen haserrea. Angel ondo libratu zen hartatik.

1.008. Txori harrapatzen eta "eskiatzen" neguan (ARA-117/035)

Galbaheaz eta zepoaz harrapatzen zituzten txoriak neguan, inguruak zuritzen zirenean. Beti busti-busti eginda ibiltzen ziren. Ohol handi baten gainean ere irristatzen ziren zelaian behera.

1.009. Abadea igerilari biluziak uretatik ateratzera (ARA-117/036)

Erreka zen euren garbitzeko lekua, "dutxa", etxean ez baitzegoen ur korronterik. Bainatu biluzik egiten ziren errekan. Abadea etorri zitzaien behin, eta denak "takarran" kanpora; oinutsik, galtzadaren gainetik ihes egin zuten oinak urratuta.

1.010. Abadeari bidea zabaltzen elurretan (ARA-117/037)

Elur handia zegoenean eta Uribarriko abadeak Arriolara joan behar, bidea irekitzen auzo bietako mutilek.

1.011. Txorromorroka neska eta mutil (ARA-117/038)

Angeli gogora etortzen zaio zelan ibiltzen ziren neska eta mutil txorromorroka. Neskek ez zuten kulerorik erabiliko, eta bata bestearen gainean, eta abadea begira egoten zen, eta barrez... Sinestezina egiten zaio.

1.012. Soroko lanetan jota su (ARA-118/004)

Eguraldi txarra egiten zuenean joaten zen bakarrik eskolara. Ahizpa, oster, beti. Erromeriara ere askotan ezin joan, belar lanak egin behar izaten zituelako. Eta ez bere kasua bakarrik; goldan egin behar izaten zuen auzoko neska baten gorabeherak kontatzen ditu.

1.013. Aitak ez zion utzi mutil batekin ibiltzen (ARA-118/009)

Auzoko mutil batek pretenditzen zuen, baina aita enteratu eta haserre egin zion Rufinari. Aitak ez zion uzten mutil harekin ibiltzen. Senar ohia dantzan zebilela dantza-eske etorri zitzaion behin eta orduan hasi ziren bikote harremana.

1.014. Errotabarritik Dukienara ezkontzaz (ARA-118/010)

24 urterekin ezkondu zen. Errotabarritik Azkoagako Dukienara etorri zen bizitzen. Egunero begiratzen zion urrunetik bere jaiotetxeari.

1.015. Ezteguak (ARA-118/013)

Eguenean ezkondu, Donostiara bidaian joan eta zapatuan etxera. Donostian soldadu egonda zegoen senarra. Bi bazkari eman ohi ziren orduan ezteguetan, lehena lehengusu-lehengusinei eta bigarrena bi etxeetakoei.

1.016. Gasteizera ezkontz-jantzia eroatera (ARA-118/015)

Gasteizen egindako trajea eraman zuen ezkontzan. Hiriburura zihoan lehen aldia zen. Hainbat arropa erosi zuten egun hartan. Oso pozik ibili zen. Aitak setazko soinekoa oparitu zion neska gaztetxo zela erromeria egunez gurdia kargatzen laguntzeagatik.

1.017. Haize motak (ARA-118/017)

Aitak eta aitagarrebak asko zekiten haizeez. Mondragoetik etortzen dena "antxigarra", Anbototik etortzen da "ifarra", San Kristobaletik etortzen dena "amillena", Untzillatik etortzen dena "hego-haizea", "hortik goitik" etortzen dena "gailegoa". Ifarrak hodeia ekartzen ei du. Udan txingorra, eta harriabarra dakar, neguan elurra. Etxeko logela bakoitzean zein haize motak jotzen duen.

1.018. Haizeak bost ira-gurdi itzuli (ARA-118/019)

Albinara joaten zen iratan. Bera joaten zen idiekin, eta arratsaldean buelta etxera. Beti gurdia itzuliko zitzaion beldurrez. Urte baten haizeak bost gurdi itzuli zituen bata bestearen atzetik zetozenak Krutzeta gainean.

1.019. Zapoa ez da txarra (ARA-118/020)

Gertatu zen inoiz sugeak ardiari errapetik esnea edatea, basoan batez ere. Behin sugea ikusi zuten euren larrainera etortzen. Aitak makila batez hil zuen. Sugeari zapoa irten zitzaion ahotik. Zapoa ez ei da txarra.

1.020. Biberoiakin hazi umeak (ARA-118/023)

Erditu berriei ez zitzaien jaten ematen bi egunez, salda edo kafesne apur bat izan ezik. Rufinaren titiak ez zuen balio, eta biberoiaz hazi zituzten umeak.

1.021. Amamak masajeak ematen zituen (ARA-118/026)

Masajeak ematen zituen amamak. Jende asko etortzen zitzaion. Ez zuen kobratzen.

1.022. Fede handiko gizona aitagarreba (ARA-118/027)

Aitagarreba fede handiko gizona zen, soroan ere erreztatzen egoten ei zen. Bi edo hiru arrosario erreztatzen zituen egunean. Ama ez zen hain erlijiozalea. Ez zuen astirik hainbeste errezurako.

1.023. Lehenago errespetu handiagoa orain baino (ARA-118/031)

Lehenago bizimodua ez du ondo ikusten eta oraingoa ere ez. Orain elkar ikusi ezinda gabiltza. Lehen errespetu handiagoa zegoen gurasoendako eta denendako. Ezertaz ez ziren enteratzen, eta beharbada hori ez da txarra. Atzetik datozen gazteek asko sufritu behar dutela iruditzen zaio

1.024. Aita eta ama kantariak (ARA-125/003)

Gurasoak oso kontulariak ziren. Domeka gauetan sutondoan jarri eta kantuan egiten zuten, batez ere bertsoak. Txirrita, santuen abestiak...

1.025. Ostarkuaren azpitik pasatuz gero sexuz aldatu (ARA-125/005)

"Arco iris"aren (ostarkua) azpitik igaroz gero sexuz aldatzen dela dio esaerak. Beti errekatik errekarera doa ostarkua.

1.026. "Bilin-bolon" (ARA-125/007)

"Bilin-bolon" kantua. Aitak hanka artean hartu eta kantatzen ei zuen.

1.027. Azken juizioaren beldurrez (ARA-125/009)

Azken juizioarekin izututa bizi ziren. Josafateko zelaian denok agertuko ei gara jainkoari gure ekintzen berri ematen. Misioetan esaten zieten zigorra (sua) ez zela amaitzen eternitate osoan. Mehatxua zegoen beti elizaren aldetik. Maitasuna ez zen aipatu ere egiten.

1.028. Gureian jende inportantea (ARA-125/011)

Gureian jende inportantea bizi ei zen. Esaterako, Ibarguengo ugazaba etxeetako testamentuak konpontzen ibiltzen zen.

1.029. Torraldeko jauntxoa Aramaioren jabea (ARA-125/012)

Torraldeko jauntxoak Aramaio mendean zuen. Ezkontzen ziren neskek berarekin egin behar zuten lehenengo loa. Bertak, Ibabeko alabak, kakaz igurtzi zuen bere gorputza eta horrela ebitatu zuen jauntxoarekin oheratzea.

1.030. Dontxoren istorioa (ARA-125/014)

Dontxo, nobioa zuen Ibarguengo neska, desagertu egin zen bat-batean. Nobioa Ameriketara joan zen. Aitak bahituta izan zuen luzaroan alaba. Desitxuratuta eta zoratuta agertu ei zen. Oso ezaguna zen istorio hori Aramaion. Garai ezberdineko istorioak izango ei dira Torraldekoa eta Ibarguengoa.

1.031. Laminak Albinan (ARA-125/016)

Anbotoko Señora ere beldurra sartzeko erabiltzen zuten. Gaez irteten omen zen. Albinan "lamaiñak" (laminak) irteten omen zuten. Politak ei ziren, paita-hankadunak.

1.032. Katu beltza goruaz jo (ARA-125/017)

Andreak irutera joaten ziren etxeetara gaez. Behin katu beltz bat sartu ei zen tximiniatik eta goruaz jo zuten. Hurrengo egunean aldameneko gizona burua markatuta agertu zen. Eurek egin zuten baserrian azkenetariko linu-lana Aramaion.

1.033. Txikolabandaka, kui-kuike eta mantzanila batzen (ARA-125/019)

Asko ibiltzen ziren txikola.bandaka jolasean, elkar harrapatzen. Kui-kuike ere bai. Mantzanila batzen ere joaten ziren, Arangioraino ere bai. Kartetan ere egiten zuten.

1.034. Uribarriko nesken plana domeketan (ARA-125/020)

Uribarrin bezperak entzun, tertuliatxoa egin, herrira jaitsi, denda baten egonaldia egin eta soinua hasten zenean, dantzara. Gero ilunkeran etxera oinez. Negu partean ilunduta egoten zen.

1.035. Arima galduen beldurra (ARA-125/021)

Arima galduen beldurra barruraino sartuta zuten. San Bartolome ondotik pasatzerakoan beldurrez beti. Eibarren suzko armak egiten hasi zirenean amaitu ei ziren horrelako kontuak.

1.036. 'Ancha Vida', umeak izutzeko (ARA-125/023)

Bazen herrian Ancha Vida ezizenekoa, gorpuzkera bereziko gizona, umeak izutzeko erabiltzen zena: "Antxabida etorriko da ez badozu jaten". Bestalde, bazen indartsu bat, Timoteo, indarreko lanak egiteko deitzen zitzaiona. Gizon ona, nahiz eta zakarkeria batzuk egin.

1.037. Marixekako elezaharra (ARA-125/026)

Marixekako ermitak badu bere leienda. Ama Birjina karromato batean zihoala, lapurrak irten eta lepoan ebakia egin zion. Ahotsa heldu zitzaion Uribarriko abadeari: "Marixekara aguro". Joan zen eta salbatu egin zuen. Horregatik ei dauka Ama Birjinak lepoa okertuta.

1.038. Ama Birjina auzoz auzo ponpa handiz (ARA-125/028)

Estibalizko Ama Birjina auzoz auzo ibiltzen zen. Auzoz aldatzeko prestakuntza eta zeremonia handiak egiten ziren. Lorekin arkuak eta guzti. Asentzio Egunez. Behin gogoratzen du krabelinaz egindako kapaz etorri zela. Herri guztiak parte hartzen zuen bai prestakuntzetan bai prozesioan.

1.039. Uribarriko elizako irudi nagusiak eta kanpandorrearen leienda (ARA-125/029)

Arrosarioko Ama Birjina dago Uribarrin. Jesusen Bihotzak egundoko indarra izan zuen garai batean. Gero Judit eta Holofernes. San Esteban, San Joan eta Santa Ana. Inmakulada ere bai. Uribarriko kanpandorrea haizeak okertu zuen. Leienda bat ere badu.

1.040. Uholde handia (ARA-125/032)

Gogoan du uholde handia, "uraundixak". Plazan metro eta erdiko ura egongo zen. Harizko matazak ateratzen zituen urak biltegi batetik.

1.041. Arto-maluta somierrak egiteko (ARA-125/035)

Neguan arto-malutak apartatzen ziren somierrak egiteko. Ez ziren oso erosoak somier haiek. Bi lagunek egiten zuten ohe bakoitzean.

1.042. "Ipurtotzera bialduko zaut kriadu" (ARA-125/038)

Gurasoak seme-alabekin haserretzen zirenean, Ipurtotzera eta Atxinera "bidaltzen" zituzten. Aramaioko leku urrunak. "Abarraz emongotsut" zen beste mehatxu bat.

1.043. Jauntxoak eskola bako suina nahi (ARA-125/041)

Seme-alabei eskola eman nahi izan zien aita. Eskolan ikusten zuen etorkizuna. Ibabetarrak jauntxoak ziren eta suinak eskola bakoak nahi izaten zituzten, menpean eduki ahal izateko.

1.044. Zergatik geratu zen txepetxa txiki (ARA-125/044)

Txepetxak zirina egin zion Ama Birjinari; papargorriak argia egin eta buztanikarak garbitu. Txepetxa txiki geratu zen, zigor gisa.

1.045. Eskolaz oroitzapen ona (ARA-127/003)

Oroitzapen ona du eskolaz. Eskola denboran "mejorau" egiten zela esaten zion amak. Gogoan du behin eskolan negar egin zuela.

1.046. "Libiri ta Laboro" (ARA-127/005)

"Libiri ta Laboro" kantua, ganaduak zaintzen zebiltzala elkarri burlaz kantatzen zena.

1.047. "Txutxurrutxu mañe" (ARA-127/006)

"Txutxurrutxu mañe/ nun dau aittajaune" ume kantu eta jolasa.

1.048. "Atxia motxia" (ARA-127/007)

"Atxia motxia haur-kantua eta jolasa". Jolasa nola den kontatzen du.

1.049. "Bin-bon belaixo" (ARA-127/009)

"Bin-bon belaixo" haur kanta. Lehenengo bertsio bat eman du eta gero beste bat, osatuagoa. Gurdiaren pertika puntan jarri eta gora eta behera ibiltzerakoan ere kantatzen zuten kantu honen parte bat.

1.050. Purgatorioko arimak bidegurutzeetan (ARA-127/014)

Goizean goiz tratuarekin-eta joaten zirenek esaten zuten bidegurutzeetan erre-usaina egoten zela. Purgatorioko arimak ei ziren. Mutil bati purgatorioko arima bat irten zitzaion haren alde meza bat ateratzeko eskatuz. Erantzun zion herriko apaizak ez zuela mezarik ematen diru barik.

1.051. Gureiako Bertaren istorioa (ARA-127/015)

Gureiako legenda kontatzen du. Hango jauntxoek Berta izeneko etxeko neska bahitu eta gorde egin zuten, mutil pobre batekin ezkondu ez zedin. Mutila Ameriketara joan zen. Han diruak egin eta neska berreskuratu nahi izan zuen. Ijito batek ba ei zekien non zegoen, baina engainatu egin zuen eta diru guztiak kendu zizkion. Errege Katolikoen garaian amaitu ei ziren jauntxoek gehiegikeriak.

1.052. Jokoan baserria eta andrea jokatu (ARA-127/017)

Gureiako baserriak denak omen ziren jabetzakoak. Gero saldu eta kalera etorri ei ziren batzuk. Esaten dutenez, jokoan baserria eta andrea jokatzen zutenak ere baziren.

1.053. Hontzaren ipuina (ARA-127/019)

Hontza luma barik ei zegoen. Beste txoriak errukitu eta lumak eman zizkioten. Hain dotore aurkitu zuen bere burua ze ez ziela besteei agur ere egiten. Hori dela eta besteak haserretu eta gauez irtetera behartu zuten.

1.054. Palanganan ito zen gizona (ARA-127/020)

Ba ei zen gizon bat uretara arrimatu ere egiten ez zena. Errekatik urrun beti. Azkenean palanganan ito ei zen.

1.055. Bizkaiko txerriaren bertsoak (ARA-127/022)

Aitonak Balentin Berriotxoaren kantua kantatzen zuen. Baita Bizkaiko txerriaren bertsoak. "Bizkaian egin dute prueba berria / kutxillorik gabe hiltzeko txerria..." Hainbat zati kantatzen du eta gaia azaltzen.

1.056. Balentin Berriotxoaren bertsoak (ARA-127/023)

Balentin Berriotxoaren bertsoak: "Ocañatik Manilaraino..." Bertsoetan martirizatutako Espainiako beste pertsonai batzuk ere agertzen ziren, tartea Jerónimo Hermosilla.

1.057. Uribarriko kanpandorrea (ARA-127/026)

Uribarriko kanpandorrea eraikitzen zihardutela, Mendakuko semea igo ei zen dorrera eta aitari galdetu: "zer zulotan sartuko dot?". Zulo bakarra zegoen eta jausi egin zen. Oso istorio ezaguna da.

1.058. Gatza sutara bota esneak gainezka egiten zuenean (ARA-127/027)

Laratzean zintzilik egoten zen ontzi batean egosten zen esnea. Esneak gainezka egiten bazuen, gatzontzira joan eta sutara botatzen zen gatza. Hori zen ohitura. Behiei erroibena ("mamitis") egin ez zekien ei zen.

1.059. Laminak Errotaberri inguruan (ARA-127/029)

Errotaberri inguruan muna gaanean emakume oso dotoreak agertzen zitzaizkion mutil bati. Ahate-hankak zituzten.

1.060. Lizarraren azpian sugerik ez (ARA-127/031)

Lekuona apaizaren ilobak kontatu zien lizar-arbolaren azpian ez dela sugerik egoten, arbola sakratua delako.

1.061. Hildakoei kaxan janaria ipini bidaiarako (ARA-127/032)

Antzina hildakoak baratzean lurperatzen zituzten. Gero kanposantuak ipini zituzten, hilerriak. Eta entzunda du hildako umeei hilkutxan jateko gauzak ipintzen zizkietela.

1.062. Katua tximiniatik behera gorulariengana (ARA-127/035)

Amak goruetan egiten zuen. Bera, ahalegindu arren, ezin asmatu. Emakumeak gauez elkartzen ei ziren goruetan egiteko. Urrun ere joaten ziren. Ipuin batek dio katua sartzen zela tximiniatik behera. Gizon bat ei zebilen goruetan. Katuak galdetu dio: "Gizona eta goruetan?". Hartu du makila gizonak, jo du katua, "Katue ta barriketan?". Hurrengo egunean auzoko andre bat musua apurtuta agertu zen .

1.063. Kuadrillan, gehien-gehienetan, euskaraz (ARA-133/004)

Andere eta Manexen kuadrillan gai guztiei buruz egiten da euskaraz. Gaztelerarako joera pertsona jakinek dute, izatekotan, baina hizketagaiak ez dira, normalean, hizkuntza batean edo bestean aritzeko motibo izaten.

1.064. Buatxabal! (ARA-133/006)

Esamolde dezente gazteleraz esateko joera dute kuadrillan, eta hori oso hedatuta dagoen joera dela uste dute, ahozko jardunari estuki lotua dagoena, gainera.

1.065. "Ziriñe", "artaburua", "zapaburua" (ARA-133/007)

Irainak esateko garaian, esamoldeekin bezalaxe, oso barneratuak dituzte gaztelerazko hitzak, baina euskarazko zenbait irain ere natural asko erabiltzen dituzte Manexek eta Anderek.

1.066. mutiko "zaperue" eta neskatilla "puxikie" (ARA-133/008)

Irain kontuei tiraka hasi eta Manexek gogora ekarri "mutiko zipperue", aitonak esan ohi zuena. "Neskatilla puxikie" ere entzuna du hor nonbait, eta bota bezain laster, Anderek esan du berari ere ezaguna ziola. Hala ere, galtze bidean ikusten dituzte halako irainak.

1.067. Gurasoen kezka hizkuntzaren transmisioarekin (ARA-133/009)

Manexek galdetu izan dio amari ea eurek zein irain eta molde hortako hitz erabiltzen zituzten, bai eta amak gustura asko erantzun ere, euskarazko hainbat hitz galtzen ari direla ikusita.

1.068. Txisteak gazteleraz edo gipuzkeraz (ARA-133/010)

Euren inguruan, eta adinkideei dagokienean, beti ere, txisteak gazteleraz kontatzeko ohitura dago. Besteen barrea probokatzeko gipuzkera imitatze joera aipatzen dute. Eta txiste eta euskalkien jiran, anekdota bana kontatzen dute Manexek eta Anderek.

1.069. Inguruko herrietako hizkera txantxarako gai (ARA-133/011)

Otxandioarren "jun-jun", Arratsatekoen "kabiru", oñatiarren "fan" eta bergararren azentua aipatzen dituzte, besteak beste, eurentzat kurioso eta irrigarri diren kontuen artean.

1.070. Irrati eta telebista saioetako hizkera (ARA-133/012)

Irratian esatari zenbaitengan ahalegina sumatzen dute euskara batuari nork bere euskalkiaren bitartez "bizi" gehiago emateko. Itziar Alduntzin edo Xabier Larrazabal aipatzen dituzte.

1.071. "Dragoi Bola" marrazki bizidunetako itzulpenak (ARA-133/014)

"Dragoi Bola" marrazki bizidunetako itzulpen lanetan Xabier Amurizak eta bestek egindako lana goraipatzen dute.

1.072. Aitak alabei hika egin ez izanaren pena (ARA-133/015)

Andereri eta aitzari ez zaizkie etxean hika zuzendu izan; aita ez, bederen, tradizioak hala aginduta. Eta gaur egun, bai alabek eta bai aitak dute horren pena.

1.073. Manexek bere kabuz ikasi du mutilekin "hika" mintzatzen (ARA-133/016)

Manexek eta ingurukoek ez zuten txikitan sekula hika molderik erabili, hori "hiztun zaharren" kontua baitzen. Gerora ikasi zuen Manexek hika mintzatzen, bere kabuz, eta gaur egun erabiltzen du tratamendu hori, baina oso gertuko jende kontatuarekin, eta gainera, mutilekin soilik (nokarik ez, beraz). Hika mintzatzeko joerarik ez dute sumatzen inguruko gazte jendearengan, ez Manexek eta ezta Anderek ere, eta galbidean doan tratamendua dela diote.

1.074. "Hika" mintzatzen ikasteko baldintzei eta eginahalari buruz (ARA-133/017)

Manexek esanetan, zailagoa da une honetan "hika" norekin jardun topatzea, tratamenduaren beraren nondik norakoak barneratu eta praktikan jartzea baino.

1.075. "Hika" jarduteari buruzko zenbait kontu eta adibide (ARA-133/018)

"Hika" mintzatzen hasi zenean zuzendu behar izan zituen "akatsez" ari da Manex.

1.076. "Hikaren" balioaz (ARA-133/019)

Hitanoa edo hiketa gaur egun baliagarria den galdetuta, zalantza egiten du Anderek. Baina berak betidanik entzun izan du hika etxean, eta zehatzago, noka, emakumeen artekoa, alegia, eta pena ematen dio herrian tratamendu horri ez eustea.

1.077. Hitanoa eskolan (ARA-133/020)

Hitanoaren transmisioa eskolatik bideratzea nola ikusiko luketen galdetuta, Aramoio bertako hizkera eta formak erakutsiko lituzkeen figura topatzeko zailtasuna aipatzen dute. Hala ere, hurrengo belaunaldiei transmititzekotan, bide bakarra hori dela diote.

1.078. Kafe garaia beti gazteleraz zen garaia (ARA-133/024)

Andere Gasteizen lanean hasi zenean bilera guztiak gazteleraz izaten ziren, eta baita atsedendietako kafearen bueltako jarduna ere. Atsedeen momentu horietan euskaraz aritzeko ohitura nagusitu da egun, eta aurrerapauso handitzat jotzen du hori Anderek.

1.079. hizkuntzen arteko "gatazka" modu "naturalean" bizi (ARA-133/025)

Euskara teknikari da Manex, eta bere beharrean gazteleraz izaten dira atsedeen uneak, jendeak euskaraz jakinagatik ere. Halakoetan sortzen diren egoerei buruz dihardu.

1.080. Herriko parkeko giroa euskalduntzen saiatzen (ARA-133/026)

Euskaraz jakin eta gazteleraz egiteko hautua egiten edo joera duen jendeari euskaraz egitea zaila egiten zaio, baina horretan saiatzen da batzuetan Andere, eta egoera bortxatzen ari den sententzia izaten du.

1.081. Euskara-gaztelera "gatazkak" (ARA-133/027)

Hizkuntza "gatazkak" ematen direnetan, joera ote dugu hiztunok hurkoaren larrian jartzeko?

1.082. Hizkuntza gatazken gaineko kezka gizartean (ARA-133/028)

Aspaldikoak dira hizkuntza ezberdinetan mintzatzen diren hiztunen arteko gatazkak Euskal Herrian; zenbaten kezka da, ordea? Gaiari buruzko zenbait

hausnarketa, eta gizartearen gehiengoak aferari buruz dituen irudi "sinple", "orokortu" eta "okerrak".

1.083. Bertsolaritza, gazteak, hizkuntza eta aisia erdal guneetan (ARA-133/030)

Bertso eskolek balio erantsi handia dute erdal guneetan: bertsotan ezin dela egin, euskaraz ez bada.

1.084. Bertsotan hastea Araba ezagutzeko modua izan zen (ARA-133/032)

15 urte inguru zituztela hasi ziren bertso eskolan Andere eta Manex, Oihane Perea bertsolaria irakasle zutela, eta bertsogintzak Araba ezagutzeko aukera eman zien lehenik, eta Euskal Herria ezagutzekoa gero.

1.085. Bertsolari izan gabe bizi ahalko ez zenukeena (ARA-133/033)

Argi dute biek, bertsolari izan ez balira, ezagutzeko parada izan duten hainbat errealitate berri ez luketela izango; ez behintzat, lehenengo pertsonan.

1.086. Euskalkien inguruko mitoak (ARA-133/035)

Euskalkiagatik elkar ulertu ezinik sekula ibili ote diren galdetuta, kasuren bat edo beste gerta litekeela diote, baina bi aldeetatik borondatea jarritz gero, arazorik ez duela zertan izan, diote. Umoretik amaitu dute hari muturrari tiraka, bizkaitar eta giputzen arteko kontuekin irriz.

1.087. Hizkerak eta joerak komunikabideetan (ARA-133/037)

Manexen iritziz, telebistako informatiboetako esatariek etxean jasotako hizkeraren printzez hornitu beharko lukete beren jarduna, hizketa apur bat biziagotzeko. Bestalde, zentzugabea deritzo batuaren aldekoen eta euskalkien aldekoen artean egun ematen den hainbat hika-mikari, eta euskalki jakin baten jabe ez den euskaldun gero eta gehiago dela gogorarazten du. Aitortzen du, bestalde, berak ahaleginak sumatu dituela azken urtetan, telebistako hizkera biziagotzeari dagokionean.

1.088. Granadako Alpujarrako emakumea eta Gasteizko medikua (ARA-133/040)

Hizkuntza kontuei eta hauen bueltan sortzen diren gatazkatoei buruz etxean hitz egiten duten galdetu, eta baietz diote. Anderek oporretan gertatutako kasua kontatzen du. Manexek, ildo beretik, euren duela hogeitau urte baino gehiago medikuarekin gertatutakoa.

1.089. Osakidetzako langilearena (ARA-133/041)

LABek oposaketetan Hizkuntza Eskakizuna zergatik bultzatzen duen ulertzen ez zuen osakidetzako langilearena kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com